# Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta haren mendeko sozietateak (Talde Bateratua)

Ikuskaritza-txostena,
Urteko bateratu kontuak 2017ko abenduaren 31n
eta 2017 urtealdiko Kudeaketa-txostena

*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea. Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

# *Urteko kontu bateratuei buruzko auditoria-txostena, auditore independente batek emana*

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito Entitate bazkideentzat:

## *Urteko kontu bateratuei buruzko txostena*

### *Iritzia*

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (Entitate nagusia) entitateren eta haren mendeko sozietateen (Taldea) urteko kontu bateratuak auditatu ditugu, honako hauek barne: 2017ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, onartutako sarreren eta gastuen egoera-orria, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orria, eskudiru-fluxuen egoera-orria eta txostena, guztiak ere bateratuak eta egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu bateratuek aditzera ematen dute, beren alderdi adierazgarri guztietan, 2017ko abenduaren 31n Taldearen ondarearen benetako egoera eta finantza-egoera zein den, baita emaitza eta eskudiru-fluxuen irudia eta egoera zein den ere, guztiak ere bateratuta egonik egun horretan amaitutako ekitaldiari dagokionez, Europar Batasunak emandako Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak (FINA-EB) eta Espainian aplikatzekoak diren finantza-informazioko arau-esparruko gainerako xedapenak betez.

### *Iritziaren oinarria*

Gure auditoria Espainian kontu-auditorien jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horiei jarraikiz dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriari dagokionez* atalean.

Taldetik independenteak gara, eta beraz , Espainian urteko kontu bateratuen gure auditoriari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak betetzen ditugu, independentzia-betekizunak barne, kontu-auditorien jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, kontu-auditoriaren zerbitzuaz bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini, eta araudi erregulatzaile horretan ezarritakoa betez beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik ere ez da gertatu.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure iritzia bermatzeko.

### *Auditoriaren funtsezko gaiak*

Auditoriaren funtsezko gaiak dira, gure judizio profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontu bateratuei buruz egin dugun auditorian adierazgarrien gertatu direnak. Urteko kontu bateratu guztien gure auditoriaren testuinguruan eta haiei buruz dugun iritzia osatzerakoan aztertu dira gai horiek guztiak, eta beraz, gai horiei buruz uste duguna ez dugu aparteko atal batean bereizi.

| Auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
|---|---|
| *Kreditu-zorroaren narriaduragatiko balio-zuzenketak* | |

**Auditoriaren funtsezko gaiak**

*Kreditu-zorroaren narriaduragatiko balio-zuzenketak*

Narriatutako kreditu-esposizioak identifikatzea eta kreditu-zorroaren balioa narriatzeagatiko balio-zuzenketak zehaztea estimazio konplexuenetako eta garrantzitsuenetako batzuk dira erantsitako urteko kontu bateratuak prestatzean.

Taldeak bere kreditu-zorroaren balio-narriaduragatiko hornidurak aitortzen ditu narriadura-ebidentzia objektiboa denean hasierako aitorpenaren ondoren izandako gertaera baten edo gehiagoren ondorioz, eta haiek eraginik badute haren eskudiru-fluxu estimatuetan edo, hala badagokio, eragiketa bakoitzaren bermeetan.

Kreditu-arriskuagatiko narriaduraren ebaluazioa eredu jakin batzuetan oinarritzen da, hain zuzen ere, narriaduragatiko galerak zehazteko judizio-osagai handia eskatzen duten ereduetan, honako elementu hauek aintzat hartuz:

- Kreditu-zorroak kreditu-arriskuko profilaren arabera sailkatzea.
- Zaintza bereziko edo narriatutako aktiboak identifikatu eta sailkatzea.
- Hornidurretan eragina duten hipotesiak erabiltzea, eta kreditudunek eskudiru-fluxuen maila jakin bat lortzeari dagokionez estimazioak egitea, narriadura banan-banan estimatzen delarik, eskuragarri dagoen azken informazioaren arabera.
- Emandako kreditu-eragiketei lotutako benetako bermeen balio bihurgarria.

Testuinguru honetan, Taldeak darabiltzan ereduei jarraikiz, Espainiako banku-sektoreko entitateen batez besteko portaera eransten duten estatistika-eredu eta -datuak hartzen ditu aintzat, eta, horri esker, kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboak estima ditzake, kalkulu-metodologia espezifiko osagarrien laguntzarekin hornidura indibidualizatuen estimaziorako.

**Auditorian nola aztertu diren**

Kreditu-zorroaren estimazioari buruz egin dugun lana barne-kontroleko esparru orokorraren azterketa, ebaluazio eta egiaztapenean zentratu da batetik, eta kolektiboki zein indibidualki estimatutako hornidurei buruzko xehetasun-probak egitean bestetik.

Barne-kontroleko sistemari dagokionez besteak beste, honako prozedura hauek eraman ditugu aurrera:

- Aplikatutako kalkulu-metodologiak ulertu eta berrikustea.
- Taldeko Gobernu Organoek onartutako politika eta prozedurak arau-eskakizun aplikagarrietara egokitzen direla egiaztatzea.
- Hornidura-kalkuluaren euskarri diren informazio-sistemen segurtasun-inguruneari dagozkion alderdi nagusiak egiaztatzea.
- Zaintza berezikotzat edo narriatutzat jo litezkeen arriskuen identifikaziorako Taldeak egindako jarraipen-alerten eta -arriskuen aldian behingo ebaluazioa berrikustea.
- Kontabilitate-sailkapenaren jarraipenerako eta narriaduraren erregistrorako kreditudunen espedienteak aldian behin berrikusteko prozesua, aplikatzen den kasuetan, ongi gauzatzen dela ebaluatzea.

Horrez gain, honako xehetasun-proba hauek egin ditugu:

- Hornidurak kalkulatzeko datu-baseen egiaztapen selektiboak, narriaduragatiko hornidura bereizten duten ezaugarri nagusiak (eragiketaren xedea, maileguaren sailkapena, segmentazioa, ez ordaintzearen data) kontrastatuz euskarri-dokumentazioaren laguntzarekin.
- Kreditu-arriskuagatiko hornidura kolektiboen kalkuluaren berregikaritzea.
- Eskudiru-fluxuen deskontu-ereduak, hornidurak azterketa indibidualizatuaren arabera kalkulatzeko egokiak ote diren ebaluatzea.
- Hainbat espediente hautatu eta berrikustea, ongi sailkatuta eta erregistratuta ote dauden ebaluatzeko, eta, hala badagokio, dagokion narriadura zehazteko.

| Kontu-auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
|---|---|
| Gainera, Taldeak benetako berme edo berme pertsonal jakin batzuk hartzen ditu aintzat, kreditu-zorroaren balio-narriaduragatiko balio-zuzenketak zehazteko eraginkorrak diren heinean.<br><br>Ikus erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 13.h), 26. eta 63. oharrak. | Deskribatutako prozeduren ondorioz agerian geratu denez, kreditu-aktiboen narriadura kalkulatzeko erabilitako metodologiak egokiak dira, eta gure prozeduren ondorioz emaitzetan alderik izan bada Zuzendaritzak egindako kalkuluen aldean, alde hori arrazoizko maila batean egon da betiere, erantsitako urteko kontu bateratuetan bildutako zenbatekoari dagokionez. |
| *Zerga-, lege- eta arau-auziengatiko hornidurak* | |
| Prozedura administratiboetan eta judizialetan edo lege-, zerga- eta arau-izaerako gaiekin zerikusia duten beste edozein prozeduretan murgilduta dago Entitatea, nagusiki bere jardueraren ohiko bilakaeraren ondorioz .<br><br>Testuinguru horretan, badira beste hainbat egoera, prozedura judizialaren eraginpean ez badaude ere, horniduren erregistroa eskatzen dutenak Zuzendaritzaren ebaluazioari jarraikiz, hala nola auzitegiek lurzoru-klausulak deuseztatuko balituzte eta kontsumitzaileak lurzoru-klausulen alorrean babesteko 1/2017 Errege Lege Dekretua aplikatuko balitz itzuli beharko liratekeen kopuruen inpaktuekin lotutakoak eta produktu jakin batzuk merkaturatzeagatik bezeroak konpentsatzeko helburua dutenak.<br><br>Prozedura horiek konplexuak direnez eta denbora luzean garatzen direnez, gai horiek oso konplexuak dira, eta nola bilakatuko diren eta/edo behin betiko zenbatekoa zein izango den ziur jakiterik ez dago. Horren ondorioz, auziengatiko horniduren estimazioa da estimazio-osagai handiena dutenetariko bat, erantsitako urteko kontu bateratuetan izan dezakeen inpaktuari dagokionez. | Irekitako auzi eta prozesuak identifikatu eta ebaluatzeko Taldeak ezarritako prozesua eta Taldeak hornidurak erregistratzeko prozesua nola ulertzen dugun aztertu eta dokumentatu dugu, gure prozedurak honako hauetan zentratuz:<br><br>• Erreklamazio eta auziak kalifikatzeko politika ulertzea eta hornidura esleitzea, hala badagokio.<br><br>• Indarrean dauden demanda, erreklamazio eta auzien tipologia nagusiak aztertzea.<br><br>• Taldearekin dihardduten abokatu eta aholkularien berrespen-gutunak lortzea, erreklamazio edo auzietatik espero zuten emaitzaren ebaluazioa kontrastatzeko, informazio osoa jasotzeko, hornidurak behar bezala erregistratu direla egiaztatzeko eta bete gabe gera zitezkeen pasiboak identifikatzeko.<br><br>• Gure barne-adituen laguntzarekin, zerga-prozedura adierazgarrienetatik espero dugun emaitzaren estimazioa arrazoizkoa den edo ez aztertzea.<br><br>• Ikuskatzeko irekitako aldi guztietarako zerga-betebeharrak betetzearen harira gerta litezkeenak ebaluatzea.<br><br>• Kontabilitate-horniduren erregistroa, estimazioa eta mugimendua aztertzea. |

| Auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
|---|---|
| Taldeak kontzeptu horiengatiko hornidura erregistratu du, eta beraz, lotutako despoltsapena posibletzat jo du egindako estimazioen arabera, kalkulu-prozedura sendoak erabiliz, arrakasta-esperientziarekin, lege-azterketarekin eta betetzen dituzten betebeharrei dagozkien ziurgabetasun-baldintzekin.<br><br>Ikus erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 38. oharra. | Bereziki bezeroei konpentsatzeko horniduretarako eta lurzoru-klausulekin lotutako kontingentzien ondorioak estaltzeko, gure prozedurak honako hauetan zentratu ziren:<br><br>• Kontrol-ingurunea ulertzea, kalkuluari lotutako kontrolak ebaluatu eta egiaztatzea eta lotutako hornidura berrikustea.<br><br>• Taldeak erabilitako metodologia eta hipotesia ebaluatzea, aplikatzekoa den kontabilitate-esparruarekin bat datozela egiaztatzeko.<br><br>• Mantendu beharreko hornidurak erabakitzeko datu historikoak erabili direla egiaztatzea.<br><br>• Hautatutako hainbat eskari eta erreklamazio aztertzea, hornidurak kalkulatzeko kasuak tipologiaren arabera ongi elkartu direla egiaztatuz.<br><br>• Lurzoru-klausuladun hainbat eragiketa hautatu aztertzea, horniduraren ezaugarri nagusien trazabilitatea egiaztatuz Taldearen kalkuluei jarraikiz.<br><br>• Barne- eta kanpo-abokatuak berrestea irekitako prozesu guztiei dagokienez.<br><br>Gure lanaren emaitzak agerian uzten du erantsitako urteko kontu bateratuetan bildutako zerga-, lege- eta arau-auziengatiko hornidurak maila egoki batean daudela, haiek ebaluatu eta estimatzeko prozesuan arrazoizko judizioak aplikatu izanaren ondorioz, Taldeko Zuzendaritzak eta/edo lege- eta zerga-aholkulariek identifikatutako eta jakinarazitako erreklamazio, auzi eta gainerako kontingentziak kontuan hartuz. |
| *Aseguru-kontratuengatiko pasiboen balioespena*<br><br>Taldeak bizi-aseguruen jardueran dihardu, eta arriskuko bizi-aseguruak, aurrezteko bizi-aseguruak eta unit linked alorreko aseguruak merkaturatzen ditu. Bizi-arlokoak ez diren aseguruen jardueran ere dihardu, nagusiki automobiletako, erantzukizun zibileko eta arrisku anitzeko aseguruetan, etxekoen adarrean batez ere. | Bizi-aseguruen eta bizi-arlokoak ez direnen kontratuengatiko pasiboak estimatu eta erregistratzeko prozesua ulertzeko saioa egin dugu, alor horri lotutako barne-kontrolaren —informazio-sistema nagusien kontrolak barne— diseinua eta eraginkortasuna ebaluatzea barne. Gure prozedurak honako hauetan zentratu dira, besteak beste: |

| Auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
|---|---|
| Taldeak kontratu horiei lotutako pasiboak erregistratu ditu aplikatzekoa den erregulazio-araudiari jarraikiz, non, zenbaitetan, nolabaiteko judizio-osagaiak eta Taldeko zuzendaritzaren estimazioak biltzen dituen jaulkitako primen sortu gabeko zenbatekoak, hornidura matematikoa eta prestazioetarako hornidurak islatzeko.<br><br>Arriskuko bizi-aseguruei dagokienez, besteak beste, urteko kontu bateratuen aurkezpen-egunerako likidatu, ordaindu eta aitortu gabe dauden ezbeharren kostu estimatua bildu da. Horrez gain, Taldeak pasibo bat aitortuko du likidatu gabe dauden ezbeharrak likidatzeko behar diren barne-gastuetarako, baita kontsumitu gabeko primetarako hornidura bat ere, eta, primarekin nahikoa ez bada, aribideko arriskuetarako hornidura bat.<br><br>Aurrezteko aseguruen kasuan berriz, taldeak hornidura matematikoa kalkulatzen du teknika aktuarial konplexuak erabiliz, kalkulu-hipotesi kritikoak oinarritzat hartuta, hala nola interes-tasa teknikoa, gastuen hipotesiak edo heriotza-tasen taulak, aplikatzekoa den araudiaren araberakoak.<br><br>Prestazioetarako horniduren kalkulua, eta, zehazkiago, aitortzeke dauden ezbeharren hornidura, estimazio konplexua da, eta Zuzendaritzak erabilitako proiekzio-metodoek eta onarpenek eragin handia dute estimazio horretan, esate baterako, ezbehar pertsonalen balioespenaren inpaktuak, aplikatzekoa den araudiaren araberakoak.<br><br>Ikus erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 37. oharra. | • Bizi-aseguruen eta bizi-arlokoak ez direnen hornidurak kalkulatzeko metodologia ulertzea produktuen izaeraren arabera, eta irmotasunez aplikatzea aurreko ekitaldiaren aldean.<br><br>• Bizi-aseguruen eta bizi-arlokoak ez direnen kontratuengatiko horniduren kontabilitate-erregistro egokia eta haiek aldian dituzten aldaketak egiaztatzea.<br><br>• Kontsumitu gabeko primen hornidurari dagokion kalkulua eta denbora-egoztea berrikustea.<br><br>• Aldia ixtean eratutako erreserbei eta aldian egindako ordainketei buruzko informazioaren fidagarritasunari buruzko proba zehatzak egitea.<br><br>Zehazki hornidura matematikoari dagokionez, prozedura osagarriak garatu ditugu aktuario-espezialisten parte-hartzearekin, honako hauen harira:<br><br>• Kalkulu tekniko-aktuarialen oinarrizko datuak osorik daudela eta bat datozela berrikustea.<br><br>• Araudi aplikagarriari egokitutako hipotesi biometrikoen aplikazioa egiaztatzea.<br><br>• Iraganeko esperientzian eta aseguru-sektorearen jardunbideetan oinarrituta Zuzendaritzak erabilitako hipotesi adierazgarriak berrikustea.<br><br>• Polizak hautatzeko hornidura matematikoa birkalkulatzea.<br><br>Bestetik, zehazki prestazioetarako hornidurari dagokionez, gure espezialista aktuarialek parte hartu dute, besteak beste, honako hauetan:<br><br>• Kalkulu tekniko-aktuarialen oinarrizko datuak osorik daudela eta bat datozela berrikustea.<br><br>• Adarren hautaketarako estatistika-proiekzio independenteetan oinarritutako berrikuspena, garrantzi handiena dutenei eta estimazio-osagarri handiena dutenei arreta berezia eskainiz. |

| Auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
| --- | --- |
| | Gure prozeduren ondorioz Zuzendaritzaren kalkuluekin alderatuta lortutako alde guztiak arrazoizko maila batean mantendu dira, erantsitako urteko kontu bateratuetan bildutako aseguru-kontratuengatiko pasiboen zenbatekoari dagokionez. |
| *FINA 9 indarrean hastea eta arau horren inpaktuen estimazioari buruzko informazioa xehatzea*<br><br>Finantza Tresnen Sailkapen eta Balioespenari buruzko FINA 9 indarrean hasteari dagokionez, 2. oharrean deskribatu denez, Taldeak egokitze-proiektu bat garatu du, Kontseilu Errektoreak gainbegiratuta, honako alor hauetan:<br><br>a) Finantza-tresnen sailkapena eta balioespena<br><br>b) Finantza-tresnetan kreditu-arriskuaren narriadura adierazgarria neurtzea.<br><br>c) Estalduren kontabilitatea<br><br>Horretan oinarrituta, taldeak aldez aurreko estimazio eta kalkuluak egin ditu arau hori indarrean hasteak aipatutako hiru azterketa-lerroetan izango dituen inpaktuei dagokienez, erantsitako urteko kontu bateratuen txostenan horri buruzko informazio kuantitatibo eta kualitatibo batzuk ezagutzera eman dituelarik.<br><br>Ikus erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 2. oharra. | 2018ko urtarrilaren 1ean hasten den ekitaldian aplikatzekoa den FINA 9ari dagokionez, prozedura jakin batzuk eraman ditugu aurrera erantsitako urteko kontu bateratuen txostenan emandako informazioa arrazoizkoa den edo ez egiaztatzeko. Aurrera eramandako prozedura nagusiak deskribatuko ditugu jarraian:<br><br>• Kontabilitate-politiken egokitzapena eta metodologia-markoa ulertzea arau berria betetzen ote duten ebaluatzeko.<br><br>• FINA 9ak Taldeak izango duen inpaktuari dagokionez urteko kontu bateratuen txostenan ematen den informazioa egiaztatzea.<br><br>Finantza-tresnen sailkapenari eta balioespenari dagokionez, gure prozedurak honako hauetan zentratu ziren:<br><br>• Finantza-tresnak sailkatzeko irizpide berriak ebaluatzeko Taldeak egindako dokumentazioa eta azterketak egiaztatzea, besteak beste, negozio-ereduen ebaluazioa eta finantza-tresnen kontratu bidezko eskudiru-fluxuen ezaugarriak.<br><br>• Finantza-tresnen sailkapen eta balioespenaren gaineko inpaktuak arrazoizkoak direla egiaztatzea.<br><br>Finantza-tresnetan kreditu-arriskuaren narriadura adierazgarria neurtzeari dagokionez, gure prozedurak honako hauetan zentratu ziren:<br><br>• Arau berriari jarraikiz hornidurak kalkulatzeko Taldeak garatutako irizpideak egiaztatzea. |

| Auditoriaren funtsezko gaiak | Auditorian nola aztertu diren |
|---|---|
| | • FINA 9 indarrean hasteak kobratu beharreko partida eta maileguen zorroaren balioespenean izango duen inpaktuaren kalkulua berregikaritzea.<br><br>Estalduren Kontabilitateari dagokionez, gure prozedurak honako hauetan zentratu ziren:<br><br>• NKA 39 arauaren estalduren kontabilitatea mantentzeko Taldeak hartutako erabakiak egiaztatzea.<br><br>Deskribatutako prozeduren ondorioz, agerian geratu da kreditu-aktiboen narriadura kalkulatzeko metodologiak eta finantza-tresnen sailkapena eta balioespena egokiak direla, eta Zuzendaritzaren estimazioen aldean gure prozeduren ondorioz lortutako alde guztiak arrazoizko maila batean mantendu direla erantsitako urteko kontu bateratuetan bildutako zenbatekoari dagokionez, kontu horietan emandako informazioa egokitzat jotzen dugularik. |

## *Beste informazio batzuk: Kudeaketa-txosten bateratua*

Gainerako informazioa 2017ko ekitaldiko kudeaketa-txosten bateratuari dagokio soil-soilik, eta haren formulazioa Entitate nagusiaren administratzaileen erantzukizuna da, urteko kontu bateratuen parte ez delarik.

Urteko kontu bateratuei buruz eman dugun auditoria-iritziak ez du eraginik kudeaketa-txosten bateratuan. Kudeaketa-txosten bateratuan jasotako informazioari dagokionez dugun erantzukizuna kontu-auditoriaren jarduera erregulatzen duen araudian zehaztu da, eta horrek bi maila bereizten ditu:

a) Maila espezifiko bat, informazio ez-finantzarioaren egoera-orriari eta Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean bildutako informazio jakin batzuei aplikatzekoa, Kontu Auditoriari buruzko 22/2015 Legearen 35.2. b) artikuluan zehaztutakoaren arabera. Horri jarraikiz, aipatutako informazioa kudeaketa-txosten bateratuan jasota dagoela egiaztatu behar da bakarrik, edo, hala badagokio, informazio ez-finantzarioari buruzko txosten bereiziari dagokion aipamena txosten horri erantsi zaiola araudian aurreikusitako moduan, eta, hala ez bada, hori ezagutzera eman behar da.

b) Maila orokor bat, kudeaketa-txosten bateratuan bildutako gainerako informazioari aplikatzekoa. Horren arabera, informazio hori urteko kontu bateratuekin bat ote datorren ebaluatu behar da eta hori ezagutzera eman behar da, urteko kontu bateratu horien auditoria egitean Taldeak dakienetik abiatuta eta auditoria horretan ebidentzia gisa lortutakoaz bestelako informaziorik erantsi gabe. Horrez gain, kudeaketa-txosten bateratuaren zati horren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat ote datozen ebaluatu behar da eta ebaluazioaren emaitza ezagutzera eman. Egin dugu lanean oinarrituta ondorioztatzen badugu akats materialak egin direla, horren berri eman beharko dugu nahitaez.

Aldez aurretik deskribatutakoaren arabera egin dugun lanean oinarrituta egiaztatu dugunez, aurreko a) atalean aipatutako informazio ez-finantzarioa “Informazio ez-finantzarioaren egoera-orria” izeneko txosten bereizian aurkeztu da, kudeaketa-txosten bateratuan ere aipatu dena, Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenari dagokionez atal horretan aipatutako informazioa kudeaketa-txosten bateratuan bildu da, eta kudeaketa-txosten bateratuan jasotako gainerako dokumentazioa 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuen informazioarekin bat dator, eta haren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiari lotzen zaie.

## *Administratzaileen eta Auditoria Batzordearen erantzukizuna urteko kontu bateratuei dagokienez*

Entitate Nagusiaren administratzaileek erantsitako urteko kontu bateratuak azaltzeko ardura dute, Taldearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitza bateratuen benetako irudia adieraziz, FINA-EB arauekin eta Taldeari Espainian aplikatu beharreko finantza-informazioko arauzko esparruko gainerako xedapenekin bat etorriz. Gainera, urteko kontuak iruzur edo okerren ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolaz arduratuko dira.

Urteko kontu bateratuak prestatzean, Entitate nagusiko administratzaileek beren gain hartu behar dute Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen ahalmena balioestea, kasuan-kasuan jarduneko enpresarekin zerikusia duten gaien berri emanez, eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, non eta administratzaileek Taldea likidatzeko eta jarduna bertan behera uzteko asmorik ez duten edota beste alternatiba errealistarik ez dagoen.

Entitate nagusiaren Auditoria Batzordeak bere gain hartuko du urteko kontu bateratuen elaborazio- eta aurkezpen-prozesua gainbegiratzeko ardura.

## *Auditorearen erantzukizunak urteko kontu bateratuen auditoriari dagokionez*

Gure helburua da arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontu bateratuek, oro har, iruzur edo erroreen eraginez egindako akats materialik ez dutela, eta gure iritzia biltzen duen auditoria-txosten bat ematea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia esan nahi du, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz akats material guzti-guztiak detektatzen dituela. Iruzur edo erroreen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materialtzat jotzen dira baldin eta, banaka edo multzoka hartuta, arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontu bateratuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainian auditoria-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoria den heinean, gure judizio profesionala eman dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarritu da auditoria osoan. Horrez gain:

- Iruzur edo erroreen eraginez urteko kontu bateratuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta balioetsi ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak aplikatu ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu. Iruzurraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da errorearen ondorioz gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolisioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakeelako berekin.

- Auditoriarentzat garrantzitsua den barne-kontrolaren berri izan dugu zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez Taldearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko asmoarekin.

- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-estimazioak arrazoizkoak ote diren ebaluatu dugu, baita Entitate nagusiaren Administratzaileek emandako informazioa ere.

- Entitate nagusiko Administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den edo ez ondorioztatu dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, zalantza materialik bazegoen edo ez ondorioztatu dugu, Taldeak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza esanguratsuak sorraraz ditzaketen gertaera edo baldintzei loturik. Eskatu digutenez, zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoria-txostenean ohartarazi behar genuen urteko kontu bateratuetan jasotako informazioaz, edo, informazio hori ezagutaraztea egokia ez bazen, iritzi aldatu bat eman behar genuen. Gure auditoria-txostenean egun horretara arte lortutako auditoria-ebidentzian oinarritu dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen ondorioz Taldeak jarduneko enpresa bat izateari uztea.

- Urteko kontu bateratuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatu dugu, jakitera emandako informazioa barne, eta urteko kontu bateratuek, azpiko transakzio eta gertaerak irudikatzean, benetako irudi bat ematen ote duten aditzera emanez.

- Taldearen barruko enpresa-jarduera edo entitateen finantza-informazioari buruzko ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu, urteko kontu bateratuen gaineko iritzi bat emateko. Taldearen auditoria zuzendu, gainbegiratu eta egiteko ardura dugu. Gure auditoria-iritziaren erantzule bakarrak gara.

Entitate nagusiaren Auditoria Batzordearekin harremanetan jarri gara, besteak beste, honako hauen berri emateko: auditoriaren norainokoa eta auditoria egiteko planifikatutako unea eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, bai eta auditoria egiten ari ginenean identifikatutako barne-kontrolaren edozein hutsune esanguratsu.

Entitate nagusiaren Auditoria Batzordeari helarazi diogu, halaber, aplikatzekoak diren etika-eskakizunak bete izanaren aitorpena, independentzia-eskakizunak barne, eta harekin harremanetan jarri gara, orobat, gure independentziarentzat mehatxagarri izan zitezkeen gaien eta, hala bazegokion, zegozkien babesen berri emateko.

Entitate nagusiaren Auditoria Batzordeari jakinarazi dizkiogun gaien artean, aldi honetako urteko kontu bateratuen auditorian guretzat adierazgarrienak zein diren erabaki dugu, eta, horren ondorioz, horiexek izan dira auditoriaren funtsezkoak gaiak.

Gure auditoria-txostenean gai horiek guztiak deskribatu ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

## *Legezko eta arauzko bestelako betekizunei buruzko txostena*

### *Txosten gehigarria Entitate nagusiaren Auditoria Batzordearentzat*

Txosten honetan emandako iritzia bat dator 2018ko martxoaren 15ean Entitate Nagusiaren Auditoria Batzordearentzat egin dugun txosten gehigarrian adierazitakoarekin.

## *Kontratazioaren aldia*

Entitate Nagusiak, 2017ko apirilaren 1ean egindako Ohiko Batzar Nagusian, urtebeterako auditore izendatu gintuen, 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik.

Aldez aurretik, Entitate Nagusiaren Ohiko Batzar Nagusiak hasierako aldi baterako izendatu gintuen, eta kontu-auditorien lanetan aritu gara, etengabe, 2001eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik.

## *Emandako zerbitzuak*

Kontu-auditoriaz aparte Taldeari eman dizkiogun zerbitzuak, erantsitako urteko kontu bateratuen txostenaren 11. oharrean jaso dira, zehatz-mehatz.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. (S0242)

(Jatorrizkoa espainieraz, José Antonio Simón Maestrok (15886) sinatua)

2018ko martxoaren 15a.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## BALANTZE BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31KOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| AKTIBOA | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk (**)** | **22** | **1.848.245** | **453.030** |
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak** | **23** | **144.461** | **183.689** |
| Deribatuak | | 3.796 | 3.668 |
| Ondare-tresnak | | 541 | 620 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 140.124 | 179.401 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | *68.712* | *43.143* |
| **Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan** | **24** | **2.517** | **403** |
| Ondare-tresnak | | 380 | 403 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 2.137 | - |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | - | - |
| **Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak** | **25** | **5.081.194** | **5.048.900** |
| Ondare-tresnak | | 223.912 | 318.286 |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 4.857.282 | 4.730.614 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | *612.103* | *1.207.304* |
| **Maileguak eta kobratzeko partidak** | **26** | **13.796.818** | **13.943.448** |
| Zorra adierazten duten baloreak | | 50.360 | 49.281 |
| Maileguak eta aurrerakinak | | 13.746.458 | 13.894.167 |
| Kreditu-erakundeak | | 342.130 | 392.590 |
| Bezeroak | | 13.404.328 | 13.501.577 |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | - | - |
| **Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak** | **27** | **410.937** | **439.533** |
| *Pro-memoria: saltzeko edo pignoratzeko eskubidearekin mailegatutakoak edo berme gisa emandakoak* | | - | - |
| **Deribatuak – estaldura-kontabilitatea** | **28** | **143.642** | **186.213** |
| **Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak** | | **-** | **-** |
| **Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak** | **29** | **3.088** | **3.042** |
| Erakunde elkartuak | | 3.088 | 3.042 |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak** | **30** | **27.239** | **26.572** |
| **Aktibo ukigarriak** | **31** | **328.955** | **354.547** |
| Ibilgetu materiala | | 277.201 | 298.658 |
| Erabilera propiokoa | | 263.773 | 286.927 |
| Errentamendu operatiboan utzitakoa | | 12.699 | 10.971 |
| Gizarte-ekintzari lotua | | 729 | 760 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | | 51.754 | 55.889 |
| *Horietatik: errentamendu operatiboan utzitakoa* | | *39.528* | *43.003* |
| *Pro-memoria: finantza-errentamenduan eskuratutakoa* | | - | - |
| **Aktibo ukiezinak** | **32** | **33.592** | **33.568** |
| Merkataritzako fondoa | | 33.425 | 33.425 |
| Bestelako aktibo ukiezinak | | 167 | 143 |
| **Zergen ondoriozko aktiboak** | **33** | **286.186** | **299.290** |
| Zerga korronteen ondoriozko aktiboak | | 8.853 | 13.330 |
| Geroratutako zergen ondoriozko aktiboak | | 277.333 | 285.960 |
| **Beste aktibo batzuk** | **34** | **101.680** | **62.944** |
| Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak | | - | - |
| Izakinak | | 60.609 | 19.476 |
| Bestelako gainerako aktiboak | | 41.071 | 43.468 |
| **Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak** | **35** | **227.235** | **278.987** |
| **AKTIBOA GUZTIRA** | | **22.435.789** | **21.314.166** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.
(**) Ikusi xehetasuna eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## BALANTZE BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31KOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

| PASIBOA | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak** | **23** | **1.533** | **2.297** |
| Deribatuak | | 1.533 | 2.297 |
| **Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan** | | **-** | **-** |
| *Pro-memoria: mendeko pasiboak* | | - | - |
| **Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan** | **36** | **19.505.437** | **18.487.909** |
| Gordailuak | | 19.125.597 | 18.097.181 |
| Banku zentralak | | 300.172 | - |
| Kreditu-erakundeak | | 212.571 | 202.981 |
| Bezeroak | | 18.612.854 | 17.894.200 |
| Zorra adierazten duten balore jaulkiak | | 149.550 | 174.810 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | | 230.290 | 215.918 |
| *Pro-memoria: mendeko pasiboak* | | - | - |
| **Deribatuak – estaldura-kontabilitatea** | **28** | **238.838** | **178.447** |
| **Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak** | | **-** | **-** |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak** | **37** | **579.907** | **558.752** |
| **Hornidurak** | **38** | **191.875** | **208.509** |
| Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | | 41.504 | 35.830 |
| Enplegatuentzako epe luzerako bestelako ordainsariak | | - | - |
| Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | | - | - |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | | 20.992 | 25.411 |
| Gainerako hornidurak | | 129.379 | 147.268 |
| **Zergen ondoriozko pasiboak** | **33** | **112.498** | **121.363** |
| Zerga korronteen ondoriozko pasiboak | | 4.572 | 3.868 |
| Geroratutako zergen ondoriozko pasiboak | | 107.926 | 117.495 |
| **Ageriko kapital sozial itzulgarria** | | **-** | **-** |
| **Beste pasibo batzuk** | **34** | **77.273** | **72.502** |
| *Horietatik: Gizarte Ekintzako Fondoa* | | *13.017* | *12.030* |
| **Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak** | | **-** | **-** |
| **PASIBOA GUZTIRA** | | **20.707.361** | **19.629.779** |

| ONDARE GARBIA | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **Fondo propioak** | **39** | **1.619.363** | **1.552.862** |
| Kapitala | | 727.167 | 712.957 |
| Ordaindutako kapitala | | 727.167 | 712.957 |
| *Pro-memoria: galdatu gabeko kapitala* | | - | - |
| Metatutako irabaziak | | - | - |
| Errebalorizazio-erreserbak | | - | - |
| Bestelako erreserbak | | 809.891 | 766.469 |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak | | 144 | 93 |
| Bestelakoetan | | 809.747 | 766.376 |
| (-) Norberaren akzioak | | (1.431) | (1.393) |
| Erakunde nagusiko jabeei egotz dakiekeen emaitza | | 112.849 | 103.473 |
| (-) Konturako dibidenduak | | (29.113) | (28.644) |
| **Beste emaitza global metatua** | **40** | **109.065** | **131.525** |
| Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak | | 109.065 | 131.525 |
| Estaldura-deribatuak. Eskudiru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena) | | (30.837) | (11.533) |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak | | 139.902 | 143.058 |
| Zor-tresnak | | 108.509 | 101.007 |
| Ondare-tresnak | | 31.393 | 42.051 |
| **Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)** | | **-** | **-** |
| Metatutako bestelako emaitza globala | | - | - |
| Beste elementu batzuk | | - | - |
| **ONDARE GARBIA GUZTIRA** | | **1.728.428** | **1.684.387** |
| **ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA** | | **22.435.789** | **21.314.166** |
| **Pro-memoria: balantzetik kanpoko esposizioak** | | | |
| **Emandako bermeak** | **43** | **229.265** | **259.742** |
| **Emandako konpromiso kontingenteak** | **44** | **1.105.293** | **1.045.076** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **Interesen ondoriozko sarrerak** | 45 | 268.232 | 299.543 |
| **(Interesen ondoriozko gastuak)** | 46 | 20.889 | 28.415 |
| **(Ageriko kapital sozial itzulgarriaren ondoriozko gastuak)** | | - | - |
| **INTERESEN MARJINA** | | 247.343 | 271.128 |
| **Dibidenduen ondoriozko sarrerak** | 47 | 3.653 | 7.993 |
| **Partaidetzaren metodoaz baloratutako erakundeen emaitzak** | 48 | 47 | 51 |
| **Komisioen ondoriozko sarrerak** | 49 | 107.923 | 105.461 |
| **(Komisioen ondoriozko gastuak)** | 50 | 11.527 | 11.764 |
| **Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | 51 | 43.983 | 12.016 |
| **Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | 52 | 870 | 1.836 |
| **Arrazoizko balioarekin izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | 53 | 159 | (282) |
| **Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | 54 | 117 | 197 |
| **Kanbio-alde garbiak [irabazia edo (–) galera]** | 55 | (38) | 1.030 |
| **Beste ustiapen-sarrera batzuk** | 56 | 16.247 | 16.019 |
| **(Beste ustiapen-gastu batzuk)** | 57 | 47.187 | 43.683 |
| *Horietatik: gizarte-lanetarako fondoetarako nahitaezko zuzkidurak* | | *8.591* | *7.833* |
| **Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktibo-sarrerak** | 58 | 202.919 | 177.357 |
| **(Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboen gastuak)** | 59 | 153.019 | 131.854 |
| **MARJINA GORDINA** | | 411.490 | 405.505 |
| **(Administrazio-gastuak)** | 60 | 232.355 | 238.229 |
| (Pertsonal-gastuak) | | 135.236 | 141.685 |
| (Bestelako administrazio-gastuak) | | 97.119 | 96.544 |
| **(Amortizazioa)** | 61 | 18.027 | 19.719 |
| **(Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak)** | 62 | 26.785 | 24.824 |
| **Arrazoizko balioarekin balioztatu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)** | 63 | 13.815 | (32.361) |
| (Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak) | | 1.892 | 2.833 |
| (Maileguak eta kobratzeko partidak) | | 11.923 | (35.194) |
| (Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak) | | - | - |
| **USTIAPEN-JARDUERAREN EMAITZA** | | 120.508 | 155.094 |
| **(Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (-) balioaren narriadura itzultzea** | 64 | - | - |
| **(Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea)** | 65 | 2.708 | 2.680 |
| (Aktibo ukigarriak) | | 2.708 | 2.680 |
| (Aktibo ukiezinak) | | - | - |
| (Beste batzuk) | | - | - |
| **Aktibo ez finantzarioei eta partaidetzei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak** | 66 | 5.466 | (442) |
| *Horietatik: mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak* | | - | - |
| **Emaitzetan onartutako merkataritzako fondo negatiboa** | | - | 9 |
| **Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen elementu-talde besterengarrien eta aktibo ez-korronteen ondoriozko irabaziak edo (–) galerak** | 67 | 2.414 | (35.039) |
| **JARDUERA ETENGABEEN ONDORIOZKO ZERGA AURREKO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK** | | 125.680 | 116.942 |
| **(Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak)** | 41 | 12.831 | 13.469 |
| **JARDUERA ETENGABEEN ONDORIOZKO ZERGA OSTEKO IRABAZIAK EDO (–) GALERAK** | | 112.849 | 103.473 |
| **Jarduera etenen ondoriozko zerga osteko irabaziak edo (–) galerak** | | - | - |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | 112.849 | 103.473 |
| **Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa** | | - | - |
| **Erakunde nagusiko jabeei egozteko modukoa** | 39 | 112.849 | 103.473 |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## SARRERA ETA GASTU ONARTUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | **112.849** | **103.473** |
| **BESTELAKO EMAITZA GLOBALA** | | **(22.460)** | **(3.765)** |
| **Emaitzetan birsailkatuko ez diren elementuak** | | **-** | **-** |
| Prestazio mugatuko pentsio-planetako irabazi edo (–) galera aktuarialak | | - | - |
| Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak | | - | - |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan onartutako beste sarrera eta gastu batzuetako partaidetza | | - | - |
| Irabazien gaineko zerga, birsailkatuko ez diren elementuena | | - | - |
| **Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak** | | **(22.460)** | **(3.765)** |
| **Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura (zati efektiboarena)** | | **-** | **-** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | - | - |
| Emaitzetara transferitua | | - | - |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Dibisa-bihurketa** | | **-** | **-** |
| Ondare garbian kontabilizatutako dibisa-trukeagatiko irabaziak edo (–) galerak | | - | - |
| Emaitzetara transferitua | | - | - |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Eskudiru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena)** | **40** | **(26.810)** | **(16.018)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | (26.810) | (16.018) |
| Emaitzetara transferitua | | - | - |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak** | **40** | **(4.384)** | **10.789** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | 37.288 | 19.672 |
| Emaitzetara transferitua | | (41.672) | (8.883) |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak** | | **-** | **-** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | | - | - |
| Emaitzetara transferitua | | - | - |
| Beste birsailkapen batzuk | | - | - |
| **Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan onartutako beste sarrera eta gastu batzuetako partaidetza** | | **-** | **-** |
| **Irabazien gaineko zerga, emaitzetan birsailka daitezkeen elementuena** | 41 | **8.734** | **1.464** |
| **EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA** | | **90.389** | **99.708** |
| Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa | | - | - |
| Erakunde nagusiko jabeei egozteko modukoa | | 90.389 | 99.708 |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO**

**ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA**
**(Expresado en miles de euros)**

## 2017ko abenduaren 31n

| Ondare garbiko aldaketen iturria | Kapitala | Bestelako erreserbak | (–) Norberaren akzioak | Erakunde nagusiko jabeei egotz dakiekeen emaitza | (–) Konturako dibidenduak | Metatutako bestelako emaitza globala | Interes minoritarioak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2017ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **712.957** | **766.469** | **(1.393)** | **103.473** | **(28.644)** | **131.525** | **-** | **1.684.387** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2017ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)** | **712.957** | **766.469** | **(1.393)** | **103.473** | **(28.644)** | **131.525** | **-** | **1.684.387** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **-** | **-** | **-** | **112.849** | **-** | **(22.460)** | **-** | **90.389** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | **14.210** | **43.422** | **(38)** | **(103.473)** | **(469)** | **-** | **-** | **(46.348)** |
| Akzio arrunten jaulkipena | 21.795 | 3 | - | - | - | - | - | 21.798 |
| Lehentasunezko akzioen jaulkipena | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondareko beste tresna batzuen jaulkipena | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Jaulkitako ondareko beste tresna batzuk erabiltzea eta mugaeguneratzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zorra ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kapital-murrizketa | (7.585) | - | - | - | - | - | - | (7.585) |
| Dibidenduak (edo ordainketak bazkideei) | - | - | - | (19.583) | (29.113) | - | - | (48.696) |
| Norberaren akzioak erostea | - | - | (38) | - | - | - | - | (38) |
| Norberaren akzioak saltzea edo kitatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko finantza-tresnak pasibora birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | 43.496 | - | (72.140) | 28.644 | - | - | - |
| Negozio-konbinazioen ondoriozko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Akzioetan oinarritutako ordainketak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (-) murrizketak | - | (77) | - | (11.750) | - | - | - | (11.827) |
| *Horietatik: obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura* | - | - | - | *(11.750)* | - | - | - | *(11.750)* |
| **2017ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **727.167** | **809.891** | **(1.431)** | **112.849** | **(29.113)** | **109.065** | **-** | **1.728.428** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Expresado en miles de euros)**

### 2016ko abenduaren 31n

| Ondare garbiko aldaketen iturria | Kapitala | Bestelako erreserbak | (–) Norberaren akzioak | Erakunde nagusiko jabeei egotz dakiekeen emaitza | (–) Konturako dibidenduak | Metatutako bestelako emaitza globala | Interes minoritarioak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **2016ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **708.403** | **722.703** | **(1.359)** | **102.787** | **(29.741)** | **135.290** | **-** | **1.638.083** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **2016ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa (*)** | **708.403** | **722.703** | **(1.359)** | **102.787** | **(29.741)** | **135.290** | **-** | **1.638.083** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **-** | **-** | **-** | **103.473** | **-** | **(3.765)** | **-** | **99.708** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | **4.554** | **43.766** | **(34)** | **(102.787)** | **1.097** | **-** | **-** | **(53.404)** |
| Akzio arrunten jaulkipena | 24.653 | 15 | - | - | - | - | - | 24.668 |
| Lehentasunezko akzioen jaulkipena | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondareko beste tresna batzuen jaulkipena | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Jaulkitako ondareko beste tresna batzuk erabiltzea eta mugaeguneratzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Zorra ondare garbi bihurtzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Kapital-murrizketa | (20.099) | - | - | - | - | - | - | (20.099) |
| Dibidenduak (edo ordainketak bazkideei) | - | - | - | (18.845) | (28.644) | - | - | (47.489) |
| Norberaren akzioak erostea | - | - | (34) | - | - | - | - | (34) |
| Norberaren akzioak saltzea edo kitatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko finantza-tresnak pasibora birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Pasiboko finantza-tresnak ondare garbira birsailkatzea | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | 42.895 | - | (72.636) | 29.741 | - | - | - |
| Negozio-konbinazioen ondoriozko ondare garbiaren gehikuntza edo (–) murrizketa | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Akzioetan oinarritutako ordainketak | - | - | - | - | - | - | - | - |
| Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak | - | 856 | - | (11.306) | - | - | - | (10.450) |
| *Horietatik: obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura* | *-* | *-* | *-* | *(11.306)* | *-* | *-* | *-* | *(11.306)* |
| **2016ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **712.957** | **766.469** | **(1.393)** | **103.473** | **(28.644)** | **131.525** | **-** | **1.684.387** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRI BATERATUA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Oharra | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|---|
| **A) USTIAPEN-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **1.356.019** | **(473.305)** |
| **Ekitaldiko emaitza** | | **112.849** | **103.473** |
| **Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak** | | **63.990** | **83.629** |
| Amortizazioa | **61** | 18.027 | 19.719 |
| Bestelako doikuntzak (a) | | 45.963 | 63.910 |
| **Ustiapen-aktiboen igoera/jaitsiera garbia** | | **156.853** | **(283.864)** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | | 39.228 | 75.277 |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | | (2.114) | 155 |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak | | (65.380) | (440.622) |
| Maileguak eta kobratzeko partidak | | 158.554 | 2.814 |
| Ustiapeneko beste aktibo batzuk | | 26.565 | 78.512 |
| **Ustiapen-pasiboen igoera/jaitsiera garbia** | | **1.023.305** | **(373.781)** |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | | (764) | (1.133) |
| Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan | | - | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | | 1.017.529 | (384.375) |
| Beste ustiapen-pasibo batzuk | | 6.540 | 11.727 |
| **Irabazien gaineko zergengatiko kobrantzak/ordainketak** | | **(978)** | **(2.762)** |
| **B) INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **85.470** | **770.740** |
| **Ordainketak** | | **(23)** | **(36.729)** |
| Aktibo ukigarriak | **31** | - | (20.596) |
| Aktibo ukiezinak | | (23) | (139) |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | | - | - |
| Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk | **29** | - | - |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak | | - | - |
| Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak | **27** | - | (15.994) |
| Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten beste ordainketa batzuk | | - | - |
| **Kobrantzak** | | **85.493** | **807.469** |
| Aktibo ukigarriak (b) | | 10.290 | 11.131 |
| Aktibo ukiezinak | | - | - |
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | **29** | - | 103 |
| Mendeko erakundeak eta beste negozio-unitate batzuk | **29** | - | - |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta pasiboak | | 55.988 | 73.450 |
| Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak | | 19.215 | 722.785 |
| Inbertsio-jarduerekin zerikusia duten beste kobrantza batzuk | | - | - |
| **C) FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK** | | **(46.274)** | **(54.260)** |
| **Ordainketak** | | **(48.487)** | **(60.083)** |
| Dibidenduak | **39** | (29.113) | (28.644) |
| Mendeko pasiboak | | - | - |
| Ondare propioaren tresnak amortizatzea | **39** | (7.585) | (20.099) |
| Ondare propioaren tresnak eskuratzea | **39** | (39) | (34) |
| Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten beste ordainketa batzuk | **4** | (11.750) | (11.306) |
| **Kobrantzak** | | **2.213** | **5.823** |
| Mendeko pasiboak | | - | - |
| Ondare propioaren tresnak jaulkitzea | | 2.213 | 5.823 |
| Ondare propioaren tresnak besterentzea | | - | - |
| Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten beste kobrantza batzuk | | - | - |
| **D) KANBIO-TASEN ALDAKETEN ERAGINA** | | **-** | **-** |
| **E) ESKUDIRUAREN ETA ANTZEKOEN IGOERA/JAITSIERA GARBIA (A+B+C+D)** | | **1.395.215** | **243.175** |
| **F) ESKUDIRUA ETA ANTZEKOAK EPEAREN HASIERAN** | | **453.030** | **209.855** |
| **G) ESKUDIRUA ETA ANTZEKOAK EPEAREN AMAIERAN** | | **1.848.245** | **453.030** |
| **PRO MEMORIA** | | | |
| **ESKUDIRUAREN ETA ANTZEKOEN OSAGAIAK EPEAREN AMAIERAN** | | | |
| *Horretatik: taldeko erakundeek dituztenak baina taldeak erabili ezin dituenak* | | - | - |
| Eskudirua | | 72.514 | 78.876 |
| Eskudiruaren pareko saldoak banku zentraletan | | 1.682.657 | 327.385 |
| Ageriko beste gordailu batzuk | | 93.074 | 46.769 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | | - | - |
| Ken: Ageriko banku-zorpeko itzulgarriak | | - | - |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

(a) Batez ere zuzkidurak sartzen dira: narriaduragatiko zuzenketen ondoriozko fondoetarakoak eta eskudiru-irteerarik ekarri ez duten hornikuntzen ondoriozko fondoetarakoak.

(b) Salmentan sortutako irabazia edo galera dago zenbateko horietan sartuta.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

### 1. Entitatearen izaera

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitate Nagusia, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba berria da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du Entitateak.

Espainiako Bankuak gainbegiratzen du Entitate Nagusia, eta, baloreak jaulkitzen dituenez, baita Balore Merkatuko Komisio Nazionalak ere.

Entitate Nagusiaren kapitalak ez du burtsan kotizatzen.

#### 1.1 Caja Laboralaren eta Ipar Kutxaren arteko bat-egitea

2012ko urtean, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren eta Ipar Kutxa Rural, S. Coop. de Créditoren gonernu-organoen erabakiz, bi erakundeek bat egin eta Kreditu Kooperatiba Berria sortu zuten. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito du izena eta estatutu sozialetan zehaztuta dauden helburua, helbidea, kapitala eta gainerako ezaugarriak ditu. Kreditu Kooperatiben 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta legezko gainerako xedapen aplikagarriek arautzen dute.

Bat-egite horren eraginez, bat egindako kreditu-kooperatiba biak desegin eta iraungi egin ziren, likidazio-aldirik ireki gabe. 2012ko azaroaren 2an erregistratu zen Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan, eta data hori ezarri zen bat egindako entitateen eragiketak kontabilitateari begira Kreditu Kooperatiba Berriaren eragiketatzat hartzeko lehen eguntzat.

#### 1.2 Estatutuak

Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Horretarako, gainerako kreditu-erakundeei baimenduriko aktiboko, pasiboko zein zerbitzuko eragiketa guztiak egin ditzake, xede kooperatiboak sustatu nahiz hobeto betetzeko balio dutenak barne, betiere bazkideen finantza-beharrei lehentasuna emanez eta hirugarrenekiko aktiboko eragiketen legezko mugak errespetatuz.

Kreditu-kooperatibei hauek agintzen dizkie, besteak beste, beren lege-araudiak:

a) Espainiako Bankuan aktibo likidoen gutxieneko ehuneko bat gordailututa izatea, gutxieneko erreserben koefizientea estaltzeko.

b) Gordailuen Berme Funtsera hainbateko bat bideratzea, gordailugileek euren gordailuen zenbateko jakin bat berreskuratu ahal izateko.

c) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbia Heziketako eta Sustapeneko Fondora eta erreserbetara bideratzea.

d) Baliabide propioen gutxieneko bat gordetzea, egindako inbertsioen eta onartutako arriskuen arabera.

Kooperatibarteko Lankidetza Erakundeetarako ekarpena

MONDRAGONek 2016ko uztailaren 20an egindako Kongresuan hartu zituen erabakiei jarraikiz, Entitate Nagusiak aurreko ekitaldiko zergen eta kapitalerako interesen ondorengo soberakin erabilgarrien % 15 ematen die MONDRAGON Inversiones S. Coop. sozietateari eta MONDRAGON Fundazioari urtero, diru-laguntza moduan, eta Kooperatiba arteko Fondo Sozialera egindako ekarpenetik kentzen da.

Kongresu horretan hitzartutakoaren arabera, amaitu egin da MONDRAGON korporazioari atxikitako entitateen alde arrisku-linea bat zuzkitzeko Entitatea Nagusiaren konpromisoa. Linea horretan erabili gabeko muga 82.055 mila eurokoa zen 2016an.

Caja Laboral Popular Taldeak eta haren partaidetzako erakundeek —aurrerantzean Taldea edo LABORAL Kutxa Taldea— osatzen duten Partaidetzako Erakundeen Taldeko Entitate Nagusia da Caja Laborala. Hortaz, Entitate Nagusia behartuta dago, urteko kontu indibidualez gain, Taldearen urteko kontu bateratuak egitera; kontu indibidualak ere ikuskatu egiten dira. Kontu horietan, mendeko sozietateetako eta erakunde taldeaniztunetako partaidetzak eta erakunde elkartuetako inbertsioak sartuko dira, baldin badaude. Taldeko erakundeek jarduera-esparru ugari ukitzen dituzte.

2017ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren guztizko aktiboak, ondare garbia eta emaitza garbia Taldeko kontzeptu beren % 97,01ekoak, % 96,10ekoa eta % 94,37koa dira, hurrenez hurren (% 96,94koak, % 96,06koa eta % 95,87koa, 2016ko abenduaren 31n).

Ondoren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan Entitate Nagusiak zituen balantze indibiduala, galdu-irabazien kontu indibiduala, ondare garbiko aldaketen egoera-orri indibiduala eta eskudiru-fluxuen egoera-orri indibiduala aurkeztuko ditugu. Horiek guztiak Erakunde Nagusiaren urteko kontu indibidualak egiteko erabili behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide berberak aplikatuz egin dira:

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

a) Balantze indibiduala, 2017ko abenduaren 31koa:

| AKTIBOA | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|
| Eskudirua, eskudiruko saldoak banku zentraletan eta ageriko beste gordailu batzuetan | 1.822.276 | 426.830 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak | 143.920 | 183.069 |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak | 4.563.443 | 4.555.082 |
| Maileguak eta kobratzeko partidak | 13.739.368 | 13.889.385 |
| Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak | 349.525 | 358.736 |
| Deribatuak – estaldura-kontabilitatea | 143.642 | 186.213 |
| Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak | 159.694 | 132.618 |
| Aktibo ukigarriak | 304.941 | 329.549 |
| Aktibo ukiezinak | - | - |
| Zergengatiko aktiboak | 278.164 | 289.855 |
| Beste aktibo batzuk | 45.241 | 47.429 |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak | 216.314 | 263.311 |
| **Aktiboa guztira** | 21.766.528 | 20.662.077 |

| PASIBOA ETA ONDARE GARBIA | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|
| Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak | 1.533 | 2.297 |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | 19.515.330 | 18.493.001 |
| Deribatuak – estaldura-kontabilitatea | 238.838 | 178.447 |
| Hornidurak | 190.604 | 207.320 |
| Zergen ondoriozko aktiboak | 93.745 | 101.016 |
| Ageriko kapital itzulgarria | - | - |
| Beste pasibo batzuk | 65.378 | 61.909 |
| **Pasiboa guztira** | 20.105.428 | 19.043.990 |
| Fondo propioak: | 1.575.077 | 1.514.877 |
| Kapitala | 727.167 | 712.957 |
| Bestelako erreserbak | 770.589 | 731.421 |
| Ekitaldiko emaitza | 106.491 | 99.199 |
| (Konturako dibidenduak) | (29.170) | (28.700) |
| /letatutako bestelako emaitza globala | 86.023 | 103.210 |
| **Ondare garbia guztira** | 1.661.100 | 1.618.087 |
| **Pasiboa eta ondare garbia guztira** | 21.766.528 | 20.662.077 |

| PRO MEMORIA | | |
|---|---|---|
| Emandako bermeak | 249.949 | 280.061 |
| Emandako konpromiso kontingenteak | 1.114.259 | 1.076.891 |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

b) Galdu-irabazien kontu indibiduala, 2017ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|
| Interesen ondoriozko sarrerak | 252.492 | 281.736 |
| (Interesen ondoriozko gastuak) | 20.889 | 28.408 |
| (Ageriko kapital itzulgarriaren ondoriozko gastuak) | - | - |
| **Interesen marjina** | 231.603 | 253.328 |
| Dibidenduen ondoriozko sarrerak | 10.804 | 14.827 |
| Komisioen ondoriozko sarrerak | 95.729 | 93.254 |
| (Komisioen ondoriozko gastuak) | 5.367 | 5.473 |
| Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 42.862 | 10.604 |
| Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 441 | 1.801 |
| Estaldura-kontabilitatearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 117 | 197 |
| Kanbio-alde garbiak [irabazia edo (–) galera] | (38) | 1.030 |
| Beste ustiapen-sarrera batzuk | 35.988 | 35.074 |
| (Beste ustiapen-gastu batzuk) | 46.906 | 41.274 |
| **Marjina gordina** | 365.233 | 363.368 |
| (Administrazio-gastuak) | 184.841 | 191.020 |
| (Amortizazioa) | 17.415 | 18.950 |
| (Hornidurak edo (–) hornidura-itzulketak) | 26.785 | 25.459 |
| (Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktiboen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea) | 18.157 | (25.975) |
| **Ustiapen-jardueraren emaitza** | 118.035 | 153.914 |
| (Mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea) | (2.741) | - |
| (Aktibo ez-finantzarioen balioa narriatzea edo (–) balioaren narriadura itzultzea) | 2.847 | 2.736 |
| Aktibo ez finantzarioei eta partaidetzei kontuan baja ematearen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak | 5.466 | (442) |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien ondoriozko irabazi edo (–) galerak | (8.222) | (41.758) |
| **Jarduera etengabeen ondoriozko zerga aurreko irabaziak edo (–) galerak** | 115.173 | 108.978 |
| (Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen ondoriozko gastuak edo (–) sarrerak) | 8.682 | 9.779 |
| **Jarduera etengabeen ondoriozko zerga osteko irabaziak edo (–) galerak** | 106.491 | 99.199 |
| **Jarduera etenen ondoriozko zerga osteko irabaziak edo (–) galerak** | - | - |
| **Ekitaldiko emaitza** | 106.491 | 99.199 |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

c) Sarrera eta gastu onartuen egoera-orri indibiduala, 2017ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|
| **EKITALDIKO EMAITZA** | **106.491** | **99.199** |
| **BESTELAKO EMAITZA GLOBALA** | **(17.187)** | **(2.904)** |
| **Emaitzetan birsailka daitezkeen elementuak** | **(17.187)** | **(2.904)** |
| Eskudiru-fluxuen estaldura (zati efektiboarena) | **(26.810)** | **(16.018)** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | (26.810) | (16.018) |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak | **2.940** | **11.985** |
| Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak | 43.249 | 19.840 |
| Emaitzetara transferitua | (40.309) | (7.855) |
| Irabazien gaineko zerga, emaitzetan birsailka daitezkeen elementuena | **6.683** | **1.129** |
| **EKITALDIKO GUZTIZKO EMAITZA GLOBALA** | **89.304** | **96.295** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

d) Ondare garbiko aldaketen egoera-orri indibiduala, 2017ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

**2017ko ekitaldiko aldakuntza**

| | Fondo propioak | Metatutako bestelako emaitza globala | Ondare garbia guztira |
|---|---|---|---|
| **2017ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.514.877** | **103.210** | **1.618.087** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - |
| **2017ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.514.877** | **103.210** | **1.618.087** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **106.491** | **(17.187)** | **89.304** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | | | |
| - Akzio arrunten jaulkipena | 21.797 | - | 21.797 |
| - Kapital-murrizketa | (7.585) | - | (7.585) |
| - Dibidenduak (edo bazkideei zuzendutako ordainketak) | (48.753) | - | (48.753) |
| - Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | - | - |
| - Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak | (11.750) | - | (11.750) |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira** | **(46.291)** | **-** | **(46.291)** |
| **2017ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **1.575.077** | **86.023** | **1.661.100** |

## 2016ko ekitaldiko aldakuntza (*)

| | Fondo propioak | Metatutako bestelako emaitza globala | Ondare garbia guztira |
|---|---|---|---|
| **2016ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.469.960** | **106.114** | **1.576.074** |
| Akatsen zuzenketaren eraginak | - | - | - |
| Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak | - | - | - |
| **2016ko urtarrilaren 1eko irekierako saldoa** | **1.469.960** | **106.114** | **1.576.074** |
| **Ekitaldiko guztizko emaitza globala** | **99.199** | **(2.904)** | **96.295** |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk** | | | |
| - Akzio arrunten jaulkipena | 24.668 | - | 24.668 |
| - Kapital-murrizketa | (20.099) | - | (20.099) |
| - Dibidenduak (edo bazkideei zuzendutako ordainketak) | (47.545) | - | (47.545) |
| - Ondare garbiko osagaien arteko transferentziak | - | - | - |
| - Ondare garbiaren bestelako gehikuntzak edo (–) murrizketak | (11.306) | - | (11.306) |
| **Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira** | **(54.282)** | **-** | **(54.282)** |
| **2016ko abenduaren 31ko itxierako saldoa** | **1.514.877** | **103.210** | **1.618.087** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

e) Eskudiru-fluxuen egoera-orri indibiduala, 2017ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

| | 2017 | 2016 (*) |
|---|---|---|
| **Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak:** | **1.390.288** | **(473.485)** |
| Ekitaldiko emaitza | 106.491 | 99.199 |
| Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak | 100.937 | 96.416 |
| Ustiapen-aktiboen igoera/jaitsiera garbia | 178.190 | (281.085) |
| Ustiapen-pasiboen igoera/jaitsiera garbia | 1.005.649 | (385.253) |
| Irabazien gaineko zergengatiko kobrantzak/(ordainketak) | (979) | (2.762) |
| **Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak:** | **51.449** | **759.229** |
| Ordainketak | (24.351) | (19.764) |
| Kobrantzak | 75.800 | 778.993 |
| **Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak** | **(46.291)** | **(54.282)** |
| **Kanbio-tasen aldaketen eragina** | **-** | **-** |
| **Eskudiruaren eta antzekoen igoera/jaitsiera garbia** | **1.395.446** | **231.462** |
| **Eskudirua eta antzekoak ekitaldiaren hasieran** | **426.830** | **195.368** |
| **Eskudirua eta antzekoak ekitaldiaren amaieran** | **1.822.276** | **426.830** |

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

## 2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

### 2.1 Egoera zehaztasunez

Taldearen urteko kontu bateratuak emateko, Europar Batasunak 2017ko abenduaren 31n onartu dituen Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauek —aurrerantzean, FINA-EB— ezarritakoa hartu da oinarritzat. Bestalde, Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra eta ondorengo aldaketak ere hartu dira aintzat, Europar Batasunak onartutako Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauak garatu eta Espainiako kreditu-erakundeen sektorera egokitzen baitituzte.

Txosten honetan, KNA eta FINA siglak erabiliko ditugu Kontabilitateko Nazioarteko Arauak eta Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak izendatzeko, eta FINAIB eta SIC siglak Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak Interpretatzeko Batzordea eta aurreko Interpretazio Batzordea izendatzeko. Horietan oinarrituz egin ditugu urteko kontu bateratu hauek.

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitate-printzipio eta -arau guztiez gain, horietan eragina duten eta nahitaez aplikatzekoak diren balorazio-irizpideak ere erabili ditugu. Ondorioz, 2017ko abenduaren 31n Taldeak zuen ondarearen eta finantza-egoeraren berri ematen dute, egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitza bateratuak, ondare garbi bateratuan izandako aldaketak eta eskudiru-fluxu bateratuak ahaztu gabe.

Txostenaren 13. oharrean laburtu ditugu Taldearen 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko erabilitako kontabilitate-printzipio eta -araurik eta balorazio-irizpiderik esanguratsuenak.

Urteko kontu bateratuak egiteko, Entitatearen eta Taldeko gainerako entitateen kontabilitate-erregistroak hartu dira aintzat. Dena den, gerta liteke Taldearen 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakundek erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko eta Entitateak aplikatutako FINA-EB arauetara egokitzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin ditugu baterakuntza-prozesuan.

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Taldeko Entitate Nagusiko administratzaileen erantzukizuna da.

Taldearen 2017ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak Kontseilu Errektorearen 2018ko otsailaren 28ko bileran formulatu zituzten Entitate Nagusiko administratzaileek. Orain, Batzar Nagusiaren onespenaren zain daude, eta espero da aldaketa esanguratsurik egin gabe onetsiko dituela.

Urteko kontu bateratuok, kontrakorik esaten ez bada, mila eurokotan aurkeztu dira.

2.2 Bateratzeko printzipioak

Taldearen definizioa Europar Batasunak erabakitako Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauetan (FINAetan) ezarritakoaren arabera egin da. Partaidetzako erakundeak dira erakunde mendeko, baterako negozio eta elkartu guztiak.

2.2.1) Mendeko erakundeak

Taldeak kontrola ditzakeenak hartzen dira mendeko erakundetzat. Egoera hori gertatzen da, Taldeak eskubidea duenean partaidetzakoan duen inplikazioaren ondoriozko mozkin aldakorrak jasotzeko eta erakunde horren gainean duen boterearen bidez mozkin horietan eragiteko gaitasuna duenean.

Kontrola dagoela onartzeko, bat etorri behar dute hauek:

- Botereak. Inbertitzaileak partaidetzakoaren gainean boterea du, baldin eta jarduera garrantzitsuak, hau da, partaidetzakoaren etekinetan eragin esanguratsua duten haiek, zuzentzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak baditu indarrean.

- Mozkinek. Inbertitzaileak partaidetzakoan duen inplikazioaren ondorioz etekin aldakorrak izateko eskubidea duela esango dugu, baldin eta inplikazio horretatik lortutako etekinak aldatu egin badaitezke partaidetzakoaren bilakaera ekonomikoaren arabera. Inbertitzailearen mozkinak positiboak soilik, negatiboak soilik edo aldi berean positiboak eta negatiboak izan daitezke.

- Boterearen eta mozkinen arteko erlazioak. Inbertitzaileak partaidetzakoa kontrolatzen duela esango dugu, baldin eta, partaidetzakoaren gainean boterea izateaz gain, eskubidea badu partaidetzakoan duen inplikazioagatik irabazi aldakorrak jasotzeko eta botere hori partaidetzakoan duen inplikazioagatiko mozkinetan eragiteko erabil badezake.

Bestalde, Taldeak aintzat hartzen du kontrola dagoen ala ez ebaluatzen lagun dezakeen edozein gertakari edo inguruabar, eta erreferentziazko araudia aplikatzeko gidalerroetan deskribatutako analisiak ere bai (adibidez, ebaluatuko den entitatearen boto-eskubideen % 50etik gorako zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza badu Taldeak).

Mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Mendeko erakundeen urteko kontuak Entitatearenekin bateratzeko, integrazio globalaren metodoa erabili dugu. Ondorioz, bateratutako erakundeen artean metodo honen bidez egindako transakzioetako saldo esanguratsu guztiak kendu egin dira bateratze-prozesutik. Bestalde, hirugarrenen partaidetza honela aurkezten da hauetan:

- Taldearen ondare garbia, balantze bateratuko ondare garbiko "Interes minoritarioak (nagusi ez diren partaidetzak)" atalean.

- Ekitaldiko emaitza bateratuak, galdu-irabazien kontu bateratuko "Ekitaldiko emaitza - Interes minoritarioei (nagusi ez diren partaidetzei) egozteko modukoa" atalean.

Taldeak ekitaldian eskuratutako mendeko erakundeen emaitzak bateratzeko, eskurapen-egunetik ekitaldi-itxierara bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira. Bestalde, Taldeak ekitaldian besterendutako mendeko erakundeek sortutako emaitzak bateratzeko, ekitaldiaren hasieratik besterentze-egunera bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira.

Konpainien arteko eragiketak, saldoak eta Taldeko erakundeen arteko transakzioetako sarrera-gastuak kendu egin dira. Kendu egin dira, halaber, talde barruan egindako eta aktibo moduan aitortutako transakzioen galera-irabaziak ere. Mendeko erakundeen kontabilitate-politikak aldatu egin dira, Taldeak erabiltzen dituen politikekiko uniformetasuna bermatzeko beharrezkoa izan denean.

Mendeko erakundeez gain, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-fondoak ere sartu ditu Entitate Nagusiak. Hipoteka-maileguak titulizatu eta gero titulizazio-bonuak jaulkitzeko sortu dira erakunde horiek (ikusi 2.2.6 oharra).

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Mendeko erakunde bat erosteagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Taldeak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Taldeak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aitortuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera balioetsi dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Negozioen konbinazioa etapaka egiten bada, eskuratuaren ondare garbiko (aurretik eskuratzaileak zueneko) partaidetzaren eskurapen-datako arrazoizko balioa eskurapen-datako arrazoizko balioan baloratzen da berriro, ekitaldiko emaitzaren bidez.

Taldeak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, KNA 39 arauaren arabera, emaitzetan jasotzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbitzat sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioesten, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritza-fondoa honela balioesten da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak erositako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitza bateratuetan jasotzen da.

Taldeko aseguru-erakundeak hainbat erakundek gainbegiratzen eta arautzen dituzte. Jurisdikzio guztietan indarrean dauden legeek, kapitaleko gutxieneko eskakizun batzuk betetzeko beharrak eta gainbegiraleen jarduerak erakunde horiek fondoak eskudirutan, dibidendutan, mailegutan edo aurrerakinetan transferitzeko duten gaitasunari eragin diezaiokete.

2.2.2) Mendeko erakundeen jabetzako partaidetza-aldaketak, kontrol-aldaketarik gabekoak

Nagusi ez diren partaidetzekin egindako transakzioak, kontrolaren galera eragiten ez badute, ondareko transakziotzat kontabilizatzen dira, hau da, jabeekin egindako transakziotzat. Ordaindutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta mendekoaren aktibo garbien liburuetako zenbatekoan eskuratutako ehunekoaren arteko aldea ondare garbian erregistratzen da. Nagusi ez diren partaidetzak besterentzeagatiko irabaziak edo galerak ere ondare garbian jasotzen dira.

2.2.3) Mendeko erakundeak besterentzea

Taldeak kontrola galtzen duenean, Entitatean eutsitako edozein partaidetza arrazoizko balioan baloratzen da, berriro, kontrola galtzen den datako arrazoizko balioan, eta aldaketa emaitzetako liburuetako zenbatekoan aitortzen da. Arrazoizko balioa honako hau da: erakunde, baterako negozio edo finantza-aktiboaren partaidetza bakoitzarentzat hasieran ezartzen den kontabilitate-balioa, gerora kontabilitatean jasotzen dena. Gainera, erakunde horren inguruan aurretiaz ondare garbiko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean aitortzen den edozein zenbateko Taldeak aktibo edo pasiboak zuzenean saldu balitu bezala kontabilizatzen da. Beraz, litekeena da ondare garbian aurretiaz aitortutako zenbatekoak emaitza-kontu bateratuan birsailkatu behar izatea.

2.2.4) Baterako negozioak - Erakunde taldeaniztunak

Baterako negozioak kontratu bidezko akordioak dira, eta, horien bitartez, bi erakundek edo gehiagok (partaide deritzenak) jarduera ekonomiko bati ekiten diote, elkarrekin kontrolatzeko. Hau da, kontratu horren pean, entitate edo jarduera ekonomiko baten finantzen eta ustiapenaren politikak zuzentzeko boterea partekatzen dute partaideek, egiten diren eragiketetatik mozkinak ateratzeko. Kontrola partekatzen duten partaide guztiek ados egon behar dute, eta aktibo garbien gaineko eskubideak dituzte, jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiak hartu ahal izateko.

Baterako negoziotzat hartzen dira, halaber, mendekoak ez izan arren elkarren artean loturarik ez duten erakunde bik edo gehiagok kontrolatzen dituzten erakundeetako partaidetzak ere.

Bateratzeko prozesuan, partaidetzaren prozedura erabili dugu Baterako negozioen - Erakunde taldeaniztunen urteko kontuetarako, kontabilitate-arautegian ezarritakoari jarraikiz.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n ez zegoen partaidetzarik erakunde taldeaniztunetan.

2.2.5) Erakunde elkartuak

Partaidetzako sozietateak dira erakunde elkartuak ere, eta horietan Taldeak eragiteko ahalmen handia du. Zeresan horren erakusle dugu, baina ez bakarra, zuzenean edo zeharka, beste partaidetzako sozietate baten edo hainbaten bidez, partaidetzako sozietateko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

Baterakuntza-prozesuan, partaidetzaren metodoa aplikatu da erakunde elkartuetan ere, hain zuzen ere KNA 28an zehaztu denari jarraikiz. Hortaz, erakunde elkartuetako partaidetzak baloratzeko, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren zatia hartzen da, baina jasotako dibidenduak eta beste ondare-ezabapen batzuk kontuan hartu ondoren. Erakunde elkartuekin egindako transakzioen emaitzak Taldearen partaidetzaren proportzioaren arabera kentzen dira. Erakunde elkartu batek galerak izaten baditu eta horren ondorioz kontabilitate-ondarea negatiboa bada, Taldearen balantze bateratuan balio nuluarekin agertuko da, baldin eta Taldeak hari estaldura finantzarioa emateko betebeharra ez badu.

Dena dela, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Taldeak % 20tik gorako partaidetza du hainbat sozietatetan, baina horiek ez dira erakunde elkartu moduan hartu, Taldeak uste duelako horietan ez duela behar adinako eragina, Mondragón Inversionesek konpromiso irmoa duelako partaidetza horiek salneurri finko batean erosteko. 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 5.634 eta 5.892 mila euroko kontabilitate-balioa zuten partaidetza horiek (25. oharra).

Erakunde elkartuetako partaidetzei buruzko 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

Gerta liteke Taldearen 2017ko eta 2016ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuk erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak homogeneizatzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin dira baterakuntza-prozesuan.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Taldeko entitate batek ere ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Espainiako edo nazioarteko beste kreditu-erakunderen batean.

Orobat, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunde batek ere edo Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunderen bat barne hartzen duen talde batek ere —Balore Merkatuen Legearen 4. artikuluan jasota dagoenaren arabera— ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Taldeko kreditu-erakunderen batean.

2.2.6) Erakunde egituratuak

Taldeak erakundeetan parte hartzen duenean edo, arriskuak transmititzeko, bestelako helburu batzuetarako edo bezeroei inbertsio jakin batzuetara sartzea ahalbidetzeko, erakundeak eratzen dituenean, aurrez azaldutakoari jarraikiz kontrolik dagoen eta, beraz, bateratu beharrik dagoen ala ez zehazten da, arautegietan ezarritakoa aintzat hartuta. Zehazki, aintzat hartzen da ia Taldeak komisio arrakastatsuak sortzen dituen eta azpiko aktiboen kudeatzaileak baliogabetzeko aukerarik dagoen. Erakunde horien artean daude “Aktiboak titulizatzeko fondoak”. Horiek bateratu egiten dira, aurreko analisiaren arabera Taldeak kontrolatu egin dituela erabakitzen denean.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, erakunde egituratu bateratuei finantza-sostengua emateko kontratu bidezko akordioak bat datoz titulizazioen merkatuan erabilera arruntekoak diren laguntza-mekanismoekin, eta ez dago kontratu bidez ezarritakoaz bestelako finantza-sostengu esanguratsurik. Urteko kontu bateratuen 26. oharrean, entitate egituratu bateratuei lotutako saldoen berri ematen da.

Taldeak kudeatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta inbertsio- eta pentsio-fondoek ez dituzte betetzen erakunde egituratutzat jotzeko arautegi-eskakizunak, eta gainerako mendeko erakundeen irizpide berberekin aztertzen dira. Esan beharra dago, kasurik gehienetan pertsonalitate juridikorik gabeko txikizkako fondoak izaten direla eta kudeatutako ondarearen jabetza ematen dieten unitate inbertitzaileek

Erakunde eta fondo horiek buruaskiak dira jardueretan, ez daude aparteko laguntza finantzariorik gabe beraien jarduerak gauzatzea eragotz liezaiekeen kapital-egitura baten mende. Galdu-irabazi kontu bateratuko “Komisioen ondoriozko sarrerak” epigrafean (49. oharra) daude erregistratuta Taldeak ekitaldian erakunde eta fondo horiei emandako zerbitzuengatik (funtsean, ondareak kudeatzeko zerbitzuengatik eta zorroak gordailutzeagatik) sortutako komisioak, hirugarren batzuen zorroak gordailutzeagatik sortutako komisioekin batera.

2.2.7) Bateratze-perimetroko aldakuntzak

Bateratze-perimetroko aldakuntzak 2017an

2017ko ekitaldian, Credilka Taldea SA sozietatea desegin eta likidatu egin da, Kapital Sozietateen Legearen 38. artikuluan jasotakoaren arabera, baina horrek ez du eragin handirik izan 2017ko abenduaren 31ko finantzetako egoera-orri bateratuetan.

Bateratze-perimetroko aldakuntzak 2016an

2016ko ekitaldian, Taldeko Piensos del Norte SA sozietatea xurgatu zuen ISGA Inmuebles SAk. Horren ondorioz, Taldeak galdu egin zuen sozietate horretan zuen zuzeneko partaidetza. Era berean, ISGA Inmuebles SAk bereganatu egin zuen Copesa Montecerrao SL eta Copesa Ciempozuelos SL sozietateen kapital osoa. Copesa Ciempozuelos SL eskuratzearen ondorioz, Taldeak sozietate horren aktiboen eta pasiboen kontrola hartu zuen, baina horrek ez zuen eragin handirik izan 2016ko abenduaren 31ko finantzetako egoera-orri bateratuetan.

## 2.3 FINA 9 indarrean sartzea –Finantza-tresnak

2018ko urtarrilaren 1ean, Europar Batasunak onetsitako FINA 9 "Finantza-tresnak" araua sartu da indarrean. Arau honek aldaketak eragin ditu aurreko araudian, finantza-aktiboen eta - pasiboen sailkapenaren, balorazioaren eta aitortzearen alorretan. Hona hemen arau horren alderdi nagusiak:

- Balioespen mistoko ereduari eutsi egiten dio FINA 9 arauak, baina hura sinplifikatuta, eta finantza-aktiboak baloratzeko hiru modu nagusi ezartzen ditu: amortizatutako kostuan, arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela eta arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela. Erakundearen negozio-ereduaren eta finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuaren ezaugarrien araberakoa da sailkapen-oinarria. Ondare garbiko tresnetako inbertsioak arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela baloratu behar dira, baina hasieran aukera emanez arrazoizko balioko aldaketak beste emaitza orokor ez-birziklagarri batean aurkezteko, betiere tresna negoziatzeko ez bada mantentzen. Negoziatzeko mantentzen bada ondare-tresna, emaitzetan aurkeztu behar dira arrazoizko balioaren aldaketak.

  Finantza-pasiboei dagokienez, FINA 9 arauak ez du aldaketarik ekarri sailkapenean eta balorazioan. Salbuespen bakarra dago: norberaren kredituaren arriskuko aldaketak beste emaitza orokor batean onartu behar dira, arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren pasiboetan.

- FINA 9 arauaren baitan, “espero diren kreditu-galeren” eredu berria dago; KNA 39ko “narriaduraren ondoriozko galeren” eredua ordezkatzen du, eta galerak arau horrekin baino lehen aitortzea dakar.

  Metodologia horren arabera, hasierako aitorpenaren ondoren, “1. Fase”-tzat sailkatzen dira eragiketak, eta espero diren galerak hurrengo 12 hilabeteetan aitortu. Eragiketaren hasierako aitorpenean zenbatetsitako ez betetzeko arriskua nabarmen areagotzen bada, “2. Fase”-tzat sailkatzen dira, eta eragiketaren hondar-epemugari dagokion epean espero diren galerak aitortzen, ezar litezkeen hedapen-aukerak ere aintzat hartuta, dagokionean. Azkenik, eragiketak narriatuta badaude, hau da, diruaren denbora-balioa kontuan hartuta inbertsioaren zati bat ez berreskuratzea espero bada, “3. Fase”-tzat sailkatzen dira, eta espero den galera eragiketen hondar-epemugan aitortzen da. Orobat, eragiketa narriatuetan, kontabilitate-balioan (hornikuntzak kenduta) aitortzen dira interesak, ez hornikuntzak egin aurretiko zenbateko gordina aintzat hartuta.

- FINA 9ak lasaitu egin ditu estalduraren eraginkortasunerako errekerimenduak, eta harreman ekonomikoa eskatzen du estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren artean, eta estalitako ratioa Entitateak arriskua gestionatzeko erabiltzen duena izan dadila. Aurreko araudiaren baitan, estaldura oso eraginkorra da, hala aurrera nola atzera begira.

2018ko urtarrilaren 1ean araua lehen aldiz ezartzeko, honako esparru hauek hartzen dituen egokitzapen-proiektua jorratu du Taldeak, Kontseilu Errektoreak gainbegiratuta:

a) Finantza-tresnen sailkapena eta balorazioa

Taldean dauden negozio-ereduak ebaluatu eta identifikatzeaz gain, tresnak sailkatu dira negozio-eredu horiek kontuan hartuta eta “printzipalaren eta interesen ordainketa soilik” izeneko baldintzak bete diren ala ez kontuan hartuta.

Hauek dira Taldeak esparru horretan izan dituen inpaktu kualitatibo nagusiak:

- “Maileguak eta kobratzeko partidak” zorroko finantza-aktiboen sailkapenak eta balorazioak ez dute aldaketa handirik izan, kreditu-zorroen azpiko finantza-aktiboen kontratuzko fluxuak burutzean oinarritzen den negozio-eredua jarraitzen baita. Era berean, egindako azterketan ez dugu antzeman inolako zorrorik, FINA 9 arauak amortizatutako kostuan neurtzeko ezartzen duen kontratuzko eskudiru- fluxuen irizpidea ez betetzea eragingo duten ezaugarri bereziak dituenik.

- Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak eta Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak 2018ko urtarrilaren 1ean ebaluatu dituzte “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” eta “Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak” zorro zaharrak osatzen zituzten azpi-zorroetarako negozio-eredu egokiak. Horretarako, faktore jakin batzuk hartu dituzte aintzat: maiztasuna, aurreko ekitaldietako salmenten egutegia eta zenbatekoa, saltzeko arrazoiak, interes-tasen sentikortasuna eta etorkizuneko salmenten proiekzioak. Ildo horretan, zorra adierazten duten baloreen zorroen sailkapenean aldaketa garrantzitsuak egin dira, "arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela" kategoriatik "amortizatutako kostuan" kategoriara eraman baitira. Era berean, birsailkatu egin dira FINA 9an xedatutako kontratuzko eskudiru-fluxuen irizpidea betetzen ez duten errenta finkoko aktiboak, "arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela" kategoriatik, "arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela" kategoriara.

- “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” zorroan sailkatuta zeuden kapital-tresna batzuk, batez ere inbertsio-kolektiboko erakundeak, “arrazoizko balioan eta emaitza-kontuan aldaketak dituztela” sailkatu dira.

- “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak" zorroak ez du aldaketarik izan, eta "arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela" sailkatu da.

- Taldeak ez du finantza-pasiboetan aldaketarik izan, ez duelako "arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela" baloratutako pasiborik.

b) Finantza-tresnetan kreditu-arriskuaren narriadura nabarmena neurtzea

Aurreikusten diren kreditu-galeretan oinarritutako narriaduraren eredu berriaren ondorioz, handitu egin dira kreditu-inbertsioko zorroaren hornidurak. Taldeak zenbatespen kolektibo eta indibidualizatuetan oinarritutako narriadura-ereduak erabili ditu aurreikusitako galerak zenbatesteko, eragiketak arauaren arrisku-fase guztietara esleitzeko aukera ematen duen eragiketak sailkatzeko sistema baten bidez.

Narriadura zenbatesteko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zor-tresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak ere. Indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (espero den galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarriak direnak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, alderdi hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu- arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasuna.

c) Estaldura-kontabilitatea

Taldeak KNA 39aren estaldura-kontabilitateari eustea erabaki du, eta, ondorioz, arlo horretan ez da aldaketarik gertatu.

d) Eragiketen etekina edo kostu efektiboa osatzen duten kreditu-komisioak

FINA 9 arauaren arabera, komisio horiek geroratu egin behar dira, eta galdu-irabazien kontuan aitortu, eragiketaren bizialdian zehar. Hala, aldatu egin du KNA 39ak horri buruz zeukan irizpidea; izan ere, haren arabera, zerbitzuari lotutako kostu zuzenak eragiketa hasten zen unean egotzi ahal ziren. Taldeak zenbatetsi egin du 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden eragiketetan aurretiaz egotzitako kostu zuzenak geroratzeak duen inpaktua.

Berrikuste-prozesuan daudenez FINA 9a ezartzeko proiektuaren emaitzak, kontabilitate-zifretan agregatutako inpaktuak aurkeztuko ditugu segidan:

| | Milioi euro |
|---|---|
| **Balantzearen gaineko eragin garbia** | **(81,2)** |
| Kreditu-inbertsioaren narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketen hazkundea | (10,1) |
| Esleitutako aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketen murrizketa | 0,2 |
| Kreditu-komisioetan egozteko dagoen sarreraren erregistroa | (7,0) |
| Inbertsio-zorroen birsailkapenak | (95,9) |
| Eraginei lotutako geroratutako zergak | 31,6 |
| **Ondare garbiren gaineko eragin garbia (murrizketa)** | **(81,2)** |
| Balorazioagatiko doikuntzen gaineko eragina (murrizketa) | (77,4) |
| Erreserben gaineko eragina (murrizketa) | (3,8) |

Errenta finkoko azpi-zorro batzuk “arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela” kategoriatik “arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela” eta “amortizatutako kostuan” kategoriara eraman direnez, balorazioagatiko doikuntzak nabarmen murriztu dira.

FINA 9 araua ezartzeak inpaktu negatiboa izan du Talde bateragarriaren CET1 Fully loaded ratioan: oinarrizko 93 puntu negatibo ingurukoa.

Azkenik, LABORAL Kutxa Taldeak erabaki du doikuntza trantsizionalak ez ezartzea FINA 9ak kapitalean duen inpaktua (Espainiako Bankuaren 2017ko azaroaren 27ko 4/2017 Zirkularraren inpaktuekin pareka daitekeena) arintzeko. Doikuntza trantsizional horiek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko EB araudian daude jasota, horren bidez aldatu baita 575/2013 EB araudia, FINA 9 araua batetik fondo propioetan eta bestetik edozein estatu kidetako diru nazionalean izendatutako sektore publikoko esposizio batzuei dagokien esposizio handien tratamenduan sartzearen ondoriozko inpaktua arintzeko xedapen iragankorren alorrean.

2.4 Informazioaren konparagarritasuna

2017ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko kontabilitate-informazioa Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauetako irizpideei jarraikiz jaso da, eta 2016koaren parean jarri da, alderatu ahal izateko. 2016ko ekitaldiko informazioa 2017koarekin alderatzeko helburu bakarrarekin aurkeztu da, eta ez da 2017ko ekitaldiko urteko kontuen barruan kontuan hartuko.

## 3. Aldaketak eta erroreak kontabilitate-irizpide eta -estimazioetan

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Entitate Nagusiko administratzaileen erantzukizuna da. Urteko kontu bateratu hauetan zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso baloratzeko erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta partaidetzako erakundeen goi-zuzendaritzako kideek egin eta administratzaileek berretsi dituzte. Honako hauek hartu dira kontuan estimazio horietan:

- Zenbait finantza-aktibo narriatzeagatiko galerak (13.h oharra).
- Aktibo ukigarrietako eta aktibo ukiezinetako elementuei aplikatutako balio-bizitza (13.q eta 13.r oharrak).
- Merkatu arautuetan kotizatu ez diren zenbait finantza-aktiboren arrazoizko balioa (13.e oharra).
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera (13.u oharra).
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13.t oharra).
- Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko konpromisoak eta pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak (13.o oharra).
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren bilakaera (13.p oharra).
- Finkatzeko merkataritza-fondoaren balorazioa (13.ab oharra)
- Sozietateen gaineko zergaren estimazioa (41. oharra).

2017ko abenduaren 31n ukitutako kontu-sailei buruz eskuragarri genuen informazio onena erabili dugunez estimazioak egiteko, gerta liteke etorkizuneko gertakarien ondorioz horiek aldatu behar izatea hurrengo ekitaldietan. Edozein modutan ere, aldaketa hori prospektiboa izango da, eta estimazio-aldaketaren eraginak dagokion galdu-irabazien kontuan jasoko dira.

a) Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Transakzio edo jazoera jakin bat arautzen duen kontabilitate-arauren bat aldatzen denean edo Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, kontabilitate-irizpideak aldatzea erabakitzen duenean, aldaketok atzeraeraginez aplikatzen dira, baldin eta:

- Ezinezkoa ez bada aurreragoko ekitaldiko alderatze-informazioan kontabilitate-irizpide bat aldatzeak ekitaldi bakoitzean sortuko dituen eraginak zehaztea. Kasu horretan, atzeraeraginez aplikatzea posible den azken ekitaldiaren hasieratik aplikatuko da kontabilitate-irizpide berria. Ezinezkoa ez bada kontabilitate-irizpide berria aurreko ekitaldi guztiei aplikatzeagatik uneko ekitaldian metatuko den eragina zehaztea. Kasu horretan, aplikatzea posible den datarik urrunekoenetik aurrera aplikatuko da irizpide berria.

- Irizpidea aldatu edo ezartzen duen xedapenak edo arauak noiztik aplikatu behar den esaten ez badu.

Taldeari aplikagarri zaion kontabilitate-araudian hainbat aldaketa izan dira 2017ko ekitaldian zehar, aurreko ekitaldian aplikatuarekin alderatuta. Ondoren, aldaketarik esanguratsuenen berri emango dugu:

i) <u>2017ko urtarrilaren 1ean hasitako ekitaldietan nahitaez erabili beharreko arau, aldaketa eta interpretazioak</u>

- <u>KNA 7 (Aldaketa) “Emanbeharrekoinformazioariburuzkoekimena”</u>

Entitateak behartuta daude erabiltzaileei informazioa ematera, finantzaketa-jardueretan sortzen diren pasiboetan gertatutako aldaketak uler ditzaten. Honako hauen ondorioz sortutako aldaketak ere hartu dira aintzat:

- Eskudiru-fluxuen ondorioz sortutakoak, hala nola mailegu-erabilerak eta -itzulketak eta

- Kanbio ez-monetarioen ondoriozkoak, hala nola eskurapenak, besterentzeak eta egin gabeko kanbio-aldeak.

Finantzaketa-jardueretatik sortzen diren pasiboen kasuan, pasibo horien eskudiru-fluxuak finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxutzat sailkatu ziren edota sailkatuko dira eskudiru-fluxuen egoera-orrian. Jakinarazi beharreko informazioaren eskakizun berrian sartu behar dira, halaber, finantza-aktiboetako aldaketak (adibidez, finantzaketa-jardueretatik datozen pasiboak estaltzeko aktiboak), baldin eta finantza-aktibo horien eskudiru-fluxuak finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuetan sartu baziren, edota etorkizunean sartzen badira.

Aldaketak iradokitzen duenez, informazio-baldintza bete egingo litzateke, baldin eta finantzaketa-jardueretatik datozen pasiboen hasierako eta amaierako saldoen arteko berdinkatzea egingo balitz. Halere, ez du horretarako formatu berezirik zehazten.

Aldaketa horiek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako izango dute indarra.

Aldaketa hori ezarri izanak ez du eragin handirik izan Taldearen urteko kontu bateratu hauetan.

- KNA 12 (aldaketa) “Egin gabeko galerengatiko zerga geroratuaren ondoriozko aktiboakaitortzea”

  KNA 12 arauaren aldaketek egin gabeko galerengatiko zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak aitortzeko baldintzak argitzen dituzte. Aldaketa horiek zerga geroratuari eman beharreko kontabilitate-tratamendua argitzen dute, hain zuzen ere: aktibo bat arrazoizko balioan baloratzen denean eta arrazoizko balio hori aktiboaren oinarri fiskalaren azpitik dagoenean behar duen tratamendua. Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak kontabilizatzearen beste alderdi batzuk ere argitzen ditu.

  Aldaketa horiek 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako izango dute indarra.

  Aldaketa hori ezarri izanak ez du eragin handirik izan Taldearen urteko kontu bateratu hauetan.

ii) Oraindik indarrean sartu ez diren baina 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldien aurretik erabil daitezkeen arau, aldaketa eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Committee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratu zituzten. Horiek 2017ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak dira, baina Taldeak ez ditu aldez aurretik ezarri:

- FINA 4 (aldaketa) FINA 9 “Finantza-tresnak” FINA 4rekin “Aseguru-kontratuak” ezartzea

  IASBk 2016ko irailean argitaratu zituen FINA 4aren aldaketek hautazko bi ikuspegi txertatu dituzte aseguru-etxeentzat:

  • Eskakizun berezi batzuk betetzen dituzten erakundeek —informazioa aurkezten duen erakundean ezarri behar dira eskakizunak— 2021era bitarteko aldi baterako salbuespena izango dute FINA 9an; eta

  • FINA 9 “Finantza-tresnak” aseguru-kontratuen arau berria kaleratu aurretik ezarriz gero, horren ondorioz sor litekeen hegakortasuna ekitaldiaren emaitzan aitortu beharrean beste emaitza global batean aitortzeko aukera ematen die aseguru-kontratuak jaulkitzen dituzten konpainia guztiei.

  Kaleratzekoa den aseguru-kontratuen arau berriak ordeztu egingo du FINA 4 (orain argitaratu diren aldaketak ere barnean hartuta). Ondorioz, aseguru-arau berria indarrean sartzen denean aldi baterako salbuespena eta “gainjartze-ikuspegia” bertan behera gelditzea espero da.

Ez dugu espero aldaketa horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- FINA9"Finantza-tresnak"

Aktibo eta pasibo finantzarioen sailkapenaz, balorazioaz eta onarpenaz dihardu. KNA 9 arauaren bertsio osoa 2014ko uztailean argitaratu zen, eta KNA 39 arauaren, finantza-tresnak sailkatu eta baloratzeari buruzkoaren, gidalerroak ordezkatzen ditu. Balioespen mistoko ereduari eutsi egiten dio FINA 9 arauak, baina hura sinplifikatuta, eta finantza-aktiboak baloratzeko hiru modu nagusi ezartzen ditu: amortizatutako kostuan, arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela eta arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela. Erakundearen negozio-ereduaren eta finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuaren ezaugarrien araberakoa da sailkapen-oinarria. Ondare garbiko tresnetako inbertsioak arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela baloratu behar dira, baina hasieran aukera emanez arrazoizko balioko aldaketak beste emaitza orokor ez-birziklagarri batean aurkezteko, betiere tresnari negoziatzeko ez bazaio eusten. Negoziatzeko eusten bazaio ondare-tresnari, emaitzetan aurkeztu behar dira arrazoizko balioko aldaketak. Finantza-pasiboei dagokienez, ez da aldaketarik egon sailkapenean eta balorazioan. Salbuespen bakarra dago: norberaren kredituaren arriskuko aldaketak beste emaitza orokor batean onartu behar dira, arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten pasiboetan. FINA 9 arauaren baitan, balio-narriaduraren ondoriozko galeren eredu berria dago: espero diren kreditu-galeren eredua. Horrek KNA 39 arauko narriaduragatiko galeren eredua ordezkatzen du, eta, horren bidez, KNA 39arekin baino lehen aitortuko dira. FINA 9 arauak lasaitu egin ditu estalduraren eraginkortasunerako eskakizunak. KNA 39 arauaren baitan, estaldurak oso eraginkorra izan behar du, hala geroari nola iraganari begira. FINA 9 arauak ordezkatu egin du lerro hori, eta harreman ekonomikoa eskatzen du estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren artean, eta estalitako ratioa entitateak arriskua kudeatzen duena izan dadila. Dokumentazio garaikidea beharrezkoa da oraindik ere, baina ez da KNA 39 arauarekin prestatzen zena bezalakoa. Bukatzeko, informazio zabala eskatzen du, barne hartuz espero diren kreditu-galeratarako hornidurаren hasierako eta amaierako zenbatekoen berdinkatzea, hipotesiak eta datuak, eta KNA 30 arauaren jatorrizko sailkapeneko kategorien eta FINA 9 arauaren sailkapen-kategoria berrien arteko trantsizioaren berdinkatze bat.

FINA 9 araua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da. FINA 9 araua atzeraeraginez aplikatuko da , baina ez da eskatuko zifra konparatiboak berriro adierazteko. Erakunderen batek FINA 9 araua aldez aurretik aplikatzea erabakitzen badu, betekizun guztiak aldi berean aplikatu behar ditu. Araua 2015eko otsailaren 1a baino lehen aplikatzen duten erakundeek aukera dute, oraindik ere, hori faseetan aplikatzeko.

FINA 9 araua aplikatzearen ondorioak 2.3 oharrean zehaztu ditugu.

- FINA15“Bezeroekikokontratuetatikdatozensarreraarruntak”

  2014ko maiatzean, baterako arau bat plazaratu zuten IASBk eta FASBk, bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arrunten aitortza dela eta. Arau horri men eginez, bezeroak saldu den ondasun edo zerbitzuaren kontrola lortzen duenean aitortzen dira sarrerak, hau da, ondasun edo zerbitzu horren erabilera zuzentzeko eta hartatik mozkinak lortzeko gaitasuna duenean. Sarrerak denboran zehar edo une jakin batean aitortu behar diren zehazteko gida bat erantsi du FINA horrek. FINA 14 arauak informazio zabala eskatzen du, bai aitortutako sarrerei buruz, bai dauden kontratuen bidez etorkizunean espero diren sarrerei buruz. Halaber, aitortzen diren sarrerak zehazteko Zuzendaritzak emandako irizpide nabarmenei buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa ere eskatzen du, bai eta irizpide horien gaineko aldaketei buruzkoa ere.

  Ondoren, 2016ko apirilean, arau horri egindako aldaketak argitaratu zituen IASBk; funtsezko printzipioak aldatzen ez badituzte ere, alderdirik korapilatsuenetako batzuk argitzen dituzte.

  FINA 15 araua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

  Ez dugu espero arau berri horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- FINA 15 (aldaketa) FINA 15 “Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak” arauaren argibideak

  IASBk aldatu egin du FINA 15 araua. Hauexek dira aldaketaren helburuak:

  - Gida argitzea, jarduera-obligazioak identifikatzeko, jabetza intelektualeko lizentziak kontabilizatzeko eta ebaluazio nagusia versus eragilea egiteko (sarrera arrunt garbiak versus sarrera arrunt gordinak aurkezteko).

  - Gidaren area horietako bakoitzean adibide berri eta aldatuak txertatzea.

  - Arau berrirako trantsiziorako baliabide praktiko gehigarriak ematea.

  Aldaketa horiek ez dituzte FINA 15 arauaren funtsezko printzipioak aldarazten; arauaren alderdirik konplexuenetako batzuk argitzen dituzte. Erakunde askorentzat aldaketak garrantzitsuak izan litezke, eta kontuan hartu beharko da Zuzendaritzak nola ebaluatuko duen FINA 15 arauaren inpaktua.

  Aldaketa hori 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako izango du indarra.

  Ez dugu espero aldaketa horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- FINA16"Errentamenduak"

  2016ko urtarrilean, IASBk arau berri hori argitaratu zuen, FASBrekin batera KNA 17 "Errentamenduak" araua indargabetzeko gauzatu duen proiektu baten ondorioz.

  IASBk eta FASBk ondorio berberak atera dituzte errentamendu-kontratuak kontabilizatzearekin zerikusia duten arlo askotan, baita errentamenduaren definizioan, errentamenduak balantzean islatzeko eskakizunean eta errentamenduen ondoriozko pasiboak baloratzeko eran ere. Errentatzailearen kontabilizatzeko moduan aldaketa handirik ez egitea ere erabaki zuten IASBk eta FASBk, eta, beraz, lehen zeudenetan geratu ziren aurreko arautegiko baldintzak.

  Halere, desadostasunak daude IASBren eta FASBren artean, errentamenduen alorreko gastuak emaitza-kontuan eta eskudiru-fluxuen egoera-orrian aitortu eta aurkezteari dagokienez.

  Arau hori 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan aplikatuko da. Aldez aurretik ezar daiteke, baldin eta aldi berean FINA 15 "Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak" araua onartzen bada.Ez dugu espero arau berri horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

iii) Aurrez erabaki ezin diren edo Europako Batasunak bere egin ez dituen arauak, aldaketak eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Committee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratuak zituzten, baina Europar Batasunak ez ditu oraindik bere egin:

- FINA10(aldaketa)etaKNA28(aldaketa)"Inbertitzailebatenetaharenelkartuenedo baterako negozioenartekoaktiboensalmentaedoekarpena"

  Inbertitzaile baten eta haren elkartuen eta baterako negozioen arteko aktibo-salmenten eta -ekarpenen kontabilitate-tratamendua argitu egiten dute aldaketa horiek. Erakunde elkartuari edo baterako negozioari saldutako edo ekarritako aktibo ez-monetarioak negozio diren ala ez, horren araberakoa da tratamendua. Aktibo ez-monetarioak negozio badira, irabazi edo galera osoa aitortu behar du inbertitzaileak. Aktiboak ez badatoz bat negozioaren definizioarekin, beste inbertitzaile batzuen interesen arabera aitortu behar ditu inbertitzaileak irabaziak edo galerak. Inbertitzaileak bere elkartuari edo baterako negozioari aktiboak saldu edo ekartzen dizkionean soilik ezarriko dira aldaketok.

  Jatorrian, FINA 10 eta KNA 28 arauei egindako aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango zuten indarra, eta aurrera begira aplikatuko ziren. Dena delarik ere, horien indarraldia atzeratzeko erabakia hartu zuen IASBk, 2015eko urtearen amaieran, baina ez zuen data zehatza finkatu. Zergatik hartu zuen erabaki hori? Berrikuspen zabalagoa ari delako prestatzen, halako eragiketen kontabilitatea eta erakunde elkartuen eta baterako negozioen beste alderdi batzuk erraztu ahal izateko.

  Ez da espero aldaketek eragin nabarmenik izatea Taldearen urteko kontu bateratuetan, Europar Batasunak bere egiten baditu.

- FINA 2 (aldaketa) “Akzioetan oinarritutako ordainketadun transakzioen sailkapena eta balorazioa”

  FINA 2 arauaren aldaketak, FINA arauak Interpretatzeko Batzordeak garatu zuenak, akzioetan oinarritutako ordainketadun transakzio-mota batzuk nola kontabilizatu argitzen du. Ildo horretatik, hauek kontabilizatzeko jarraibideak ematen ditu:

  - Kontzesioaren errebokaezintasunerako baldintzen eta errebokaezintasunerako determinanteak ez diren baldintzen eraginak, eskudiruz likidatutako akzioetan oinarritutako ordainketen balorazioan.
  - Akzioetan oinarritutako ordainketadun transakzioak, zerga-atxikipenerako obligazioetarako likidazio garbiko ezaugarria dutenak; eta
  - Akzioetan oinarritutako ordainketaren terminoak eta baldintzak aldatu egiten ditu. Hau da, eskudiruz likidatutako transakziotzat sailkatu beharrean, ondare garbiaren bidez likidatutako transakziotzat sailkatuko da aurrerantzean.

  Ez da espero aldaketak eragin nabarmenik izatea Taldearen urteko kontu bateratuetan, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA arauen urteko hobekuntzak. 2014-2016 zikloa

  Aldaketek FINA 1, FINA 12 eta KNA 28 arauetan izango du eragina eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan (FINA 1 eta KNA 28 arauen kasuan) eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerakoetan (FINA 12aren kasuan) aplikatuko dira, EBk onartzen baditu. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

  - FINA 1, “Finantza Informazioko Nazioarteko Arauak lehenengoz ezartzea”. Epe laburrerako salbuespenak kendu dira, FINA lehen aldiz ezartzen duten erakundeetarako.
  - FINA 12 “Beste entitate batzuetako partaidetzak ezagutaraztea”. Arauaren irismenari buruzko argibidea.
  - KNA 28 “Erakunde elkartuetako eta baterako negozioetako inbertsioak”. Erakunde elkartu edo baterako negozio bateko inbertsioa arrazoizko balioan baloratzea.

  Taldea aztertzen ari da aldaketek Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezaketen eragina, Europar Batasunak bere egiten baditu.

- KNA40(aldaketa)“Ondasunhigiezinetakoinbertsioentransferentziak”

  Aldaketa horrek argitzen duenez, ondasun higiezinetako inbertsioetatik edota ondasun higiezinetako inbertsioetara transferentziaren bat egiteko, aldaketak egin behar dira erabileran. Erabileran aldaketarik egin den ondorioztatzeko, ebaluazioa egin behar da, eraikinak ondasun higiezinetako inbertsioen definizioa betetzen ote duen jakiteko. Aldaketa hori ebidentzia bidez justifikatu behar da. IASBk berretsi zuenez, asmoan aldaketa bat egitea, besterik gabe, ez da transferentziari eusteko arrazoi nahikoa.

  Aldaketa horrek 2018ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako izango du indarra. Dena den, aurrez ere aplika daiteke.

  Taldea aztertzen ari da aldaketak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINAIB22“Atzerri-dirutan egindakoaurretikotransakzioaketakontraprestazioak”

  FINAIB horrek aztertzen du nola zehaztu transakzioaren data, atzerri-dirutan egindako transakzioei buruzko KNA 21 araua ezartzen denean. Erakundeak atzerri-dirutan izendatutako kontratuetan aurretiko kontraprestazioa ordaindu edo jasotzen duenean ezarri behar da interpretazioa.

  Transakzioaren datak zehazten du zer kanbio-tasa erabili behar den aktiboa, gastua edo sarrera hasiera batean aitortzeko. Gai hori landu behar izateko arrazoia hauxe da: KNA 21ak “transakzioaren eguneko” kanbio-tasa erabiltzea eskatzen du; hau da, transakzioa lehen aldiz aitortzeko kalifikatzen den eguneko kanbio-tasa. Kontua da, beraz, transakzioaren data zein den: aktiboa, gastua edo sarrera hasiera batean aitortzen den eguna, edota aurretiko kontraprestazioa ordaintzen edo kobratzen den lehen eguna; bataren edo bestearen arabera, ordainketa aurreratua edo sarrera atzeratua izango da ondorioa.

  Ordainketa/kobrantza bakarra egiten denerako nahiz ordainketa/kobrantza ugari egiten direnerako gida eskaintzen du interpretazioak. Praktikan aniztasuna murriztea da gidaren helburua.

  Aldaketa 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

  Ez da espero interpretazioak eragin nabarmenik izatea Taldearen urteko kontu bateratuetan, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA17“Aseguru-kontratuak”

  2017ko maiatzean, IASBk aseguru-kontratuei buruzko kontabilitate-araua garatzeko iraupen luzeko proiektua amaitu eta FINA 17 araua, “Aseguru-kontratuak” izenekoa, argitaratu zuen. Gaur egun askotariko kontabilitate-jarduerak baimentzen dituen FINA 4 “Aseguru-kontratuak” araua ordezkatu du FINA 17ak. FINA 17ak, funtsean, partaidetza diskrezionaleko osagaiak dituzten aseguru-kontratuak eta inbertsio-kontratuak egiten dituzten erakunde guztien kontabilitatea aldatuko du.

Arau hori 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan aplikatuko da, baina aurretik aplikatzeko aukera ere badago, FINA 15 “Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak” eta FINA 9 “Finantza-tresnak” arauak ezartzen badira. FINA 17a Europar Batasunak onartzeko dago.

Taldea aztertzen ari da arau horrek Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINAIB23,“Irabaziengainekozergarentratamenduariburuzkoziurgabetasuna”

  Interpretazioak emandako eskakizunak gehitu egin zaizkie KNA 12 "Irabazien gaineko zerga" arauak emandakoei, ziurgabetasunaren eraginak irabazien gaineko zergaren kontabilitatean nola islatu behar diren zehazteko. Kontabilitate-tratamenduaren inguruan ziurgabetasuna dagoenean KNA 12aren aintzatespen- eta zenbatespen-eskakizunak nola erabili argitzen du interpretazio horrek.

  Interpretazioa 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

  Taldea aztertzen ari da interpretazio horrek Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA 9 (aldaketa)“Konpentsazionegatibodunordainketaaurreratuarenezaugarriak”

  Konpentsazio negatibodun ordainketa aurreratuaren ezaugarriak dituzten tresnen baldintzak ez zetozen bat kontratu baten hutsaltze aurreratuagatiko “arrazoizko kalte-ordain osagarriaren” nozioarekin, FINA 9aren arabera. Izan ere, gerta zitekeen mailegu-emaileak onartu beharreko ordainketa aurreratuaren zenbatekoa askoz txikiagoa izatea ordaindu gabeko maileguaren printzipalaren eta interesen batura baino. Ondorioz, tresna horiek ez zuketen izango arrazoizko balioan eta galdu-irabazien kontuan aldaketak dituztela kontabilizatzera eramango lituzkeen kontratuzko eskudiru-fluxurik (hau da, kapitalaren eta interesen ordainketarik). FINA 9 arauaren aldaketaren arabera, alde batek arrazoizko konpentsazioa ordaindu edo kobratu ahal izango du kontratu bat aurretiaz hutsaltzen denean. Horrela aukera egon daiteke tresna horiek kostu amortizatuan edo arrazoizko balioan eta bestelako emaitza globalean aldaketak dituztela balioesteko. Aldaketa 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

  Taldea aztertzen ari da aldaketa horrek Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- KNA 28 (aldaketa) “Erakunde elkartuetako eta baterako negozioetako epe luzerako interesak”

  Irismen mugatuko aldaketa horrek argitzen duenez, elkartutako edo baterako negozioetako epe luzerako interesak FINA 9 “Finantza-tresnak” arauko eskakizunen arabera kontabilizatzen dira. Izan ere, funtsean, elkartutako edo baterako negozioan egindako inbertsioaren parte bat dira, baina ez zaie partaidetza-metodoa aplikatzen. Era berean, IASBk adibide bat argitaratu du, KNA 28aren eta FINA 9aren eskakizunak epe luzerako interes horiekin nola aplikatu behar diren azaltzeko. Aldaketa 2019ko

urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

Ez da espero aldaketak eragin nabarmenik izatea Taldearen urteko kontu bateratuetan, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA arauen urteko hobekuntzak. 2015-2017 zikloa

Aldaketek FINA 3, FINA 11, KNA 12 eta KNA 23 arauetan izango du eragina eta 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko dira, EBk onartzen baditu. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

• FINA 3 “Negozio-konbinazioak”. Negozioaren kontrola eskuratzen denean, berriro neurtuko da baterako eragiketa batean lehendik zegoen partaidetza.

• FINA 11 “Baterako akordioak”. Negozioaren baterako kontrola eskuratzen denean, ez da berriro neurtuko baterako eragiketa batean lehendik zegoen partaidetza.

• KNA 12 “Irabazien gaineko zerga". Dibidenduak ordaintzearen zerga guztiak modu berean jasotzen dira kontabilitatean.

• KNA 23, “Interesengatiko kostuak”: Aktibo egoki bat garatzeko berariaz egindako mailegu bat mailegu generikoen partetzat hartzen da, aktiboa erabiltzeko edo saltzeko prest dagoenean.

Taldea aztertzen ari da aldaketa horiek Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezaketen eragina, Europar Batasunak bere egiten baditu.

b) Erroreak eta aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-erroreak

Urteko kontu bateratuak egitean aurreko ekitaldietan sortutako erroreak ez-egiteen edo zehaztasun-falten ondorio dira. Horiek epealdi horietarako urteko kontu bateratuak egitean eskura zegoen eta Entitate Nagusiak egoera-orri bateratuok egitean erabili behar zukeen informazio fidagarriaren erabilerako hutsegiteek ekarri dituzte.

Aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitu ondorengo lehen urteko kontu bateratuetan zuzentzen dira atzeraeraginez, inoiz egin izan ez balira bezala, eta:

• Errorea duten finantzetako egoera-orri bateratuetako partiden zenbatekoak, urteko kontu bateratuetan alderatzeko argitaratzen direnak, berriro ematen dira, bai eta txosten bateratuaren oharrak ere.

• Informazioa dugun ekitaldirik zaharrenaren irekiera-balantze bateratua berriro ematen da, baldin eta alderatzeko aurkezten diren finantzetako lehen egoera-orri bateratuak baino lehenago gertatu bazen errorea.

Aurreragoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioa okerra izateak ekitaldi bakoitzean duen eragina zehaztea ezinezkoa denean, kopuruak berritzeko aukera ematen duten ekitaldirik zaharrenetako hasierako saldoak zuzentzen dira. Aurreko ekitaldi guztietan gertatutako erroreak uneko ekitaldiaren hasieran metatu duen eragina zehaztea ezinezkoa denean, berriz, alderatzeko emandako informazioa berriro ematen da, eta, beraz, errorea etorkizunerako zuzenduta geratzen da, egin daitekeen datarik zaharrenetik aurrera.

Ondare garbi bateratuari eragiten dioten aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitzen diren ekitaldian zuzentzen dira, kasuan kasuko ondare garbi bateratuaren kontua erabiliz, betiere. Aurreko ekitaldietako erroreak ez dira sekula horiek aurkitu direneko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua erabiliz zuzenduko. Garrantzi erlatiborik ez izatea eta, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraikiz, errorearen eragina zehaztea ezinezkoa izatea dira salbuespen bakarrak.

Aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-zenbatespenean aldaketak egitea, doikuntzak egitea da, hain zuzen ere aktibo edo pasibo baten kontabilitate-balioan edo aktibo baten aldizkako kontsumoan doikuntzak egitea. Horretarako, elementuaren egungo egoera, etorkizunean espero diren mozkinak eta kasuan kasuko aktibo eta pasiboei lotutako betebeharrak hartzen dira kontuan.

Kontabilitate-estimazioetan aldaketak egin ahal izateko, aparteko informazioa edo gertakari berriak lortu behar dira, eta, beraz, aldaketak ez dira erroreen zuzenketak. Aldaketok aurrera begira onartzen dira aldaketak eragindako ekitaldiko edo etorkizuneko ekitaldiko edo ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan ez da aurreko ekitaldiei dagokien errore-zuzenketa esanguratsurik egin. Bestalde, kontabilitate-estimazioetan ere ez da egin ekitaldi horiei eragiten dien edo etorkizuneko ekitaldiei eragin ahal dien aldaketa esanguratsurik.

## 4. Ekitaldiko soberakinaren aplikazioa

Kreditu Kooperatibei buruzko 13/1989 Legearen arabera —Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuen—, Nahitaezko Erreserba Fondora eta Heziketako eta Sustapeneko Fondora bideratzen ez diren zenbatekoak Batzar Nagusiaren esanera jarri behar dira. Batzarrak honela bana ditzake:

- Bazkideen artean.
- Borondatezko Erreserba Fondora bideratuta.

Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarrita dagoenez, soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- % 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondora.
- % 25, gehienez, sustapen-behar sozialetara eta kooperatiba artekoetara. Zehazki, gutxienez % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora bideratuko da eta gehienez % 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialera.

- Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku egongo da, eta bazkideen itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Fondoak zuzkitzeko eta antzekoetarako erabili ahal izango du.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean erdibanatuko da.

Entitatearen estatutuen arabera, lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Entitate Nagusiarekin egindako eragiketen arabera.

Entitate Nagusiaren 2017ko ekitaldiko emaitzen soberakina banatzeko proposamena, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari onesteko aurkeztuko diona, eta 2016rako onetsita dagoena, hauxe da:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Banaketa: | | |
| - Kapital sozialera egindako ekarpenen ondoriozko ekitaldiko soberakin gordina aplikatzearen kontura banatutako interes gordinak | | |
| Kapital soziala | 29.170 | 28.700 |
| - Nahitaezko Erreserba Fondoa | 42.956 | 39.166 |
| - Heziketako eta Sustapeneko Fondoa (*) | - | - |
| - Kooperatiba-itzulkinak | 21.478 | 19.583 |
| - Kooperatiba arteko Fondo Soziala | 12.887 | 11.750 |
| Ekitaldiko emaitza | 106.491 | 99.199 |

(*) Heziketako eta Sustapeneko Fondorako zenbatekoa nahitaezko minimoari dagokio, eta 2017an 8.591 mila eurokoa eta 2016an 7.833 mila eurokoa izan da (57. oharra).

## 5. Negozio-segmentuen araberako informazioa

FINA 8 araua aplikatuta, negozio-segmentuen finantza-betetzeari buruzko informazioa emango dugu jarraian, Entitate Nagusiaren Zuzendaritzak segmentu horien etekina ebaluatzeko barruan erabiltzen duen informazioa oinarri hartuta.

FINA 8 arauaren arabera, segmentu operatiboei buruzko informazioa eman egin behar da, baldin eta horien sarrera arruntak gutxienez segmentu operatibo guztien sarrera arrunten baturaren % 10ekoak badira edo horien emaitzak gutxienez honako magnitude hauetatik handienaren % 10 osatzen badu: (i) galerarik deklaratu ez duten segmentu operatibo guztien irabazien batura eta (ii) galerak deklaratu dituzten segmentu operatibo guztien galera deklaratuen batura. Edo, bestela, haien aktiboak gutxienez segmentu operatibo guztien aktiboen baturaren % 10ekoak badira. Era berean, segmentu operatiboei buruzko informazioa eman egin behar da, edozein tamaina dutela ere, baldin eta guztien artean Taldearen sarrera arrunten % 75 osatzen badute gutxienez.

Negozio-segmentuen araberako informazioa oinarrizko tresna da LABORAL Kutxa Taldearen jardueren jarraipena eta gestioa egiteko:

a. Segmentazio-irizpideak

- Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian azaltzen diren negozio-unitateak LABORAL Kutxa Taldearen egiturak eta antolakuntzak ezarritako negozio-lerroen arabera ezarri dira:

- Txikizkako banku-jarduera

- Aseguruen negozioa

“Txikizkako Banka” negozioak inbertsio-produktuak eta aurrezki-produktuak eskaintzen ditu. Inbertsioari dagokionez, hipoteka-produktuak, kontsumorako kreditua, zirkulatzailea eta enpresentzako finantzaketa merkaturatzen dira bereziki. Aurrezkiari dagokionez, berriz, gordailuak (agerikoak eta eperakoak), abalak, ordainbideak (kreditu-txartelak eta zordunketa-txartelak), inbertsio-fondoak, pentsio-fondoak eta BGAEak dira produktu nagusiak. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok bere bulego-sarearen bidez egiten du, batik bat, negozio hori, edo Entitate horrek % 100ean mendean dituen sozietate jakin batzuen bidez, Entitate Nagusiaren jardueraren luzapen zuzentzat hartzen baitira. Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren Kontseilu Errektoreari dagokio erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

“Aseguruen negozioaren” barruan sartzen dira Taldeak Seguros Lagun Aro Vida SAren eta Seguros Lagun Aro SAren bidez egiten dituen jarduerak. Taldeak bizitza-arriskuko, bizitza-aurrezkiko eta unit linked izeneko aseguruak merkaturatzen ditu bizitza-aseguruen jardueraren barruan. Horrez gain, bizitzakoak ez diren aseguruak merkaturatzen ditu, batik bat auto-aseguruak, erantzukizun zibilekoak eta arrisku anitzekoak, etxekoak batez ere. Bi sozietateon Administrazio Kontseiluei dagokie erabaki estrategikoak, gestioari buruzkoak eta operatiboak hartzea.

Hala ere, Taldearen negozio guztietako erabakiak LABORAL Kutxa Taldearen barruan egoteagatik ezarritako kontrolpean hartzen dira.

- Segmentazio geografikoa

Taldeak 324 bulegoko sarearen bidez gauzatzen du bere jarduera, 2017ko abenduaren 31ko datuetan. Horietatik 194 Euskal Autonomia Erkidegoan daude, 41 Nafarroan eta 89 Estatuko gainerako lurraldeetan (2016ko abenduaren 31n, 335 bulego ziren, horietatik 203 Euskal Autonomia Erkidegoan, 43 Nafarroan eta 89 Estatuko gainerako lurraldeetan).

Urteko kontu bateratu hauetako 21. oharrean zehazten dira Taldearen finantza-aktibo, mailegu eta kobratu beharreko kontu-sailen banaketa geografikoa. Taldearen diru-sarrerei dagokienez, gehientsuenak Espainian sortzen dira.

Beraz, esparru geografikoa segmentatzeko irizpideei dagokienez, ez da alderik ikusi Taldearen jarduera-eremuen artean (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eta Estatuko gainerako lurraldeen artean), eta, beraz, ez dago irizpide horren arabera informazioa bereizi eta zatikatu beharrik.

b. Informazio zatikatua lantzeko erabili diren oinarriak eta metodologia

Informazio hau osatzeko, LABORAL Kutxa Taldea osatzen duten sozietateen kontabilitate indibiduala hartu da kontuan, dagozkion baterakuntzako ezabapenak eta doikuntzak eginda.

Negozio-unitate bakoitza negozio independentetzat hartzen denez, negozioen artean diru-sarreren eta gastuen fluxuak gertatzen dira produktuak, zerbitzuak edo sistemak banatzeko zerbitzuak emateagatik. Segmentuen arteko barne-emaitzak kentzearen ondorio dira, funtsean, doikuntzak eta ezabapenak. Horrek, azkenean, ez du eraginik taldearen emaitza-kontuan.

c. Negozioen araberako segmentazioa

Jarraian, 2017ko eta 2016ko ekitaldietako balantze bateratura eta galdu-irabazien kontu bateratura egin diren ekarpen nagusiak azaltzen dira, kontuan hartu gabe taldeko entitateekin egindako transakzioen eragina:

| | 2017 | | |
|---|---|---|---|
| | **Txikizkako banku-jarduera** | **Aseguruen negozioa** | **Taldearena guztira** |
| **Galdu-irabazien kontu bateratua:** | | | |
| Marjina gordinari ekarritakoa | 375.265 | 36.225 | 411.490 |
| Administrazio-gastuak | 207.925 | 24.430 | 232.355 |
| Ekitaldiko emaitza | 103.559 | 9.290 | 112.849 |
| **Balantze bateratua:** | | | |
| Aktiboak guztira | 21.669.009 | 766.780 | 22.435.789 |

| | 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | **Txikizkako banku-jarduera** | **Aseguruen negozioa** | **Taldearena guztira** |
| **Galdu-irabazien kontu bateratua:** | | | |
| Marjina gordinari ekarritakoa | 368.679 | 36.826 | 405.505 |
| Administrazio-gastuak | 214.598 | 23.631 | 238.229 |
| Ekitaldiko emaitza | 93.883 | 9.590 | 103.473 |
| **Balantze bateratua:** | | | |
| Aktiboak guztira | 20.568.452 | 745.714 | 21.314.166 |

## 6. Gutxieneko koefizienteak

### 6.1 Gutxieneko baliabide propioen koefizienteak

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordea arduratzen da nazioarteko finantza-arauketa bateratzeaz. Batzorde horrek hartutako erabakien bidez kreditu-erakundeetarako taxututako lehen arautegian, arrisku guztien gainean % 8ko gutxieneko kapitala finkatu zen (Basilea I, 1988). Geroago, 2004an, Basilea II hitzarmenak hobetu egin zuen arriskua zenbatesteko mekanismoen sentiberatasuna, eta beste bi zutabe eman zituen: erakunde bakoitzak berekapitala eta arriskuak ebaluatzearena (II. zutabea) eta merkatu-diziplinarena (III. zutabea). 2010eko abenduan, arau-esparru berria onartu zuen Batzordeak: Basilea III, alegia. Kalitate handiagoko tresnen bidez, kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta sendoa izatea eta
erakundeetan eta herrialdeetan homogeneotasunez aplikatzea du xede. Kapitalari buruzko akordio berriak kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetu zuen. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ere erantsi zituen, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikoan txertatu zituen Basilea III akordio horiek, 2019ko urtarrilaren 1era bitartean faseka sartzeko eredu baten -phase-in— barruan. Horretarako, bi esparru erabili zituen: Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/UE (CRD-IV) Zuzentaraua, kreditu-erakundeak jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamendua (EBrena) (aurrerantzean CRR), kreditu-erakundeek eta inbertsio-enpresek Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialean dituzten zuhurtziazko betekizunei buruzkoa eta 2014ko urtarrilaren 1ean aplikatzekoa.

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartetik datozen arautegi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa, onetsi zen, 2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikatzekoak diren errekerimenduetarako arautze-aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari jarraikiz. Indarreko araudiak (I. zutabeak) ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioak kalkulatzeko, Taldearen kreditu-arriskua, truke-arriskua, negoziazio-zorroaren arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua hartzen dira kontuan. Horrez gain, arrisku-kontzentrazioaren mugak bete behar ditu Taldeak.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, kreditu-erakundeen antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea garatzen duenak, lege horren arau-garapena osatzen du eta berori argitaratu arte kreditu-erakundeen antolamenduari eta diziplinari buruz egin diren eta arautegi-maila duten arau guztiak testu bakar batean biltzen ditu.

Halaber, azpimarratzekoa da 2015-2017 epealdian CRR Erregelamendua osatzen duten arau berriak argitaratu direla, fondo propioei, likideziari, I. zutabeko arriskuei eta kapital-errekerimenduei dagozkien gaietan.

Horrela, bada, 2016ko otsailaren 2an, Espainiako Bankuak 2/2016 Zirkularra jaulki zuen, Espainiako ordenamendu juridikoan 2013/36/UE Zuzentarauaren transposizioa egiteko helburuz, kreditu-erakundeei dagokienez. Horrez gain, 575/2013 Araudiak (EBrenak) nazioko agintaritza eskudunari aitortzen dizkion aukeretako bat jasotzen du Zirkularrak, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabilitakoak osatuz.

Zirkular horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/UE Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk ere garatzen ditu. Zuzentarau horrek 98/78/CE, 2002/87/CE, 2006/48/CE eta 2009/138/CE Zuzentarauak aldatzen ditu, finantza-konglomeratu bat osatzen duten finantza-erakundeen gainbegiratze osagarriari dagokionez. Zuzentarau horren transposizioa, funtsean, eginda dago, bai 10/2014 Legeak bai 84/2015 Errege Dekretuak honako arau hauetan egindako aldaketen bidez, hurrenez hurren: 5/2005 Legean, apirilaren 22koan, finantza-konglomeratuen gainbegiratzeari buruzkoan eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzekoan, eta lege hori garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretuan.

Azkenik, 2017ko ekitaldian kaleratu da Espainiako Bankuaren 2017ko urriaren 24ko 3/2017 Zirkularra, 2014ko urtarrilaren 31ko 2/2014 Zirkularra aldatzen duena. Zirkular horren helburu nagusia da 2/2014 Zirkularraren alderdi batzuk egokitzea, batez ere garrantzi txikieneko kreditu-erakundeei dagokienez eta Europako Banku Zentralak erakunde garrantzitsuen inguruan onartutako azken xedapenei dagokienez (batez ere Europako Banku Zentralaren 2017ko apirilaren 4ko 2017/697 EB Orientazioari dagokionez, haren bidez xedatzen baita Batasuneko zuzenbideak garrantzi txikieneko erakundeen inguruan eskaintzen dituen aukerak eta ahalmenak erabiltzeko aukera agintaritza nazionalen aldetik). Era berean, kendu egin dira 2017ra arte ezarri beharrekoak ziren aukera iragankorrei buruzko arauak.

CRR Erregelamenduan ezarritako eskakizunei jarraikiz, kapitalaren % 8ko ratioa bete beharko dute, une oro, kreditu-erakundeek. Dena den, kontuan izan behar dugu, arau-esparru berrian arautzaileek beren ahalmenak erabil ditzaketela, erakundeei aparteko kapital-maila bat eskatzeko.

Zentzu horretan, Entitate Nagusiak jakinarazpen bat jaso zuen Espainiako Bankutik, aplikagarri zaizkion zuhurtziazko gutxieneko errekerimenduen inguruko erabakiari buruz. Horren arabera, LABORAL Kutxak % 8,005eko CommonEquityTier 1 (CET 1) ratioa izan behar du, *phased-in* kapital erregulatorioaren gainean neurtua. Errekerimendu horrek barne hartzen ditu 1. zutabeak eskatzen duen gutxienekoa eta 2. zutabearen eskakizuna, bai eta kapitalari eusteko koltxoia ere. Aldi berean, 1. zutabearen % 8ko eskakizunetik abiatuz, Kapital Osoaren *phased-in* gutxieneko errekerimenduak % 11,505ekoak dira.

CET1en % 8,005aren errekerimenduak osagai hauek ditu: 1. zutabeak eskatzen duen CET1aren gutxienekoa (% 4,5ekoa), 2. zutabearen errekerimendua (%1,63koa) eta kapitalari eusteko koltxoia (% 1,875ekoa).

Hona hemen Taldearen Entitate Nagusiaren zuzendaritzak baliabide propioen kudeaketaren inguruan finkatutako helburu estrategikoak:

- Gutxieneko baliabide propioen inguruan aplikatzekoa den araudia une oro betetzea, bai banaka bai taldean.

- Baliabide propioen kudeaketan efizientziarik handiena bilatzea, errentagarritasuneko eta arriskuko beste aldagai batzuekin batera baliabide propioen kontsumoa funtsezko aldagaitzat har dadin, Taldeko inbertsio-erabakiak hartzeko egiten diren analisietan.

Helburu horiek betetzeko, baliabide propioak kudeatzeko hainbat politika eta prozesu ditu Taldeak ezarrita. Hauek dira horien jarraibideak:

- Taldeak jarraipeneko eta kontroleko unitate bat du, Entitatearen Arriskuen Zuzendaritzaren menpean. Espainiako Bankuak baliabide propioez ezarrita duen araudia zenbateraino ari den betetzen aztertzen du.

- Taldearen antolamendu estrategiko eta komertzialean, horiek Taldearen baliabide propio konputagarrietan duten eragina eta kontsumoaren, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa gakotzat hartzen dira erabakiak hartzeko orduan.

- Taldearen kaudimen-egoerari eta etorkizuneko plangintzari etengabeko jarraipena eginez monitorizatzea. Bi agertoki hartzen dira kontuan: nagusia, datozen hiru ekitaldietarako gertagarriena den hipotesiarekin, eta hainbat estres-agertoki, askotariko aurkako egoerak gainditzeko duen finantza-gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin.

Taldeak aurrez azaldu dugun kaudimen-araudian xedatutakoari lotuz kudeatzen ditu bere baliabide propioak, definizio kontzeptualei dagokienean.

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| 1. mailako kapital arrunta (CET1) | | |
| Kapitala | 727.161 | 712.951 |
| Emaitza onargarriak | 70.792 | 63.023 |
| Erreserbak | 809.890 | 766.460 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 109.065 | 131.525 |
| (–) Beste kenketa batzuk | (59.769) | (59.081) |
| (–) CET1 doikuntzak, zuhurtziazko iragazkiak direla eta | (72.869) | (85.204) |
| | 1.584.270 | 1.529.674 |
| 1. mailako kapital gehigarria | | |
| Kapital-tresna onargarriak | - | - |
| | - | - |
| 2. mailako kapitala | | |
| Kapital-tresnak eta mendeko maileguak | - | - |
| Kreditu-arriskuetarako estaldura osagarria metodo estandarraren bidez | 31.654 | 33.506 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | - | - |
| Heziketako eta Sustapeneko Fondoa. | - | - |
| (–) Doikuntza iragankorrak | - | - |
| | 31.654 | 33.506 |
| Beste kontzeptu eta kenketa batzuk | - | - |
| Fondo propio konputagarriak guztira | 1.615.924 | 1.563.180 |
| Gutxieneko fondo propioak guztira | 698.698 | 739.321 |
| Arriskuaren arabera haztatutako aktiboak | 8.733.720 | 9.241.512 |

Hona hemen 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n Taldeak zituen gutxieneko baliabide propioen daturik garrantzitsuenak:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| 1. mailako kapital arruntaren ratioa (CET1) | % 18,14 | % 16,55 |
| 1. mailako kapitalaren ratioa | % 18,14 | % 16,55 |
| Kapital-ratioa guztira | % 18,50 | % 16,91 |

1. mailako gutxieneko kapital arruntaren ratioa % 4,5ekoa da eta 1. mailako gutxieneko kapitalaren ratioa % 6,0koa.

Urteko kontu bateratu hauek egitean, Taldeak araudia betetzen du.

6.2 Gutxieneko erreserben koefizienteak

1998ko irailaren 29ko 1/1998 Zirkular Monetarioak, 1999ko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenak, indargabetu egin zuen hamar urterako kutxa-koefizientea, eta, horren ordez, gutxieneko erreserben koefizientea jarri zuen.

Europar Batasunaren 2011ko abenduaren 21eko egunkari ofizialak Europako Banku Zentralaren 2011ko abenduaren 14ko 1358/2011 EB Erregelamendua argitaratu zuen, Gutxieneko Erreserbak Aplikatzeari buruzko 1745/2003 EB Erregelamendua aldatu zuena. Aldaketa izan zen 2011ko abenduaren 8an Europako Banku Zentralaren Gobernu Kontseiluak onetsitako murrizketa jasotzea. Murrizketa horren helburua, lotutako entitateek eutsitako gutxieneko erreserben koefiziente-maila % 2tik % 1era jaistea zen, erreserbei eusteko epealditik aurrera (2012ko urtarrilaren 18an abiatu zen).

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, eta 2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar, araudi aplikagarriak une bakoitzean koefiziente horretarako ezarritako gutxienekoak betetzen zituen Entitate Nagusiak.

2017ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 1.682.657 mila euroko zenbatekoa du, helburu horrekin, Espainiako Bankuko kontuan (327.385 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n) (21. oharra). Dena den, araudi aplikagarriak gutxieneko erreserben koefiziente hori betetzeko eskatzen duen saldoaren kalkuluan, mantentze-aldian kontu horretan egunean dauden azken saldoen batez bestekoa hartzen da kontuan.

## 7. Entitate Nagusiko administratzaileen eta goi-zuzendarien ordainsariak

a) Estatutuetako ezarpenak

Lan-bazkideek ez dute inolako ordainsaririk jaso Kontseilu Errektoreko kide izateagatik, ez finkoa ez aldakorra, Entitate Nagusian bete ohi duten lanpostuan jarduteagatik jasotzen dutenaz gain. Era berean, Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute inolako ordainsaririk jaso kontseilari izateagatik.

Caja Laboral Popularrek ordaindu egiten du lehendakariaren lana, eta, zehaztutako prozeduren bitartez, Caja Laboral Popular Coop. de Créditok finkatutako ordainsariei buruzko irizpideak aplikatzen ditu.

Jarraian, Kontseilu Errektoreko lehendakariak jasotako ordainsariak ageri dira:

| | Epe laburrerako ordainsariak eta dietak | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| Kontseilu Errektoreko lehendakaria | 161 | 161 |
| | 161 | 161 |

b) Kontseilu Errektorearen eta goi-zuzendaritzako kideen beste ordainsari batzuk

Hona hemen Kontseilu Errektoreko kide diren 4 lan-bazkideek (eta 2016ko abenduaren 31n ziren 5 lan-bazkideek) beren lana betetzeagatik 2017ko abenduaren 31n jaso dutena:

| | Epe laburrerako ordainsariak eta dietak | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| Kontseilu Errektoreko kideak | 249 | 363 |
| | 249 | 363 |

Era berean, 7 lagun hartu dira Entitate Nagusiko goi-zuzendaritzako kidetzat, 2017ko abenduaren 31n Zuzendaritza Kontseilua osatu dutenak alegia (2016ko abenduaren 31n 9 ziren).

Taula honetan, talde horrek jasotakoak bildu ditugu, aurrez zehaztu ditugun eran:

| | Epe laburrerako ordainsariak eta dietak | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| Goi-zuzendaritza | 957 | 1.286 |
| | 957 | 1.286 |

Bestalde, 2017ko eta 2016eko ekitaldietan, Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideek 243,99 mila euro eta 298,31 mila euro jaso dituzte, hurrenez hurren, konturako kapital-ordainketengatik (interesengatik) eta erabilgarri dagoen soberakinaren (kooperatiba-itzulkinen) banaketa osagarriagatik.

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideen alde ekitaldian adierazitako ordainsariez gain, beste sarrera eta gastu batzuk ere erregistratu dira 2017ko eta 2016ko galdu-irabazien kontuan, hain zuzen ere Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketenak, eta horien xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian:

| | Finantza-sarrerak | | Finantza-gastuak | | Komisioen ondoriozko sarrerak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Kontseilu Errektorea eta goi-zuzendaritza | 4 | 5 | - | 1 | 4 | 6 |

Taldeko partaidetzako erakundeen administrazio-kontseiluetan Entitate Nagusiaren izenean jarduten duten goi-zuzendariek ez dute, 2017an eta 2016an, inolako ordainsaririk jaso partaidetzako erakunde horietako kontseilari izateagatik.

c) Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekiko mailegu, kreditu, eperako gordailu, abal eta konpromisoak

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta goi-zuzendaritzako kideekin egindako eragiketen ondorioz 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n balantzean erregistratu diren aktiboko eta pasiboko saldoen xehetasuna eskainiko dugu jarraian:

| | Aktiboa - emandako maileguak (zenbateko gordina) | | Aktiboa - kreditu-kontuak (zenbateko gordina) | | Pasiboa - ageriko eta eperako gordailuak | | Abalak eta konpromisoak | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Kontseilu Errektorea eta goi-zuzendaritza | 1.703 | 2.404 | - | - | 700 | 672 | - | - |

## 8. Agentziako kontratuak

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuaren 21. artikuluarekin bat —2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoa garatzen du—, kreditu-erakundeen jarduerako ohiko eragiketak Entitate Nagusiaren izenean eta kontura bezeroekin negoziatzeko edo formalizatzeko 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n ahaldunduta dauden pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda dator, II. eranskinean.

Zerrenda hori behar bezala jakinarazi zaio Espainiako Bankuari, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.

## 9. Ingurumenarekiko inpaktua

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du behar bezala betetzen dituela legeok eta horiek betetzen direla bermatzeko diseinatutako prozedurak dituela ezarrita.

Taldearen iritzian, beharrezko neurriak hartu ditu ingurumena babestu eta hobetzeko eta, dagokionean, ingurumen-eragina minimizatzeko, betiere indarrean dagoen araudia betez. Horren haritik, 2001ean ISO 14001 Arauaren arabera Ingurumen Kudeaketaren Ziurtagiria lortu zuen Entitate Nagusiak, eta oraindik ere indarrean du. 2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar, Taldeak ez du inolako hornikuntzarik egin ingurumen-arrisku eta -gastuetarako, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektorearen iritziz ez dagoelako urteko kontu bateratuetan eragin nabarmenik izan dezakeen era horretako kontingentziarik.

## 10. Gordailuen Berme Funtsa

### 10.1 Suntsiarazpen Funts Bakarra

11/2015 Legeak, 2015eko ekainaren 18koak, eta hori garatzen duen 012/2015 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6koak, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/59/EB Zuzentaraua ordenamendu juridiko nazionalean transposizioz jasotzea arautzen dute. Araudi horretan, esparru berria izarri da, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak suntsiarazteko. Gainera, Europar Batasunaren 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 Erregelamenduaren bidez sortu zen Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra eratzen lagundu duten arauetako bat ere bada. Erregelamendu horretan, kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuen enpresak suntsiarazteko arau eta prozedura uniformeak zehaztu dira, Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta Suntsiarazpen Funts Bakarraren esparruan.

Araudi hori garatzeko, 2016ko urtarrilaren 1ean Suntsiarazpen Funts Bakarra sartu zen indarrean. Suntsiarazpenaren alorreko erabakiak hartzeari dagokionez Europako agintaria den Suntsiarazpen Batzorde Bakarrarentzako finantzaketa-tresnatzat eratu zen, berak hartutako suntsiarazpen-neurriak eraginkortasunez burutzeko asmoz. Berari atxikitako kreditu-erakundeek eta inbertsio-zerbitzuen enpresek elikatuko dute Suntsiarazpen Funts Bakarra.

Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra Suntsiarazpen Funts Bakarrean oinarritzen da. Funts hori bankuen ekarpenez zuzkituko da, 2024ko abenduaren 31ra arteko epealdian, bermatutako gordailuen % 1eko tamainara iritsi arte.

EBren 2015/63 Erregelamenduak arautzen duen Suntsiarazpen Funts Bakarrera entitate bakoitzak egin beharreko ekarpena kalkulatzeko, atxikitako entitateen pasibo osoen guztizko agregatuan entitateari dagokion proportzioa hartzen da aintzat, entitatearen baliabide propioak eta gordailuetan bermatutako zenbatekoa kenduta. Ateratzen den kopurua entitatearen arrisku-profilari egokitzen zaio ondoren. Suntsiarazpen Funts Bakarrari ekarpena egiteko obligazioa urte bakoitzaren urtarrilaren 1ean sortzen da.

2017ko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpenaren gastua 3.140 mila eurokoa izan da (4.836 mila eurokoa 2016ko ekitaldian) (57. oharra). Gastu hori FINAIB 21 arauaren arabera kontabilizatu da, Gordailuen Berme Funtsak aitortutako gastuaren antzera.

10.2 Gordailuen Berme Funtsa

Entitate Nagusia Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsean dago sartuta.

1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6ko 1012/2015 Errege Dekretuak aldatu zuenak, hauxe ezartzen du: Gordailuen Berme Funtsaren Gestio Batzordeak finkatuko dituela Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsera atxikitako erakundeen urteko ekarpenak. 2017ko ekitaldian, 2017ko ekainaren 30ean bermatuta zeuden gordailuen milako 1,8ko ekarpena finkatu zuen Gestio Batzordeak (2016ko ekainaren 30ean bermatuta zeuden gordailuen milako 1,6koa izan zen 2016ko ekitaldian). Erakunde bakoitzaren ekarpena zenbatesteko, bermatutako gordailuen zenbatekoa eta arrisku-profila hartzen dira kontuan, bai eta zenbait adierazle ere: kapitalerako egokitzapena, aktiboen kalitatea eta likidezia, adibidez. Adierazle horiek Espainiako Bankuaren 2016ko maiatzaren 27ko 5/2016 Zirkularrak garatu ditu. Era berean, 2017ko abenduaren 31n zaintzan dauden baloreen eta beste finantza-tresna batzuen % 5aren milako 2an finkatu da baloreen berme-konpartimentura egin beharreko ekarpena.

Aurreko paragrafoan aipatu diren ohiko ekarpenen gastua FINAIB 21en arabera sortzen da, ordainketa-betebeharra dagoenean —urte bakoitzeko abenduaren 31n izan ohi da—.

2012ko uztailaren 30ean, Gordailuen Berme Funtsaren Gestio Batzordeak berari atxikitako entitateen artean aparteko derrama bat egitea erabaki zuen: entitate bakoitzak urteko 10 kuota berdin ordainduko ditu. Entitate Nagusiaren derramaren zenbatekoa 35.277 mila eurokoa da: 3.522 mila euroko urteko hamar kuota. Dagokionean Entitate Nagusiak ordaintzen duen urteko ohiko ekarpenetik kenduko dira kuota horiek, ohiko ekarpen horren zenbatekoraino. 2017ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak erregistratuta du 17.614 mila euroko (2016ko abenduaren 31n 21.138 mila euroko) konpromiso hori, hain zuzen: balantze bateratuko aktiboko “Beste aktibo batzuk - Bestelako gainerako aktiboak” epigrafean (34. oharra) eta balantze bateratuko pasiboko “Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Beste finantza-pasibo batzuk” epigrafean (36. oharra).

6/2013 Errege Lege Dekretuan ezarri zen, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsaren ondarea indartzeko asmoz, salbuespen gisa eta behin bakarrik, beste milako 3an handituko zela Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsei buruzko 1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako urteko ekarpena, atxikitako erakundeek 2012ko abenduaren 31ko gordailuen gainean egin beharrekoa.

Gehikuntza hori 2 zatitan gauzatu zen:

a) Lehen zatia, guztizkoaren 2/5en parekoa, 2013ko abenduaren 31tik aurrerako 20 egun baliodunetan ordaindu behar zen. Zati hori murriztu egin zen, araudian aurreikusitako kenketen ondorioz, eta 7.693 mila euroko zenbatekoarekin gastu moduan erregistratu zen, 2013ko ekitaldiko emaitza-kontuan.

b) Bigarren zatia, gainerako 3/5en parekoa (24.455 mila eurokoa), 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera Gestio Batzordeak zehazten zuen egutegiaren arabera ordaindu behar zen, gehienez ere 7 urteko epearen barruan. FINAIB 21ean ezarritakoari jarraikiz, 2013ko martxoaren 22ko Errege Lege Dekretu hori indarrean sartzerakoan sortutakotzat jo zen gastua, batetik Entitate Nagusiaren etorkizuneko jardueraren mende ez zegoen ekarpena zelako eta bestetik osotasunean pasibo gisa aitortu behar zelako egun horretan, noiz sortu zen aintzat hartu gabe. 2014ko irailaren 30ean, 3.494 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak. Bestalde, 2014ko abenduaren 17an, Kreditu Erakundeen Gordailuen Berme Funtsaren Gestio Batzordeak, araudi horrek emandako gaikuntzaren barruan, ekarpenaren bigarren zati horren gainerako zatia kopuru bereko bi tartetan ordaintzea erabaki zuen: 2015eko ekainaren 30ean lehena eta 2016ko ekainaren 30ean bigarrena. 2015eko ekainaren 30ean, 10.480 mila euro abonatu zituen Entitate Nagusiak, eta, beraz, 2015eko abenduaren 31n 10.480 mila euro geratzen zitzaizkion ordaintzeko. 2016ko ekainaren 30ean abonatu da zenbatekoa, eta, beraz, ordainduta geratu da bigarren atal horretako kopuru osoa.

2017ko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpen guztien gastu osoa 24.745 mila eurokoa izan da (20.671 mila eurokoa, 2016ko ekitaldian), eta honi atxikitako galdu-irabazien kontu bateratuan jaso dugu, “Beste ustiapen-gastu batzuk” epigrafean (57. oharra).

## 11. Ikuskaritzako zerbitzu-sariak

2017ko ekitaldiko kanpo-ikuskaritzaren ondorioz PricewaterhouseCoopers Auditores SLri kontratatutako lanen kostua 510 mila eurokoa izan da (486 mila eurokoa 2016an).

PricewaterhouseCoopers Auditores SLk eta PricewaterhouseCoopers markari lotutako beste sozietate batzuk emandako beste zerbitzu batzuk 273 mila euroko balioa izan dute 2017an (66 mila eurokoa 2016an). 2017an PricewaterhouseCoopers Auditores SL sozietateak Taldeari kontu-auditoretzaz gain emandako beste zerbitzu horiek 266 mila euroko balioa izan dute. Honako hauek izan dira, zehazki: Bezeroen Aktiboen Babesari buruzko Auditorearen Txosten Independentea (Balore Merkatuko Batzorde Nazionalaren 2009ko azaroaren 25eko 5/2009 Zirkularrak eskatzen duena); Kontsumitzaileak Zoru Klausuletatik Babesteko Presako Neurriei buruzko 2017ko urtarrilaren 20ko 1/2017 Errege Lege Dekretuaren alorrean Entitateak diseinatutako prozeduraren betetze-mailaz adostutako prozeduren txostena; 1/2017 Errege Lege Dekretu horren esparruan Entitateak finkatutako prozeduren eskuliburuaren betetze-mailari lotutako txostena; Internal Capital Adequacy Assessment Process (ICAAP) eta Internal Liquidity Adequacy Assessment Process (ILAAP) prozesuei lotutako aholkularitza; eta berariazko helburuaz epe luzera finantzatzeko eragiketen (TLTROen) inprimakiei buruzko informazio jakin baten inguruko prozedura adostuen txostena.

## 12. Ondorengo gertakariak

Urteko kontu bateratu hauen 2. oharrean aipatu denez, 2018ko urtarrilaren 1ean FINA 9 – Finantza-tresnak araua sartu da indarrean. 2.3. oharrean zehazten dira Taldearen ustez arau horrek kontabilitate-zifretan izango dituen inpaktu kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsuenak.

2017ko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin bitarteko epealdian ez da Taldeari nabarmen eragiteko moduko aparteko gertakaririk jazo.

## 13. Aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balorazio-irizpideak

Ondoren, urteko kontu bateratu hauek egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide esanguratsuenak azalduko ditugu:

a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldeko erakundeen jarduerak etorkizunean ere jarraitu egingo duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da izan ondare garbi oso bateratua edo zati bat transmititzeari begira horren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, eskudiru-fluxuen egoera-orriekin zerikusia duten gaietan salbu, ondasun eta zerbitzuen korronte errealaren arabera prestatu dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe.

c) Beste printzipio orokor batzuk

Urteko kontu bateratuak kostu historikoaren ikuspegiari jarraikiz egin dira. Dena den, 2004ko urtarrilaren 1ean eta 13.q oharrean adierazitakoaren arabera lursailei eta eraikuntzei aplikatutako errebalorizazioa ere sartu da, bai eta saltzeko prest zeuden finantza-aktiboak eta finantza-aktibo eta -pasiboak ere (deribatuak barne), arrazoizko balioan.

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitateko zenbait balioespen erabili behar dira. Bestalde, Taldearen kontabilitate-politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia erabili behar du Zuzendaritzak. Balioespenok eragina izan dezakete aktibo eta pasiboen zenbatekoan eta aktibo eta pasibo kontingenteen banakapenean, urteko kontu bateratuen egunean, eta sarrera eta gastuen zenbatekoan, urteko kontu bateratuoi dagokien epealdian. Balioespenak Zuzendaritzaren egungo eta etorkizuneko gorabeheren ezagutzan oinarritzen badira ere, azken emaitzak bestelakoak izan daitezke.

d) Finantza-deribatuen izaera eta funtzionamendua

Finantza-deribatuek, galera edo irabazia emateaz gain, saldoei eta transakzioei lotutako kreditu- eta/edo merkatu-arrisku guztiak edo batzuk konpentsatu ditzakete, zenbait baldintzatan. Horretarako, interes-tasak, zenbait indize, balore batzuen prezioak, hainbat dibisaren kanbio-tasa gurutzatuak edo antzeko beste erreferentzia batzuk erabiliko dituzte azpiko elementu gisa. Taldeak merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-deribatuak erabiltzen ditu, edo, bestela, antolatutako merkatuetatik kanpo (OTC) kontrako alderdiarekin negoziatuak.

Eskatzen dituzten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira finantza-deribatuak, bai eta Taldearen posizioen arriskuak (estaldura-deribatuak) gestionatzeko eta horien salneurrien aldaketei onura ateratzeko ere. Estaldura-eragiketatzat hartu ezin diren finantza-deribatuak negoziazio-deribatutzat hartzen dira. Hauek dira estaldura-kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak:

i) Finantza-deribatuak honako arrisku hauek estali behar ditu: interes-tasak edo kanbio-tasak gorabeherak izatearen ondorioz aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak izatekoa (arrazoizko balioen estaldura); jatorria finantza-aktibo eta -pasiboetan, konpromisoetan eta aurreikusitako transakzio oso probableetan duten eskudiru-fluxu balioetsietan gorabeherak izatekoa (eskudiru-fluxuen estaldura); eta atzerriko negozioetako inbertsio garbiarena (atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura).

ii) Estaldura-epean zehar, finantza-deribatuak eraginkortasunez deuseztatu behar du estalitako elementu edo posizioaren berezko arriskuren bat. Hortaz, eraginkortasuna izan behar du: prospektiboa, erretrospektiboa eta estaldura baldintza normaletan kontratatzen den unekoa. Bermatu behar du, estalitako elementu edo posizioaren bizitza osoan iraungo duela estaldurak.

   Estalduren eraginkortasuna prospektiboa eta erretrospektiboa dela ziurtatzeko, eraginkortasun-testak erabiltzen ditu Taldeak. Horren bidez frogatzen du, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren gorabehera oso bat datorrela estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldaketarekin. Horrela, bada, indarreko arautegiari jarraikiz, estaldura eraginkortzat jotzeko, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntzak estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzaren % 80 eta % 125 bitartekoa izan behar du. Deribatu batek hasieran eraginkortasun-testa betetzen badu, baina aurrerago utzi egiten badio betetzeari, kontabilitatean negoziazio-deribatutzat hartuko da une horretatik, eta estaldurak eteteko araua aplikatuko zaio.

iii) Finantza-deribatua saldo edo transferentzia jakin batzuk estaltzeko kontratatu zela eta estaldura eraginkorra nola lortu eta neurtu nahi zen jaso behar da, betiere bat badator Taldeak arrisku propioak kudeatzeko duen moduarekin.

Elementu edo saldo indibidualak nahiz finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroa estali daitezke. Azken kasu horretan, estaliko ditugun finantza-aktiboek edo -pasiboek arrisku-tasa bera izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, elementu indibidualetan estalitako arriskuak aldaketarekiko duen sentikortasuna antzekoa izan behar da.

Estaldurak gauzatzeko, hainbat izaeratako deribatuak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak: interes-tasenak, errenta aldakorrekoak, dibisetakoak..., estali nahi den elementuaren azpiko arrisku-tasaren arabera. Horrela, bada, erabiltzeko moduko estaldura-tresna ugari dago: Interest Rate Swapak (IRS), Call Money Swapak (CMS), FRAk, interes-tasen gaineko etorkizunak, bonuen gaineko etorkizunak, errenta aldakorreko indizeen gaineko etorkizunak, akzioen gaineko etorkizunak, eperako dibisen salerosketa, interes-tasen gaineko aukerak, errenta aldakorreko indizeen gaineko aukerak, akzioen gaineko aukerak, dibisen gaineko aukerak, interes-tasen egituren gaineko aukerak, errenta aldakorreko egituren gaineko aukerak eta Equity Swapak.

Taldeak kontratatutako eta tresna deribatuekin egindako estaldura-eragiketak arrazoizko balioko estalduratzat hartzen dira, oro har. Estaltzen dute, batetik, Entitate Nagusiak jaulkitako zenbait pasiboren edo gordailuren arrazoizko balioak interes-tasen gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa-arriskua eta, bestetik, saltzeko prest dauden finantza-aktiboen zorroko ondare-tresna eta zorra adierazten duten balore batzuen arrazoizko balioa.

Beste finantza-tresna batzuetan edo beste kontratu nagusi batzuetan sartzen diren finantza-tresna deribatuak bereizi erregistratzen dira deribatu gisa, horien arriskuak eta ezaugarriak kontratu nagusietakoekin estuki lotuta ez daudenean eta kontratu nagusi horiek “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” eta “Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboak arrazoizko balioan” epigrafeetan sailkatuta ez daudenean.

Ohar honetako e) atalean, finantza-aktiboei dagokienean, finantza-deribatuen balorazio-irizpideak daude azalduta.

e) Finantza-aktiboak

Sailkapena

Finantza-aktiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

i) Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk, eskudirutako saldoei dagozkienak, eta banku zentraletan eta kreditu-erakundeetan eutsitako ageriko saldoak.

ii) Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak: epe laburrera egiteko eskuratu diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren finantza-tresna identifikatuen zorroko —epe laburrera irabaziak lortzeko eguneratu berri da— zati bat dira edo, bestela, kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak.

iii) Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-aktiboak: hor sartzen dira, batetik, negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak ez diren, finantza-aktibo hibridotzat jotzen diren eta arrazoizko balioan baloratzen diren finantza-aktiboak; eta, bestetik, aseguru-kontratuek babestutako pasiboekin —arrazoizko balioan baloratuta— edo arrazoizko balioan ahalik eta aldaketa gutxien izateko helburua duten nahiz interes-tasaren arriskua nabarmen murrizteko finantza-pasiboekin eta deribatuekin kudeatzen diren finantza-deribatuekin batera kudeatzen direnak.

iv) Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak: batetik, zorra adierazten duten baloreak hartzen dituzte barne, ez badaude sailkatuta muga-egunera arte eutsitako inbertsio gisa, arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-aktibo gisa, mailegu eta kobratzeko partida gisa edo negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo gisa, eta, bestetik, elkartuak edo baterako negozioak ez diren erakundeen ondare-tresnak, baldin eta negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-aktiboen kategorietan sartu ez badira.

v) Maileguak eta kobratzeko partidak: merkatu aktiboan negoziatu ez arren eta arrazoizko balioan baloratu beharrik ez izan arren, eskudiru-fluxuen zenbatekoa zehaztua edo zehazgarria duten finantza-aktiboak sartzen dira, baldin eta despoltsapena berreskuratzeko aukera ematen badiote Taldeari, zordunaren kaudimenari egoztekoak diren arrazoiak alde batera utzita. Ohiko kreditu-jarduueraren ondoriozko inbertsioa ez ezik, esate baterako, bezeroek maileguetan erabili duten eta oraindik amortizatu gabe dagoen eskudirua eta beste erakunde batzuei mailegatutako gordailuak, edozein izaera juridiko dutela ere, atal honetan sartzen dira, halaber, kotizatu gabeko zorra adierazten duten baloreak eta ondasun-erosleekin nahiz zerbitzu-erabiltzaileekin egindako zorrak ere, Taldearen negozioaren ondoriozkoak badira.

vi) Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak: zorra adierazten duten baloreak dira, muga-egun finkoa eta zenbateko zehatzeko edo zehazgarriko eskudiru-fluxuak dituztenak eta merkatu aktiboetan negoziatzen direnak, Taldeak erakutsi duenean, hasieratik eta geroago ere, horiei muga-egunera arte eusteko asmoa eta gaitasun finantzarioa dituela.

vii) Deribatuak - estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak alegia.

viii) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartidari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude.

ix) Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak: erakunde taldeaniztunetako edo elkartuetako ondare-tresnak hartzen dituzte barne.

x) Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako aktiboak: aseguru-erakundeei dirua itzultzea eskatzeko eskubideak sartzen dira. Aseguru-polizek planeko aktibo izateko baldintzak betetzen ez dituztenean, zehaztutako prestazioarenondoriozko obligazioa baliogabetzeko eskatzen den ordainketa osoa edo zati bat itzultzea eska daiteke.

xi) Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren izaera finantzarioko aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak: erabiltzeko talde batean sartuta edo besterendu nahi den negozio-unitate batean —etendako eragiketak— dauden partida indibidualen liburuetako zenbatekoei dagozkie, baldin eta gaur egun dauden baldintzetan eta urtebeteko epean (urteko kontuetan azaltzen den datatik aurrera) saltzeko probabilitate handia badute. Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, finantza-izaerako partida horien kontabilitate-balioa. Badira finantza-izaerarik ez duten eta salgai dauden beste aktibo ez-korronte batzuk, eta horien kontabilitate-tratamendua 13.v oharrean jaso dugu.

Erregistroa eta balorazioa

Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira hasieran, eta, kontrako ebidentziarik ezean, eskuratze-kostua izango da. Kontabilitate-itxiera bakoitzeko balorazioa egiteko, honako irizpide hauek hartzen dira kontuan:

i) Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira. Arau horretatik kanpo daude: maileguak eta kobratzeko partidak; muga-egunera arte eutsitako inbertsioak; arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien kapital-tresnak; mendeko, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak eta azpiko aktibotzat ondareko tresna horiek dituzten eta horiek entregatuta likidatzen diren finantza-deribatuak.

ii) Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan batak besteari egoki informatuta emateko aktibo horrek duen prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da, merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboan duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.

Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balorazio-ereduetara. Orobat, baloratu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku motak batik bat. Halere, garatutako balorazio-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa bat ez etortzea balorazio-egunean erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.

iii) Merkatu aktibo batean kotizazio-balioa duten finantza-deribatuen arrazoizko balioa eguneko kotizazio-prezioa da. Aparteko arrazoiren bategatik egun jakin bateko kotizazioa zehaztu ezin bada, OTC finantza-deribatuak baloratzeko erabiltzen diren antzeko metodoetara jotzen da.

OTC finantza-deribatuen arrazoizko balioa ateratzeko, jatorria tresnan duten eta balorazio-egunean deskontatu diren etorkizuneko kaxako fluxuak batzen dira, finantza-merkatuetan aitorpena duten metodoen bidez.

iv) Maileguak eta kobratzeko partidak eta muga-egunera arte eutsitako inbertsioak amortizatutako kostuan baloratzen dira, eta interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da hori finkatzeko. Amortizatutako kostua ateratzeko, finantza-aktiboaren eskuratze-kostua hartzen da oinarri. Horri, baina, zuzenketa batzuk egiten zaizkio printzipaletik ateratako diru-kopuruekin eta galdu-irabazien kontu bateratuan sartutako zatiarekin, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Hasierako kostuaren eta muga-eguneko itzultze-balioaren arteko aldea ere hartzen da kontuan. Gero, aktiboaren zenbatekoa murriztu dela zuzenean edo balioa zuzentzeko kontu baten bidez aitortzen duen narriaduragatiko balio-murrizketa kentzen zaio. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estaldura duten maileguen eta kobratzeko partiden kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dauden arriskuen ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldakuntzak erregistratzen dira.

Interes-tasa efektiboa da finantza-tresna baten balioa tresna horri balio-bizitzan estimatu zaizkion eskudiru-fluxuekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Kontratuko baldintzak hartzen dira oinarri horretarako, amortizazio aurreraturako aukerak esaterako, baina etorkizuneko kreditu-arriskuengatiko galerak kontuan hartu gabe. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnetarako, eskuratu zirenean kontratuan ezarri zen interes-tasa da interes-tasa efektiboa, baina izaeragatik interes-tasen antzekoak diren komisioak eransten zaizkio, baldin badaude. Interes-tasa aldakorreko finantza-tresnetan, interes-tasa efektiboa bat dator kontzeptu guztiengatik indarrean dagoen errendimendu-tasarekin, erreferentziazko interes-tasaren lehen berrikuspenera arte.

v) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien beste erakunde batzuen kapitaleko partaidetzak eta azpiko aktibotzat tresna horiek dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira, baina behar denean narriaduragatik izan dituzten galerak kontuan hartuta.

Finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak “Interesen ondoriozko sarrerak” epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak” edo “Emaitzetan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan izendatuta dauden aktibo eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak” epigrafeetan, zenbateko garbian.

Halere, "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeko tresnen liburuetako zenbatekoaren gorabeherak ondare garbi bateratuko “Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean jasotzen dira aldi baterako, baldin eta finantza-aktibo monetarioen kanbio-aldeen ondoriozkoak ez badira. “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafeko zenbatekoak ondare garbi bateratua osatzen dute, harik eta horien jatorri den aktiboari balantze bateratuan baja ematen zaion arte; une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra kitatzen dira, eta “Arrazoizko balioan baloratu ez diren eta emaitzetan aldaketak dituzten finantza-aktibo eta -pasiboei kontuetan baja ematearen ondoriozko irabaziak edo galerak” epigrafean erregistratu.

Estalitako partida eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, irizpide hauek kontuan hartuta erregistratzen dira balorazio-aldeak:

i) Arrazoizko balioaren estalduretan, galdu-irabazien kontuan jasotzen dira, zuzenean, estalitako arriskuaren motari dagokionez estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan gertatzen diren aldeak.

ii) Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balorazio-aldeak galdu-irabazien kontuan sartzen dira zuzenean.

iii) Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondare garbi bateratuko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

iv) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbi bateratuko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balorazio-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balorazio-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

Finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapena

Finantza-tresnen zorroen birsailkapenetan, honako baldintza hauek beteko dira:

i) Ondorengo iv) puntuan adierazitako aparteko salbuespenetan izan ezik, “Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-aktiboak” atalean sailkatutako finantzak, erosi, jaulki edo eskuratu eta gero, ezin dira birsailkatu finantza-tresnen kategoria honen barruan nahiz kanpoan.

ii) Asmoa edo finantza-gaitasuna aldatu izanaren ondorioz finantza-aktibo bat “Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak” epigrafetik kanpo geratzen bada, “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” epigrafean birsailkatuko da. Halakoetan, birsailkatutako finantza-aktiboaren zenbatekoa oso handia bada “muga-egunera arte eutsitako inbertsioetan” sartutako aktiboen zenbateko osoa aintzat hartuta, tratamendu bera ezarriko zaie kategoria horretan sailkatutako finantza-tresna guztiei, salbu eta birsailkapen hori araudi aplikagarriak ahalbidetzen badu (salmenta muga-egunetik oso gertu dagoenean, finantza-aktiboaren printzipala ia osorik kobratuta dagoenean eta abar).

2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar, ez da egin “Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak” epigrafean sailkatutako finantza-aktiboei buruzko araudi aplikagarrian onartu gabeko inolako salmentarik.

iii) Taldearen asmoa edo finantza-gaitasuna aldatzen bada edo “Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak” epigrafean sailkatutako finantza-aktiboen salmentari buruzko araudi aplikagarrian finkatzen diren bi zehapen-ekitaldiak igarotzen badira, “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” kategoriako zor-tresnak “Muga-egunera arte eutsitako inbertsioak” kategorian birsailkatu ahal izango dira. Entitatearen asmoa edo finantza-gaitasuna aldatzen bada, horrelakoetan, finantza-tresnei eskualdatze-datan dagokien arrazoizko balioa kostu amortizatutzat hartuko da, eta zenbateko horren eta itzulketa-balioaren arteko aldea galdu-irabazien kontuan adieraziko da, tresnaren hondar-bizitzako interes-tasa efektiboaz baliatuz.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar, ez da egin aurreko paragrafoan azaldutakoak moduko birsailkapenik.

iv) Finantza-tresna deribatuak ez diren finantza-aktiboak “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” eta “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" ataletatik kanpo sailkatu ahal izango dira, baldin eta epe laburrean saltzeko edo berrerosteko asmoa bertan behera geratzen bada. Halaber, ezinbestekoa izango da honako baldintza hauetako bat betetzea:

a. Aparteko egoera bereziren bat egokitzea, baldin eta “Maileguak eta kobratzeko partidak” kategorian sartzeko moduko aktiboak ez badira. Zeharo ezohikoak diren gertakari bitxiak hartzen dira aparteko egoeratzat, eta etorkizun aurreikusgarrian errepikatzeko aukerak oso urriak izaten dira.

b. Taldeak finantza-aktiboari etorkizun aurreikusgarrian edo muga-egunera arte eusteko asmoa eta finantza-gaitasuna izatea, betiere hasierako aitorpenean “Maileguak eta kobratzeko partidak” atalari lotutako definizioa bete bada.

Halakorik gertatuz gero, aktiboaren birsailkatze-eguneko arrazoizko balioan egiten da birsailkapena, emaitzak itzuli gabe eta balio hori amortizatutako kostutzat hartuta. Horrela birsailkatutako aktiboak inondik inora ezingo dira sartu berriro “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” kategorian.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan zehar ez da “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” eta “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” ataletako inolako finantza-aktiborik birsailkatu.

f) Finantza-pasiboak

Sailkapena

Finantza-aktiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

i) Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak: epe laburrera berriro eskuratzeko jaulki diren finantza-pasiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin identifikatu eta kudeatzen diren finantza-tresnen zorro bateko zati bat dira —zorroa eguneratu egin berri da, epe laburrera irabaziak lortzeko—, edo kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak, edo aldi baterako eskuratu edo mailegutan hartu diren finantza-aktiboen salmenta irmoak sortuak.

ii) Emaitzetan aldaketak dituzten finantza-pasiboak arrazoizko balioan: Taldeak hasierako azterketan edo horiek izendatzean informazio esanguratsuagoa lortzen denean izendatutako finantza-pasiboak dira.

- Horren bidez aktiboak edo pasiboak baloratzerakoan edo galdu-irabaziak aitortzerakoan beste irizpide batzuk erabiliz gero sortuko liratekeen inkoherentziak ezabatu edo nabarmen murrizten direnean.

- Finantza-pasiboen edo finantza-aktibo eta -pasiboen talde bat kudeatu eta haren errendimendua arrazoizko balioan oinarrituz ebaluatzen denean, arriskua kudeatzeko edo inbertsioa dokumentatzeko estrategia erabiliz, eta talde horren informazioa Zuzendaritzako funtsezko langileei ematen zaienean, arrazoizko balioa oinarritzat harturik.

iii) Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan: balantze bateratuko gainerako ataletan sartu ezin direnak dira, finantza-erakundeen fondo-bilketako ohiko jardueren ondoriozkoak, eta berdin dio nola gauzatzen diren eta zer muga-egun duten.

iv) Deribatuak – estaldura-kontabilitatea: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kalifikatzen direnak alegia.

v) Interes-tasaren arriskua estalita duen zorro bateko estalitako elementuen arrazoizko balioko aldaketak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartidari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balorazioan badute jatorria eta zorro horiek arrazoizko balioa estaltzeko deribatuen bidez interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude.

vi) Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak: ekitaldi-amaieran indarrean dauden aseguru-kontratuen ondoriozko erreklamazioak estaltzeko Taldeak sortutako hornidura teknikoak dira.

vii) Ageriko kapital itzulgarria: Taldeak jaulkitako finantza-tresnen zenbatekoa hartzen du barne. Kapitalaren izaera juridikoa dute, baina ez dituzte betetzen ondare garbian sartzeko baldintzak. “Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan” atalekoak moduan baloratzen dira, baldin eta Taldeak “Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-pasiboak arrazoizko balioan” multzoan sartu ez baditu, horretarako baldintzak bete eta gero.

Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarri da, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango dela Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzultzea egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

viii) Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak: “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak" atalean jatorria duten saldo hartzekodunei dagozkie.

<u>Erregistroa eta balorazioa</u>

Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan erregistratzen dira, hain zuzen ere, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Baina badira salbuespenak:

i) “Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak” eta "Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-pasiboak” epigrafeetako finantza-pasiboak arrazoizko balioan baloratzen dira, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza-pasiboen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dagoen arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldaketak erregistratzen dira, finantza-pasibo horiei dagokien “Mikroestaldurako eragiketak” atalean.

ii) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak azpian dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskuratze-kostuan jasotzen dira.

Finantza-pasiboen liburuetako zenbatekoan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak “Interesen ondoriozko gastuak” epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontu bateratuko “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktibo eta -pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak” edo “Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren aktibo eta pasiboen ondoriozko irabazi edo (–) galera garbiak” epigrafeetan, zenbateko garbian.

Estalitako partida eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-pasiboetan, 13.e oharrean finantza-aktiboetarako adierazi diren irizpideak kontuan hartuta erregistratzen dira balorazio-aldeak.

g) Finantza-tresnak transferitzea eta balantze bateratutik baja ematea

Finantza-tresnen transferentziak kontabilizatzeko, transferitutako finantza-tresnaren arriskuak eta mozkinak nola intsuldatu diren hartzen da kontuan, betiere irizpide hauei jarraikiz:

i) Arriskuen eta mozkinen funtsezko intsuldaketa egiten bazaie hirugarrenei, transferitutako finantza-tresnari baja ematen zaio balantze bateratuan, eta, aldi berean, transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aitortzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: baldintza gabeko salmentak; berrerosteko egunean arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten salmentak; finantza-aktiboen salmentak, dirua alde batera utzita erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; aktiboen titulazioak, lagatzaileak ez dituenean mendeko finantzaketarik atxikitzen eta ez dienean titular berriei kreditu-hobekuntzarik eskaintzen; eta abar.

ii) Transferitutako tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko atxikipena egiten bada, transferitutako finantza-tresnari ez zaio baja ematen balantze bateratuan, eta transferentziaren aurretik erabiltzen ziren irizpide berberekin baloratzen jarraitzen da. Eragiketa-mota horietan sartzen dira: salneurri finkoarekin edo salmenta-prezioari interes bat erantsita berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak; baloreak mailegatzeko kontratuak, mailegu-hartzaileak horiek edo antzeko aktiboak itzultzeko betebeharra duenean; eta abar. Halarik ere, finantza-pasiboa kontabilitatean jasotzeko, kontra-prestazioaren kopurua —amortizatutako kostuan baloratzen da—, transferitu den baina baja eman ez zaion finantza-aktiboaren sarrerak eta finantza-pasibo berriaren gastuak hartzen dira kontuan.

iii) Transferitutako tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko transferentzia eta atxikipena egiten ez bada, bi aukera daude. Eragiketa mota horietan sartzen dira finantza-aktiboen salmentak, diruaren barruan nahiz kanpoan sakonki ez dauden erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; titulazioak, lagatzaileak transferitutako aktiboaren zati batean bere gain hartzen duenean mendeko finantzaketa edo beste kreditu-hobekuntza batzuk…

- Taldeak ez badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari eusten, baja ematen zaio balantzean eta transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aitortzen da.

- Taldeak eutsi egiten badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari, balantzean jasotzen jarraitzen du, balio-aldaketen eraginpean jartzeari dagokion zenbatekoan, eta jasotako kontraprestazioaren pareko kopuruko finantza-pasiboa aitortzen da. Pasibo hori amortizatutako kostuan baloratuko da gerora, baldin eta “Arrazoizko balioan eta emaitzetan aldaketak dituztela izendatu diren finantza-pasiboak” atalean sailkatzeko baldintzak betetzen ez baditu. Gaur egun betebeharra ez denez, finantza-pasibo horren zenbatekoa kalkulatzeko, finantza-aktiboak eskualdatu zaizkion Entitatearentzat finantzaketa-iturri diren finantzaketa-tresnen (adibidez, titulizazio-bonu eta maileguen) zenbatekoa deduzitu egingo da, finantza-tresna horiek eskualdatutako aktiboak finantzatzeko erabiltzen diren heinean. Transferitutako aktiboaren eta horri lotutako pasiboaren zenbateko garbia atxikitako eskubide eta obligazioen kostu amortizatua izango da, baldin eta transferitutako aktiboa amortizatutako kostuan neurtzen bada, eta atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, baldin eta transferitutako aktiboa arrazoizko balioan neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboak bi kasutan bakarrik geratuko dira balantze bateratutik at: sortutako eskudiru-fluxuak agortzen direnean edo arrisku eta etekin gehienak hirugarrenen esku uzten direnean. Halaber, finantza-pasiboei egoera-balantzetik baja emateko, sortzen dituzten obligazioak agortuta egon behar dira, edo, bestela, berriro kitatu edo birkokatzeko helburuarekin eskuratu behar dira.

2017ko eta 2016ko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan, IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-fondoak sartu ditu Taldeak, integrazio global bidez, izan ere, zenbait mailegu transferitu zizkion hurrenez hurren 2006ko eta 2008ko ekitaldietan (26. eta 36. oharrak).

Dena den, Taldeak ez ditu jaso 2004ko urtarrilaren 1aren aurretik egin diren transakzioen ondoriozko finantza-aktibo eta -pasiboak, baldin eta deribatuak ez badira, aurretik aplikatzen zen arautegiaren indarrez balantze bateratutik baja emanda badaude eta geroagoko transakzio edo gertaeraren baten emaitza direlako jaso beharrekoak ez badira.

h) Finantza-aktiboen balioaren narriadura

Finantza-aktiboen liburuetako zenbatekoa, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura zuzentzen da, narriaduragatik galera izan dela objektiboki esan dezakegunean. Kasu hauetan gertatzen da hori:

i) Zor-tresnen (zorra adierazten duten kreditu eta baloreen) kasuan, hasierako aitorpenaren ondorengo gertaeraren baten edo hainbat gertaeraren konbinazioaren ondorioz, etorkizuneko eskudiru-fluxuek okerrera egiten badute.

ii) Kapital-tresnen kasuan, hasierako aitorpenaren ondorengo gertaeraren baten edo hainbat gertaeraren konbinazioaren ondorioz liburuetako zenbatekoa berreskuratu ezin bada.

Eskuarki, finantza-tresnen liburuetako zenbatekoaren narriaduraren ondoriozko zuzenketa narriadura gertatu den epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura egiten da. Aurretik erregistratu diren narriaduraren ondoriozko galeren berreskuratzea, berriz, narriadura deuseztatu edo murrizten den epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzen dira. Erregistratutako edozein zenbateko berreskuratzeko aukera oso txikia bada, kendu egiten da balantze bateratutik. Edozein modutan, Taldeak beharrezko eguneratzeak egin ahal izango ditu, horiek kobratzen saiatzeko, harik eta, preskripzioa, barkamena edo beste edozein arrazoi dela medio, eskubideak erabat galtzen dituen arte.

Tresna motaren arabera eta eragin diezaieketen beste zirkunstantzia batzuen arabera kalkulatzen da finantza-aktiboen narriadura, jasotako bermeak kontuan hartu ondoren. Taldeak aitortu egiten ditu bai kontu zuzentzaileak —zenbatetsitako galerak estaltzeko kaudimengabezietarako hornidurak osatzen direnean— bai aktiboaren aurkako saneamendu zuzenak —berreskuratzeko aukera oso txikia dela jotzen denean—.Oro har, narriatutzat sailkatutako zor-tresna guztien kasuan, eten egiten da kontratuan oinarritutako interes-sorrerak galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzeko prozesua. Gerora interes horiek berreskuratzen badira, kobratutako zenbatekoa galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzen da.

Ondoren, narriadura-irizpideak laburtuko ditugu, tresna motaren eta zorroaren arabera sailkatuta:

**Amortizatutako kostuan baloratutako zor-tresnak eta balantzetik kanpoko esposizioak**

Narriaduragatiko galerak zehazteko asmoz, Taldeak zordunen banan-banako jarraipena egiten du —behintzat zordun esanguratsuak izan daitezkeenen kasuan—. Era berean, finantza-aktiboko taldeen jarraipen kolektiboa ere egiten du, zordunek zorrak ordaintzeko gaitasunari buruz aipatu dugun kreditu-arriskuaren antzeko ezaugarriak dituztenean. Arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten aktiboen talde batean ere sartu ezin den tresna bere aldetik aztertuko da, narriatuta dagoen ikusteko eta, dagokionean, narriaduraren ondoriozko galera balioesteko.

Kreditu-arriskuen ondorioz izan ditzakeen galerak zenbatesteko politikak, bideak eta prozedurak ditu Taldeak, bai kontrako alderdiari egotz dakiokeen kaudimengabeziaren kasuetarako, bai herrialde-arriskuaren kasuetarako. Zor-tresnetako eragiketak eta balantzetik kanpoko esposizioak aitortu, aldatu, ebaluatu, jarraitu eta kontrolatzen direnean ezartzen dira politika, bide eta prozedura horiek, bai eta beraien narriadura posiblea identifikatzen denean eta, dagokionean, aurreikusitako galerak estaltzeko zenbatekoak kalkulatzen direnean ere.

Kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren araberako kontabilitate-sailkapena

Taldeak ezarritako irizpideen bitartez, ahuleziak eta narriadura-ebidentzia objektiboak dituzten kreditudunak identifikatu eta kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen ditu.

Hurrengo ataletan, Taldeak erabiltzen dituen sailkapen-printzipioen eta -metodologiaren berri emango dugu.

1) Sailkapen-kategorien definizioa:

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen zorroan sartu ez diren zor-tresnak, balantzetik kanpoko esposizioak bezalaxe, kaudimengabeziagatiko kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen dira; honela:

i) Arrisku normala:

a. Gainerako kategorietan sailkatzeko baldintzak betetzen ez dituzten eragiketa guztiak sartzen dira bertan.

b. Arrisku normala zaintza bereziarekin: Kategoria honetan sartzen dira banaka zalantzazko arriskutzat edo kobraezintzat sailkatzeko irizpideak bete gabe, arrisku normalekotzat sailkatutako antzeko eragiketek baino galera handiagoak eragin ditzaketen ahultasunak dituzten eragiketak.

ii) Zalantzazko arriskua:

a. Zalantzazko arriskua, titularraren berankortasuna dela eta: Kontratuaren arabera, printzipalean, interesetan edo gastuetan kontratuan hitzartutako zenbatekoren bat 90 egunetik gora mugaeguneratuta duten zor-tresnak sartzen dira kategoria honetan, titularra eta bermea edozein izan arren, eta betiere kobraezintzat sailkatzen ez badira. Emandako bermeak ere kategoria horretan sartuko dira, abalduna berandutzean erori bada abalatutako eragiketan.

Sailkapen horretan sartuko dira titular baten eragiketa guztien zenbatekoak, baldin eta 90 egunetik gorako antzinatasuneko zenbateko mugaeguneratudun eragiketak kobratzeko dauden zenbatekoen % 20tik gorakoak badira. Ehuneko hori zehazteko, mugaeguneratutako zenbatekoak dituzten eta berankortasunaren ondorioz zalantzazkoak diren eragiketen liburuetako zenbateko gordina ipiniko da zenbakitzailean, eta titularrari emandako zor-tresna guztien liburuetako zenbateko gordina izendatzailean. Horrela kalkulatutako ehunekoa % 20tik gorakoa bada, titular horren zor-tresnak nahiz kreditu-arriskua dakarten balantzetik kanpoko esposizioak berankortasunagatiko zalantzazkoetara eramango dira.

b. Zalantzazko arriskua, titularraren berankortasuna ez beste arrazoiren bat dela eta: Mugaeguneratuta nahiz mugaeguneratu gabe dauden zor-tresnak hartzen ditu barne, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta kobraezinen edo zalantzazkoen kategorietan sailkatzeko baldintza nahikorik ez egon, arrazoizko zalantzarik badago kontratuz hitzartutako terminoetan osorik (printzipala eta interesak) itzultzeko. Ildo beretik, hor sartzen dira balantzetik kanpoko esposizioak ere, baldin eta, nahiz eta titularraren berankortasuna dela eta zalantzazkotzat sailkatuta egon ez, Taldeak ordaindu beharra probablea bada eta berreskuratzeko zalantzak badaude.

Kategoria honetan sartuko dira, besteak beste, euren kaudimena narriatzea eragingo duten egoeran dauden titularren eragiketak.

iii) Arrisku kobraezina: Kategoria honetan sartzen dira banakako azterketa egin ondoren eta eragiketaren edo titularraren kaudimena nabarmen eta itzultzeko aukerarik gabe narriatu dela ikusita, kobratzeko aukera oso-oso txikikotzat jotzen diren zor-tresnak, mugaeguneratuta egon ala ez. Kategoria honetan sailkatuz gero, eragiketaren liburuetako zenbateko gordina osorik saneatu beharko da, eta aktibotik baja emango zaio erabat.

2) Eragiketak sailkatzeko irizpideak:

Taldeak orotariko irizpideak erabiltzen ditu kreditu-hartzaileak nahiz eragiketak kategoria batean edo bestean sailkatzeko, kreditu-arriskuaren arabera. Horien artean daude hauek:

- Irizpide automatikoak.
- Birfinantzamenduetarako berariazko irizpideak.
- Jarraipen-ereduetan oinarritutako irizpideak, parametro jakin batzuen jarraipenean oinarrituta.

Faktore automatikoak eta birfinantzamenduetarako berariazko sailkapen-irizpideak zorro osoaren gainean ezartzen diren sailkapen- eta saneamendu-prozesuak dira. Era berean, eragiketen ahuleziak eta narriadurak ahalik eta lasterren antzemateko asmoz, Taldeak zehaztuta duen jarraipen-ereduak tratamendu zehatz bat esleitzen dio eragiketa bakoitzari, ez ordaintzeko arrisku-mailen arabera.

Kreditu-hartzaile garrantzitsuen kasuan, ez-ordaintze posibleak iragartzeko eredu bat erabiltzen du Entitateak. Aldagai- eta alerta-sistema baten bidez, bezeroen etorkizuneko ez-ordaintzeak antzematea, larritasuna neurtu eta kuantifikatzea, eta ez-ordaintzeko arrisku-aukerak mailakatzea du helburu. Arrisku-analisten aditu-talde batek aztertzen ditu alerta aktiboak dituzten kreditu-hartzaileak, ahuleziarik edo narriaduraren ebidentzia objektiborik dagoen erabakitzeko eta, narriadura-ebidentziarik badago, galera eragin duen gertakariak edo duten gertakariek finantza-aktiboaren edo beraren taldearen etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsien gainean inpakturik ote duten erabakitzeko.

Zalantzazko arriskutzat sailkatzeko beste arrazoirik ez badago, berankortasun-arrazoiengatik zalantzazkoen kategorian sailkatutako eragiketak berriro ere arrisku normalekoen atalean sailkatu ahal izango dira, baldin eta, mugaeguneratutako zenbatekoen zati bat kobratu ondoren, zalantzazko arriskutzat sailkatzeko kausak desagertzen badira eta arrisku normalera birsailkatzeko egunean titularrak ez badu beste eragiketa batzuetan 90 egunetik gorako antzinatasunarekin mugaeguneratutako zenbatekorik. Zalantzazko arriskutzat sailkatzeko berankortasuna ez beste arrazoiren bat badago, berriz ere arrisku normalekoen kategorian sartzeko aukera egongo da, baldin eta zorra kontratuan hitzartutako terminoetan osorik itzultzeko aukerari buruzko zalantzak desagertzen badira eta arrisku normaleko kategorian birsailkatzeko egunean titularrak ez badu beste eragiketa batzuetan 90 egunetik gorako antzinatasunarekin mugaeguneratutako zenbatekorik.

Birfinantzatze- eta berregituratze-eragiketak

Taldeak kreditu-arriskuen kudeaketaren alorrean erabiltzen dituen politiken eta prozeduren bidez, bermatuta dago kreditu-hartzaileei jarraipen zehatza egitea; gainera, beraien kaudimenean narriadura-zantzuak egonez gero, zuzkidurak egiteko beharra azaleratzen dute. Horregatik, berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketetan kreditu-hartzailearen egoerak hala eskatzen badu, behar diren kaudimengabezia-zuzkidurak egiten ditu Taldeak. Hauek dira berregituratze- eta birfinantzamendu-eragiketak:

- Birfinantzamendu-eragiketak: eragiketa horiek ematen dira edo erabiltzen dira, titularra eta bermeak edozein izanik ere, titularrak (edo titularrek) gaur egun dituen edo etorkizunean aurreikusten zaizkion zailtasun finantzarioekin lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoengatik, Entitateak berak nahiz taldeko beste erakunde batzuek titularrari (edo titularrei) nahiz talde ekonomikoko beste enpresa bati edo hainbati emandako eragiketa bat edo batzuk kitatzeko, edota eragiketa horien ordaintzeko betebeharra (osoa edo zati bat) egunean jartzeko, kitatutako edo birfinantzatutako eragiketen titularrei zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, egungo egoeran ezin dutenean ordainketa hitzartutako denboran eta moduan ordaindu, edo etorkizunean ezingo dutela aurreikusten denean.

- Eragiketa berregituratuak: eragiketa horien bidez baldintza finantzarioak aldatzen dira, titularrak (edo titularrek) gaur egun dituen edo etorkizunean aurreikusten zaizkion zailtasun finantzarioekin lotutako arrazoi ekonomiko edo legezkoak daudenean hari zorra (printzipala eta interesak) ordaintzen laguntzeko, baldintzak hitzartutako denboran eta moduan ezin baditu bete, edo etorkizunean ezingo duela aurreikusten bada, nahiz eta aldaketa hori kontratuan aurreikusita egon. Nolanahi ere, berregituratutako eragiketatzat jotzen dira kita egiten zaien edo zorra murrizteko aktiboak jasotzen dituzten eragiketak, edota baldintzak aldatzen zaizkienak, muga-eguna luzatzeko, amortizazio-taula aldatzeko (epe laburrean kuoten zenbatekoa edo maiztasuna gutxitzeko) edo printzipalaren, interesen edo bien gabealdia ezarri edo luzatzeko; salbu eta frogatzen bada baldintzak aldatzeko arrazoia ez dela titularren finantza-arazoa eta aldaketa egiten den egunean merkatuan antzeko arrisku-profila duten erabiltzaileei ezartzen zaizkien antzeko baldintzak ezartzen badira.

Eragiketa bat arrisku-kategoria jakin batean sailkatuta badago, birfinantzamendu-eragiketak ez du eragingo haren arrisku-maila hobetzea. Birfinantzatutako eragiketetan, hasierako sailkapena beraien ezaugarrien arabera zehazten da; batik bat, kreditu-hartzaileak finantza-arazoak izatea eta zenbait klausula (adibidez gabealdi luzeak) indarrean egotea hartzen dira aintzat.

Eragiketaren hasierako sailkapenaren ondoren, arrisku txikiagoko kategoria batera eramateko, nahiko garbi ikusi behar da eragiketaren zenbatekoa berreskuratzeko aukera, dela kreditu-hartzaileak ordainketa-betebeharra luzaro eta etenik gabe errespetatu duelako, dela hasierako zorraren ehuneko handi samarra ordaindu delako.

Estaldurak zenbatesteko irizpideak

Kreditu-arriskuaren ondoriozko galeren estaldurak kalkulatzeko, aurrerako zehaztutako irizpideak erabiltzen ditu Taldeak.

Arrisku hautemangarririk gabetzat sailkatutako eragiketei (funtsean banku zentralekin, administrazio eta enpresa publikoekin eta finantza-erakundeekin egindakoei eta Europar Batasunekoak edo arriskurik gabekotzat jotako beste herrialde batzuetakoak direnei) % 0ko estaldura-ehunekoa ezartzen zaie, baldin eta zalantzazko eragiketatzat sailkatuta ez badaude, kasu horretan banaka zenbatesten baitzaie narriadura.

1) Estalduren banakako zenbatespenak.

Hauek dira banakako zenbatespena egiten zaien estaldurak:

i) Banaka nabarmenak diren kreditu-hartzaileen zalantzazko eragiketen estaldurak. Taldeak 3 milioi euroko atalasea ezarri du arriskuarekiko guztizko esposizioan, kreditu-hartzaileak nabarmentzat hartzeko.

ii) Arrisku-talde homogeneo batekoak ez diren zalantzazko eragiketen estaldurak.

iii) Berankortasunaren ondorioz edo bestelako arrazoiren bategatik zalantzazkotzat sailkatutako eta arrisku hautemangarririk gabetzat identifikatutako eragiketen estaldurak.

Estaldura horiek zenbatesteko erabiltzen diren irizpideen bidez, analistek hornidura-maila esleitzen dute, bezeroaren egoera zehatzaren eta eragiketaren arabera eta hauek aintzat hartuz:

i) Kutxa-fluxuen sorrera: zordunek beraien negozioaren bidez etorkizunean kutxa-fluxuak sortzeko gaitasuna duten, beren jardueraren eta egitura ekonomiko-finantzarioaren bidez zorraren zati bat edo osotasuna ordaintzeko.

ii) Bermeen berreskurapena: zordunek beren negozioarekin kutxa-fluxuak sortzeko gaitasunik ez dutenean, bermeak exekutatzen dira zorra berreskuratzeko.

Bestalde, banakako zenbatespenerako aintzat hartu beharreko gutxieneko estaldurak hauek izango dira: zalantzazko arriskuetarako zenbatespen kolektiboko irizpideak erabiliz aplikatzekoak direnak, edo, sustapen-sektoreko eragiketen kasuan, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan zehaztutako irizpideei jarraiki ezarri beharrekoak.

2) Estalduren zenbatespen kolektiboak:

Hauek dira zenbatespen kolektiboa egiten zaien estaldurak:

i) Arrisku normaltzat sailkatutako esposizioak (zaintza berezikotzat sailkatuak barne), salbu eta kreditu-hartzaileren bat badago, gutxienez 90 eguneko ez-ordaintzerik gabe, eta, haren egoera ekonomiko-finantzarioa zehatz-mehatz aztertu ondoren Taldeak erabakitzen badu, berankortasuna ez beste arrazoiren bategatik zalantzazkotzat ez jotzea, nahiz eta estimatutako hornidura-bolumena handitu beharra eduki. Hornidurak zenbatesteko, hornidura kolektibo bat kalkulatzen da, kreditu-hartzaileari dagokion kreditu-arriskuaren segmentuaren arabera.

   Nabarmen izatera heltzen ez diren eta, gainera, zalantzakotzat jo ez diren kreditu-hartzaileentzat parametro jakin batzuk finkatu ditu Taldeak. Horiek gainditzen badituzte, zaintza bereziko arrisku normaltzat sailkatuko dira berehala. Oro har, ez-ordaintzeak 30 egun baino handiagoak eta 90 egun baino txikiagoak izango dira, eta mugaeguneratutako zenbatekoak 300 eurotik gorakoak.

ii) Zalantzazkotzat sailkatutako eta estalduren banakako zenbatespenaren bidez ebaluatzen ez diren esposizioak.

Narriadura zenbatesteko prozesuan, kreditu-esposizio guztiak hartzen dira aintzat, bai zor-tresnak eta bai balantzetik kanpoko esposizioak. Horrela, bada, indarreko FINA arauetan ezarritako parametroak eta metodologia (egindako galerarena) eta indarreko gainerako tokiko araudia erabili du Taldeak, eta, Espainiako banku-sektoreko erakundeen batez besteko portaerari buruzko datu eta eredu estatistikoak, FINA arauen esparruarekin erabat bateragarria den erakusten dutenak, oinarritzat harturik, Taldeak bezeroekin dituen balantzeko eta balantzetik kanpoko esposizioen narriaduraren sailkapena eta kalkulua zehazteko erabiltzen dira. Metodologiak, besteak beste, kontzeptu hauek hartzen ditu aintzat: eragiketari dagokion kreditu-arriskuaren segmentua, jasotako berme erreal eta pertsonal eraginkorrak, zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa eta, dagokionean, mugaeguneratutako zenbatekoen antzinatasuna.

Kreditu-arriskuaren ondoriozko galeren estaldurak zenbatesterakoan, higiezin-bermeen bidez berreskuratzeko zenbatekoa kalkulatu behar da. Horretarako, haren erreferentziazko balioa doitu egin behar da, zenbatespenean hauek behar bezala jasotzeko: batetik, ziurgabetasuna eta exekutatu eta saldu arte izan ditzakeen balio-erorikoak eta, bestetik, exekutatzeko, mantentzeko eta saltzeko kostuak.

Berme erreal eraginkorretatik berreskuratu beharreko zenbatekoa zehazteko, Espainiako Bankuak 4/2004 Zirkularrean estimatutako deskontuak aplikatzen ditu, Taldeak, horien erreferentziako balioaren gainean. Horretarako, Espainiako banku-sektoreari buruz duen esperientzia eta informazioa hartzen ditu oinarri.

<u>Herrialde-arriskuagatiko kreditu-arriskuaren sailkapena eta estaldura</u>

Herrialde-arriskutzat hartzen da, ohiko merkataritza-arriskua (arrisku subiranoa, transferentzia-arriskua edota nazioarteko finantza-jarduerarен ondoriozko arriskuak) ez den beste arrisku bategatik herrialde jakin batean bizi diren kontrako alderdiek duten arriskua. Taldeak hirugarrenekin egiten dituen eragiketak taldeka banatzen ditu, herrialdeetako hainbat elementu aintzat hartuta: bilakaera ekonomikoa, egoera politikoa, arau- eta erakunde-esparrua, ordainketak egiteko gaitasuna eta esperientzia. Hala, herrialde bakoitzari kaudimengabeziagatiko zuzkidura-ehuneko jakin bat ezartzen dio, indarreko araudian ezarritakoarekin bat.

Herrialde-arriskuagatiko zalantzazko aktibotzat jotzen dira aldi luzez beren zorrari aurre egiteko zailtasunak dituzten herrialdeetan bizi diren azken obligaziodunekin egindako eragiketak, berreskuratzeko aukera zalantzazkoa denean. Ildo beretik, herrialdeari egotz dakizkiokeen gorabeheren ondorioz berreskuratzeko aukera urruna duten balantzetik kanpoko esposizioek ere kategoria bera izango dute.

2017ko eta 2016ko ekitaldien itxieran, Taldeak ez du inolako zuzkidurarik kontzeptu horren pean.

<u>Bermeak</u>

Eraginkortzat jotzen dira Taldeak kreditu-arriskua arintzeko baliogarria dela frogatzeko balio duten berme errealak eta berme pertsonalak. Bermeen eraginkortasunaren analisiak kontuan hartzen ditu, besteak beste, bermeak gauzatzeko behar den denbora eta Taldeak horiek gauzatzeko duen gaitasuna, bai eta halakoak gauzatzeko duen esperientzia ere.

Ez dira inola ere berme eraginkortzat hartuko eraginkortasuna funtsean zordunaren edota, dagokionean, partaide duen talde ekonomikoaren kreditu-kalitatearen mende duten bermeak.

Baldintza horiek betez gero, eraginkortzat jo daitezke honako berme mota hauek:

i) Lehen kargako ondasun higiezinen hipotekatzat bideratutako higiezin-bermeak:

a. Eraikinak eta bukatutako eraikinetako elementuak:

- Etxebizitzak.
- Bulego eta lokal komertzialak, eta balio anitzeko pabiloiak.
- Gainerako eraikinak, hala nola balio anitzekoak ez diren pabiloiak eta hotelak.

b. Hiri-lurzorua eta urbanizagarri antolatua.

c. Gainerako ondasun higiezinak.

ii) Finantza-tresnen gaineko pignorazio-bermeak:

- Diru-gordailuak.
- Kaudimen handiko jaulkitzaileen ondare-tresnak edo zorra adierazten duten baloreak.

iii) Beste berme erreal batzuk:

- Bermean jasotako ondasun higigarriak.
- Higiezinen gaineko bigarren hipotekak eta hurrengoak.

iv) Abal-emaile berrien bezeroarekiko erantzukizun zuzen eta mankomunatua dakarten berme pertsonalak, betiere pertsona edo entitate horien kaudimena nahikoa frogatuta badago, hitzartutako baldintzetan eragiketa osorik itzuliko dutela bermatzeko.

Espainian kokatutako aktiboetarako, indarreko araudiarekin bat datozen irizpideak erabiltzen ditu Taldeak, berme errealak baloratzeko. Zehazki, balorazioen hornitzaileak hautatu eta kontratatzeko Taldeak erabiltzen dituen irizpideen xedea da horien independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzea. Guztiak ere Espainiako Bankuaren Tasazio Sozietateen Erregistro Berezian erregistratutako tasazio-sozietate eta -agentziak dira, eta balorazioak egiteko irizpideak ECO/805/2003 Aginduan, ondasun higiezinak eta eskubide jakin batzuk finantza-xede jakin batzuetarako baloratzeko arauen gainekoan, daude ezarrita.

Kreditu-eragiketen higiezin-bermeak eta higiezinak eurak eragiketa egiten denean tasatzen dira (azken horiek erosketa, esleipen edo ordainean emate bidez), eta aktiboaren balioa nabarmen erortzen denean. Era berean, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularrak (4/2016 Zirkularrak aldatu zuenak) ezartzen dituen eguneratze-irizpideak erabiltzen dira; horien artean nabarmentzen da urtean behin zalantzazko arriskuak eta esleitutakoak eguneratzea.

## Arrazoizko balioan baloratutako finantza-tresnak

“Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” epigrafean sartutako zorra adierazten duten baloreen narriaduragatiko galerak honela kalkulatzen da: eskuratze-kostuaren —printzipalaren edozein amortizazio kendu ostean— eta bere arrazoizko kostuaren arteko aldeari galdu-irabazien kontu bateratuan aurrez aitortutako narriaduragatiko edozein galera kentzen zaio.

Ebidentzia objektiboak ditugunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbiko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean aitortutako ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduragatiko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, horien zenbatekoa berreskurapen-epeko galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen da.

“Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” edo “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” epigrafean sailkatutako zorra adierazten duten baloreen kasuan, Taldearen ustez narriadura gertatzen da, baldin eta printzipalean edota kupoian 90 egunetik gorako ez-ordaintzea gertatu bada, edota kostuan eta kreditu-kalifikazioan % 40tik gorako balio-galtzea gertatu bada.

"Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak" epigrafean sailkatuta dauden zor-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, sailkapena egiten den egunean.

## Ondare-tresnak

“Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” epigrafean sartutako ondare-tresnetan egindako narriaduragatiko galeren zenbatekoa honela kalkulatzen da: eskuratze-kostuaren eta arrazoizko kostuaren arteko alde positiboari aurrez galdu-irabazien kontu bateratuan aitortutako narriaduragatiko edozein galera kentzen zaio.

Ebidentzia objektiboak ditugunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbi bateratuko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean aitortutako ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduragatiko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, horien zenbatekoa ondare garbi bateratuko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean aitortzen da.

Taldearen ustez, “Saltzeko prest dauden finantza-aktibo” gisa sailkatutako ondare-tresnak narriatuta dauden ebidentziak daude, baldin eta, behaketa egin den unean, % 40tik gorako minusbalio etengabeak gertatu badira, 18 hilabetean jarraian.

"Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak" epigrafean sailkatuta dauden ondare-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, sailkapena egiten den egunean.

Eskuratze-kostuan baloratutako ondare-tresnen narriaduragatiko galerak kalkulatzeko, horien liburuetako zenbatekoaren eta etorkizunerako espero diren kutxa-fluxuen egungo balioaren arteko aldea ateratzen da, baina antzeko beste balore batzuek merkatuan duten errentagarritasun-tasarekin eguneratuta. Narriaduragatiko galera horiek, gertatzen diren

epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, zuzenean finantza-aktiboaren kostua txikitzeko moduan, eta kopuru hori ezin izaten da berreskuratu, baldin eta tresna horiek saltzen ez badira.

Mendeko, baterako negozio eta elkartuetako inbertsioen kasuan, narriaduragatiko galerak zenbatesteko, zenbateko berreskuragarria eta liburuetako zenbatekoa alderatzen ditu Taldeak. Narriaduragatiko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta ondorengo berreskurapenak, horiek gertatzen diren epeko galdu-irabazien kontu bateratuan.

i) Kontuen balorazioa atzerri-diruan

Euroa da Taldeak bere jardunean erabiliko duen dibisa. Beraz, eurotan ez dauden saldo eta transakzio guztiak atzerri-dirutan egindakotzat joko dira.

Ondoren, Taldeak 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa agertzen da eurotan:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Aktiboak | Pasiboak | Aktiboak | Pasiboak |
| AEBko dolarrak | 59.841 | 27.762 | 62.406 | 24.162 |
| Libera esterlinak | 4.389 | 1.152 | 7.034 | 711 |
| Yen japoniarrak | 2.243 | 112 | 1.965 | 33 |
| Franko suitzarrak | 679 | 126 | 1.210 | 199 |
| Bestelakoak | 1.297 | 366 | 1.221 | 344 |
| | 68.449 | 29.518 | 73.836 | 25.449 |

Ondoren, Taldeak 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n atzerri-dirutan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa agertzen da mila eurokotan, izaeraren arabera sailkatuta:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Aktiboak | Pasiboak | Aktiboak | Pasiboak |
| Eskudirua, eskudiruko saldoak banku zentraletan eta ageriko beste gordailu batzuetan | 18.330 | - | 8.652 | - |
| Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak | 36.099 | - | 48.901 | - |
| Maileguak eta kobratzeko partidak | 14.020 | - | 16.283 | - |
| Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan | - | 28.016 | - | 24.751 |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | - | 1.502 | - | 698 |
| | 68.449 | 29.518 | 73.836 | 25.449 |

Hasierako erregistroan, eurotara bihurtzen dira atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak. Helburu horretarako, erregistroaren eguneko eskurako kanbio-tasa erabiltzen da, hau da, berehala entregatzeko kanbio-tasa. Hasierako erregistroaren ondoren, honako arau hauek erabiltzen dira atzerri-dirutan dauden saldoak eurotara bihurtzeko:

i) Izaera monetarioko aktibo eta pasiboak itxierako kanbio-tasarekin bihurtzen dira, hau da, finantzetako egoera-orrien eguneko eskurako batez besteko kanbio-tasarekin.

ii) Kostu historikoan baloratutako partida ez-monetarioak eskurapen-eguneko kanbio-tasarekin bihurtzen dira.

iii) Arrazoizko balioan baloratutako partida ez-monetarioak arrazoizko balio hori zehazten den eguneko kanbio-tasarekin bihurtzen dira.

iv) Sarrerak eta gastuak bihurtzeko, berriz, eragiketaren eguneko kanbio-tasa aplikatzen da. Dena den, epealdiko eragiketa guztietan batez besteko kanbio-tasa bera erabiltzen da, aldaketa esanguratsurik izan ez badu, behinik behin. Amortizazioak dagokien aktiboari aplikatutako kanbio-tasarekin bihurtzen dira.

Atzerri-dirutan dauden saldo zordun eta hartzekodunak bihurtzean sortutako kanbio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, oro har. Halarik ere, arrazoizko balioan baloratu diren eta arrazoizko balio horretara egindako doikuntza ondare garbi bateratuko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean jasotzen zaien partida ez-monetarioetan dauden kanbio-aldeen kasuan, kanbio-tasaren osagaia bereizi egiten da monetarioa ez den elementuaren errebalorizaziotik.

Ohiko jardueran euroa erabiltzen ez duten partaidetzako erakundeetan, urteko kontuetako saldoak eurotara bihurtzen dira honela:

i) Aktibo eta pasiboak bihurtzeko, ekitaldi-amaierako kanbio-tasa aplikatzen da.

ii) Sarrerak eta gastuak eta altxortegiko fluxuak bihurtzeko, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasak aplikatzen dira.

iii) Ondare garbia kanbio-tasa historikoekin bihurtzen da.

Ohiko jardueran euroa erabiltzen ez duten partaidetzako erakundeetako urteko kontuak bihurtzean sortutako kanbio-aldeak ondare garbi bateratuko "Metatutako bestelako emaitza globala" epigrafean jasotzen dira.

Partaidetzako erakundeek ohiko jardueran erabiltzen dituzten dibisen artean bat bera ere ez da oso ekonomia inflazionistakotzat jo, gai horren inguruan ezarrita dauden irizpideen arabera. Beraz, 2017ko eta 2016ko ekitaldien kontabilitate-itxieran ez da beharrezkoa izan partaidetzako erakundeetan finantzetako egoera-orriak doitzea, inflazioaren eraginak zuzentzeko.

j) Sarrerak eta gastuak erregistratzea

Interesen eta antzeko kontzeptuen ondoriozko sarrerak eta gastuak sortzapen-epearen arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez erregistratzen dira, oro har, kontabilitatean. Beste erakunde batzuetatik jasotako dibidenduak sarrera gisa jasotzen dira, horiek eskuratzeko eskubidea sortzen den unean.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindutako eta kobratutako komisioak, kontratuan duten izendapena gorabehera, honela sailkatzen dira, eta sailkapen horren arabera egotziko zaizkio galdu-irabazien kontu bateratuari:

i) Finantza-komisioak: finantza-eragiketen errendimendu edo kostu efektiboaren barruan sartzen dira, eta kostu edo errendimendu efektibo horri egindako doikuntza gisa galdu-irabazien kontu bateratuari egozten zaizkio, eragiketari kalkulatu zaion bizitzan zehar. Aktiboko produktuen irekitze-komisioak, kredituetan gainditutakoen gaineko komisioak eta pasiboko kontuen zorpeko-komisioak nabarmendu daitezke horien artean. 2016an, 5.030 mila euroko finantza-komisioak sortu dira (2016an, 5.916 mila eurokoak).

   Aurreko atalean adierazitakoari jarraikiz, ekitaldi bakoitzean formalizatutako eragiketen finantza-komisioak geroratu egiten dira, ez dituztelako eragiketen zuzeneko kostuak konpentsatzen. Formalizatutako eragiketen zuzeneko kostuak konpentsatzeko 2017ko eta 2016ko ekitaldietan emaitzetara egotzitako komisioen zenbatekoa galdu-irabazien kontu bateratuko “Beste ustiapen-sarrera batzuk” epigrafean sartzen da (56. oharra).

ii) Komisio ez-finantzarioak: zerbitzuak ematearen ondoriozkoak dira, eta epealdi jakin batean ematen den zerbitzuaren burutzapenean eta egintza berezi batean gauzatzen den zerbitzuan sor daitezke (ikus 49. eta 50. oharrak).

Komisioen eta antzeko zerbitzu-sarien ondoriozko sarrerak eta gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, oro har, irizpide hauei jarraikiz:

i) Galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan baloratu diren finantza-aktibo eta -pasiboekin zerikusia dutenak, kobratzean erregistratzen dira.

ii) Epealdi batean egiten diren transakzio edo zerbitzuei dagozkienak transakzio edo zerbitzu horien epealdian erregistratzen dira.

iii) Egintza berezietan exekutatzen diren transakzio edo zerbitzuei dagozkienak horiek sortu dituen egintza gertatzen denean erregistratzen dira.

Sarrera eta gastu ez-finantzarioak sortzapen-printzipioaren arabera jasotzen dira kontabilitatean. Urte betetik gora atzeratutako kobrantza eta ordainketak kontabilitatean erregistratzeko, aurreikusitako eskudiru-fluxuak merkatu-tasekin eguneratzearen ondoriozko kopuruak hartzen dira kontuan.

k) Saldoak konpentsatzea

Kontratuaren edo lege-mailako arau baten ondorioz konpentsatzeko aukera duten transakzioen saldo zordun eta hartzekodunak zenbateko garbiarekin jasotzen dira balantze bateratuan, baldin eta horiek zenbateko garbiarekin likidatzeko edo aldi berean aktiboa egin eta pasiboa ordaintzeko asmoa badago.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermeko kontratuetan, jaulkitzaileak ordainketa espezifikoak egin behar dizkio hartzekodunari, baldin eta zordun jakin batek ez badu ordaintzeko betebeharra betetzen eta, ondorioz, hartzekodunak dirua galtzen badu, zor-tresna batean —berdin dio zer egitura juridiko duen: fidantza, finantza-abala, aseguru-kontratua edo kreditu-deribatua— hitzartutako baldintzen (jatorrizkoen nahiz aldatuen) arabera.

Finantza-bermedun kontratuen erakunde jaulkitzaileak “Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan - Beste finantza-pasibo batzuk” partidan jasotzen ditu horrelakoak. Bertan, arrazoizko balioa gehi jaulkipenari zuzenean dagozkion transakzio-kostuak zehazten dira, aseguru-entitateek egindako kontratuetan izan ezik.

Hasieran, kontrako ebidentziarik egon ezean, loturarik ez duen hirugarren baten alde, eragiketa isolatu batean eta erabateko independentziaz jaulkitako finantza-bermeko kontratuen arrazoizko balioa hauxe da: jasotako hobaria gehi, dagokionean, jaso beharreko eskudiru-fluxuen egungo balioa, Entitateak antzeko epearekin eta arriskuarekin emandako finantza-aktiboen interes-tasa bertsua erabiliz. Aldi berean, aktiboan kreditutzat aitortuko da jasotzekoak diren etorkizuneko eskudiru-fluxuen gaur egungo balioa, lehen aipaturiko interes-tasa erabiliz.

Hasierako aitorpenaren ondoren, kontratuak irizpide hauen arabera erregistratzen dira:

i) Finantza-bermeen ondorioz jaso beharreko komisio edo primen balioa eguneratzeko, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan adierazten dira finantza-sarrera gisa.

ii) Zalantzazkoak ez diren finantza-bermedun kontratuen balioa honela kalkulatzen da: pasiboan hasieran zehaztutako zenbatekoaren eta bermearentzat aurreikusitako bizitzan zehar galdu-irabazien kontu bateratuan linealki jasotako zenbatekoaren arteko kenketa eginez. Ildo horretan, linealki jasotako zenbatekoaren ordez beste irizpide bat ere erabil daiteke, bermearen ekonomia-etekinak eta -arriskuak zehatzago islatzeko balio badu behintzat.

Finantza-bermedun kontratuak zalantzazkotzat hartzen direnean, “Hornidurak – Emandako konpromiso eta bermeak” epigrafean birsailkatu behar dira nahitaez. Balorazioari dagokionez, aurreko 13.h oharrean adierazitakoa aplikatzen da.

m) Errentamenduak

Eragiketaren ekonomia-fondoaren arabera aurkezten dira errentamendu-kontratuak, edozein egitura juridiko dutelarik ere, eta finantza- edo eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira hasieratik.

i) Kontratuko aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkinen funtsezko transferentzia egiten denean hartzen dira errentamenduak finantza-errentamendutzat.

Taldeak ondasunak errentan ematen dituenean, errentariak emango dizkion zenbatekoen egungo balioen eta bermatutako hondar-balioaren arteko batura hirugarrenei emandako finantzaketa gisa erregistratzen da, eta, beraz, egoera-balantze bateratuko "Maileguak eta kobratzeko partidak" epigrafean sartzen da, errentariaren izaeraren arabera. Bermatutako hondar-balioa kontratua amaitzen denean errentariak erosteko aukera erabiltzearen prezioa izan ohi da.

Bestalde, Taldeak errentari gisa diharduenean, errentan hartutako aktiboen kostua erregistratzen da balantze bateratuan, kontratuko ondasunaren izaeraren arabera. Aldi berean, zenbateko bereko pasiboa jasotzen da balantzean. Idazpena egiteko, errentan hartutako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruen egungo balioen batura, gehi, behar denean, erosteko aukera erabiltzearen prezioaren arteko kopururik txikiena hartzen da. Erabilera propioko aktibo materialetan aplikatzen direnen antzeko irizpideez amortizatzen dira aktibo horiek.

Jatorria kontratu horietan duten finantza-sarrerak eta -gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu eta kargatzen dira hurrenez hurren, kontratuen bizitzan zehar errendimendua konstantea izateko moduan.

ii) Finantza-errentamendutzat hartzen ez diren errentamendu-kontratuak eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira.

Taldea denean errentatzailea, errentan emandako ondasunen eskuratze-kostua "Aktibo ukigarriak – Ibilgetu materiala" epigrafean erregistratzen da. Erabilera propioko antzeko aktibo materialetan erabiltzen diren politiken arabera amortizatzen dira horiek, eta errentamendu-kontratuen ondoriozko sarrerak linealki jasotzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

Beste alde batetik, Taldeak errentari jarduten duenean, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira errentamendu-gastuak gehi, behar denean, errentatzaileak emandako pizgarriak.

n) Kudeatutako ondareak

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen jabetzako ondareak ez dira balantze bateratuan sartzen. Jarduera honek emandako komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko “Komisioen ondoriozko sarrerak” epigrafean erregistratzen dira (49. oharra).

ñ) Taldeak kudeatutako inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak

Taldeak gestionatutako inbertsio-fondoak, pentsio-fondoak eta BGAEak ez dira balantze bateratuan aurkezten, horietako ondarea hirugarren batzuena delako (69 oharra). Taldeak fondo horiei emandako zerbitzuen —ondareak kudeatzeko zerbitzuak, zorroen gordailuak…— ondoriozko ekitaldiko komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko "Komisioen ondoriozko sarrerak" epigrafean erregistratzen dira (49. oharra).

o) Pertsonal-gastuak eta enplegu ondoko ordainketak

Langileei emandako ordainsariak, enplegualdia amaitzen denean likidatzen direnak, enplegu ondoko ordainketatzat hartzen dira. Enplegu ondoko ordainketak, pentsioen barruko nahiz kanpoko fondoez estalitakoek ere bai, ekarpen mugatuko plan edo prestazio-plan mugatu gisa sailkatzen dira, obligazioen baldintzen arabera. Hartutako konpromiso guztiak hartzen dira kontuan, langileekin formalki hitzartutakoaren barruan nahiz kanpoan hartuak.

Enplegu ondoko ordainketak honela jasotzen dira:

i) Galdu-irabazien kontu bateratuan: langileek emandako zerbitzuaren kostua (ekitaldi horretakoa nahiz aurreko ekitaldietakoa baina beraietan aitortu gabea), horniduraren (aktiboaren) gaineko interes gordina eta likidatzeko unean gertatzen den irabazia edo galera.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orrian: irabazi edo galera aktuarialen ondorioz horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planaren aktiboen errendimenduaren ondorioz egin diren horniduraren (aktiboaren) balorazio berriak, eta Taldearentzat erabilgarri dauden fluxuen balioan izandako aldaketen ondorioz egungo balioak izan dituen aldaketak, baldin eta horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez badaude. Ondare garbiko aldaketen egoera-orrian aitortutako zenbatekoak ez dira hurrengo ekitaldi bateko galdu-irabazien kontu bateratuan birsailkatzen.

Horrela, prestazio-plan mugatuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, irizpide hauei jarraikiz:

a) Indarrean dagoen aldiko zerbitzuen kostua, pertsonal-gastutzat.
b) Horniduraren gaineko interes garbia, interes ondoriozko gastutzat.
c) Aktiboaren gaineko interes garbia, interesen ondoriozko sarreratzat.
d) Iragandako zerbitzuen kostua, hornidura edo (-) hornidura-itzulketatzat.

PD II

Caja Laboralak eta Ipar Kutxak bat egitearen ondorioz (1. oharra), Entitate Nagusiak II. Dinamizazio Plana formalizatu zuen, 2012ko ekitaldian. Pl0an hori lehengo Caja Laboralaren Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta lehengo Caja Laboralaren lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zuzenduta zegoen. 2013ko urtarrilaren 1ean hasi zen eta 2018ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Plan berri hau borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan berriaren ezaugarri nagusiak:

i) 1953an eta 1954an jaiotako bazkideei aukera ematen zien, 60 edo 61 urte bete eta jarduera uzterakoan, kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu zuten aukeraren arabera. 1955ean jaiotakoek modalitate hori aukeratzeko aukera izan zuten; baina, horretarako, jarduera 60 urterekin utzi behar zuten, hau da, ezin ziren 61 urterekin erretiratu.

ii) 1953 eta 1957 bitartean jaio ziren eta 2013ko urtarrilaren 1etik 4ra bitartean izena eman zuten bazkideei aukera eman zitzaien lan-baldintza berezi batzuk eskuratzeko eta kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, bazkideak zerbitzu emateari uzten zion egunera arte.

2017ko eta 2016ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantze bateratuko “Hornidurak - Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak” epigrafean dago jasota (38. oharra).

PD 58

Era berean, Entitate Nagusiak 58 Dinamizazio Plana izeneko plana formalizatu zuen, 2016ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2017ko urtarrilaren 1etik 2020ko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Plan berri hau borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1958an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2017ko eta 2016ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko “Hornidurak - Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak” epigrafean dago jasota (38. oharra).

Sare Berria

2017ko eta 2016ko ekitaldietan, baldintza laboral eta ekonomiko zehatz batzuk finkatu ditu Entitate Nagusiak, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko bazkide-talde jakin bati begira. Plan horren barruan, zenbait bazkide lan-baldintza jakin batzuetara atxiki dira, eta kontraprestazio ekonomiko bat jasoko dute, zerbitzu emateari uzten dioten egunera arte.

2017ko eta 2016ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantzeko “Hornidurak - Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak” epigrafean dago jasota (38. oharra).

PD 59

Era berean, Entitate Nagusiak 59 Dinamizazio Plana izeneko plana formalizatu du, 2017ko ekitaldian. Plan hori Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko lan-bazkideen kolektibo zehatz bati dago zuzenduta. 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko ekainaren 30era arte egongo da indarrean. Aurreko planak bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planari atxikitzeko gogoa.

Hona hemen plan horren ezaugarri nagusia:

i) 1959an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera.

2017ko ekitaldiaren amaieran sortutako betebeharra balantzeko “Hornidurak - Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak” epigrafean dago jasota (38. oharra).

Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezko arrazoirik gabe kaleratzen diren enplegatuei kalte-ordaina eman behar die Taldeak. Pertsonala murrizteko asmorik ez dagoenez, ez da beharrezkoa horretarako zuzkidurarik sortzea.

p) Jarduera etengabeen ondoriozko irabazien gaineko zerga

Sozietateen gaineko zerga gastutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontu bateratuko “Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen ondoriozko gastuak eta sarrerak” epigrafean erregistratzen da.

Ordaindu behar den zergak mugatzen du “Jarduera etengabeen irabazien gaineko zergen ondoriozko gastuak edo sarrerak” epigrafeko gastua. Hori kalkulatzeko, ekitaldiko zerga-oinarria hartzen da kontuan, ekitaldi horretan denbora-aldeek, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kredituek eta zerga-oinarri negatiboek eragindako gorabeherak aintzat hartu ondoren. Gerta liteke ekitaldiko zerga-oinarria ez bat etortzea galdu-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako emaitza garbi bateratuarekin. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan kargatzekoak edo deduzitzekoak diren partidak eta kargatzen eta deduzitzen ez diren partidak kanpoan uzten ditu.

Finantzetako egoera-orrietako aktiboen eta pasiboen kontabilitateko zenbatekoen eta horien zerga-oinarrien arteko aldeetatik ordaindu edo berreskuratzea espero diren zergak sartzen dira zerga geroratuen ondoriozko aktiboetan eta pasiboetan. Balantze bateratuan kontabilizatzen dira pasiboaren metodoa erabiliz, eta berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasari dagokion denbora-aldea edo kreditua aplikatuz kuantifikatzen dira.

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa, aurreratutako zerga, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kreditua eta zerga-oinarri negatiboen ondoriozko kreditua aitortzeko, horiek efektibo egiteko adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izan behar du Taldeak. Esan dezakegu Taldeak etorkizunean behar adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izango duela kasu hauetan:

i) Dauden zerga geroratuen ondoriozko pasiboak kita daitezkeenean, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa gauzatu den ekitaldian bertan edo aurreratutako zenbatekoak eragindako zerga-oinarri negatiboa konpentsatzeko aukera ematen dion beste ekitaldi batean.

ii) Zerga-oinarri negatiboak sortu dituzten arrazoiak nekez errepikatzekoak direnean.

Aurrekoa gorabehera, erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuetako inbertsioen kontabilitate-erregistroan sortzen den zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa aitortuko da, baldin eta hori etorkizunean gauzatzeko asmoa badago, eta etorkizunean behar adina irabazi fiskal izateko itxaropena badago, aktibo hori efektibo egiteko. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aitortzen, baldin eta aitorpenaren unean emaitza kontableari eta fiskalari eragin ez badio.

Zerga geroratuen ondoriozko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean, merkataritza-fondo bat aitortzen denean edo pasibook erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuen inbertsioak kontabilizatzean sortzen direnean izan ezik. Baldintza da, Taldea gai izatea denbora-aldea itzultzeko unea kontrolatzeko eta alde hori ez itzultzea aurreikusteko moduko etorkizunean. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aitortzen zerga geroratuaren ondoriozko pasiboa, baldin eta aitorpenaren unean emaitza kontableari eta fiskalari eragin ez badio.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean erregistratutako zerga geroratuak berrikusten dira, bai aktiboak eta bai pasiboak, indarrean jarraitzen dutela egiaztatzeko, eta beharrezko zuzenketak egiten dira.

Deskribatutako azterketa egiteko, aldagai hauek hartzen dira aintzat:

- Erakunde bakoitzaren emaitza-proiekzioak, erakunde horietako gobernu-organoek onartutako finantza-aurrekontuetan oinarritutakoak, geroratuko zergen ondoriozko aktiboak erregistratzeko aukera sortu zutenak (zerga-bateratzeko talderik ez zegoelako), gerora erakunde bakoitzeko zuzendaritzak zenbatetsitako hazkunde-tasa iraunkorrak ezarrita.

- Denbora-aldeak itzultzearen estimazioa, izaeraren arabera.

- Indarreko legediak zergen ondoriozko aktiboak itzultzeko ezarritako epea edo muga.

Zuzenean ondare garbi bateratuan erregistratutako sarrerak edo gastuak, emaitza fiskalean edo alderantziz eraginik ez dutenak, denbora-alde moduan kontabilizatzen dira.

q) Aktibo ukigarriak

Aktibo ukigarrietan hauek sartzen dira: Taldeak gaur egun edo etorkizunean erabiltzeko duen eta ekitaldi batean baino gehiagoan erabiltzeko asmoa duen ibilgetu materiala, bezeroei errentamendu operatiboan lagatzen zaien ibilgetu materiala, gizarte-ekintzari atxikia eta ondasun higiezinetako inbertsioak, aktiboak barne hartzen dituztenak alokairu-erregimenean ustiatzeko. Aktibo ukigarriak eskurapen-kostuaren arabera baloratzen dira, baina metatutako amortizazioa kenduta eta, dagokionean, elementu bakoitzaren balio garbia eta zenbateko berreskuragarria alderatzetik ateratzen den narriaduragatiko edozein galera kenduta. Erabilera propioko eta libreko aktibo materialeko elementu batzuen eskurapen-kostua horiek 2004ko urtarrilaren 1ean arrazoizko balioan baloratuta ateratzen da, 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraikiz. 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balio hori aditu independenteek egindako tasazioetan oinarrituta lortu da.

Esleitutako aktiboen kasuan, horien esleipenaren truke emandako finantza-aktiboen zenbateko garbia da eskurapen-kostua.

Amortizazioak metodo lineala erabiliz kalkulatzen dira. Elementuen erabilera-bizitzako urteak aplikatzen zaizkio aktiboen eskurapen-kostuari, eta gero, hondar-balioa kendu. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutela ulertzen da, eta, beraz, ez dira amortizatzen. Aktibo materiala amortizatzeagatiko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura erregistratzen dira, eta elementu guztiei batez beste estimatzen zaizkien balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzen dira.

| | **Balio-bizitzako urteak** |
|---|---|
| Eraikinak eta urbanizazioak | 33 - 50 |
| Altzariak | 7 - 10 |
| Instalazioak | 7 - 10 |
| Makineria, ekipamendu elektronikoa eta beste batzuk | 4 - 6 |

Kontabilitatearen itxiera bakoitzean, Taldeak azterketa egiten du ikusteko ea, barruan nahiz kanpoan, zerbaitek erakusten duen aktibo materialeko elementuen balio garbia handiagoa dela zenbateko berreskuragarria baino. Kasu horretan, elementu horren liburuetako zenbatekoa zenbateko berreskuragarriraino murrizten du Taldeak, eta etorkizuneko amortizazioagatiko karguak doitu egiten ditu, kontabilitate-balio berriaren eta geratzen zaion balio-bizitza berriaren arabera, baldin eta berriro kalkulatu beharra badago. Bestalde, elementu jakin baten balioa berreskuratu dela garbi dagoenean, aurreko epealdietan kontabilizatutako narriaduraren ondoriozko galeraren itzulketa erregistratzen du Taldeak, eta amortizazioagatik etorkizunean egin beharreko karguak doitzen ditu. Elementu baten narriaduragatiko galera itzultzeak ezin du inola ere eragin, liburuetako zenbatekoa handiagoa izatea aurreko ekitaldietan narriaduragatiko galerak aitortu ez balitzaizkio izango zukeena baino.

Taldeak, ekitaldi bakoitzaren amaieran behinik behin, erabilera propioko aktibo materialeko elementuen balio-bizitza berrikusten du, horietan aldaketa esanguratsurik dagoen ikusteko. Halako aldaketarik badago, doitu egiten ditu; horretarako,dagozkion zuzenketak egiten ditu, balio-bizitza berriaren arabera amortizatu behar denaren zuzkidura etorkizuneko ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzean.

Erabilera propioko aktibo materialak zaindu eta mantentzeagatiko gastuak, egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Aktibo ukigarrietako ibilgetuetako inbertsioetan, Taldeak dituen lursail, eraikin eta beste eraikuntza batzuen balioa sartzen da, baina dagokien amortizazio metatua kenduta. Ondasun horiek alokairu bidez ustiatzeko edo salmentarekin (etorkizunean merkatuko prezioetan izaten diren igoeren ondorioz) plusbalioa lortzeko ditu Taldeak.

Taldeak erabilera propioko aktibo ukigarrietan erabiltzen dituen irizpide berberak aplikatzen ditu errentamendu operatiboan emandako aktiboen eskurapen-kostua aitortzeko, amortizatzeko, horien balio-bizitzak kalkulatzeko eta narriaduraren ondoriozko galderak erregistratzeko.

r) Aktibo ukiezinak

Irudi fisikorik gabeko aktibo ez-monetario identifikagarriak dira aktibo ukiezinak. Aktibo ukiezinak identifikagarriak direla esaten dugu, beste aktibo batzuengandik bereizi daitezkeenean, banaka besterendu, errentan eman edo erabili daitezkeelako, edo kontratu edo bestelako negozio juridikoren baten ondorioz sortzen direnean. Aktibo ukiezina aitortzekoan, aurreko definizioa betetzeaz gain, Taldeak horren ondorioz mozkin ekonomikoak lortzeko asmoa izan behar du, eta haren kostua modu fidagarrian kalkulatzeko aukera egon behar da.

Kostuaren arabera aitortzen dira, hasieran, aktibo ukiezinak. Eskurapenekoa edo produkzioko izan daiteke kostu hori. Aurrerantzean, kostu horri amortizazio metatua eta narriaduragatiko galerak kentzen zaizkio, behar denean.

Merkataritzako fondoan, eskuratutako erakunde baten aktiboen etorkizuneko mozkin ekonomiko deribatuengatik Taldeak egindako ordainketa aurreratua sartzen da, baldin eta mozkinok banan-banan eta bereizita identifikatzekoak edo aitortzekoak badira. Erakundea negozio-konbinazio batean eta kostu bidezko tituluz eskuratu bada bakarrik aitortzen da fondo hori.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde positiboak, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko aktiboek eta pasiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Aktibo ukiezinei esleitzekoak badira, balantze bateratuan aitortzen dira, eskurapen-eguneko arrazoizko balioa modu fidagarrian finka badaiteke.

iii) Egotzi ezin diren gainerako aldeak merkataritzako fondo gisa erregistratzen dira, eta eskudirua sortzen duen unitate bati edo gehiagori esleitzen zaio.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde negatiboak, berriz, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien egoera-balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko pasiboek edo aktiboek dutenaren antzekoa den.

ii) Egotzi ezin diren gainerako kopuruak kapitala eskuratu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Gainerako aktibo ukigarriek bizitza mugatua dute eta bizitza horren arabera amortizatzen dira, aktibo materialekoen antzerako irizpideak erabiliz.

Edozein modutan ere, aktibo horientzat erregistratu den balioan narriaduragatik gertatzen diren galerak galdu-irabazien kontuan kontra-partida eginez erregistratze dira kontabilitatean. Aktibo horien narriaduragatiko galerak eta, behar denean, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatiko galeren berreskuratzeak aitortzeko irizpideak aktibo ukigarrietan erabilitakoen antzekoak dira.

s) Izakinak

Izakinak aktibo ez-finantzarioak dira, eta hiru egoeratan egon daitezke: Taldeak negozioaren ohiko jardunean saltzeko prest, produkzio-, eraikuntza- edo garapen-prozesuan (saltzeko asmoz) edo produkzio-prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko. Izakinek, besteak beste, Taldeak higiezinen sustapenaren jardueran saltzeko dituen lursailak eta gainerako jabetzak sartzen dira.

Kostu-balioaren, zuzeneko nahiz zeharkako gainerako kostuen eta burutzapen-balio garbiaren arteko zenbatekorik txikienarekin baloratzen dira. Kostu-balioan, izakina erosi eta eraldatzean sortutako kostuak sartzen dira. Gainerako kostuak, berriz, izakienei egungo baldintzak eta kokapena ematean sortutakoak dira. Negozioaren ohiko jardunean izakinek duten salmenta-prezioaren estimazioa hartzen da burutzapen-balio garbitzat, betiere produkzioa amaitzeko eta salmenta egiteko behar diren zenbatekoak kenduta.

Ohi bezala trukatzerik ez dagoen izakinen eta proiektu jakin batzuetarako ekoiztu eta segregatutako ondasun eta zerbitzuen kostua zehazteko, banakako kostuak bereizten dira. Gero, gainerako izakinen kosturako, lehen sarrera lehen irteera metodoa aplikatzen da.

Izakinen balorazioagatiko edozein doikuntzaren zenbatekoa, hala nola kalteen, zaharkitzearen eta salmenta-prezioa txikitzearen ondoriozkoa, burutzapen-balio garbia eta beste kontzeptu batzuengatiko galerak gastu moduan aitortzen dira, narriadura edo galera gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan. Ondorengo balio-berreskuratzeak, ostera, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzen dira.

Izakinen kontabilitate-balioari balantze bateratuan ematen zaio baja, eta salmentaren ondoriozko sarrera aitortzen den ekitaldiko gastu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen da gastu moduan. Gastu hori galdu-irabazien kontu bateratuko “Beste ustiapen-gastu batzuk” epigrafean sartzen da.

t) Aseguru-eragiketak

Aseguru-erakundeak diren mendeko erakundeek galdu-irabazien kontu bateratuan ordaintzen dituzte jaulkitzen dituzten primen zenbatekoak, eta galdu-irabazien kontu bateratuan kargatzen dituzte ordaindu behar dituzten ezbeharren kostuak, horien azken likidazioa egitean. Bestalde, ekitaldiaren amaieran periodokatzen dira bai galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu diren baina egun horretan sortu gabe dauden zenbatekoak, bai galdu-irabazien kontu bateratuan kargatu ez diren kostuak, nahiz eta sortuta egon.

Ondoren, zuzeneko aseguruen jarduerari dagozkion hornidura teknikorik esanguratsuenak azalduko ditugu:

i) Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa, ekitaldi batean kobratutako eta segurtasun-errekargua kenduta etorkizuneko ekitaldiei egozteko tarifadun primari dagokio.

ii) Uneko arriskuetarako hornidura teknikoa: Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa osatzen du, hau da, itxierako egunean oraindik geratzen den estaldura-epean estali beharreko arriskuen eta gastuen balorazioa egiteko behar adinakoa ez bada.

iii) Prestazioetarako hornidura teknikoa: ekitaldi-itxiera baino lehen gertatutako ezbeharren ondorioz oraindik bete gabe dauden obligazioei egindako balorazioak dira. Likidatu edo ordaindu gabe dauden ezbeharrak eta aitortzeko daudenak sartzen dira hornidura tekniko horretan. Bete gabeko obligazioak kalkulatzeko, egindako konturako ordainketak kendu eta ezbeharren kanpoko eta barruko likidazio-gastuak hartzen dira kontuan. Behar denean, izapidetze luzeko ezbeharren balorazio-desbiderapenak estaltzeko beharrezko aparteko hornidurak ere hartzen dira aintzat.

iv) Bizi-aseguruen hornidura teknikoa:

- Estaldura-epea ekitaldi batekoa edo txikiagoa duten bizi-aseguruetan, kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoa etorkizuneko ekitaldiei egoztekoa den ekitaldian kobratutako tarifadun primari dagokio. Hornidura tekniko hori nahikoa ez denean, hori osatzeko Uneko arriskuetarako hornidura teknikoa kalkulatzen da; itxierako egunean oraindik geratzen den estaldura-epean estali beharreko arriskuen eta gastuen balorazioa estaltzen du.

- Urtebetetik gorako estaldura-epea duten bizi-aseguruetan hornidura tekniko matematikoa kalkulatzeko, etorkizuneko obligazioen eta aseguruaren hartzailearen obligazioen egungo balio aktuarialaren arteko aldea ateratzen da. Ekitaldian sortutako inbentario-prima hartzen da kalkulu-oinarritzat, eta hori ateratzeko, prima garbiari administrazio-gastuetarako errekargua eransten zaio, oinarri teknikoen arabera.

- Inbertsioaren arriskua aseguru-hartzaileek hartzen duten bizitza-aseguruetan, eskubideen balioa zehazteko bereziki kontuan hartzen diren aktiboen arabera finkatzen da hornidura teknikoa.

v) Mozkinetako partaidetzetarako eta estornuetarako hornidura teknikoa: aseguruaren hartzaileek, aseguratzaileek edo onuradunek sortutako mozkinei eta aseguruaren hartzaileei itzuli beharreko primen mozkinei dagokie. Hartzaileari prima horiek itzultzea, aseguratutako arriskuaren portaeraren menpe egongo da, eta partaideei banan-banan esleitu ez bazaizkie gertatuko da.

vi) Egonkortzeko erreserbak: ekitaldi bakoitzean aseguru-adar batzuen segurtasun-errekargu espezifikoaren zenbatekoarekin zuzkitutakoari dagokio; oinarri teknikoetan ezarrita dagoen muga hartu beharko da aintzat, eta metakorra izango da.

Onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak kalkulatzeko, zuzeneko aseguruetan aplikatzen direnen antzeko irizpideak erabiltzen dira. Oro har, erakunde lagatzaileak emandako informazioa hartzen da oinarri.

Zuzeneko aseguruaren eta onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak balantze bateratuko "Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak" epigrafean sartzen dira. Dena den, ekitaldi-amaieran indarrean dauden aseguru-kontratuen ondoriozkoak ez diren etorkizuneko erreklamazioetarako hornidura teknikoak (egonkortzeko erreserba, adibidez) ez dira balantze bateratuko "Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak" epigrafean jasotzen.

Taldeak berraseguru-kontratuengatik jasotzeko eskubidea duen zenbatekoak egoera-balantze bateratuko "Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak" epigrafean erregistratzen dira. Aktibo horiek zuzeneko aseguruetarako erabilitako irizpide berberak erabiliz zehazten dira indarreko kontratuen arabera. Aktibo horiek narriatuta dauden begiratzen du Taldeak; hala bada, galera galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen du, zuzenean epigrafe horren kargura.

u) Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako egungo obligazioak hartzen dira horniduratzat. Horien izaera argi eta garbi zehaztuta dago finantzetako egoera-orrien egunean, baina zenbatekoa edo kitatzeko unea ez. Horiek kitatzeko, mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak besterendu beharko ditu muga-egunean Taldeak. Obligazio horiek iturri ugari izan ditzakete:

i) Lege- edo kontratu-xedapen bat.

ii) Obligazio inplizitu edo isilbidezkoa, hirugarrenen aurrean ardura batzuk hartzeari buruz Taldeak sortutako baliozko igurikimenean jatorria duena. Igurikimenok sortzen dira, Taldeak jendaurrean hartzen dituenean ardurak, iraganeko portaeren ondorioz edo jabari publikoko enpresa-politiketan oinarrituta.

iii) Arautegiek alderdi jakin batzuetan duten bilakaera ia segurua, zehazki, Taldeak nahitaez bete behar dituen arautegi-proiektuak.

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazio posibleak dira pasibo kontingenteak, eta Taldearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen menpe egoten dira. Taldearen egungo obligazioak sartzen dira pasibo kontingenteetan, hain zuzen ere, kitatuz gero mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak murriztea ekarriko ez dutenak eta behar adinako fidagarritasunez zehazteko moduko zenbatekoa dutenak, kasu oso arraroetan izan ezik.

Hornidurak eta pasibo kontingenteak probableak, posibleak eta aukera txikikoak izan daitezke. Probableak dira gertatzeko egiantz handiagoa dagoenean ez gertatzekoa baino. Posibleak dira aurrekoan baino egiantz txikiagoa dagoenean gertatzeko ez gertatzeko baino. Eta aukera txikikoak dira haiek agertzea oso arraroa denean.

Taldeak hornidura eta pasibo kontingente esanguratsu guztiak sartzen ditu urteko kontu bateratuetan, alegia, obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa denean ez erantzutekoa baino. Posibletzat jotako pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu bateratuetan jasotzen. Besterik gabe horien berri ematen da, baldin eta ez bada mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak galtzeko aukerarik ikusten.

Hornidurak kuantifikatzeko, horiek sortu dituen gertaeraren ondorioei buruzko informaziorik onena hartzen da kontuan, eta kontabilitate-itxiera guztietan baloratzen dira. Dagozkien obligazioei aurre egiteko erabiltzen dira, eta, obligazio horiek desagertu edo txikitu egiten badira, kopuru osoa edo zati bat itzuli egiten da.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, bere jardueren ohiko garapenean sortutako hainbat auziri, erantzukizuni eta obligaziori erantzun beharra izan zezakeen Taldeak. Taldeko lege-aholkularien eta Entitate Nagusiaren administrarien ustetan, prozedura eta erreklamazio horiek ez dute eragin handirik izango, ez, behintzat, egindako hornidura baino handiagoa, mugaeguneratzen diren ekitaldietako urteko kontuetan.

v) Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako aktibo ez-korronteak eta pasiboak

Balantze bateratuko “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafean aktiboak sartzen dira, duten izaera gorabehera, ustiapen-jardueretatik kanpo daudelarik aurreikuspenen arabera urtebeteko gauzatze- edo berreskuratze-epea dutenak, epigrafe honetan sailkatu zirenetik.

Salbuespenez aurreikusitako salmenta-epea urtebetetik gorakoa bada, Taldeak balio eguneratua erabiliko du salmenta-kostua finkatzeko. Balioak denboraren poderioz izandako gorakada galdu-irabazien kontu bateratuko “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien ondoriozko irabaziak edo (–) galerak” epigrafean erregistratzen du.

Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, kontu-sail horiek liburuetako zenbatekoa. Kontu-sailok izaera finantzariokoak eta ez-finantzariokoak izan daitezke.

Beraz, zordunek Taldeari zor osoak edo zati bat ordaintzeko emandako aktibo higiezinak edo beste aktibo ez-korronte batzuk, salgai dauden aktibo ez-korrontetzat hartzen dira, baldin eta Taldeak horiek etengabe erabiltzea erabaki ez badu.

Bestalde, “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren elementu-talde besterengarrietan sartutako pasiboak” epigrafean, Taldeko erabilera-taldeekin edo etendako eragiketekin zerikusia duten saldo hartzekodunak sartzen dira.

“Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” partidan sailkatutako aktiboak baloratzeko, oro har, kopururik txikiena hartzen da, aitortzen diren unean duten kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean; azken horri, baina, aktibooi estimatu zaizkien salmenta-kostuak kentzen zaizkio, finantza-izaerakoak salbu, horiek 13.e.xi oharrean ezarritakoaren arabera baloratzen dira eta. “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafean sailkatuta dirauten bitartean, beraien izaeragatik amortizagarriak diren aktibo ukigarri eta ukiezinak ez dira amortizatzen.

Zergak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinen kasuan, eta erabilitako forma juridikoa edozein izanik ere, ezarritako finantza-aktiboen liburuetako zenbatekorik txikienean erregistratuko dira hasiera batean, alegia: alde batetik, kostu amortizatuan, zenbatetsitako narriadura kontuan hartuta, eta, beste alde batetik, esleipenaren edo jasotzeko unean aktiboak zuen arrazoizko balioan, salmenta-kostuak kenduta (alegia, banakako tasazio osoetan emandako merkatu-balioa ken salmenta-kostuak).

Prozesuko gastu guztiak sortzen diren esleipen-epealdiko galdu-irabazien kontuan aitortzen dira, berehala. Erregistro-gastuak eta likidatutako zergak hasieran aitortu zaien balioaz jaso ahal izango dira, baldin eta horrela arrazoizko balioa gainditzen ez bada, estimatutako salmenta-kostuak kendu ondoren. Esleipen-egunetik salmenta-egunera arte aktiboa mantentzeko eta babesteko egiten diren kostu guztiak (aseguruak, segurtasun-zerbitzuak eta beste) sortu diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan aitortuko dira.

Esleitu edo jaso ondoren, arrazoizko balioa zenbatesteko abiapuntutzat erabiltzen den erreferentziazko balioa eguneratuko da. Salmenta-kostuaren arrazoizko balio garbia zehazteko, Taldeak kontuan hartzen ditu sozietate tasatzaileek —guztiak ere Espainiako Bankuko Erregistro berezian daude erregistratuta— egindako balorazioak, bai eta Espainiako Bankuak, bere esperientzian eta Espainiako banku-sektorearen inguruan duen informazioan oinarrituta, erreferentziazko balioaren gainean zenbatetsi dituen deskontuak ere. Era berean, higiezinak 250.000 euroko edo hortik beherako arrazoizko balioa badu, balorazio-eredu automatizatuak erabiliz eguneratuko da. Dena dela, higiezinek balantzean hiru urte ematen dituztenean, tasazio osoa eginez eguneratuko dira. Era berean, balorazioaren eguneratzea egiten duen tasazio-sozietatea ez da izango aurre-aurreko tasazioa egin duen berbera.

Liburuetako zenbatekoa handiagoa bada aktiboen arrazoizko balioa baino (salmenta-kostuak kendu ondoren), Taldeak doikuntza egiten du aktiboon kontabilitate-balioan. Horrela, bada, sobera hori galdu-irabazien kontu bateratuko “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen aktibo ez-korronteen eta elementu-talde besterengarrien ondoriozko irabaziak edo (–) galerak” epigrafean kontrapartida eginez jasotzen da. Aktiboen arrazoizko balioa hazi egiten bada aurrerago, Taldeak itzuli egin ditzake aurrez kontabilizatuta dituen galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handitzen du, narriatu aurreko zenbatekoaren mugarekin eta galdu-irabazien kontu bateratuko “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren eta jarduera etentzat har ez daitezkeen elementu-talde besterengarrien eta aktibo ez-korronteen ondoriozko irabaziak edo (–) galerak” epigrafean kontrapartida eginez.

**Eragiketa etenak**

Eragiketa edo jarduera etentzat hartzen da Taldean besterendu egin den, edo beste era batera erabili den, edo salgai dagoen aktibo ez-korronte moduan sailkatu den eta, gainera, hauetako baldintzaren bat betetzen duen osagaia:

- Esanguratsua eta gainerakotik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa adierazten du.
- Esanguratsua eta gainerakoetatik independentea den ustiapenaren negozio-ildoa edo eremu geografikoa besterentzeko edo beste bide batzuetatik eskuratzeko plan indibidual eta koordinatu baten atala da.
- Saltzeko asmo hutsez eskuratu den mendeko erakundea da.

Etendako eragiketatzat hartzen diren Taldeko osagaiek ekitaldian zehar sorrarazitako emaitzak galdu-irabazien kontu bateratuko “Jarduera etenen ondoriozko zerga osteko irabaziak edo (–) galerak” atalean jasotzen dira, Taldearen osagaia jadanik aktibotik kanpo egon ala ez egon (ekitaldiaren bukaeran bertan jarraitzen badu). Etendako eragiketatzat hartu ondoren, eragiketa jarraitutzat hartzea erabakiz gero sarrerak eta gastuak, unean uneko galdu-irabazien kontu bateratuan ez ezik, urteko kontu bateratuetan argitaratutako ekitaldi konparatiboan ere jasotzen dira, kasuan kasuko ezaugarrien arabera dagozkien partidetan.

w) Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua

Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan erabiltzen diren kontzeptuak honela definitzen dira:

i) Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta antzekoen sarrerak eta irteerak. Likidezia handia eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia duten epe laburrerako inbertsioak sartzen dira antzekoetan.

ii) Ustiapen-jarduerak: Taldearen ohiko jarduerak eta inbertsio edo finantzaketakotzat hartu ezin diren beste jarduera batzuk, eta jasotako edozein finantzaketarengatik ordaindutako interesak, finantzaketa-jardueratzat sailkatutako finantza-pasiboei egokitu arren.

iii) Inbertsio-jarduerak: beste bitarteko batzuez epe luzerako aktiboak eta eskudiruan eta antzekoetan sartzen ez diren beste inbertsio batzuk (aktibo ukigarriak, aktibo ukiezinak, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak, aktibo ez-korronteak eta saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren pasiboak, inbertsio estrategikoak diren eta salgai moduan sailkatu diren ondare-tresnak eta muga-egunera arte eutsitako inbertsioen zorroan dauden finantza-aktiboak) eskuratzeko, besterentzeko edo erabiltzeko eragiketak.

iv) Finantzaketa-jarduerak: ondare garbi bateratuaren eta ustiapen-jardueretan sartzen ez diren pasiboen tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

Taldeak balantze bateratuetako “Eskudirua, banku zentraletako eskudirutako saldoak eta ageriko beste gordailu batzuk” epigrafean sartutako saldoak hartzen ditu eskudiru eta antzekotzat.

x) Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa (HSF)

Heziketako eta Sustapeneko Fondoa egoera-balantze bateratuko "Beste pasibo batzuk" epigrafean erregistratzen dira.

Kooperatiben Legearen eta Entitate Nagusiaren estatutuen arabera fondo horretara nahitaez egiten diren zuzkidurak ekitaldiko gastu gisa jasotzen dira, nahiz eta kuantifikazioa egiteko ekitaldiko emaitza hartzen den oinarri. Zuzkitzen diren aparteko kopuruak ekitaldiko emaitzaren aplikazio moduan jasoko dira.

Legeari jarraikiz Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoari lotuta dauden diru-laguntzak, dohaintzak eta gainerako laguntzak, eta kooperatibak bazkideei ezarritako zigor ekonomikoen ondoriozko fondoak, arautegiaren arabera fondo horri lotuta badaude, kooperatibaren sarreratzat hartuko dira, eta fondo horretan sartuko dira.

Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa dagokion helbururako erabiltzen denean, baja emango zaio eta, eskuarki, altxortegiko kontuetan abonatuko da. Bestalde, aplikazioa kreditu-erakunde baten berezko jardueren bidez gauzatzen bada, Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoaren zenbatekoa murriztu egingo da eta, aldi berean, kreditu-kooperatibaren galdu-irabazien kontuan sarrera gisa aitortu, halako jardueretarako merkatuko ohiko baldintzetan.

Heziketako eta Sustapeneko Fondoari loturiko ibilgetu materiala “Aktibo ukigarriak” epigrafean agertzen da. Horren zenbatekoa zehazteko, eskurapen-kostu eguneratua hartu da —aurreko r) ataleko arauen arabera—, eta metatutako amortizazioak kendu zaizkio.

Ibilgetuko elementuen amortizazioa, kostu-balioen edo kostu eguneratuaren gainean egiten da, elementu-talde bakoitzari estimatu zaion balio-bizitzan zehar metodo lineala erabiliz eta aurreko q) atalean agertzen diren koefizienteak erabiliz.

y) Onartutako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratua eta ondare garbiko aldaketen egoera-orri bateratua

Urteko kontu bateratu hauetan aurkeztu ditugun egoera-orri horiek ekitaldian zehar ondare garbi bateratuak izan dituen aldaketen berri ematen dute. Segidan, bi egoera-orriotako informazioaren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

i) Onartutako sarrera eta gastuen egoera-orria bateratua

Egoera-orri honetan, Taldeak ekitaldian zehar bere jarduerarekin sortutako sarrera eta gastuak aurkezten dira, baina bereizita: batetik, ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan emaitza moduan erregistratutakoak eta, bestetik, indarreko arautegian xedatutakoari jarraikiz zuzenean ondare garbian erregistratutako gainerako sarrera eta gastuak.

Hortaz, egoera-orri horretan hauek aurkeztu ditugu:

a) Ekitaldiko emaitza bateratua.

b) Ondare garbi bateratuan “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean aldi batez aitortutako sarreren eta gastuen zenbateko garbia.

c) Ondare garbi bateratuan behin betiko aitortutako sarreren eta gastuen zenbateko garbia.

d) Aurreko b) eta c) literaletan adierazi diren kontzeptuek sortutako mozkinen gaineko zerga.

e) Onartutako sarrera eta gastua guztiak, aurreko puntuak batuta kalkulatuta.

Ondare garbi bateratuan “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafean sartutako sarreretan eta gastuetan egon diren aldaketak honela banakatzen dira:

a) Ondare garbian kontabilizatutako balio-irabaziak edo (–) -galerak: zuzenean ondare garbi bateratuan aitortutako sarreren zenbatekoa biltzen du, baina ekitaldian sortutako gastuak kenduta. Ekitaldian partida honetan aitortutako zenbatekoei bertan eutsiko zaie, nahiz eta ekitaldi horretan galdu-irabazien kontu bateratura intsuldatu, beste partida batean birsailkatzen diren aktibo nahiz pasiboen hasierako balioan.

b) Emaitzetara transferitua: aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbi bateratuan aitortutako balorazioagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa biltzen du; horiek galdu-irabazien kontu bateratuan onartzen dira.

c) Estalitako elementuen hasierako liburuetako zenbatekora transferitua: aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian aitortutako balorazioagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa biltzen du, baldin eta eskudiru-fluxuen estalduraren ondorioz aktiboen edo pasiboen liburuetako zenbatekoan aitortzen badira.

d) Beste birsailkapen batzuk: ondare garbiko “Metatutako bestelako emaitza globala” epigrafeko partiden artean ekitaldian egindako intsuldaketen zenbatekoa biltzen du, indarreko arautegian ezarritako irizpideei jarraikiz.

Partida horietako zenbatekoak gordinak dira, eta horien zerga-eragina egoera-orriko “Irabazien gaineko zerga” ataletan jaso da.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orria guztira

Egoera-orri honetan, ondare garbi bateratuan izandako mugimendu guztiak aurkezten dira, kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta errore-zuzenketetan jatorria dutenak barne hartuta. Hortaz, ekitaldiaren hasieran eta amaieran ondare garbi bateratua osatzen duten partida guztiek liburuetan duten zenbatekoaren berdinkatzea jaso da egoera-orri honetan. Mugimenduak izaeraren arabera multzokatu dira kontu-sail hauetan:

a) Kontabilitate-politiketako aldaketen eraginak eta Akatsen zuzenketaren eraginak: kontabilitate-politiken aldaketetan eta akatsen zuzenketan jatorria duten finantzetako egoera-orrietako saldoak atzeraeraginez berriro ematearen ondorioz ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketak hartzen ditu barne.

b) Ekitaldiko guztizko emaitza globala: lehenago adierazi dugun “Onartutako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratu”an erregistratutako partida guztiak biltzen ditu.

c) Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk: ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako partidak biltzen ditu, hala nola, kapitalaren gehikuntzak edo gutxitzeak, emaitzen banaketa, norberaren kapital-tresnez egindako eragiketak, kapital-tresnen bidezko ordainketak, ondare garbi bateratuko partiden arteko intsuldaketak eta ondare garbi bateratuko beste edozein gehikuntza edo murrizketa.

aa) Negozio-konbinazioak

Entitate edo batasun ekonomiko bi edo gehiago entitate edo sozietate talde bakarrean bateratzen dituen eragiketari esaten zaio negozio-konbinazioa.

Negozio-konbinazioaren ondorioz entitate bakarra sortzen denean eta bateratutako entitate bi edo gehiagoren bazkideei partaidetzak jaulkitzen zaizkienean, aurretik zegoen entitateetako bat eskuratzaile moduan hartuko da eta entitate batek beste bat eskuratzen duenean moduan kontabilizatuko da transakzioa.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Beste sozietate bat eskuratzeagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, eskuratutako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Entitateak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan baloratzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Entitateak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aitortuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera balioetsi dezake eskuratutako erakundean nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Entitateak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, KNA 39 arauaren arabera, emaitzetan jasotzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat jo. Ondare garbi bateratutzat sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioesten, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritza-fondoa honela balioesten da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak erositako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitzetan jasotzen da.

Negozio-konbinazioaren datatik aurrera, urtebeteko epea (“neurketa-epea”) ezartzen da, aitortutako behin-behineko zenbatekoak doi ditzan eskuratzaileak, negozio-konbinazioaren ondorengo lehen urteko kontu bateratuak formulatzeko unean beharrezkoak diren zenbatespenak egin ostean.

ab) Merkataritzako fondoa

Negozio-konbinazioen kostuaren eta arrazoizko balioari eskuratutako erakundeen aktibo eta pasibo kontingenteak kenduta ematen duen eskurapen-ehunekoaren arteko alde positiboak, merkataritzako fondo moduan erregistratzen dira balantze bateratuko aktiboan. Merkataritzako fondoan, eskuratutako erakunde baten aktiboen etorkizuneko mozkin ekonomiko deribatuengatik Taldeak egindako ordainketa aurreratua sartzen da, baldin eta mozkinok banan-banan eta bereizita identifikatzekoak edo aitortzekoak badira. Erakundea negozio-konbinazio batean eta kostu bidezko tituluz eskuratu bada bakarrik aitortzen da fondo hori. Merkataritzako fondo horiek ez dira amortizatzen. Kontabilitate-itxieretan, horien arrazoizko balioa erregistratutako kostu garbitik behera murriztuko duen narriaduraren bat egon den balioesten da. Baiezkoan, saneatu egiten dira, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra.

Merkataritza-fondoak narriadura-zantzurik duen ikusteko, balorazioak egiten dira, banatutako mozkinen deskontuaren metodoa erabiliz, batez ere. Metodo horretan, parametro hauek hartzen dira kontuan:

- Negozioaren funtsezko hipotesiak. Hipotesi horietan oinarritzen dira balorazioan jasotako eskudiru-fluxuen proiekzioak. Finantza-jarduera duten negozioetan hainbat aldagai proiektatzen dira, hala nola: kredituaren, berankortasunaren, bezeroen gordailuen eta interes-tasen bilakaera, aurreikusitako agertoki makroekonomiko zehatz baten eta kapital-eskakizun zehatz baten arabera.

- Aldagai makroekonomikoen zenbatespena, eta beste finantza-balore batzuk.

- Proiekzioen epea. Eskuarki, 5 urteko proiekzio-epea erabiltzen da. Hortik aurrera, etekina eta errentagarritasuna errepikari bihurtzen dira, eta, ondorio horietarako, balorazioa egiteko uneko egoera ekonomikoa hartzen da kontuan.

- Deskontu-tasa. Etorkizuneko dibidenduen gaur egungo balioa, erabilera-balioa lortzeko erabiltzen dena, kalkulatzeko, entitatearen kapital-kostua (Ke) hartzen da deskontu-tasa gisa, merkatuko partaide baten ikuspegitik. Hori zehazteko, CAPM metodoa erabiltzen da, formula honen arabera: “Ke = Rf + β = sozietatearen arrisku sistemikoaren koefizientea, Rm = espero den merkatu-errentagarritasuna eta α = arrisku ez-sistemikoagatiko prima”.

- Eskudiru-fluxuen proiekzioak aurreikuspenik berrienek estaltzen dituzten alditik harago estrapolatu ahal izateko erabiltzen den hazkunde-tasa. Magnitude makroekonomiko nagusien eta negozioaren funtsezko aldagaien epe luzerako zenbatespenetan oinarritzen da, eta, une oro finantza-merkatuen egoera kontuan hartuta, betiko % 1eko hazkunde-tasa zenbatesten da.

Merkataritzako fondoen narriaduragatiko galerak ez dira geroago itzultzen.

## 14. Bezeroen arreta

Zerbitzu honek bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko; dena den, Taldeak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta, hau da, lehen aipatutako epea baino lehen.

Entitate Nagusiaren, Caja Laboral Gestión SGIIC SAren eta Caja Laboral Pensiones GFP SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari dagokionez, 2017an zehar, 15.748 espediente ireki dira guztira (2016an 3.609). Horietatik, 14.131 tramitatu eta erantzun dira (2016an 3.393). 1.617 espediente izapidetu gabe geratu dira (2016an 216), aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren Arautegian jasota dauden zenbait arrazoi tarteko.

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| **Irekitako espediente-kopurua** | | |
| - Idatziak: liburuxka/gutuna | 12.996 | 2.424 |
| - Internet bidezkoak | 1.475 | 1.054 |
| - Telefono bidezkoak | 2 | 2 |
| - Erakunde publikoak: KIUB / gobernu autonomikoak | 1.275 | 129 |
| | **15.748** | **3.609** |
| **Izapidetutako espediente-kopurua** | **14.131** | **3.393** |
| **Espedienteen izaera** | | |
| - Kexak | 11.986 | 2.686 |
| - Erreklamazioak | 3.367 | 508 |
| - Kontsultak | 12 | 14 |
| - Iradokizunak | 6 | 3 |
| - Zorionak edo eskerrak emateko gutunak | 1 | 2 |
| - Hainbat eskaera | 376 | 396 |
| | **15.748** | **3.609** |

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| **Erreklamatutako kopuruak** | | |
| - Erakundearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoa | 6.394 | 269 |
| - Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak | 129 | 373 |
| . Entitateak kalte-ordainetan emandako kopuruak | 129 | 371 |
| . Hirugarren batzuek kalte-ordainetan emandako kopuruak | - | 2 |
| . Bezeroari itzulitako zenbatekoak, Entitateak berreskuratuak | - | - |
| | **6.523** | **642** |

Espedienteak irekitzeko arrazoiari dagokionez, jarduera-esparru hauek bereiz daitezke:

| | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Baldintza ekonomikoak | % 9 | % 20 |
| Komisioak eta gastuak | % 83 | % 23 |
| Informazioa falta da edo okerra da | % 1 | % 20 |
| Bezeroentzako zerbitzuak | % 1 | % 8 |
| Bulegoak, elementu objektiboengatik | % 1 | % 10 |
| Beharren estaldura | % 1 | % 2 |
| Bezeroekin harremanak izateko elementuak | % 1 | % 3 |
| Kanpainak, oro har | - | % 1 |
| Beste batzuk: | % 3 | % 13 |
| - Arintasuna eta eraginkortasuna bulegoetan | - | *% 1* |
| - Arintasuna eta eraginkortasuna kutxazainetan | *% 1* | *% 3* |
| - Bestelakoak | *% 2* | *% 8* |
| - Arintasuna tramitazioan | - | *% 1* |
| | % 100 | % 100 |

Erreklamatutako zenbatekoen ehunekoak, berriz, hauek dira:

| | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| = < 10 € | % 0,01 | % 0,10 |
| > 10 < = 60 € | % 0,09 | % 0,71 |
| > 60 < = 100 € | % 0,04 | % 0,30 |
| > 100 < = 250 € | % 0,13 | % 0,93 |
| > 250 < = 1.000 € | % 8,48 | % 3,52 |
| > 1.000 € | % 91,25 | % 94,44 |

Hipoteka-eragiketei lotutako klausulei buruzko erreklamazioen hazkundea dago 2017ko ekitaldian Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan jasotako erreklamazioen gorako bilakaeraren atzean.

Seguros Lagun Aro Vida SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 32 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2017ko ekitaldian (27 2016an), eta horietako 29 espediente izapidetu dira (2016an 29). Erreklamazioak edo kexak aurkezteko arrazoiak kalte-ordainarekin eta erreskatearekin ados ez egotea izan dira. 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoen emaitzak hauek dira:

| | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 11 | 10 |
| Entitatearen alde | 17 | 16 |
| Beste batzuk | 1 | 3 |
| | 29 | 29 |

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 15.802 euroko gastua ekarri diote Entitateari 2017an (4.992 eurokoa 2016an). 7 egunekoa izan da erreklamazio eta kexei erantzuteko batez besteko epea (15 egunekoa 2016an).

Seguros Lagun Aro SAren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 681 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2017ko ekitaldian (765 2016an), eta horietako 691 espediente izapidetu dira (2016an 768). Erreklamazio edo kexen arrazoiari dagokionez, kalte-ordainekin, zerbitzuko atzerapenekin eta aseguruaren prezioarekin ados ez egotearen ondoriozkoak izan dira batik bat.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoen emaitzak hauek dira:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 269 | 355 |
| Entitatearen alde | 400 | 377 |
| Beste batzuk | 22 | 36 |
| | 691 | 768 |

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 32.569 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2017an (54.897 eurokoa 2016an). 2017an 8 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (13 egunekoa 2016an).

Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLUren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 31 kexa eta erreklamazio jaso ditu ekitaldian (9 2016an), eta 2017an 30 espediente izapidetu dira (9 2016an). Erreklamazio edo kexen arrazoiari dagokionez, kalte-ordainekin, zerbitzuko atzerapenekin eta aseguruaren prezioarekin ados ez egotearen ondoriozkoak izan dira batik bat.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoen emaitzak hauek dira:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Bezeroaren aldekoak | 1 | 4 |
| Entitatearen alde | 6 | 2 |
| Beste batzuk | 23 | 3 |
| | 30 | 9 |

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 0 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2017an (316 eurokoa 2016an). 2017an 2 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (6 egunekoa 2016an).

## 15. Kreditu-arriskua

Aurkako alderdiak LABORAL Kutxa Taldeari zor dizkion guztiak edo batzuk ez ordaintzearen nahiz hitzartutako epeetatik kanpo ibiltzearen ondorioz egon daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Kudeaketaren ikuspegitik, LABORAL Kutxan bi mota bereizten ditugu kreditu-arriskuetan: altxortegiko eta kapital-merkatuko jardueren —finantza-erakundeak eta errenta finko pribatua— ondoriozkoa eta administrazio publikoekikoa ohiko inbertsio-jardueraren eraginez.

Azken horien harira, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Eragiketa Batzorde Nagusian eskuordetu ditu arriskuei lotutako zenbateko eta figura guztien eskumenak, bai eta zenbateko-mugarik gabeko kobraezinak baimentzea ere. Batzorde Nagusiak, bere aldetik, Batzorde Delegatuan eskuordetzen ditu eskumenak, eta horrek Arriskuen Gestioko Departamentuan eta Sare Komertzialean. Sareko berrespen-ahalmena arrisku-mailaren eta alerta-sistema baten araberakoa da; arriskuaren bolumena, produktu-mota eta eragiketaren marjina hartzen dira kontuan.

Arriskuen Area hori zuzendari nagusiaren mende dago, eta Arriskuen Gestioaren, Arriskuaren Kontrol Globalaren eta Aholkularitza Juridikoaren Departamentuak biltzen ditu, eta kreditu-arriskua onartu, jarraitu eta berreskuratzeko prozesuetan efizientzia handitzea ekarri du, bai eta Entitate Nagusiaren arriskuen kontrol integralean sakontzea ere.

Etxeko eta Merkataritzako kreditu-arriskuari dagokionez, alderdi horiek guztiak Kontseilu Errektoreak azken eguneratzea 2018ko urtarrilaren 31n onetsi zion Arrisku-politikari buruzko eskuliburuan eta horri lotutako beste dokumentu batzuetan daude zehaztuta; hauek dira beste dokumentu horiek: Kreditu–arriskuari buruzko eskuliburua – Laburpena, eta Jardunbide egokiei buruzko eskuliburua, etxeko eta mikroenpresen, autonomoen eta ETE-en arriskuak emateari dagokionez.

Dokumentu horietan, kreditu-arriskuak eman, kontrolatu eta jarraitzearen alorreko prozedurak zehazten dira, bai eta erabil daitezkeen eredu prediktiboen, horien aldagaien, haztapenen, arriskuen zehapenerako eskudantzia eta irizpideen, onarpen-prozesuaren eta arriskuak arindu eta murrizteko politiken azalpena ere.

Entitate Nagusiak politika, metodo eta prozedura horiei jarraipen eraginkorra egiteko ezarritako kontrol-mekanismoak Entitate Nagusian ezarri diren Arrisku Globalaren Kontrolerako Sistemetan euskarritzen dira eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ikuskapen independentean oinarritu, arriskua onartzeko eta kudeatzeko sistemen kalitatea bermatuz.

Arriskuen Gestioaren Departamentua, Enpresa Handien Arriskuen Azterketa eta ETE-en Arriskuen Azterketa atalen bidez, zorroan sartutako enpresak onartu eta horiei jarraipena egiteaz arduratzen da. Adiskidantzako Berreskurapenaren eta Auzi-aurreraren atalak, berriz, zorroan sartu gabeko enpresetako berandutze aurreko alertei lotutako protokoloak gestionatzea eta adiskidantzako faseko (< 75 eguneko ez-ordaintzeetako) eta auzi aurreko faseko (> 75 eguneko ez-ordaintzeetako) eragiketetan ahalik eta berreskurapen gehien lortzea du helburu. Arriskuak Kontrol Globalaren Departamentuak, bere aldetik, barne-ereduak sortu eta mantentzea du zeregin, eta interes-tasen eta likideziaren inguruko egiturazko arriskuak eta merkatu- eta eragiketa-arriskuak neurtu eta kontrolatzea ere bai. Bukatzeko, Aholkularitza Juridikoa arrisku-eragiketetan aholkularitza eta estaldura dokumental juridikoa emateaz arduratzen da, hala hasierako eragiketetan, nola zorraren birfidantzamendu edo berregituratzeetan. Berreskuratzeko auzia kudeatzea eta bezeroen eta hirugarrenen erreklamazioen aurrean Entitateari defentsa juridikoa ematea ere haren ardura da.

Eragiketen kreditu-arriskua ebaluatzeko, LABORAL Kutxak bere rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Horrela, arriskuaren onarpen erreaktiborako prozesuari scoring lotesleen bidez erantzuten zaio Partikularretan. Horrekin batera, gainera, ratingean oinarritutako aurrez emandako kontsumorako mailegu proaktiboak eskaintzen dira, eta bezeroak automatikoki beregana ditzake, eskura dituen kanalen bidez. Enpresen Arean, berriz, analista-gestorea binomioan oinarritutako eskemaren arabera funtzionatzen dute onarpen-prozesuek, eta bezeroak-analista binomioan oinarrituta zorroratzen dira. Erabakiak hartzeko, barne-ratinga eta berandutze aurreko alerta-eredua erabiltzen ditu analistak euskarritzat. Barneko ereduak, hortaz, oinarrizkoak dira arriskua emateari begira, eta, gainera, espero daitekeen galera eta eragiketa bakoitzari esleitutako kapital erregulatorioa kalkulatzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak sortutako barruko ereduak, beraz, erabakitze-prozesuetan ez ezik, datu-base integratuak eraiki eta garatzeko ere erabiltzen dira. Basileako Kapital Hitzarmen Berriaren eskakizunen barruan zorroztasunak, espero diren galerak, kapital kontsumoa... kalkulatzeko erabiltzen dira datu-base horiek. Bestalde, bai scoring-ereduek bai rating-ereduek partikularren eta enpresaren areetako eragiketetan espero den galera eta pricinga balioesteko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskua arintzeko eta murrizteko politikei dagokienez, helburu horrekin hainbat bide erabiltzen dira:

- Onarpen-prozesuan, onartzeko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen badira ere —hori balioesteko, funtsezkoak dira barne-ereduak—, bermeak dira zorrak berreskuratzeko bigarren bidea. Aintzat harturik inbertsio-jarduerarik handiena etxebizitzaren finantzaketara bideratuta dagoela, hipoteka-bermea da berme nagusia, eta eragiketen LTV erlazioa baloratzen da zehazki. Abalen bidez emandako bermea ere garrantzi handikoa da. Diru-gordailuen eta finantza-aktiboen bermeek, ordea, pisu espezifiko txikiagoa dute.

- Jarraipen-prozesuan, berandutze aurreko barne-ereduak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak. Horien bidez, ez-ordaintzeei aurrea hartzen zaie, eta ez-ordaintzeak gertatzeko aukera handiak proaktibotasunez kudeatzen dira.

- Berreskurapenen gestioari dagokionez, prozedura bat dago finkatuta; horren arabera, hainbat eragilek hartzen dute parte berandutzea berreskuratzen, bezero berankorra zer fasetan dagoen aintzat hartuta. Testuinguru horretan, berreskurapena kudeatzen barruko eragileek (bulegoak, Telebankak, auzi-aurreak eta auziak) eta kanpokoek (birkobrantza-agentziek) hatzen dute parte.

Entitate Nagusiak, oro har, berme errealak ondasun higiezin moduan baloratzen ditu, tasazio-balioan. Gainera, higiezinen balioa eguneratzeko politika finkatu du, Espainiako Bankuaren arautegian ezarritako betekizunei jarraikiz.

Altxortegiaren eta kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko kreditu-arriskuari eta errenta finko pribatuaren arriskuari dagokienez, aurkako alderdiaren araberako mugak, erreferentziaren nahiz gestorearen eta herrialdearen araberako kontzentraziokoak, finkatzen dira urtero. Horretarako, mugak finkatzeko prozedura ezarri da, kanpoko ratingak eta alerta-sistema oinarri hartuta. Hori guztia Kontseilu Errektoreak onetsitako “Altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak” dokumentuetan eta haien eranskinetan dago jasota. Entitate Nagusiaren altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arrisku-politika dago horietan finkatuta.

Ondoren, Taldearen bezeroei emandako maileguen eta kobratzeko kontu-sailen kontrako alderdiagatiko 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko xehakapena aurkeztuko dugu. Berme nagusietako bakoitzak estaltzen duen zenbatekoa zehazteaz gain, berme errealeko finantzaketen banaketaren berri ere ematen dugu, finantzaketen kontabilitate-balioak eskura dugun bermearen azken tasazioaren edo balorazioaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera.

## 2017

| | | | | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken tasazioaren gaineko liburuetako zenbatekoa (*loan to value*) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Guztira** | **Horietatik: higiezinen bermea** | **Horietatik: gainerako berme errealak** | **% 40koa edo txikiagoa** | **% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa** | **% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa** | **% 80koa baino handiagoa eta % 100eko a edo txikiagoa** | **% 100ekoa baino handiagoa** |
| Administrazio publikoak | 228.962 | 36.356 | 377 | 139 | 16.182 | 5.521 | - | 14.891 |
| Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorreko enpresa-jarduera) | 18.700 | - | 344 | - | - | - | - | 344 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) | 2.386.038 | 680.072 | 301.767 | 436.972 | 236.538 | 147.620 | 38.083 | 122.626 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 84.640 | 75.248 | 209 | 2.776 | 12.486 | 15.319 | 11.002 | 33.874 |
| – Herri-lanen eraikuntza | 59.176 | 3.662 | 2.350 | 3.541 | 1.026 | 1.005 | 214 | 226 |
| – Gainerako helburuak | 2.242.222 | 601.162 | 299.208 | 430.655 | 223.026 | 131.296 | 26.867 | 88.526 |
| Enpresa handiak | 302.072 | 28.010 | 6.244 | 11.919 | 721 | 814 | 623 | 20.177 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 1.940.150 | 573.152 | 292.964 | 418.736 | 222.305 | 130.482 | 26.244 | 68.349 |
| Gainerako etxeak | 10.685.744 | 9.924.329 | 30.864 | 2.707.417 | 3.065.446 | 3.028.991 | 548.137 | 605.202 |
| – Etxebizitzak | 9.985.115 | 9.753.039 | 10.461 | 2.609.329 | 3.018.895 | 3.002.340 | 543.343 | 589.593 |
| – Kontsumoa | 374.951 | 37.826 | 837 | 26.972 | 6.607 | 2.615 | 448 | 2.021 |
| – Beste helburu batzuk | 325.678 | 133.464 | 19.566 | 71.116 | 39.944 | 24.036 | 3.346 | 13.588 |
| **GUZTIRA** | 13.319.444 | 10.640.757 | 333.352 | 3.144.528 | 3.318.166 | 3.182.132 | 586.220 | 743.063 |
| PRO MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak | 304.602 | 227.547 | 19.856 | 33.495 | 52.381 | 52.774 | 31.467 | 77.287 |

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

**2016**

| | Guztira | Horietatik: higiezinen bermea | Horietatik: gainerako berme errealak | Berme erreala duten maileguak. Eskura dagoen azken tasazioaren gaineko liburuetako zenbatekoa (loan to value): % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino handiago a eta % 60koa edo txikiagoa | % 60koa baino handiago a eta % 80koa edo txikiagoa | % 80koa baino handiagoa eta % 100eko a edo txikiagoa | % 100ekoa baino handiagoa |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Administrazio publikoak | 330.924 | 40.425 | 377 | - | 16.976 | 1.318 | 3.307 | 19.201 |
| Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorreko enpresa-jarduera) | 22.487 | - | 604 | - | - | - | - | 604 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduera ez-finantzarioa) | 2.335.091 | 747.050 | 322.794 | 468.658 | 252.462 | 148.543 | 54.394 | 145.787 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena (lurzorua barne) | 92.628 | 91.754 | 479 | 6.409 | 12.720 | 13.842 | 19.623 | 39.639 |
| – Herri-lanen eraikuntza | 72.649 | 8.958 | 3.230 | 4.119 | 1.679 | 1.887 | 2.571 | 1.932 |
| – Gainerako helburuak | 2.169.814 | 646.338 | 319.085 | 458.130 | 238.063 | 132.814 | 32.200 | 104.216 |
| Enpresa handiak | 251.062 | 34.654 | 8.005 | 9.908 | 1.944 | 3.614 | 149 | 27.044 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 1.918.752 | 611.684 | 311.080 | 448.222 | 236.119 | 129.200 | 32.051 | 77.172 |
| Gainerako etxeak | 10.757.571 | 10.141.782 | 31.928 | 2.694.152 | 2.987.540 | 2.855.529 | 613.796 | 1.022.693 |
| – Etxebizitzak | 10.184.861 | 9.958.863 | 9.595 | 2.591.725 | 2.940.036 | 2.823.986 | 606.993 | 1.005.718 |
| – Kontsumoa | 358.627 | 46.525 | 1.401 | 31.792 | 9.045 | 3.341 | 493 | 3.255 |
| – Beste helburu batzuk | 214.083 | 136.394 | 20.932 | 70.635 | 38.459 | 28.202 | 6.310 | 13.720 |
| **GUZTIRA** | 13.446.073 | 10.929.257 | 355.703 | 3.162.810 | 3.256.978 | 3.005.390 | 671.497 | 1.188.285 |
| PRO MEMORIA | | | | | | | | |
| Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak | 327.626 | 244.868 | 19.959 | 39.720 | 51.038 | 56.120 | 41.001 | 76.948 |

Ondoren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n berme nagusiek estalita dituzten Entitate Nagusiaren kreditu-arriskuen gehienezko zenbatekoaren xehetasuna emango dugu:

**2017**

| | Higiezinen bermea | Pignorazio-bermea | Beste berme erreal batzuk | Abaldun edo asegurudun berme pertsonala | Abalik gabeko berme pertsonala | Sailkatu gabea | Balorazioa gatiko doikuntzak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bezeroei emandako maileguak eta aurrerakinak** | | | | | | | | |
| Saldo erabilia | 11.708.843 | 21.148 | 370.803 | 652.591 | 1.765.774 | (737.567) | (384.288) | 13.397.304 |
| Bermearen balioa | 28.616.935 | 31.559 | 1.470.315 | 652.591 | 231.576 | - | - | 31.002.976 |

**2016**

| | Higiezinen bermea | Pignorazio-bermea | Beste berme erreal batzuk | Abaldun edo asegurudun berme pertsonala | Abalik gabeko berme pertsonala | Sailkatu gabea | Balorazioa gatiko doikuntzak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Bezeroei emandako maileguak eta aurrerakinak** | | | | | | | | |
| Saldo erabilia | 11.127.088 | 21.224 | 398.992 | 624.608 | 1.625.540 | 148.385 | (449.042) | 13.496.795 |
| Bermearen balioa | 28.928.276 | 31.704 | 1.637.995 | 624.608 | 167.168 | - | - | 31.389.751 |

Hona hemen bezeroekiko eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, berme errealak eta beste berme batzuk bereizita:

| **Jasotako bermeen balioa** | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 30.087.250 | 30.566.271 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | *1.104.144* | *1.504.725* |
| Beste berme batzuen balioa | 915.726 | 823.480 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | *6.823* | *5.119* |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **31.002.976** | **31.389.751** |

Jarraian, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n emanda dauden finantza-bermeen balioari buruzko informazioa emango dugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| **Emandako maileguen konpromisoak** | 960.576 | 893.307 |
| *Horretan: zalantzazkotzat sailkatutako zenbatekoa* | *8.127* | *2.729* |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | - | - |
| **Emandako finantza-bermeak** | 93.520 | 108.848 |
| *Horretan: zalantzazkotzat sailkatutako zenbatekoa* | *15.683* | *16.615* |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | 20.992 | 25.411 |
| **Emandako bestelako konpromisoak** | 280.463 | 302.663 |
| *Horretan: zalantzazkotzat sailkatutako zenbatekoa* | - | - |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | - | - |

Eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzen, etxebizitzaren erosketa eta zorrak ordaintzeko eskuratutako aktiboak finantzatzen eta merkatuetako finantzaketa-beharrak baloratzen erabili beharreko gardentasunaz Espainiako Bankuak emandako gomendioei jarraikiz eta Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean ezarritako banakapen-ereduak aintzat hartuta, Taldeak argibide hauek eman ditu:

a) Eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa eta estaldura hauek dira, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

| | 2017 | | |
|---|---|---|---|
| | **Kontabilitate-balio gordina** | **Berme erreal eraginkorren gehienezko zenbateko berreskuragarriaren gaineko gehiegizko esposizio gordina** | **Balio-narriadura metatu** |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **157.013** | **82.667** | **71.284** |
| Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | 120.735 | 65.450 | 70.032 |
| **Pro memoria:** | | | |
| Aktibo kobraezinak | 328.436 | | |

| **Pro memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.090.482 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 22.435.790 |
| - Balio-galera eta normaltzat sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan) | 95.308 |

| | 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Kontabilitate-balio gordina | Berme erreal eraginkorren gehienezko zenbateko berreskuragarriaren gaineko gehiegizko esposizio gordina | Balio-narriadura metatu |
| **Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)** | **195.600** | **90.128** | **100.096** |
| Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | 164.481 | 81.568 | 99.301 |
| **Pro memoria:** | | | |
| Aktibo kobraezinak | 297.241 | | |

| **Pro memoria:** | **Zenbatekoa** |
|---|---|
| - Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan) | 13.115.149 |
| - Aktiboa guztira (negozio guztietan) | 21.314.166 |
| - Balio-galera eta normaltzat sailkatutako esposizioetarako hornidurak (negozio guztietan) | 97.431 |

Jarraian, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n eraikuntzarako, higiezinen sustapenerako eta etxebizitza eskuratzeko erabilitako finantzaketaren xehakapena aurkeztuko dugu:

| | Eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa. Kontabilitate-balio gordina | |
|---|---|---|
| | **2017** | **2016** |
| Higiezinen bermerik gabe | 18.103 | 15.431 |
| Higiezinen bermearekin | 138.910 | 180.169 |
| Eraikinak eta bukatutako bestelako eraikuntzak | 92.436 | 119.319 |
| Etxebizitza | 72.552 | 104.269 |
| Gainerakoetan | 19.884 | 15.050 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 2.339 | 2.342 |
| Etxebizitza | 522 | 2.342 |
| Gainerakoetan | 1.817 | - |
| Lurzorua | 44.135 | 58.508 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 36.371 | 58.508 |
| Gainerako lurzorua | 7.764 | - |
| **Guztira** | 157.013 | 195.600 |

Etxebizitza eskuratzeko emandako kredituen zenbatekoaren xehakapena honako hau da, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kontabilitate-balio gordina | Horietatik: zalantzazkoak | Kontabilitate-balio gordina | Horietatik: zalantzazkoak |
| Etxebizitza eskuratzeko maileguak | 9.709.343 | 230.601 | 9.901.578 | 251.857 |
| Ondasun higiezinen hipotekarik gabe | 183.242 | 3.075 | 177.899 | 3.015 |
| Ondasun higiezinen hipotekarekin | 9.526.101 | 227.526 | 9.723.679 | 248.842 |

Hauek dira etxebizitza erosteko familiei emandako hipoteka-bermedun kredituaren xehakapenak, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

| | Liburuetako zenbateko gordina azken tasazio erabilgarriaren zenbatekoaren gainean (loan to value) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017 | | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa | % 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa | % 80koa baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa | % 100ekoa baino handiagoa | Guztira |
| Kontabilitate-balio gordina | 2.423.213 | 2.960.408 | 2.979.684 | 547.627 | 615.170 | 9.526.102 |
| Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | 15.793 | 26.967 | 41.575 | 35.653 | 107.538 | 227.526 |

| | Liburuetako zenbateko gordina azken tasazio erabilgarriaren zenbatekoaren gainean (loan to value) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2016 | | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa | % 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa | % 80koa baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa | % 100ekoa baino handiagoa | Guztira |
| Kontabilitate-balio gordina | 2.395.482 | 2.877.684 | 2.805.969 | 617.116 | 1.027.427 | 9.723.678 |
| Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | 20.914 | 34.509 | 50.604 | 49.599 | 93.216 | 248.842 |

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Kontabilitate-balio gordina | Balio-narriadura metatu | Kontabilitate-balio gordina | Balio-narriadura metatu |
| **Eraikuntzako eta higiezinen sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | **568.501** | **343.002** | **516.613** | **307.372** |
| Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak | 28.160 | 11.125 | 39.145 | 15.468 |
| Etxebizitza | 11.147 | 2.815 | 36.284 | 13.966 |
| Gainerakoetan | 17.013 | 8.310 | 2.861 | 1.502 |
| Eraikinak eta eraikitze-bidean dauden bestelako eraikuntzak | 130.929 | 67.871 | 25.550 | 12.439 |
| Etxebizitza | 130.929 | 67.871 | 25.550 | 12.439 |
| Gainerakoetan | - | - | - | - |
| Lursailak | 409.412 | 264.006 | 451.918 | 279.465 |
| Hiri-lurzoru finkatua | 391.975 | 255.866 | 66.063 | 46.944 |
| Gainerako lurzorua | 17.437 | 8.140 | 385.855 | 232.521 |
| **Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak** | **35.651** | **7.544** | **34.210** | **6.879** |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako aktibo higiezinak** | **21.750** | **5.980** | **23.016** | **4.595** |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak** | - | - | - | - |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak** | - | - | - | - |
| **Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa** | - | - | **14.291** | **6.718** |
| **Guztira** | **625.902** | **356.256** | **588.130** | **325.564** |

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako erabilitako finantzaketari lotutako bermeen balioa aurkeztuko dugu:

| **Jasotako bermeen balioa – Eraikuntza eta higiezinen sustapena** | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 366.461 | 464.335 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | *244.714* | *360.672* |
| Beste berme batzuen balioa | 431 | 58 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | - | - |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **366.892** | **464.393** |

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratuta dauden finantza-bermeen balioaren berri emango dugu jarraian:

| | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Eraikuntzarako eta higiezinen sustapenerako emandako finantza-bermeak | 17.917 | 20.056 |
| Balantzeko pasiboan erregistratutako zenbatekoa | 3.137 | 3.407 |

## Sektore sustatzailearen arrisku arazotsuaren gestioa

Aldez aurretiko oharrak

Taldeak egun darabilen politika murriztailea da.

Onartzeko irizpideak adieraziko ditugu ondoren:

- Indarrean dauden arriskuei dagokienez:
    - Ez-ordaintzeak, enbargo-arriskua edo konkurtsoan sartzeko arriskua duten sustatzaileekin ditugun arriskuak berreskuratzea, dela adjudikazio bidea erabili eta aktiboak erosiz (adiskidetasunezko konponbidea), dela auzibidea erabiliz.
    - Zorra berrantolatzea, baldin eta jarduketa horren ondorioz hasierako egoera hobetzea lortzen bada (esposizioa murriztu egin delako edota bermeak hobetu direlako) eta betiere zuzkidura gehiagorik egin behar ez bada.
- Arrisku-eskaera berriei dagokienez:
    - Lurzoruak. Ez dugu zoru-erosketarik finantzatzen. Gehienez ere, LABORAL Kutxaren aktiboak dituen sozietateak sustatzaile fidagarriei lurrak saltzeko eragiketetara mugatzen gara.
    - Eraikuntza. Kreditu-hartzaileak eta finantzaketa-proiektuak baldintza zorrotzak bete behar dituzte bideragarriak direla ziurtatzeko.
        - Kaudimena frogatuta duten sustatzaileentzat soilik. Sektorean eskarmentu frogatua izatea eskatuko da, bai eta finantza-balantzea onbidean izatea ere, zor-bolumen jasangarriarekin eta proiektu bideragarriekin balantzean.

- Proiektuei eskatu beharreko baldintzak:

  - Kargarik gabe eta guztiz ordainduta dagoen lurzorua ekartzea; hau da, zorrik ez izatea, baldintza suntsiarazlerik edo erosketari lotutako abalik ez izatea, trukerik ere ez...

  - Sustatzaileak gutxienez proiektuaren kostu osoaren % 30 eman behar du, edota lurzorua bestela, baldin eta lurzoruaren balioa kostu osoaren % 30 baino handiagoa bada.

    Lurzorua berrikitan erosi bada, haren baliotzat joko da erosketa-balio gordina, zergak eta tasazioa kenduta.

    Hartara, LABORAL Kutxak kostuaren % 70 emango du gehienez, orubearen kostua barnean sartuta.

  - Merkaturatze-maila: aurretiko salmentak (salmenta-kontratua sinatu ostean hartuko dira halakotzat), gutxienez salmenta-bolumenaren % 70; edota, sustapenen proposamen mailan bada, eman beharreko maileguaren % 100.

  - 2-3 urterako epea, orientazio moduan, obra burutzeko epearen eta merkaturatzeko arrazoizko aldiaren arabera.

  - Finantzaketaren eskuragarritasuna. Gehienez, obra-zuzendaria den arkitektoak sinatutako obra-ziurtagiriaren % 100koa izango da, betiere zorra tasazio-balioaren % 70 baino txikiagoa bada.

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n Entitateak aktiboak kudeatzeko hainbat sozietatetan ditu eraikuntza eta higiezinen sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Horien xehetasuna eta partaidetzaren ehunekoa urteko kontu hauen txostenaren I. eranskinean azaltzen da.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 624.860 eta 710.202 mila eurokoak ziren sozietate horietako aktiboen esleipen-balioak. 2017ko abenduaren 31n, sozietate horietarako finantzaketaren saldoa eta kapitalaren edo bazkideen ekarpenen saldoa 624.860 eta 113.154 mila eurokoak ziren, hurrenez hurren (710.202 eta 56.299 mila eurokoak, 2016ko abenduaren 31n). Data horretan, 474.884 eta 65.455 mila euroko narriaduragatiko balio-zuzenketak zituzten, hurrenez hurren (511.512 eta 37.486 mila eurokoak, 2016ko abenduaren 31n).

b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitate Nagusiak arriskuak berrantolatzeko onetsitako politikaren arabera, arriskuak adiskidetasunean oinarritutako berreskurapen bidez kudeatzeko tresna bat da eragiketen berrantolaketa. Hala, batetik birfinantzamendu-eragiketak eta bestetik berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa kitatzeko; bigarrenetan, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatu egiten dira

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Gestioaren Departamentuak (bere atalekin) izango du beti.

Zalantzakortasun ondorioetarako, birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketa bakar bat ere ez da normaltzat kalifikatuko. Hona hemen kalifikatzeko tipologiak:

A) Normala, zaintza berezian

Zalantzazkoak eta kobraezinak ez direnak, baina halere ahuleziak dituztenak. Operatiboki, sailkapen-tipologia hori gainerakoak salbuetsi ondoren esleituko da. birfinantzatzeko/berregituratzeko eragiketa geroago zerrendatuko diren tipologiaren batean sailkatzen ez bada, “Normala zaintza berezian” izenpean sailkatuko da.

Kreditu-arriskuagatiko galeraren estaldura (beharrezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez egingo da.

B) Zalantzazkoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

Kreditu-arriskuagatiko galera (beharrezko zuzkidura) estaltzeko, zenbatespen kolektiboa erabiliko da, “garrantzizkotzat” jotzen direnak (3 milioi euro) izan ezik. Azken horietan, arrisku-analistak erabakiko du beharrezko zuzkidura.

C) Zalantzazkoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuengatik

Osorik itzuliko den arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera hori arrazoitzeko aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Eragiketak birfinantzatzekoen, birfinantzatutakoen eta berregituratutakoen artean sailkatzeko irizpideak zehazten dituen 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak ekarritako aldaketak betetzeko asmoz eta Entitate Nagusiak horren inguruan finkatuta dituen politikei jarraikiz, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketen berri emango dugu jarraian.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

## 2017ko ekitaldia

| | GUZTIRA | | | | | | | Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio metatuaren narriadura | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio metatuaren narriadura |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 9 | 11.607 | 1.421 | 8.094 | - | - | - | 1 | 7.107 | - | 7.106 | - |
| **Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorreko enpresa-jarduera)** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 1.036 | 78.072 | 817 | 260.331 | 57.786 | 42.231 | (160.878) | 805 | 30.822 | 687 | 192.996 | 45.543 | 31.581 | (127.531) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | *9* | *958* | *103* | *89.052* | *21.723* | *14.753* | *(50.490)* | *9* | *958* | *90* | *83.763* | *18.667* | *13.322* | *(49.687)* |
| **Gainerako familiak** | 839 | 8.071 | 1.455 | 146.073 | 106.970 | 3.422 | (38.674) | 619 | 5.941 | 1.178 | 119.181 | 80.845 | 3.247 | (38.105) |
| **GUZTIRA** | **1.875** | **86.143** | **2.281** | **418.011** | **166.177** | **53.747** | **(199.552)** | **1.424** | **36.763** | **1.866** | **319.284** | **126.388** | **41.934** | **(165.636)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri gisa sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

## 2016ko ekitaldia

| | GUZTIRA | | | | | | | Horietatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio metatuaren narriadura | Berme errealik gabe | | Berme errealarekin | | | | Balio metatuaren narriadura |
| | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa | | | | | | | Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa | | |
| | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Eragiketa-kopurua | Kontabilitate-balio gordina | Higiezinen bermea | Gainerako berme errealak | |
| **Kreditu-erakundeak** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Administrazio publikoak** | - | - | 1 | 7.372 | 7.372 | - | - | - | - | 1 | 7.372 | 7.372 | - | - |
| **Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorreko enpresa-jarduera)** | 1 | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |
| **Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alorrekoa ez den enpresa-jarduera)** | 854 | 86.213 | 881 | 317.140 | 93.956 | 16.293 | (194.755) | 601 | 29.124 | 774 | 243.594 | 74.033 | 13.357 | (163.414) |
| *Horietatik: eraikuntzara eta higiezinen sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)* | *7* | *252* | *121* | *124.349* | *43.886* | *346* | *(75.472)* | *6* | *241* | *111* | *119.210* | *39.160* | *346* | *(74.967)* |
| **Gainerako familiak** | 734 | 6.765 | 1.541 | 147.504 | 106.616 | 2.656 | (42.613) | 623 | 5.887 | 1.355 | 130.168 | 89.661 | 2.656 | (42.226) |
| **GUZTIRA** | **1.589** | **92.978** | **2.423** | **471.016** | **207.944** | **18.949** | **(237.368)** | **1.224** | **35.011** | **2.130** | **381.134** | **171.066** | **16.013** | **(205.640)** |
| **INFORMAZIO GEHIGARRIA** | | | | | | | | | | | | | | |
| Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronte eta elementu-talde besterengarri gisa sailkatutako finantzaketa | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - | - |

Jarraian, birfinantzatu edo berregituratu ostean zalantzazkotzat sailkatutako eragiketen zenbateko gordin osoa (2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa) dago xehatuta:

| | **2017** | | |
|---|---|---|---|
| | **Zenbateko gordina** | | |
| | **Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea** | **Gainerako berme errealak** | **Berme errealik gabe** |
| Administrazio publikoak | - | - | - |
| Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak | 4.147 | 1.845 | 6.841 |
| *Horretan: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa* | *1.225* | - | - |
| Gainerako pertsona fisikoak | 23.596 | - | 313 |

| | **2016** | | |
|---|---|---|---|
| | **Zenbateko gordina** | | |
| | **Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea** | **Gainerako berme errealak** | **Berme errealik gabe** |
| Administrazio publikoak | - | - | - |
| Gainerako pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak | 4.839 | 857 | 6.953 |
| *Horretan: eraikuntzari eta higiezinen sustapenari zuzendutako finantzaketa* | *742* | *199* | - |
| Gainerako pertsona fisikoak | 13.069 | 6.213 | 499 |

Hona hemen birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketak kobratzen direla bermatzeko jasotako bermeen balioa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, berme errealak eta beste berme batzuk bereizita:

| **Jasotako bermeen balioa – Birfinantzamenduak** | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| Berme errealen balioa | 1.803.823 | 2.121.384 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 591.137 | *845.015* |
| Beste berme batzuen balioa | 10.569 | 7.257 |
| *Horretan: zalantzazko arriskuak bermatzen ditu* | 2.740 | *2.355* |
| **Jasotako bermeen balioa guztira** | **1.814.392** | **2.128.641** |

Hona hemen 2017ko eta 2016ko ekitaldietako birfinantzamenduen eta berregituratzeen saldoa, lotutako hornidurak kenduta:

| | **2017** | **2016** |
|---|---|---|
| **Irekierako saldoa** | **327.626** | **398.934** |
| (+) Epealdiko birfinantzamenduak eta berregituratzeak | 9.563 | 51.413 |
| *Pro memoria: epealdiko galdu-irabazien kontuan erregistratutako eragina* | *(22.944)* | *11.354* |
| (–) Zorraren amortizazioak | (39.163) | (149.225) |
| (–) Esleipenak | (4.370) | (263) |
| (–) Balantzeko baja (kobraezinetan birsailkatzea) | (4) | (8.738) |
| (+)/(–) Bestelako aldakuntzak | 10.950 | 35.505 |
| **Ekitaldi-amaierako saldoa** | **304.602** | **327.626** |

## 16. Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuak bi definizio ditu:

- Fondoen likidezia-arriskua: Entitate Nagusia gai ez izatea egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ezusteko kutxako fluxuei eta ordainketa-obligazioen ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez erantzuteko, eguneroko jardunari edo finantza-egoerari kalterik eragin gabe.

- Merkatuko likidezia-arriskua: merkatuan sakontasunik ez izatearen edo distortsioak egotearen ondorioz finantza-erakundeek posizio bat merkatuko prezioetan konpentsatu edo desegiteko gaitasunik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du LABORAL Kutxak, Kontseilu Errektoreak onartuta. Eskuliburu horrek, Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen "Likidezia-arriskua egoki kudeatzeko eta gainbegiratzeko printzipioak" (2008ko iraileko dokumentua) betetzeaz gain, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatzen du. Egoera horretan, aipatzekoa da, halaber, Entitate Nagusiak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua sortu zuela 2015ean. Baimentze- eta hobetze-prozesu sistematikoa ezartzen zaio, eta, bertan, likidezia-arriskuaren funtsezko adierazle batzuetarako grinaren eta tolerantziaren atalaseak jaso dira. Bestalde, Recovery Plana ere egin zuen, likidezia-krisietarako alerta-mailak eta jarduketa-protokoloak eguneratzeko.

Prozeduretan ezarritako eginkizunetan sakonduz, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, funtsezko zenbait adierazletarako mugak eta aurreko adierazleetarako edo aparteko beste batzuetarako epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, muga eta helburu horiek zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Muga eta helburu horiek guztiak kontrolatzeko, altxortegi-plan bat egiten da hilean behin. Bertan, inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak jasotzen dira, mugak eta helburuak ezartzen zaizkien adierazleen bilakaera zehatzeko. Horrela, epe ertainean adierazle horiei eta likideziari aurreikusten zaien bilakaerari buruzko informazioa etengabe eguneratuta izateko aukera du Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBk). Horrela, agregatuen bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBk, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido erabilgarriak eta hainbat likidezia-ratio daude. 2014an, LCR ratioa ere erantsi zen, eta, 2017ko ekitaldia ixtean, Entitateak maila altua du bertan; izan ere, aise bete du arautzaileak 2018ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2017ko itxieran, Entitate Nagusiak honako hauek ditu:

- % 400eko LCR ratioa.

- Haircutak aplikatu ostean, 4.024 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak), Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 755 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 3.269 milioi euro EBZko aktibo aukeragarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko

modukoak. Entitate Nagusiak likidezia-maila garbi positiboari eutsi dio urtean zehar. Beste alde batetik, 2017ko martxoan Entitate Nagusiak 300 milioi euro eskuratu ditu EBZren TLTRO II epe luzerako finantzaketa-eragiketen esparruan. Eragiketa horiek, ordea, ez dute likidezia-handitzerik ekarri, kolaterala pignoratuz eskuratu baitira.

- % 78ko Loan to Deposits ratioa.

- Entitate Nagusiak zuhurtasun-politika erabili duen handizkakoen finantzaketa:

  - 1.525 milioi euroko zenbatekoa bildu du, balantze osoaren % 7koa. Kopuru horretan sartu dira merkatuko zedulak eta EBZtik jasotako dirua eta kanpo geratu dira autozorrorako zedulak, titulizazioak eta KOI finantzaketa, horien muga-eguneko fluxuak lotuta baitaude finantzatzen dituzten aktiboei dagozkienekin.

  - Finantzaketa-iturrietan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, Caja Laboralak honako hauek ditu, ekitaldiaren itxieran: 1.225 milioi euroren hipoteka-zedulen jaulkipenak (autozorroa kanpo utzita) eta EBZtik hartutako dirua (TLTRO II), 300 milioi euro alegia (28. eta 36. oharrak). Bestalde, Entitate Nagusiak 184 milioi euroko finantzaketa du merkatuan, hipoteka-partaidetzak titulizatzearen bidez (Entitateak berak eskuratutako bitarteak deskontatuta), bai eta KOIk bitartekotutako 13 milioi euroko finantzaketa ere. Dena den, lehen esan dugunez, ez KOI finantzaketak ez titulizazioek ez dute muga-egunean birfinantzatzeko premiarik.

  - Muga-egunetan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, hipoteka-zedulak 2019az gerokoak dira, dibertsifikatuak gainera, eta EBZtik jasotakoa 2021eko martxoan mugaeguneratzea dago aurreikusita.

Entitate Nagusiaren finantzaketa-egitura honela dago banatuta:

| | 2017 | |
|---|---|---|
| **Finantzaketa-egitura** | **Milioi eurokotan** | **%** |
| Bezeroen gordailuak | 16.844 | 77,38 |
| Hipoteka-zedulak (1) | 1.225 | 5,63 |
| EBZtik jasoa | 300 | 1,38 |
| Titulizazioak (1) | 184 | 0,84 |
| KOI finantzaketa | 13 | 0,06 |
| **Aktiboa guztira** | 21.767 | |

(1) Autozorroa ez da sartzen.

Handizkako finantzaketaren muga-egunen araberako banaketari dagokionez, 2018tik aurrera gertatu dela esan beharra dago. Hona hemen zehaztasunak:

| Handizkako jaulkipenen muga-egunak | Milioi eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2018 | 2019 | 2020 | >2020 |
| Bonuak eta hipoteka-zedulak | - | 100 | 500 | 625 |
| Lurralde-zedulak | - | - | - | - |
| Senior zorra | - | - | - | - |
| Estatuak abala emandako jaulkipenak | - | - | - | - |
| Mendekoak, lehentasunezkoak eta bihurgarriak | - | - | - | - |
| Hirugarrenei saldutako titulizazioak | 24 | 22 | 20 | 118 |
| EBZtik jasoa | - | - | - | 300 |
| KOI finantzaketa | 3 | 3 | 2 | 5 |
| | 27 | 125 | 522 | 1.048 |

Epe ertainerako likidezia-beharrak behar bezala estalita daude, finantzaketa-gaitasunen bidez. Horrela, bada, haircutak aplikatu ostean eskuragarri dauden aktibo likido garbiak eta Entitate Nagusiaren jaulkipen-gaitasuna aurkeztuko ditugu ondorengo tauletan:

| | Milioi eurokotan 2017-12-31 | |
|---|---|---|
| | Erabilia | Erabilgarria |
| **Aktibo likido garbiak (2)** | - | 4.024 |

(2) Espainiako Bankuaren likideziaren egoera-orrietako irizpideak (errenta aldakorra kanpo utzita).

| Jaulkipen-gaitasuna | Milioi eurokotan |
|---|---|
| Hipoteka-zedulak jaulkitzeko gaitasuna | 4.512 |
| Lurralde-zedulak jaulkitzeko gaitasuna | 230 |
| Estatuak abala emandako jaulkipenetatik erabilgarri dagoena | - |
| | 4.742 |

Bestalde, taula honetan Entitate Nagusiaren aktiboen eta pasiboen azterketa jaso da (milioi eurokotan), Espainiako Bankuak igorritako egoera-orrien likideziari buruzko irizpideei jarraikiz, hondar-epemuga kontuan hartuta —kanpo utzi dira mugaeguneratutako saldoak, zalantzazko kreditu-inbertsioa, esleituak eta kobraezinak—:

**2017**

**AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA**

| | Milioi eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Saldoa guztira | Agerikoak | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete bitartekoak | 3 eta 6 hilabete bitartekoak | 6 hilabete eta urtebete bitartekoak | 1 eta 5 urte bitartekoak | 5 urtetik gorakoak |
| Sarrerak GUZTIRA | 17.762 | 67 | 589 | 441 | 390 | 1.373 | 5.894 | 9.007 |
| Irteerak GUZTIRA | (19.060) | (14.358) | (783) | (448) | (515) | (1.163) | (1.695) | (97) |
| **Garbia** | (1.298) | (14.291) | (194) | (7) | (125) | 210 | 4.199 | 8.910 |

**2016**

**AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA**

| | Milioi eurokotan | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Saldoa guztira | Agerikoak | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete bitartekoak | 3 eta 6 hilabete bitartekoak | 6 hilabete eta urtebete bitartekoak | 1 eta 5 urte bitartekoak | 5 urtetik gorakoak |
| Sarrerak GUZTIRA | 17.873 | 81 | 625 | 544 | 503 | 825 | 6.224 | 9.072 |
| Irteerak GUZTIRA | (17.976) | (12.193) | (782) | (798) | (1.064) | (1.592) | (1.438) | (110) |
| **Garbia** | (103) | (12.112) | (157) | (254) | (561) | (767) | 4.786 | 8.962 |

## 17. Interes-tasaren arriskua

Interes-tasetan kontrako mugimendu bat izatearen ondorioz Entitate Nagusiaren emaitza-kontuan eta ondare-balioan sor daitezkeen galerei dagokie interes-tasaren arriskua.

Kontseilu Errektoreak Aktibo eta Pasiboen Batzordearen (APBren) esku du utzita arrisku hori kontrolatu eta kudeatzeko zeregina, eta Kontseilu Errektoreak finkatutako mugen barruan jarduten du; mugok urtean behin berrikusten dira. Merkatuko eta kontrako egoera bateko interes-tasen artean gehienez onar daitekeen galeraren arabera ezartzen dira mugok.

APBk sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuarekiko esposizioaren eragina, eta, gestio aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, APB simulazioetan oinarritzen da. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertu eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitate Nagusiak epe luzera izango dituen emaitzak neurtzen dituzte.

Interes-tasekiko sentikorrak diren partiden gap estatikoa bildu dugu ondoko taulan. Entitate Nagusiak interes-tasen gorabeheren aurrean duen arriskuarekiko lehen hurbilpena da. Halere, gaparen berezko supostuen mugak kontuan hartuta, Caja Laboralak arrisku hori neurtzeko erabili izan duen teknika, aurreko paragrafoan azaldu dena, ez da egokia.

# URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

**(Mila eurokotan adierazita)**

| | Milioi eurokotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balantzeko saldoa 17-12-31n | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete bitartekoak | 3 hilabete eta urtebete bitartekoak | 1 eta 2 urte bitartekoak | 2 eta 3 urte bitartekoak | 3 eta 4 urte bitartekoak | 4 eta 5 urte bitartekoak | 5 urtetik gorakoak |
| **Aktibo sentiberak** | 20.320 | 5.452 | 3.590 | 7.576 | 978 | 482 | 953 | 208 | 1.081 |
| Diru-merkatua | 2.016 | 1.994 | - | 22 | - | - | - | - | - |
| Kreditu-merkatua | 14.160 | 2.864 | 3.188 | 5.875 | 427 | 286 | 219 | 188 | 1.113 |
| Balore-merkatua | 4.144 | 594 | 402 | 1.679 | 551 | 196 | 734 | 20 | (32) |
| **Pasibo sentiberak** | 19.188 | 7.050 | 2.019 | 4.495 | 106 | 29 | 425 | 5.067 | (3) |
| Handizkako merkatua | 1.911 | 362 | 527 | 611 | 5 | 5 | 404 | (0) | (3) |
| Gainerako hartzekodunak | 17.277 | 6.688 | 1.492 | 3.884 | 101 | 24 | 21 | 5.067 | - |
| GAP arrunta | | (1.598) | 1.571 | 3.081 | 872 | 453 | 528 | (4.859) | 1.084 |
| Pasibo Osoarekiko %-a | | (% 8) | % 8 | % 15 | % 4 | % 2 | % 3 | (% 24) | % 5 |
| GAP metatua | | (1.598) | (27) | 3.054 | 3.926 | 4.379 | 4.907 | 48 | 1.132 |
| Pasibo Osoarekiko %-a | | (% 8) | (% 0) | % 15 | % 19 | % 22 | % 24 | % 0 | % 6 |

| | Milioi eurokotan | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Balantzeko saldoa 16-12-31n | Hilabetera artekoak | 1 eta 3 hilabete bitartekoak | 3 hilabete eta urtebete bitartekoak | 1 eta 2 urte bitartekoak | 2 eta 3 urte bitartekoak | 3 eta 4 urte bitartekoak | 4 eta 5 urte bitartekoak | 5 urtetik gorakoak |
| **Aktibo sentiberak** | 19.270 | 4.448 | 3.584 | 6.997 | 1.358 | 750 | 372 | 924 | 837 |
| Diru-merkatua | 707 | 586 | 100 | 21 | - | - | - | - | - |
| Kreditu-merkatua | 14.248 | 2.956 | 3.320 | 6.012 | 416 | 262 | 199 | 193 | 890 |
| Balore-merkatua | 4.315 | 906 | 164 | 964 | 942 | 488 | 173 | 731 | (53) |
| **Pasibo sentiberak** | 18.143 | 5.126 | 2.191 | 5.300 | 125 | 34 | 26 | 5.345 | (4) |
| Handizkako merkatua | 1.738 | 471 | 526 | 617 | 7 | 6 | 6 | 105 | - |
| Gainerako hartzekodunak | 16.405 | 4.655 | 1.665 | 4.682 | 119 | 28 | 20 | 5.240 | (4) |
| GAP arrunta | | (678) | 1.393 | 1.697 | 1.233 | 716 | 346 | (4.421) | 841 |
| Pasibo Osoarekiko %-a | | (% 4) | % 7 | % 9 | % 6 | % 4 | % 2 | (% 23) | % 4 |
| GAP metatua | | (678) | 716 | 2.414 | 3.647 | 4.363 | 4.709 | 288 | 1.129 |
| Pasibo Osoarekiko %-a | | (% 4) | % 4 | % 13 | % 19 | % 23 | % 24 | % 1 | % 6 |

Kontratuan interes-tasa bat ezarrita duten partidak interes-tasekiko sentikorrak dira, eta, beraz, gapean jasotzen dira. Gainerakoak kanpoan geratzen dira, hau da: balorazioagatiko doikuntzak, kreditu sailkaezina, kutxa, ibilgetua (esleituak barne), deribatuak, hainbat kontu eta periodokatze-kontuak, Gizarte Ekintzako Fondoa, fondo bereziak, kapitala eta erreserbak, eta ekitaldiko emaitzak.

Gap horretan, sentikortzat jotako partidak dagokien denbora-tarteetan banatzen dira, ondoren adierazten ditugun irizpideei jarraikiz. Interes-tasa aldakorreko produktuak interes-tasa berrikusten (balioa handitzen) zaien denbora-tartean kokatzen dira. Bestalde, interes-tasa finkoko partidak hondar-epemugaren arabera banatzen dira. Ageriko produktuetarako, saldoen aldakortasun-estimazioak kontuan hartuta, haien portaerari buruzko hipotesiak eman ditu Entitate Nagusiak. muga-egun jakin bat ez duten kontuetan (ordaindu gabeko kontuetan, administratuetan eta erreferentziadunetan) azterketa ekonometrikoak egin dira, horien interes-tasak eta merkatukoak izan duten bilakaera aintzat hartuta.

Entitate Nagusiak gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera eginez gero, marjina gordina % 2,52 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiraleak azterketa horiek egiteko ezarritako irizpideak hauek dira: hasierako saldoei eta balantzearen egiturari eustea, interes-tasak merkatu-igurikimenen arabera garatzea eta ordainketarik gabeko kontu korronteetarako 5 urteko iraupena finkatzea.

Halaber, balio ekonomikoa aldatuz gero, interes-tasetako oinarrizko 200 puntuko beherakada horrek 29,6 milioi euroko hazkundea eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 1,84 ingurukoa. Bestalde, neurri horretako gorakada gertatuz gero, 31,8 milioi euroko igoera eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 1,97koa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatutako irizpide berberak erabili dira.

## 18. Merkatuko beste arrisku batzuk

Oro har, 2017. urtea ona izan da aktibo arriskutsuetarako, eta gora egin dute burtsa-indize gehienek, High Yield errenta finkoko indizeek eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako errenta finkoak. Bien bitartean, bonu subiranoek portaera laua izan dute (gorabehera txikiak izan dituzte, erreferentziako indizeen arabera). Galtzaile argiak, berriz, erreferentziatzat dolarreko arriskua soilik hartu duten aktiboak izan dira.

Merkatuen portaera hori justifika lezaketen 4 elementu aipa ditzakegu: mundu osoan aldi berean gertatu den hazkunde ekonomikoa; banku zentralek oso zuhur jokatu izana diru-politikak ezartzean; lehengaien prezioak suspertu izana; eta, azkenik, hegakortasunak oso-oso apalak izan direla eta, beraz, portaera proaktiboa eragin dutela arriskuak hartzerakoan.

Aldagai makroekonomikoen bilakaerari dagokionez, 2017ko ekitaldiaren amaierako azelerazioak % 3,6raino bultzatu du BPG globalaren hazkunde-tasa (aurreko urtean baino 4 hamarren gorago). Horiek horrela, ekonomia nagusi guztiek, garatuek nahiz garatzeko bidean daudenek, ildo berean jokatu dute, aspaldian gertatu ez den moduan. Ustekabe positiboa Eurogunearen susperraldia izan da: % 2,2ko hazkundea izan du, hasiera batean aurreikusitako % 1,4koa baino nabarmen handiagoa. Estatu Batuek Eurogunearen pareko hazkunde-tasa izan badute ere, aurreikusitako mailatik behera gelditu dira. Garatzeko bidean dauden herrialdeetako ekonomiek jokabide ona izan dute, % 4,6ko hazkundearekin (aurreikusitakoa baino pixka bat handiagoa). Txinako ekonomia lagungarria izan da horretan, hainbesteko beldurra eragiten zuen hard landing hori jasan beharrean, aurreikusitakoa baino 6 hamarren gorago bukatu baitu ekitaldia. Hori bai, Txinako Gobernuak ezarritako estimuluak egon dira tartean, berriro ere kreditura jo baitu.

Banku zentralei dagokienez, 2017an argi eta garbi baietsi da FEDek ezarritako politiken eta gainerako banku zentralek ezarritako politiken arteko noranzko desberdina. FEDek 3 aldiz igo ditu interbentzio-tasak, % 0,25 horietako bakoitzean. Zehazki, 5 igoera metatu ditu (% 1,25ekoak guztira), 2015eko abenduan ziklo honetako pixkanakako normalizazio-prozesuari heldu zionetik (% 0,25eko igoera ezarri zuen orduan). Halaber, balantzea murrizteko plana iragarri zuen. Era berean, balantzea murrizteko plana ere iragarri zuen. Dena dela, ekitaldiko 3 igoera horiek eta iragarpena gorabehera, FEDek oso zuhur jokatu du merkatuari bidalitako mezuetan, behin eta berriro azpimarratu baitu dibisa normalizatzeko prozesua oso pixkanaka ezarriko dela eta datu ekonomikoen arabera jokatuko duela. Mezu hori indartu egin du oraindik gora egin gabe jarraitzen duen inflazioak, normalizazio-ildo zuhur horri eusteko aukera ematen du eta.

Bien bitartean Europan, estimuluak kentzeko aukerari buruz hitz egiteko oraindik oso goiz dela adierazi du berriro EBZk (Draghi buruan), eta urrian iragarri zuen beste 9 hilabetez (2018ko irailera arte) luzatuko zuela bonuak erosteko programa (QE); hori bai, hileko erosketen zenbatekoa erdira jaitsiz. EBZk oso argi utzi du inflazio-helburua lortzeko behar dena luzatuko dela programa. Japoniari dagokionez, BOJek berretsi zuen 10 urterako interes-tasei % 0 inguruan eusteko merkatuetan esku hartuko zuela (eta halaxe egin zuen behin baino gehiagotan).

Banku zentralen diru-politiken arteko desberdintasunak desberdintasun, AEBko dolarrak balio-galera nabarmena izan du dibisa nagusien aldean, eta bereziki euroaren aldean. Euroguneko ekonomiaren hazkundeak ustekabe positiboa eman du, eta EBZren diru-politika “normalizatzen” hasi da (erosketa-bolumena jaitsi egingo duela iragarri baitu). Horiek pisu handiagoa izan dute dolarraren aldeko interes-tasen diferentzialak baino. Bestalde, euroaren balioa % 14 handitu da dolarraren aldean. Ondorioz, oreka-balio teorikora hurbildu da, erosahalmenaren parekotasuna aintzat hartuta. Petrolioaren prezioen gorakadak ere (% 20tik gora garestitu da urtean) eragina izan du dolarraren balio-galeran, harekiko korrelazio estua baitauka.

Faktore hori izan daiteke burtsa-merkatu batzuen eta besteen portaera desberdina azal lezakeenetako bat. S&P500 indizearen balioa % 20 inguru handitu den bitartean, Eurostoxx50aren eta Ibex35aren errebalorizazioa % 6 eta % 7 baino zertxobait handiagoa izan da, hurrenez hurren. Amerikako indizeari dagokionez, lagungarriak izan dira, bereziki, enpresa-irabazien susperraldia eta teknologia-sektorearen —Apple, Microsoft, Google, Amazon eta Facebook erraldoiak buru— haztapen handiagoak. Teknologiaren sektoreak jokabide bereziki ona izan du, nahiz eta zenbateko handietan kotizatu; izan ere, emaitzetan hazkunde handiak izaten jarraitzen du (aurreikusitakoak baino hobeak) eta nazioarteko zorroen gestoreek asko eskatzen dituzte titulu horiek. MSCI World eta Nikkei indizeek, bestalde, % 20 inguruko errebalorizazioak izan dituzte, eta Garatzeko bidean dauden herrialdeen tokiko dibisako MSCIk, berriz, % 27koa.

Errenta finkoan, diru-politiken normalizazio-prozesua hain da pixkanakakoa eta zuhurra, ezen epe luzerako tasek oso gorakada txikia izan baitute (urte-hasieran merkatuan espero zutena eta beldurrarazten zituena baino txikiagoa). Ondorioz, errenta finkoko kategoria nagusiek aurreikusitakoa baino bilakaera hobea izan dute, kategoriak zenbat eta kreditu arriskutsuagoa izan, orduan eta hobea. Adibidez, eta azpiko nagusietako batzuk aipatzearren, Euroguneko zor subiranoaren Iboxx indizeak portaera laua (+% 0,07koa) erregistratu du; eurotan dauden bonu korporatiboen Europako indizeak +% 2,37 lortu du; Barclays High Yield Global indize estaliak +% 8,42ko errentagarritasuna erdietsi du; eta garatzeko bidean dauden herrialdeetako errenta finkoko J.P. Morgan EMBI Global indizeak +% 9,32ko errentagarritasunera iritsi dira.

Azkenik, lehengaien prezioek ere gora egin dute, oro har, 2017an. Indize orokorretako igoerak apalak izan arren (+% 2,19koa eta +% 4,31koa lehengaien CRB Total indizean eta indize industrialean, hurrenez hurren), osagaietako batzuek askoz ere igoera handiagoa izan dute (Brent petrolioak +% 20koa, urreak +% 13koa eta kobreak +% 31koa).

Egoera horretan, saltzeko prest zegoen zorroko tituluek merkatuaren bilakaeraren araberako portaera izan dute, eta balorazioagatiko doikuntzen kontuetan agertzen diren gainbalioen eta minusbalioen saldoan islatu da.

## 19. Eragiketa-arriskua

Prozesuetan, pertsonalean nahiz barruko sistemetan gertatutako desegokitasunaren edo akatsen, edo kanpoko faktoreen ondorioz Entitateak izan ditzakeen galerei buruzkoa da eragiketa-arriskua.

LABORAL Kutxak metodo estandarra erabiliz informatzen du arautzailea, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Arautegian deskribatutako metodologiaren arabera.

Ikuspegi kualitatiboari begira, departamentu guztien arrisku-mapak ditu Entitate Nagusiak. Arrisku horiek urtero ebaluatzen dira, eta, ondoren, arriskurik larrienak arintzeko ekintza-planak taxutzen dira.

Gaur egun, Entitate Nagusiak 56 koordinatzaileko eta 28 balidatzaileko sarea du, sistemak eskatzen dituen zereginak (autoebaluazioak eta ekintza-planak) gauzatu ahal izateko. 2017ko abenduan, 10. autoebaluazioa ari dira amaitzen, eta, horren ostean, ekintza-plan berriak bideratuko dira.

Ikuspegi kuantitatibotik, 2002tik eragiketetan galdutakoen datu-basea du Entitate Nagusiak. Galera bakoitza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Erregelamenduak zehaztutako gertaera mota eta negozio-linea bati dago esleituta.

LABORAL Kutxa CERO (Consorcio Español de Riesgo Operacional – Eragiketa Arriskuaren Espainiako Partzuergoa) taldeko partaide da. Bertan, estatuko finantza-erakunde nagusiak daude ordezkatuta, eta eragiketa-arriskuaren alorreko informazioa eta esperientziak partekatzen dira.

## 20. Aseguru-eragiketen arriskua

Aseguru-kontratuak izenpetzearen ondoriozko arriskuetan, aldagai batzuek eragin handia izan dezakete etorkizuneko eskudiru-fluxuetan, bai zenbatekoan bai denboran banatzeko moduan.

Hilkortasun-, baliaezintasun eta longebitate-taulak ezbehar-tasari eragiten dioten aldagaiak dira, eta, beraz, ezbeharrak ordaintzeko eskudiruaren irteera-fluxuari ere bai. Taldeak, aldian behin, egokitu egiten ditu bere oinarri teknikoak: hilkortasun- eta iraupen-taulak nazioko eta nazioarteko sektorekako lantaldeek emandako daturik berrienetara eta Aseguruen eta Pentsio Fondoen Zuzendaritza Orokorrak onetsitako estatistiketara moldatzen ditu.

Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak zehaztutako araudiari jarraikiz, Taldeak PERM/F-2000 taulak aplikatu dizkio 2000ko urriaren 15etik aurrerako produkzio berriari. Produkzio Berriko heriotza-arriskuen kasuan, PASEM-2010 taulak erabiltzen dira, eta baliaezintasun-arriskuetarako, berriz, PEAIM-2007 taulak. Era berean, taulak ezartzeko datan indarrean zegoen zorroaren defizita 2007. urtean xurgatu zen, nahiz eta, indarreko araudiaren arabera, 15 urteko epealdia izan horretarako, 1999ko urtarrilaren 1etik aurrera zenbatuta.

Aseguru Pribatuaren Ordenazio eta Gainbegiratzeari buruzko Arautegia —1998ko azaroaren 20ko 2486/1998 ED—, aurrerantzean Arautegia, ezarri aurretik interes-tasa teknikoa indarrean zuten polizetarako, Arautegi horretako Bigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari lotzen zaio Taldea. Egiaztatu behar izaten du, poliza horiei atxikitako inbertsioen errendimendu garbia handiagoa den polizetako interes-tasa teknikoa baino.

Arautegia indarrean sartu ostean jaulkitako indarreko poliza gehienen hornidura matematikoa kalkulatzeko, urtero Aseguruen Zuzendaritza Orokorrak ezarritako gehienezko interes-tasaren pareko interes-tasa teknikoa, edo txikiagoa, erabili du Taldeak urtero. Zentzu horretan, Arautegiaren 33.1 artikuluan ezarritakoari lotu zaio Taldea. Aktibo-mota horiei zorro bat eta finantza-inbertsioak esleitu dizkie, eta aktiboen benetako errentagarritasuna hornidura matematikoaren batez besteko errentagarritasuna baino handiagoa den begiratu du urtero.

Taldeak Erregelamenduaren 33.2 artikuluan ezarritakoari men egiten ez badio ere, batera monitorizatzen ditu aktiboko eta pasiboko fluxuen proiekzioak. Hilkortasun- eta baliaezintasun-tasak, erreskatea eta gastuak kalkulatzeko, barne-hipotesien ondoriozko proiekzioak aplikatzen ditu, bai eta hipotesi horien barruan finantza-inbertsioak pasibo konprometituetara zenbateraino egokitzen diren egiaztatu ere.

Espainiako legeria aplikatuz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren menpe dagoenak, bere egindako hondamen-arriskuen ondorioak estalita ditu Taldeak bere kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuetan ezbehar-tasaren arriskua murriztu ahal izateko, berraseguru-kontratuak erabiltzen ditu Taldeak.

Arriskuaren kontzentrazioa ez da nabarmena; izan ere, Taldeko aseguru-negozioaren oinarria partikularren arrisku pertsonalak aseguratzean datza, eta beraz, arrisku-maila baxua da, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak estaltzen duen hondamen-arriskurik ez bada.

Prestazioetarako hornidura kalkulatzeko, Aseguru Pribatuen Ordenazio eta Gainbegiratzeari buruzko Arautegian ezarritakoa betetzen da.

Urteko kontu hauek formulatzeko egunean, Entitate Nagusiko administratzaileek berretsi dute arriskuen eta kaudimenaren barneko ebaluazioa egina dagoela eta Taldeko aseguru-erakundeek kaudimen-betebehar globalak betetzen dituztela, euren arrisku-profila, onartutako arrisku-tolerantziaren mugak eta negozio-estrategia kontuan hartuta.

Jarduerari lotutako arriskuen izaerari, bolumenari eta konplexutasunari egokitutako prozesuak ezarri dira eta, horiei esker, epe labur eta luzera Taldeko aseguru-erakundeek izan litzaketen eta aurre egin behar lieketen arriskuak egoki zehaztu eta ebaluatzeko aukera du.

Asimismo, los Administradores de la Entidad Dominante confirman que las Entidades de Seguros del Grupo presentan un cumplimiento continuo de los requerimientos de capital y de los requisitos en materia de provisiones técnicas.

## 21. Arriskuen kontzentrazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Erregelamenduaren eta kaudimen-errekerimenduen gainean ondoren egin zaizkion aldaketen arabera, arrisku handietan —baliabide propioen % 10 gainditzen dutenak dira— pertsona edo talde batekin ezin da baliabide propioen % 25 baino gehiago arriskatu. Salbuespenezko kasuren batean muga hori gainditzen bada, Entitateak zenbateko horren berri eman beharko die, berehala, agintari eskudunei. Horiek, inguruabarren arabera egokia iruditzen bazaie, denbora-tarte bat emango diote, mugatik behera egiteko. Entitatearen arriskuak onartzeko politikak kontuan hartzen ditu muga eta irizpide horiek, eta eskakizun horiei dagozkien aurkako alderdiaren arrisku-mugak eta soberak kontrolatzeko prozedurak ezarri dira.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, MONDRAGON taldeko kooperatibekiko arriskua, arriskuen unitate ekonomiko gisa hartzen dena, bakarrik jo daiteke “esposizio handitzat”, baliabide propioen % 10 gainditzen du eta.

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta kontrako alderdien motak kontuan hartuta:

## 2017

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 2.556.359 | 1.893.559 | 638.591 | 19.302 | 4.907 |
| Administrazio publikoak | 5.355.574 | 4.826.328 | 529.246 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 4.949.377 | 4.420.131 | 529.246 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 406.197 | 406.197 | - | - | - |
| Beste finantza-erakunde batzuk eta enpresaburu indibidualak | 254.035 | 154.264 | 59.748 | 20.210 | 19.813 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 2.726.937 | 2.674.113 | 47.294 | 4.246 | 1.284 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 92.030 | 91.949 | 81 | - | - |
| – Herri-lanen eraikuntza | 133.305 | 133.187 | 118 | - | - |
| – Gainerako helburuak | 2.501.602 | 2.448.977 | 47.095 | 4.246 | 1.284 |
| Enpresa handiak | 444.025 | 393.343 | 46.618 | 2.982 | 1.082 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.057.577 | 2.055.634 | 477 | 1.264 | 202 |
| Gainerako etxeak | 10.694.750 | 10.674.375 | 15.283 | 2.843 | 2.249 |
| – Etxebizitzak | 9.985.115 | 9.965.785 | 14.504 | 2.599 | 2.227 |
| – Kontsumoa | 374.951 | 374.613 | 288 | 28 | 22 |
| – Beste helburu batzuk | 334.684 | 333.977 | 491 | 216 | - |
| **GUZTIRA** | 21.587.655 | 20.222.639 | 1.290.162 | 46.601 | 28.253 |

## 2016

| | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | Espainia | Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | Amerika | Munduko gainerako lurraldeak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 1.298.988 | 609.054 | 675.862 | 10.976 | 3.096 |
| Administrazio publikoak | 5.216.406 | 5.177.481 | 38.925 | - | - |
| – Administrazio zentrala | 4.693.543 | 4.654.847 | 38.696 | - | - |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 522.863 | 522.634 | 229 | - | - |
| Beste finantza-erakunde batzuk eta enpresaburu indibidualak | 349.385 | 75.560 | 220.470 | 25.654 | 27.701 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 2.805.342 | 2.735.828 | 60.896 | 5.325 | 3.293 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 151.731 | 151.731 | - | - | - |
| – Herri-lanen eraikuntza | 146.565 | 146.514 | 51 | - | - |
| – Gainerako helburuak | 2.507.046 | 2.437.583 | 60.845 | 5.325 | 3.293 |
| Enpresa handiak | 458.724 | 395.976 | 56.354 | 3.329 | 3.065 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.048.322 | 2.041.607 | 4.491 | 1.996 | 228 |
| Gainerako etxeak | 10.768.600 | 10.749.575 | 14.786 | 2.557 | 1.682 |
| – Etxebizitzak | 10.185.915 | 10.167.723 | 14.138 | 2.396 | 1.658 |
| – Kontsumoa | 358.627 | 358.270 | 287 | 46 | 24 |
| – Beste helburu batzuk | 224.058 | 223.582 | 361 | 115 | - |
| **GUZTIRA** | 20.438.721 | 19.347.498 | 1.010.939 | 44.512 | 35.772 |

(a) Esposizioen definizioak bere baitan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko eutsitakoak eta estaldurakoak); mendekoetan, baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta egon arren.

Jarduera eremu geografikoetan banatzeko, mailegu-hartzaileen, balore-jaulkitzeen eta deribatuen eta emandako bermeen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden hartuko da kontuan.

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

## 2017

| Espainiako jarduera | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE | Nafarroa | Madril | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 1.893.559 | 33.455 | - | 1.783.769 | 76.335 |
| Administrazio publikoak | 4.826.328 | 222.482 | 8.941 | 163.746 | 4.431.159 |
| – Administrazio zentrala | 4.420.131 | - | - | - | 4.420.131 |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 406.197 | 222.482 | 8.941 | 163.746 | 11.028 |
| Beste finantza-erakunde batzuk eta enpresaburu indibidualak | 154.264 | 66.987 | 674 | 46.762 | 39.841 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 2.674.113 | 1.648.705 | 267.857 | 214.960 | 542.591 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 91.949 | 60.151 | 6.627 | 1.782 | 23.389 |
| – Herri-lanen eraikuntza | 133.187 | 74.613 | 6.578 | 42.670 | 9.326 |
| – Gainerako helburuak | 2.448.977 | 1.513.941 | 254.652 | 170.508 | 509.876 |
| Enpresa handiak | 393.343 | 283.533 | 27.031 | 45.875 | 36.904 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.055.634 | 1.230.408 | 227.621 | 124.633 | 472.972 |
| Gainerako etxeak | 10.674.375 | 6.189.158 | 1.268.594 | 463.024 | 2.753.599 |
| – Etxebizitzak | 9.965.785 | 5.808.101 | 1.188.489 | 341.833 | 2.627.362 |
| – Kontsumoa | 374.613 | 234.788 | 43.183 | 10.729 | 85.913 |
| – Beste helburu batzuk | 333.977 | 146.269 | 36.922 | 110.462 | 40.324 |
| **GUZTIRA** | 20.222.639 | 8.160.787 | 1.546.066 | 2.672.261 | 7.843.525 |

## 2016

| Espainiako jarduera | Guztira (liburuetako zenbatekoa) (a) | AUTONOMIA-ERKIDEGOAK EAE | Nafarroa | Madril | Gainerakoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Banku zentralak eta kreditu-erakundeak | 609.054 | 33.136 | - | 541.566 | 34.352 |
| Administrazio publikoak | 5.177.481 | 236.678 | 9.908 | 270.953 | 4.659.942 |
| – Administrazio zentrala | 4.654.847 | - | - | - | 4.654.847 |
| – Beste administrazio publiko batzuk | 522.634 | 236.678 | 9.908 | 270.953 | 5.095 |
| Beste finantza-erakunde batzuk eta enpresaburu indibidualak | 75.560 | 15.255 | 679 | 56.354 | 3.272 |
| Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak | 2.735.828 | 1.670.752 | 264.888 | 207.472 | 592.716 |
| – Eraikuntza eta higiezinen sustapena | 151.731 | 103.109 | 8.989 | 2.174 | 37.459 |
| – Herri-lanen eraikuntza | 146.514 | 75.826 | 5.915 | 55.421 | 9.352 |
| – Gainerako helburuak | 2.437.583 | 1.491.817 | 249.984 | 149.877 | 545.905 |
| Enpresa handiak | 395.976 | 290.412 | 21.036 | 42.363 | 42.165 |
| ETEak eta enpresaburu indibidualak | 2.041.607 | 1.201.405 | 228.948 | 107.514 | 503.740 |
| Gainerako etxeak | 10.749.575 | 6.035.810 | 1.153.235 | 305.894 | 3.254.636 |
| – Etxebizitzak | 10.167.723 | 5.699.369 | 1.081.517 | 292.570 | 3.094.267 |
| – Kontsumoa | 358.270 | 208.664 | 34.722 | 8.025 | 106.859 |
| – Beste helburu batzuk | 223.582 | 127.777 | 36.996 | 5.299 | 53.510 |
| **GUZTIRA** | 19.347.498 | 7.991.631 | 1.428.710 | 1.382.239 | 8.544.918 |

(a) Esposizioen definizioak bere baitan hartzen ditu maileguak eta aurrerakinak; zorra adierazten duten baloreak; ondare-tresnak; deribatuak (negoziatzeko eutsitakoak eta estaldurakoak); mendekoetan, baterako negozioetan eta elkartuetan egindako inbertsioak; eta emandako bermeak, balantzean edozein partidatan sartuta egon arren.

Ondorengo oharretan, Taldearen arrisku-kontzentrazioaren xehetasunak bildu dira, eragiketa-motaren, jarduera- eta geografia-eremuaren, monetaren, arrisku-kalitatearen eta abarren arabera.

## 22. Eskudirua, eskudiruko saldoak banku zentraletan eta ageriko beste gordailu batzuetan

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Eskudirua | 72.514 | 78.876 |
| Eskudirutako saldoak banku zentraletan | 1.682.657 | 327.385 |
| Ageriko beste gordailu batzuk | 93.074 | 46.769 |
| | 1.848.245 | 453.030 |
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 1.829.915 | 444.378 |
| Dolarretan | 13.406 | 5.821 |
| Franko suitzarretan | 73 | 60 |
| Libera esterlinatan | 1.369 | 1.509 |
| Yen japoniarretan | 2.185 | 45 |
| Beste batzuk | 1.297 | 1.217 |
| | 1.848.245 | 453.030 |

Hurrenez hurren, % 0,032koa eta % 0,28koa izan dira, banku zentraleko eta ageriko beste gordailu batzuetako eskudirutako saldoek 2017ko eta 2016ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

Europako Banku Zentralaren 1745/2003 zenbakiko Erregelamenduaren (EErenaren) arabera, Europar Batasuneko estatu kideetako kreditu-erakundeek araudi horretan zehaztutako pasibo konputagarrien % 1eko gutxieneko erreserba-koefizientea izan behar dute, hurrenez hurren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n. 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, gutxieneko erreserben koefizientea bete behar du Espainiako Bankuko kontu korrontean eutsitako saldoaren zati batek. Entitate Nagusiak betetzen ditu indarrean dagoen araudiak koefiziente horretarako agintzen dituen gutxienekoak.

## 23. Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe hauek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duten banakapena:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Deribatuak | 3.796 | 3.668 | 1.533 | 2.297 |
| Ondare-tresnak | 541 | 620 | - | - |
| Zorra adierazten duten baloreak | 140.124 | 179.401 | - | - |
| | 144.461 | 183.689 | 1.533 | 2.297 |

2017ko ekitaldian zehar, negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak 39 milioi euro inguru murriztu dira, batez ere Estatuak jaulkitako zorra eta altxorraren letrak eta errenta finkoko beste balore batzuk saltzearen ondorioz. 2016ko ekitaldian zehar, negoziazio-zorroa

75 milioi euro inguru murriztu ziren batez ere Estatuak eta Beste administrazio publiko batzuek jaulkitako zorra eta altxorraren letrak saltzearen ondoriozko negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak” epigrafean dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balorazio-teknikak 42. oharrean sartu dira.

“Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak eta -pasiboak” multzoan sailkatutako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek eragina izan dute 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan (52. oharra). Hona hemen:

| | Irabaziak | | Galerak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Deribatuak | 5.653 | 12.385 | 5.364 | 14.513 |
| Ondare-tresnak | - | 28.382 | - | 25.540 |
| Zorra adierazten duten baloreak | 57.032 | 74.170 | 56.451 | 73.048 |
| | 62.685 | 114.937 | 61.815 | 113.101 |

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroetako elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan eragindakoa banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta honako hau da banakapena:

| | Irabaziak | | Galerak | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak: | | | | |
| Kotizazioak erreferentziatzat harturik (1. maila) | 57.032 | 94.197 | 56.451 | 96.465 |
| Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez: | | | | |
| Merkatutik datozen datuetan (2. maila) | 5.653 | 20.740 | 5.364 | 16.636 |
| Merkatutik ez datozen datuetan (3. maila) | - | - | - | - |
| | 62.685 | 114.937 | 61.815 | 113.101 |

Hona hemen 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantzeetako “Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak” eta “Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak” epigrafeetako deribatuen saldoaren banakapena:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Dibisaren arabera: | | | | |
| Eurotan | 144.461 | 183.689 | 1.533 | 2.297 |
| | 144.461 | 183.689 | 1.533 | 2.297 |
| Muga-egunaren arabera: | | | | |
| Hilabetera artekoak | 169 | 812 | 510 | 163 |
| Hilabete 1 eta 3 bitartekoak | 275 | 494 | 127 | 457 |
| 3 hilabete eta urtebete bitartekoak | 1.085 | 845 | 166 | 713 |
| 1 eta 5 urte bitartekoak | 41.351 | 51.168 | 566 | 439 |
| 5 urtetik gorakoak | 101.040 | 129.750 | 164 | 525 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 541 | 620 | - | - |
| | 144.461 | 183.689 | 1.533 | 2.297 |

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten liburuetako zenbatekoaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, kontrako alderdien motak eta tresna-motak kontuan hartuta:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa | % | Zenbatekoa | % |
| **Geografia-sektorearen arabera:** | | | | |
| Estatua | 144.447 | % 99,99 | 183.319 | % 99,80 |
| Europar Batasuneko gainerako herrialdeak | 14 | % 0,01 | 370 | % 0,20 |
| Munduko gainerako lurraldeak | | - | - | - |
| | 144.461 | % 100,00 | 183.689 | % 100,00 |
| **Aurkako alderdien motaren arabera:** | | | | |
| Kreditu-erakundeak | 2.599 | % 1,80 | 1.931 | % 1,05 |
| Administrazio publiko egoiliarrak | 140.124 | % 97,00 | 179.401 | % 97,67 |
| Beste sektore egoiliar batzuk | 1.738 | % 1,20 | 2.357 | % 1,28 |
| Beste sektore ez-egoiliar batzuk | - | - | - | - |
| | 144.461 | % 100,00 | 183.689 | % 100,00 |
| **Tresna motaren arabera:** | | | | |
| Kotizatutako obligazioak eta bonuak | 140.124 | % 97,00 | 179.401 | % 97,66 |
| Errenta finkoko beste balore batzuk | - | - | - | - |
| Merkatuetan negoziatu gabeko deribatuak | | | | |
| Antolatuak | 3.796 | % 2,63 | 3.668 | % 1,99 |
| Akzio kotizatuak | 541 | % 0,37 | 620 | % 0,35 |
| | 144.461 | % 100,00 | 183.689 | % 100,00 |

Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak banakatuko ditugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

| | 2017 | | 2016 | |
|---|---|---|---|---|
| | Zenbatekoa | % | Zenbatekoa | % |
| A ratinga eman zaien arriskuak | 54 | % 0,03 | 366 | % 0,20 |
| B ratinga eman zaien arriskuak | 137.564 | % 95,23 | 180.632 | % 98,34 |
| Esleitu gabeko zenbatekoak | 6.843 | % 4,74 | 2.691 | % 1,46 |
| | 144.461 | % 100,00 | 183.689 | % 100,00 |

b) Zorra adierazten duten baloreak

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko “Zorra adierazten duten baloreak” epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Espainiako zor publikoa | 135.764 | 161.488 |
| Kreditu Ofizialeko Institutua | - | - |
| Errenta finkoko beste balore batzuk | 4.360 | 17.913 |
| | 140.124 | 179.401 |

Hurrenez hurren, % 0,988koa eta % 0,796koa izan dira banku-negozioko "Zorra adierazten duten baloreek" 2017ko eta 2016ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

c) Ondare-tresnak

Hauxe da 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantzeetako aktiboko "Ondare-tresnak" epigrafeko saldoaren banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Espainiako erakundeetako partaidetzak | - | - |
| Atzerriko erakundeetako partaidetzak | - | - |
| Inbertsio-fondoetako partaidetzak | 541 | 620 |
| Bestelako partaidetzak | - | - |
| | 541 | 620 |

d) Negoziatzeko eutsitako deribatuak

Hona hemen 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako "Negoziatzeko eutsitako finantza-aktiboak" eta "Negoziatzeko eutsitako finantza-pasiboak" epigrafeetako deribatuen saldoaren banakapena:

| | 2017 | | |
|---|---|---|---|
| | Balio nozionala | Arrazoizko balioa | |
| | | Aktiboa | Pasiboa |
| Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa | | | |
| Erosketak | 29.678 | 23 | 784 |
| Salmentak | 45.540 | 1.517 | 20 |
| Baloreen eta interes-tasen gaineko gerokoak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | - | - | - |
| Baloreen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 39.180 | 948 | - |
| Saldutakoak | 1.383.798 | - | - |
| Dibisen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | - | - | - |
| Interes-tasen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 19.998 | 896 | - |
| Saldutakoak | 1.398 | - | 5 |
| Interes-tasen gaineko beste eragiketa batzuk | | | |
| FRAk | - | - | - |
| Finantza-trukeak | 23.526 | 207 | 136 |
| Call Money Swapak (CMSak) | - | - | - |
| Eperako beste eragiketa batzuk | - | 205 | 588 |
| | | 3.796 | 1.533 |

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

| | 2016 | | |
|---|---|---|---|
| | Balio nozionala | Arrazoizko balioa | |
| | | Aktiboa | Pasiboa |
| Mugaeguneratu gabeko dibisen salerosketa | | | |
| Erosketak | 51.717 | 1.203 | 100 |
| Salmentak | 86.972 | 778 | 1.058 |
| Baloreen eta interes-tasen gaineko gerokoak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | 21.391 | - | - |
| Baloreen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | 26.380 | 501 | - |
| Saldutakoak | 1.456.583 | - | 175 |
| Dibisen gaineko aukerak | | | |
| Erositakoak | - | - | - |
| Saldutakoak | - | - | - |
| Interes-tasen gaineko aukerak | | | |
2017ko ekitaldian zehar, 0 mila euroko zenbateko garbiko intsuldaketak egin dira “Erabilera propioko ibilgetua” epigrafetik “Saltzeko eutsitako aktibo ez-korronteak” epigrafera (13.087 mila eurokoak 2016an), batez ere 35 bulego ixteagatik.

Balantze bateratuetako “Erabilera propioko ibilgetu materiala” epigrafeko saldoa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu orain:

| | Gordina | Metatutako amortizazioa | Narriaduraren ondoriozko zuzenketak | Garbia |
|---|---|---|---|---|
| **2017ko abenduaren 31n** | | | | |
| Tresna informatikoak eta instalazioak | 45.363 | (39.485) | - | 5.878 |
| Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak | 164.426 | (131.329) | - | 33.097 |
| Eraikinak | 314.803 | (51.739) | (39.513) | 223.551 |
| Uneko obrak | 1.244 | - | - | 1.244 |
| Beste batzuk | 892 | (889) | - | 3 |
| | 526.728 | (223.442) | (39.513) | 263.773 |
| **2016ko abenduaren 31n** | | | | |
| Tresna informatikoak eta instalazioak | 57.575 | (49.682) | - | 7.893 |
| Altzariak, ibilgailuak eta gainerako instalazioak | 162.067 | (131.854) | - | 30.213 |
| Eraikinak | 341.567 | (52.593) | (41.400) | 247.574 |
| Uneko obrak | 1.244 | - | - | 1.244 |
| Beste batzuk | 892 | (889) | - | 3 |
| | 563.345 | (235.018) | (41.400) | 286.927 |

“Erabilera propioko ibilgetu materiala”-ren arrazoizko balioa txostenaren 42. oharrean agertzen da.

“Erabilera propioko ibilgetu materiala” atalaren 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko saldo garbian ez da sartzen erabiltzen ez den aktibo materialaren zenbatekorik.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n erabiltzen diren eta erabat amortizatuta dauden Taldearen “Erabilera propioko ibilgetu materiala” ataleko elementuen balio gordina 145.486 mila eurokoa eta 146.340 mila eurokoa dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

Balantze bateratuetako “Ondasun higiezinetako inbertsioak” epigrafeko saldoa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

| | Gordina | Metatutako amortizazioa | Narriaduraren ondoriozko zuzenketak | Garbia |
|---|---|---|---|---|
| **2017ko abenduaren 31n** | | | | |
| Eraikinak | 75.686 | (14.567) | (10.714) | 50.405 |
| Landa-finkak, lursailak eta orubeak | 1.349 | - | - | 1.349 |
| | 77.035 | (14.567) | (10.714) | 51.754 |
| **2016ko abenduaren 31n** | | | | |
| Eraikinak | 81.242 | (15.156) | (11.546) | 54.540 |
| Landa-finkak, lursailak eta orubeak | 1.349 | - | - | 1.349 |
| | 82.591 | (15.156) | (11.546) | 55.889 |

“Ondasun higiezinen inbertsioak” epigrafeko arrazoizko balioa txostenaren 42. oharrean agertzen da.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan Taldearen Ondasun higiezinetako inbertsioetatik lortutako ustiapen-sarrera garbiak 2.432 mila eurokoak eta 2.626 mila eurokoak izan ziren, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren.

Merkataritzarako lokalak edo antzekoak errentan hartzeko kontratuek, ostera, badute muga-eguna, eta kasuaren arabera zehazten da.

Balantze bateratuetako “Errentamendu operatiboan utzitako aktiboak” epigrafeko saldoa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, banakatu dugu hemen:

| | Gordina | Metatutako amortizazioa | Garbia |
|---|---|---|---|
| **2017ko abenduaren 31n** | | | |
| Makineria | 4.667 | (2.109) | 2.558 |
| Altzariak eta lanabesak | 322 | (129) | 193 |
| Eraikinak | - | - | - |
| Informatika-ekipamenduak | 12.358 | (4.910) | 7.448 |
| Mediku-ekipamenduak | 339 | (85) | 254 |
| Garraio-elementuak | 2.000 | (105) | 1.895 |
| Beste batzuk | 657 | (306) | 351 |
| | 20.343 | (7.644) | 12.699 |
| **2016ko abenduaren 31n** | | | |
| Makineria | 4.572 | (2.080) | 2.492 |
| Altzariak eta lanabesak | 328 | (59) | 269 |
| Eraikinak | - | - | - |
| Informatika-ekipamenduak | 9.052 | (3.991) | 5.061 |
| Mediku-ekipamenduak | 234 | (18) | 216 |
| Garraio-elementuak | 4.759 | (2.299) | 2.460 |
| Beste batzuk | 663 | (190) | 473 |
| | 19.608 | (8.637) | 10.971 |

2017ko eta 2016ko ekitaldietan Taldeak Errentamendu operatiboan utzitako aktiboen errentetatik lortutako sarrerak 5.568 mila eurokoak eta 4.943 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren. 2017ko eta 2016ko ekitaldietan, Taldeak Errentamendu operatiboan utzitako aktiboen ustiapen-gastuak 380 mila eurokoak eta 458 mila eurokoak izan dira, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (56. oharra).

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Taldeak konpromiso hau du hartuta aktibo ukigarriaren inguruan:

- Ondasun higiezin batzuen errentaria da Taldea; 2017ko eta 2016ko ekitaldietan, 5.867 mila euro eta 6.003 mila euro ordaindu ditu, hurrenez hurren, horien alokairuagatik (60.b oharra). 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, 14 urteko batez besteko hondar-bizitza dute errentamendu-kontratu horiek.

- Segidan, hurrengo epealdietan egin beharreko etorkizuneko gutxieneko ordainketa guztien egungo balioa aurkeztuko dugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Urte 1era artekoak | 4.408 | 4.533 |
| 1 eta 5 urte bitartekoak | 13.533 | 13.896 |
| 5 urtetik gorakoak | 11.771 | 13.148 |
| | 29.712 | 31.577 |

## 32. Aktibo ukiezinak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Merkataritzako fondoa | 33.425 | 33.425 |
| Bestelako aktibo ukiezina | 167 | 143 |
| Balio-bizitza mugagabekoa | 167 | 143 |
| Amortizatutako kostua | 167 | 143 |
| Aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak | - | - |
| Balio-bizitza mugatukoa | - | - |
| Amortizatutako kostua | - | - |
| | 33.592 | 33.568 |

Balantze bateratuetako "Merkataritzako fondoa" epigrafeko saldoa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Seguros Lagun Aro SA | | |
| Gordina | 33.425 | 33.425 |
| Narriaduraren ondoriozko zuzenketak | - | - |
| | 33.425 | 33.425 |

2011ko abenduaren 20ra arte, Taldeak Seguros Lagun Aro SAren kapital sozialaren % 36,05 izan zuen zuzenean eta % 4,94 zeharka. Data horretan, Taldeak Seguros Lagun Aro SAren kapital sozialaren % 59,01 eskuratu zuen. Horrela, Seguros Lagun Aro SAren kontrola bereganatu zuen. Aseguruen sozietate horrek bizitzakoak ez diren atal nagusietako arriskuak aseguratzen ditu, eta adar bakoitzerako lege-estaldura jakin batzuk ditu finkatuta.

Erosketaren ondoriozko merkataritza-fondoak (33.425 mila eurokoak) 2 iturburu ditu: batetik, eskuratutako bezero-oinarria eta, bestetik, Taldearen eta Seguros Lagun Aro SAren eragiketak uztartuz ziurrenik sortuko diren eskala-ekonomiak.

Entitate Nagusiko administratzaileek eskura dituzten zenbatespenen eta proiekzioen arabera, merkataritzako fondoak sortzen dituzten partaidetzako erakundeen Taldeari egoztekoak diren sarreren aurreikuspenetan egoki jasota dago horien balio garbi erregistratua.

Ondoren, “Merkataritzako fondoa” atalak “Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak” aintzat hartu gabe 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 33.425 | 33.425 |
| Negozio-konbinazioaren ondorioz bateratze-perimetroa aldatzeagatiko sarrerak | - | - |
| | 33.425 | 33.425 |

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko “Aktibo ez-finantzarioen balioaren narriadura edo (–) narriaduraren itzulketa – Merkataritzako fondoa” epigrafean ez da narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketarik egin.

Hauek dira merkataritzako fondoen narriadura ebaluatzeko erabilitako hipotesi makroekonomikoak eta interes-tasen ingurukoak:

Urtean behin, kontabilitate-arauetan finkatutako narriadura-azterketa egiten dio Entitate Nagusiak merkataritzako fondoari, Seguros Lagun Aro SAren % 100 erostean bereganatutakoari, eta sentikortasuna ere aztertzen da. Merkataritza-fondo hori eskudirua sortzen duen unitate bati esleitu zaio, Seguros Lagun Aro SAri, hain zuzen, eta azken horren narriadura-azterketa da fondoaren azterketaren oinarria. Unitatea narriatuta legoke bere kontabilitate-balioa erabilera-balioaren gainetik balego. Erabilera-balioa unitatearen zenbatetsitako eskudiru-fluxuen gaur egungo balioa da. Ez da horrelakorik gertatu eskuratu zenetik.

Eskudiru-fluxuak Seguros Lagun Aro SAren negozio-planean zenbatesten dira, egoerarik zuhurrena kontuan hartuta, neurrizko hazkunde-tasak aurreikusita eta negozioan edo negozioaren efizientzian egiturazko aldaketek ekar litzaketen fluxu garbi positiboak kanpoan utzita. Hain zuzen ere, eskudiru-fluxuen proiekzioa egiteko, plangintzak hartzen dituen ekitaldietako emaitzen proiekzioa hartzen da abiapuntuko hipotesi gisa.

Seguros Lagun Aro SAtik datozen aktiboak erosi izanaren ondoriozko negozio-konbinazioan sortutako merkataritza-fondoari lotuta, 2017ko eta 2016ko itxieran, Taldeak Seguros Lagun Aro SAren merkataritza-fondoaren narriaduraren aztarnarik ote dagoen baloratu du eta zenbateko berreskuragarria zenbatetsi. Zenbateko berreskuragarri horiek haien liburuetako zenbatekoak baino handiagoak direnez, ez da narriadurarik gertatu.

Baloratzeko, metodologia hau erabili du: aseguru-sozietatearen jarduerari lotutako etorkizuneko mozkin garbi banagarriak 5 urteko (2022ra arteko) proiekzioarekin deskontatzea, eta amaierako balioa kalkulatzea, % 1eko betiko hazkunde-tasa erabiliz. Tasa hori bat dator sozietatearen jarduera-eremua dagoen ingurune ekonomikoaren helburuko inflazioarekin. Aurreko esperientzia % 1 horretatik gorakoa da. Hauek dira finantza-proiekzioak eraikitzeko funtsezko aldagaiak: zuzeneko aseguruaren marjina gordinaren bilakaera —espero diren negozio-bolumenen eta interes-tasen menpe egongo da— eta emaitza-kontuko gainerako partiden eta kaudimen-mailaren bilakaera.

Banatu beharreko fluxuen gaur egungo balioa, erabilera-balioa lortzeko erabiltzen dena, kalkulatzeko, Seguros Lagun Aro SAren kapital-kostua (Ke) hartzen da deskontu-tasa gisa, merkatuko partaide baten ikuspegitik. Hori zehazteko, CAPM (Capital Asset Pricing Model) metodoa erabili da.

Metodo horren arabera, eskudiru-fluxuen proiekzioei aplikatutako zerga aurreko deskontu-tasa % 6,26koa izan da, kapitalaren kostua barruan hartu baita kontuan. Kapitalaren kostuaren zenbatespena bat dator sektoreko analista independenteek aplikatutakoekin.

Proiektatutako aldian erabili diren urteko hazkunde-tasak (CAGRak) % 1,0 eta % 2,65 bitartekoak izan dira eskuratutako primetan eta % 1 eta % 6,24 bitartekoak aseguruen gastu teknikoetan.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, balorazioaren funtsezko aldagaien sentsibilitate-azterketa egin da, eta hor ere ez da antzeman narriadura-aztarnarik.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera, sortutako merkataritzako fondoa ez da kengarria zergetan.

## 33. Zergen ondoriozko aktiboak eta pasiboak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe hauek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duten banakapena:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Zerga korronteak: | 8.853 | 13.330 | 4.572 | 3.868 |
| Sozietateen gaineko zerga | - | 1.113 | 4.277 | 3.868 |
| BEZa | 7.875 | 9.455 | - | - |
| Ogasun publikoa zordun atxikipenengatik | 978 | 2.762 | - | - |
| Beste batzuk | - | - | 295 | - |
| Geroratutako zergak: | 277.333 | 285.960 | 107.926 | 117.495 |
| Saltzeko prest dagoen zorroaren balorazioagatiko doikuntzak | 27.767 | 25.621 | 71.826 | 76.450 |
| Higiezinak errebalorizatzea | - | - | 31.070 | 34.037 |
| Irekitze-komisioak | - | 141 | - | - |
| Kreditu fiskalak | 197.760 | 205.515 | - | - |
| Ibilgetua berriro inbertitzea | - | - | - | - |
| Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako fondoak | 11.621 | 10.032 | - | - |
| Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako fondoa | 35.871 | 41.189 | - | - |
| Ibilgetuaren amortizazioa | - | - | - | - |
| Partaidetzen narriadura | - | - | - | - |
| Finantza-pasibo propioen eta hipoteka-zedulen errebalorizazioa | - | - | 5.030 | 5.030 |
| Gordailuen Berme Funtsa | - | - | - | - |
| Beste kontzeptu batzuk | 4.314 | 3.462 | - | 1.978 |
| | 286.186 | 299.290 | 112.498 | 121.363 |

Entitate Nagusiari eta partaidetzako erakundeei aplikatzekoa den sozietateen gaineko zergaren inguruan indarrean dagoen araudi fiskalaren ondorioz, 2017ko eta 2016ko ekitaldietan aldeak sortu dira irizpide kontableen eta fiskalen artean. Alde horiek aktiboko eta pasiboko "Geroratutako zergak" epigrafean erregistratu dira, jarduera etengabeen irabazien gaineko zerga kalkulatu eta erregistratzean.

Ondoren, aktiboko eta pasiboko "Geroratutako zergak" epigrafeko saldoek 2017 eta 2016 ekitaldietan izandako mugimenduak azalduko ditugu:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 285.960 | 301.522 | 117.495 | 125.263 |
| Gehikuntzak / (gutxitzeak) | (8.627) | (15.562) | (9.569) | (7.768) |
| Kaudimengabezietarako eta bestelako horniduretarako fondorako zuzkidura | (5.318) | (1.316) | - | - |
| Ibilgetua berriro inbertitzea | - | - | - | - |
| Saltzeko prest dagoen zorroa baloratzeagatiko doikuntzak | 2.146 | 878 | (4.624) | (557) |
| Higiezinen errebalorizazioa | - | - | (2.967) | (7.156) |
| Irekitze-komisioak | (141) | (73) | - | - |
| Kreditu fiskalak | (7.755) | (17.972) | - | - |
| Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako fondoak | 1.589 | 2.786 | - | - |
| Gordailuen Berme Funtsa | - | - | - | - |
| Beste batzuk | 852 | 135 | (1.978) | (55) |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 277.333 | 285.960 | 107.926 | 117.495 |

Zerga-oinarri negatiboengatik eta konpentsatzeko dauden kenkariengatik geroratutako zergen ondoriozko aktiboak onartzeko, ekitaldia itxi eta hurrengo 10 urteetan zerga-onuren bidez berreskuratzeko aukera ikusi behar da. 2017ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak 169.629 mila euroko eta 28.131 mila euroko aktiboak onartu ditu, hurrenez hurren, aipatu berri ditugun kontzeptuengatik geroratutako zergen ondorioz (178.024 mila eurokoak eta 27.491 mila eurokoak, hurrenez hurren, 2016ko abenduaren 31n). Horiek guztiak etorkizuneko ekitaldietan Entitate Nagusiak sortutako zerga-onuren kontra konpentsatzea espero da, Zuzendaritzak prestatutako urteko Gestio Planetan aurreikusi denez.

2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuaren, Espainiako zuzenbidea Europar Batasuneko finantza-erakundeen gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko araudiaren arabera egokitzeko premiazko neurrien gainekoaren, Bigarren Azken Xedapenean ezarritakoari eta, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko abenduaren 16ko 17/2014 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, horren foru-araurako transposizioari jarraikiz, 2017ko abenduaren 31n 170 milioi euroko geroratutako zergen ondoriozko aktiboak ditu Taldeak, zerga-administrazioaren aurrean galdatzeko moduko kredituetan bihurtzeko moduan (178 milioi eurokoak, 2016ko abenduaren 31n). Era berean, 2016ko ekitalditik aurrera, bihurtze hori efektiboa izan dadin, % 1,5eko ondare-prestazioa eramango du lotuta, aktibo horien zenbatekoaren gainean (57. oharra).

41. oharrean Taldearen egoera fiskalari buruzko xehetasunak jaso ditugu.

## 34. Beste aktibo eta pasibo batzuk

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe hauek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duten banakapena:

| | Aktiboa | | Pasiboa | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | 2016 | 2017 | 2016 |
| Izakinak | 60.609 | 19.476 | - | - |
| Sortutako komisioen ondoriozko periodokatzeak | 22.002 | 21.507 | - | - |
| Beste periodokatze batzuk | 17.614 | 21.163 | 58.818 | 52.922 |
| Bideratzen ari diren eragiketak | 931 | 463 | 244 | 1.332 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko beste kontu batzuk | - | - | 3.805 | 4.614 |
| Gizarte Ekintzako Fondoa | - | - | 13.017 | 12.030 |
| Beste kontzeptu batzuk | 524 | 335 | 1.389 | 1.604 |
| | 101.680 | 62.944 | 77.273 | 72.502 |

10. oharrean adierazi denez, “Beste aktibo batzuk - Beste periodokatze batzuk” epigrafeak 17.614 eta 21.138 mila euro biltzen ditu, hurrenez hurren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, 2012ko otsailaren 3ko 2/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoari jarraikiz Gordailuen Berme Funtsari egin beharreko derramarenak.

2017ko eta 2016ko ekitaldietan, 17.626 eta 17.842 mila euro mugitu dira “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafetik “Beste aktibo batzuk - Izakinak” epigrafera, aktibo esleituengatik. Aktibo horiek sustatu eta garatu egingo ditu Taldeak.

Gizarte Ekintzako Fondoa

Hona hemen 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantzeetako “Beste pasibo batzuk” epigrafeko “Gizarte Ekintzako Fondoa” kapituluaren banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Heziketako eta Sustapeneko Fondoa. | 13.017 | 12.030 |
| Zuzkidura: | 12.638 | 11.651 |
| Aktibo materialari aplikatua | 350 | 381 |
| Beste inbertsio batzuei – Saltzeko prest dauden finantza-aktiboei aplikatua (25. oharra) | 3.437 | 3.437 |
| Ekitaldian konprometitutako gastuak | 7.833 | 7.538 |
| Uneko ekitaldiko mantentze-gastuak | (7.833) | (7.538) |
| Konprometitu gabeko zenbatekoa | 8.851 | 7.833 |
| Errebalorizazio-erreserbak | 379 | 379 |
| | 13.017 | 12.030 |

Gizarte Ekintzako Fondoko saldoak mugimendu hauek izan ditu 2017ko eta 2016ko ekitaldietan:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 12.030 | 11.765 |
| Ekitaldiko soberakinaren kargura egin beharreko nahitaezko zuzkidura (57. oharra) | 8.591 | 7.833 |
| Ekitaldiko mantentze-gastuak | (7.833) | (7.538) |
| Ibilgetuaren amortizazioa (31. oharra) | (31) | (31) |
| Beste batzuk | 260 | 1 |
| Ekitaldi-amaierako saldoa | 13.017 | 12.030 |

Kreditu-kooperatibei buruzko 13/1989 Legeak, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuenak, hauxe agintzen du, 1978ko azaroaren 3ko 2860/1978 Errege Dekretuan ezarritako banaketa-irizpideei eutsiz: gutxienez soberakin garbiaren % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora bideratuko da (4. oharra).

Fondo horretara egiten diren zuzkidurek kooperatibismoaren garapena, komunitateko kultura- eta asistentzia-beharrei erantzutea edo helburu horietan lagunduko duten ibilgetuak izango dituzte xede, besteak beste. Ildo horretatik, 2016ko eta 2015eko ekitaldietako nahitaezko zuzkiduratik —7.833 eta 7.538 mila eurokoak izan ziren, hurrenez hurren—, 4.739 mila euro MONDRAGON Taldeko korporazio-erakundeak finantzatzeko eta 588 mila euro Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Fondorako izan dira 2017an (4.644 eta 482 mila euro 2016an).

## 35. Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Aktibo ukigarria | 227.235 | 278.987 |
| Erabilera propioko aktibo ukigarria | 25.068 | 25.508 |
| Ondasun higiezinetako inbertsioak | 11.391 | 12.845 |
| Esleitutako aktibo ukigarria | 714.288 | 808.381 |
| Aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak | (523.512) | (567.747) |
| | 227.235 | 278.987 |

Ondoren, “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafeak 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Banakako partidak: | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 278.987 | 354.765 |
| Gehikuntzak | 27.227 | 32.254 |
| Salmentaren ondoriozko bajak | (92.097) | (90.227) |
| Negozio-konbinazioen ondoriozko saldoak | - | - |
| Narriaduraren ondoriozko zuzkidura garbiak (67. oharra) | 30.127 | (11.742) |
| Aktibo ukigarrien intsuldaketak (31. oharra) | 617 | 11.779 |
| Aktibo kobraezinetarako intsuldaketak | - | - |
| Izakinetarako intsuldaketak (34. oharra) | (17.626) | (17.842) |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 227.235 | 278.987 |

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuko "Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak" atalaren narriaduraren ondoriozko galerak xehatuko ditugu (67. oharra):

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Aktibo ukigarriak | 30.127 | (11.742) |
| Beste aktibo batzuk | - | - |
| | 30.127 | (11.742) |
| Emaitzen kargurako zuzkidurak | 30.127 | (11.742) |
| | 30.127 | (11.742) |

Hauxe da “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafeko “Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak” ataleko saldoak 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimendua:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 567.747 | 566.038 |
| Emaitzetan kargatzeko zuzkidura garbiak | (30.127) | 11.742 |
| Negozio-konbinazioaren ondoriozko altak | - | - |
| Maileguak eta kobratzeko partidak ataleko intsuldaketa (26. oharra) | 10.921 | 20.106 |
| Aktibo kobraezinetarako intsuldaketa eratutako fondoen eta salmenten ondoriozko bajen kargura | 5.673 | 3.288 |
| Izakinetarako intsuldaketa (34. oharra) | (30.702) | (33.427) |
| Beste batzuk | - | - |
| | 523.512 | 567.747 |

Hauxe da “Saltzeko eutsitakotzat sailkatu diren aktibo ez-korronteak eta elementu-talde besterengarriak” epigrafeko “Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak” ataleko saldoak 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimendua:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Banakako partidak | 523.512 | 567.747 |
| | 523.512 | 567.747 |

## 36. Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Banku zentraletako gordailuak | 300.172 | - |
| Kreditu-erakundeen gordailuak | 212.571 | 202.981 |
| Bezeroen gordailuak | 18.612.854 | 17.894.200 |
| Zorra adierazten duten balore jaulkiak | 149.550 | 174.810 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 230.290 | 215.918 |
| | 19.505.437 | 18.487.909 |

Ondoren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako “Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan” epigrafearen banakapena egingo dugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 19.477.421 | 18.463.158 |
| Dolarretan | 26.437 | 23.583 |
| Libera esterlinatan | 1.152 | 711 |
| Franko suitzarretan | 126 | 199 |
| Yen japoniarretan | 112 | 33 |
| Gainerakoetan | 189 | 225 |
| | 19.505.437 | 18.487.909 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Agerikoak | 13.891.164 | 12.542.554 |
| Hilabetera artekoak | 736.099 | 985.462 |
| Hilabete 1 eta 3 bitartekoak | 631.524 | 1.222.234 |
| 3 hilabete eta urtebete bitartekoak | 2.070.880 | 3.161.928 |
| 1 eta 5 urte bitartekoak | 1.316.938 | 7.460 |
| 5 urtetik gorakoak | 481.700 | 201.025 |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 228.394 | 172.697 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 148.738 | 194.549 |
| | 19.505.437 | 18.487.909 |

a) Banku zentraletako gordailuak

Jarraian, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan “Banku zentraletako gordailuak” epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Espainiako Bankua | 300.000 | - |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 172 | - |
| | 300.172 | - |

16. oharrean adierazitakoari jarraikiz, Entitateko finantzaketari eta likideziari jarraipena egiteko politika aktiboarekin bat, 2017ko ekitaldian Europako Banku Zentralak iragarritako berariazko helburuaz epe luzeagoan finantzatzeko eragiketen —TLTRO II— bigarren sortara jo da (300 mila eurokoa izan da).

Hurrenez hurren, % 0,00koa eta % 0,00koa izan dira Banku zentraletako gordailuek 2017ko eta 2016ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

2017ko abenduaren 31n, Espainiako Bankuak fondo publikoen bermedun kredituen sisteman Entitate Nagusiari esleitutako muga 1.054.981 mila eurokoa da (653.056 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n).

b) Kreditu-erakundeen gordailuak

2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako “Kreditu-erakundeen gordailuak” epigrafeko saldoaren banakapena hauxe da:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Eperako kontuak | 12.761 | 19.427 |
| Aktiboak aldi baterako lagatzea | 55.715 | - |
| Bestelako kontuak | 143.998 | 183.453 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 97 | 101 |
| | 212.571 | 202.981 |

Hurrenez hurren, % 0,714koa eta % 0,37koa izan dira Kreditu-erakundeen gordailuek 2017ko eta 2016ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 143.430 eta 183.453 mila euro daude “Bestelako kontuak” atalean erregistratuta, kreditu-erakundeen gordailutan, Entitate Nagusiak tresna deribatuetan egindako eragiketengatik erakunde horiekin hartutako konpromisoak betetzearen berme gisa.

c) Bezeroen gordailuak

Jarraian, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan “Bezeroen gordailuak” epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Espainiako administrazio publikoak | 273.377 | 208.728 |
| Aktiboak aldi baterako lagatzea kontrapartidadun erakundeekin | 3.414 | 102.857 |
| Beste sektore egoiliar batzuk: | 18.294.153 | 17.541.489 |
| Ageriko gordailuak: | 13.376.301 | 11.326.419 |
| Kontu korronteak | 4.065.579 | 3.230.375 |
| Aurrezki-kontuak | 9.286.661 | 8.069.670 |
| Beste batzuk | 24.061 | 26.374 |
| Eperako gordailuak: | 4.341.443 | 4.928.523 |
| Eperako ezarpenak | 4.297.440 | 4.872.535 |
| Beste batzuk | 44.003 | 55.988 |
| Aktiboak aldi baterako lagatzea | 427.940 | 1.092.155 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 148.469 | 194.392 |
| Sortutako interesak | 27.495 | 29.535 |
| Mikro-estaldurako eragiketak | 120.974 | 164.857 |
| Beste sektore ez-egoiliar batzuk | 41.910 | 41.126 |
| | 18.612.854 | 17.894.200 |

Bezeroen gordailuek honako batez besteko interes-tasa hau eman dute, produktuaren arabera, 2017ko eta 2016ko ekitaldietan:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ageriko gordailuak | % 0,05 | % 0,06 |
| Eperako gordailuak | % 1,08 | % 1,19 |
| Aktiboak aldi baterako lagatzea | % 0,06 | % 0,19 |

2017ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak kooperatibekin, elkartutako bestelako enpresekin eta Taldeak kudeatutako inbertsio-fondoekin 523.036 mila euroko saldo hartzekodunak ditu (2016an 705.121 mila eurokoak).

2017ko abenduaren 31n, balantzeko “Eperako gordailuak – Eperako ezarpenak” atalean, 1.225 milioi euro agertzen dira erregistratuta (1.225 milioi euro 2016ko abenduaren 31n), Entitate Nagusiak hipoteka-zedula bereziak jaulkitzearen ondorioz. Horiek Aktiboak Titulizatzeko zenbait Fondok harpidetu dituzte; hona hemen horien ezaugarriak:

| | Hipoteka-zedula | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | Zenbateko nominala (mila eurokotan) | | |
| Fondoaren izena | Despoltsapen-eguna | 2017 | 2016 | Muga-eguna |
| Cédulas TDA5 Aktiboak Titulizatzeko Fondoa | 2004-11-29 | 100.000 | 100.000 | 2019-11-27 |
| IM Cédulas 5 Aktiboak Titulizatzeko Fondoa | 2005-06-15 | 500.000 | 500.000 | 2020-06-15 |
| IM Cédulas 7 Aktiboak Titulizatzeko Fondoa | 2006-03-31 | 625.000 | 625.000 | 2021-03-31 |
| | | 1.225.000 | 1.225.000 | |

Jaulkitako zedulen urteko interes-tasa nominala % 3,50 eta % 4,12 artekoa da, 2017ko abenduaren 31n (% 3,50 eta % 4,12 bitartekoa 2016ko abenduaren 31n). “Beste sektore egoiliar batzuk – Balorazioagatiko doikuntzak” epigrafean, 120.974 mila euro agertzen dira 2017ko abenduaren 31n (164.857 mila euro 2016ko abenduaren 31n). Funtsean, hipoteka-zedulek arrazoizko balioan izandako aldaketei dagozkio. Aldaketok interes-tasaren arriskuaren ondorioz gertatu dira, eta, esan beharra dago, arrisku horri kontabilitate-estaldura eman zaiola, 28. oharrean azaldu denez.

“Beste sektore egoiliar batzuk – Eperako gordailuak – Bestelakoak” atalean, 149.061 mila euroko zenbatekoa dago 2017ko abenduaren 31n (174.204 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n). IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-fondoen bidez bonuen jaulkipenean lortutako finantzaketaren zenbateko garbia da hori. Fondo horiei hainbat mailegu atxiki zitzaizkien, eta, baja emateko baldintzak betetzen ez dituztenez, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n balantzean jarraitzen dute (24. oharra).

Epigrafe honetan, fondo horiei ekarritako maileguen saldo bizia, 606.799 mila eurokoa (666.452 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n), sartu da batik bat, Taldeak harpidetu dituen 422.209 mila euroko (454.709 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n) bonuen zenbatekoa kendu ondoren.

Esan beharra dago, IM Caja Laboral 2 ATF fondoan harpidetutako bonuak berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa duela Taldeak, Eurosistemako kreditu-eragiketetan.

2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan eta Espainiako Bankuaren 2010eko azaroaren 30eko 7/2010 Zirkularrean ezarritakoari jarraikiz, LABORAL Kutxak hipoteka-zedulak jaulkitzen dituenez, hipoteka-zedula eta -bonuak jaulkitzen dituzten erakundeei aplikatzeko kontabilitate-erregistro bereziari buruzko informazioa txertatu dugu, urteko kontu hauen 70. oharrean.

Jarraian, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan “Bezeroen gordailuak” epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Dibisaren arabera: | | |
| Eurotan | 18.584.838 | 17.869.450 |
| Dolarretan | 26.437 | 23.582 |
| Libera esterlinatan | 1.152 | 711 |
| Franko suitzarretan | 126 | 199 |
| Yen japoniarretan | 112 | 33 |
| Gainerakoetan | 189 | 225 |
| | 18.612.854 | 17.894.200 |
| Muga-egunaren arabera: | | |
| Agerikoak | 13.662.497 | 12.335.351 |
| Hilabetera artekoak | 736.099 | 985.393 |
| Hilabete 1 eta 3 bitartekoak | 631.524 | 1.222.154 |
| 3 hilabete eta urtebete bitartekoak | 2.070.865 | 3.156.536 |
| 1 eta 5 urte bitartekoak | 1.316.938 | 318 |
| 5 urtetik gorakoak | 11.761 | - |
| Zehaztu gabeko muga-egunekoak | 34.701 | - |
| | 18.464.385 | 17.699.752 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | 148.469 | 194.448 |
| | 18.612.854 | 17.894.200 |

d) Zorra adierazten duten balore jaulkiak

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako "Balore negoziagarriek ordezkatutako zorrak" epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ordaindukoak eta efektuak | - | - |
| Bihurgarriak ez diren beste balore batzuk | - | - |
| Hipoteka-tituluak | 299.550 | 1.024.810 |
| Balore propioak | (150.000) | (850.000) |
| Balorazioagatiko doikuntzak | - | - |
| | 149.550 | 174.810 |

<u>Hipoteka-tituluak</u>

2006an zehar, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 1, ATF titulizazio-fondora. 2008ko eta 2011ko ekitaldietan ere, titulizazio-bonuak jaulkitzeko mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 2 ATF eta IM Caja Laboral Empresas 1 ATF titulizazio-fondoetara —azken hori 2016ko ekitaldian likidatu zen aurretiaz (26. oharra)—, eta Taldeak guzti-guztiak harpidetu zituen. Harpidetutako bonu horiek berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa du Taldeak, Eurosistemako kreditu-eragiketetan, hain zuzen ere.

2017ko abenduaren 31n, 149.549 mila eurokoa da IM Caja Laboral 1 ATF eta IM Caja Laboral 2 ATF titulizazio-fondoen bitartez jaulki diren eta Taldekoak ez diren hirugarrenek harpidetu dituzten titulizazio-bonuen zenbateko efektiboa (174.810 mila eurokoa, 2016ko abenduaren 31n). Bonuok 2049ko urrian eta 2051ko urtarrilean mugaeguneratuko dira, hurrenez hurren, eta Euriborrari hurrenez hurren % 0,15 eta % 0,21 eta % 0,30 eta %1 bitarteko diferentziala gehituta ateratzen den interes-tasa sortzen dute urtean.

2014ko abenduaren 31n, atal honetan 150 milioi euroko balio nominala agertzen zen erregistratuta, hipoteka-zedulen 2 jaulkipenen ondorioz. Europako Inbertsio Bankuak harpidetu zituen osotasunean eta 2019an eta 2020an mugaeguneratuko dira.

2015eko ekitaldian zehar, Entitate Nagusiak exekutatu egin zuen Europako Inbertsio Bankutik lortutako finantzaketa kitatzearen ondorioz hipoteka-zedulen jaulkitzaileari esleitzen zaion erosteko aukera. Hortaz, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, kapitulu horrek ez du inolako saldorik, hipoteka-zedula horien balio nominala “Balore propioak” atalean jasota dagoelako.

2020an eta 2019an mugaeguneratzen diren Europako Inbertsio Bankuak harpidetutako baloreen errendimendua interes-tasa aldakorraren bidez zegoen zehaztuta, 3 hilerako Euriborrari % 5,50eko eta % 3,35eko marjina gehituta ateratzen den balio nominala aintzat hartuta, eta hiru hilean behin ordaintzen da.

Era berean, 2012ko ekitaldian Entitate Nagusiak 700 milioi euronako bi hipoteka-zedula jaulki zituen —2016ko eta 2017ko ekitaldietan mugaeguneratzen dira—. Horiek guztiak autozorro gisa gorde ziren “Balio propioak” atalean, Europako Banku Zentralarekin birdeskontuko lineak eskuratzeko berme kolateral gisa erabiltzeko.

Ondoren, "Zorra adierazten duten balore jaulkiak" epigrafean 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 174.810 | 166.333 |
| Jaulkipenak | - | - |
| Hirugarrenek harpidetutako baloreak | - | 8.444 |
| Amortizazioak | (725.144) | (700.000) |
| Taldearen balore propioak | 700.000 | 700.000 |
| Balorazioagatiko doikuntzak | (117) | 33 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 149.549 | 174.810 |

e) Beste finantza-pasibo batzuk

Hona hemen 2017ko eta 2016ko abenduaren 31ko balantzeetako "Beste finantza-pasibo batzuk" epigrafearen saldoak duen xehakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ordaindu beharreko obligazioak | 7.159 | 7.075 |
| Jasotako fidantzak | 3.672 | 3.648 |
| Konpentsazio-ganberak | 30.063 | 25.881 |
| Bilketa-kontuak | 97.992 | 94.565 |
| Kontu bereziak | 1.224 | 864 |
| Finantza-bermeen ondoriozko periodokatzeak | 2.544 | 3.217 |
| Beste kontzeptu batzuk | 87.636 | 80.668 |
| | 230.290 | 215.918 |

## 37. Aseguru- eta berraseguru-kontratuek babestutako pasiboak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Aseguruetarako hornidura teknikoak | 496.281 | 478.136 |
| Kontsumitu gabeko primetarako eta uneko arriskuetarako hornidura teknikoak: | 80.069 | 69.424 |
| Zuzeneko asegurua | 80.069 | 69.424 |
| Hornidura tekniko matematikoak | 416.212 | 408.712 |
| Zuzeneko asegurua | 416.212 | 408.712 |
| Bizi-aseguruetarako hornidura teknikoak, inbertsioaren arriskua hartzaileek hartzen dutenean bere gain: | 326 | 355 |
| Zuzeneko asegurua | 326 | 355 |
| Prestazioetarako hornidura teknikoak: | 83.265 | 80.066 |
| Zuzeneko asegurua | 83.265 | 80.066 |
| Mozkinetako partaidetzetarako eta estornuetarako hornidura teknikoak: | 35 | 195 |
| Zuzeneko asegurua | 35 | 195 |
| Lagatako berraseguruagatik jasotako gordailuak | - | - |
| | 579.907 | 558.752 |

## 38. Hornidurak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | 41.504 | 35.830 |
| Enplegatuentzako epe luzerako bestelako ordainsariak | - | - |
| Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | - | - |
| Emandako konpromisoak eta bermeak | 20.992 | 25.411 |
| Gainerako hornidurak | 129.379 | 147.268 |
| | 191.875 | 208.509 |

Ondoren, "Hornidurak" epigrafean 2017 eta 2016 ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak | Enplegatuentzako epe luzerako bestelako ordainsariak | Ordaintzeko dauden zergen ondoriozko prozesu-gaiak eta auziak | Emandako konpromisoak eta bermeak | Gainerako hornidurak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **2016ko abenduaren 31n** | | | | | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 25.879 | - | - | 31.187 | 145.590 | 202.656 |
| Gehikuntzak, dauden horniduren igoerak barne | 21.437 | - | - | 29.305 | 28.211 | 78.953 |
| (–) Erabilitako zenbatekoak | (11.486) | - | - | - | (17.935) | (29.421) |
| (–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian berrinbertituak | - | - | - | (34.224) | (19.905) | (54.129) |
| Beste mugimendu batzuk | - | - | - | (857) | 11.307 | 10.450 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 35.830 | - | - | 25.411 | 147.268 | 208.509 |
| **2017ko abenduaren 31n** | | | | | | |
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 35.830 | - | - | 25.411 | 147.268 | 208.509 |
| Gehikuntzak, dauden horniduren igoerak barne | 19.704 | - | - | - | 12.779 | 32.483 |
| (–) Erabilitako zenbatekoak | (12.775) | - | - | - | (38.501) | (51.276) |
| (–) Erabili gabeko zenbatekoak, epealdian berrinbertituak | (1.255) | - | - | (4.443) | - | (5.698) |
| Beste mugimendu batzuk | - | - | - | 24 | 7.833 | 7.857 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 41.504 | - | - | 20.992 | 129.379 | 191.875 |

a) Pentsioak eta enplegu-ostean zehaztutako prestazioen bestelako obligazioak

Entitate Nagusiak PD II, PD 58, PD 59 eta Sare Berria planera atxikitzeko borondatezko erabakien ondoriozko etorkizuneko konpromisoak ditu bazkide batzuekin hartuta, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n. Horrela, bada, benetan erretiratu bitartean jarduneko langileek jasoko dituzten soldata-osagaien eta beste gizarte-zama batzuen ondoriozko konpromisoei erantzuteko fondoak ditu eratuta Entitate Nagusiak. Konpromisook plana ezarri zenetik bazkideek Entitate Nagusiari zerbitzu emateari uzten dioten egunera bitartean sortutakoak izango dira.

Entitate Nagusiak enplegu ondoko ordainketetan hartutako konpromisoen egungo balioa eta konpromiso horiek nola estaltzen ziren azalduko dugu jarraian:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Hartutako konpromisoak | 41.504 | 35.830 |
| | 41.504 | 35.830 |
| Estaldurak | | |
| Barruko fondoak | 41.504 | 35.830 |
| | 41.504 | 35.830 |

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, enplegu ondoko ordainketen ondoriozko konpromisoak estaltzeari buruzko etorkizuneko prestazio-fluxuak baloratu dira. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearena hartu da kalkulua egiteko metodotzat, eta erretiratzeko eskubidea ematen duen lehena erretiratzeko adintzat.

Hona hemen balorazio aktuarialean kontuan hartutako hipotesi finantzario-aktuariala:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Deskontu-tasa | % 0 | % 0 |
| Kontsumo-aurrerakin gordinaren etorkizunerako hazkundea | % 0 | % 0 |
| Prestazioen hazkundea | % 0 | % 0 |
| KPIaren hazkundea | % 2 | % 2 |
| Erretiro-adina | Ahalik eta adinik txikienean | Ahalik eta adinik txikienean |

Obligazioen deskonturako interes-tasa zehazteko, konpromisoaren iraupena (1,8 urtekoa) hartu da kontuan. Erreferentziazko kurba kalkulatzeko, berriz, 2017ko abenduaren 31ko Euro Denominated Corporate Bonds AA kurba hartu da erreferentziatzat (Iturria: Bloomberg).

b) Gainerako hornidurak

"Hornidurak – Gainerako hornidurak” epigrafeak gastu posibleei edo galerei aurre egiteko edo abian diren erreklamazio eta auzietatik datozen erantzukizun probable edo ziurrei edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharrei erantzuteko hornidurak hartzen ditu, besteak beste, bere baitan. Epigrafe horren saldoa zenbatesteko, kalkulu-prozedura zuhur eta sendoak erabili dira, estali behar dituzten betebeharrek dakarten zalantza kontuan hartuta.

Taldearen politika orokorraren arabera, galtzeko arrisku probablea duten legezko prozesuetarako hornikuntzak erregistratzen dira; galtzeko arriskua posiblea edo urrunekoa bada, ordea, ez da hornikuntzarik erregistratzen. Hornitu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, dagokion erreklamazioa likidatzeko behar izango den zenbatekoa zenbatesten da ahalik eta doien. Horretarako, besteak beste, gertaeren banakako azterketa eta barneko eta kanpoko lege-aholkularien iritziak hartzen dira aintzat, antzeko demanden ondoriozko galeren batez besteko historikoa ikusirik. Taldeari etekin ekonomikoak ekarriko dizkioten baliabideen behin betiko irteera-data betebehar bakoitzaren araberakoa izango da. Batzuetan, betebeharrek ez dute likidazio-epe finkorik eta, beste batzuetan, abian diren lege-prozesuen mende izaten dira.

Taldeak erreklamazio edo lege-prozesu bakoitzari lotutako betebeharrak zenbatetsi ditu, eta, beharrezkoa izan denean, jasotako erreklamazioetatik edo legezko prozesu judizialetatik etor litezkeen pasiboak arrazoiz estaltzeko hornikuntza egokiak aitortu ditu.

Esan beharra dago, 2016ko abenduaren 21ean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zoru-klausula deiturikoen gainean argitaratu zuen epaiaren ondorioz eta kontsumitzaileak babesteko neurri urgenteei buruzko 2017ko urtarrilaren 20ko Errege Lege Dekretua indarrean sartu delarik, Entitate Nagusiak handitu egin zituela 2016an kontzeptu horretan zituen hornidurak, 11 milioi euroan alegia.

## 39. Fondo propioak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n duen banakapena:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Kapitala | 727.167 | 712.957 |
| Bestelako erreserbak | 809.891 | 766.469 |
| (Norberaren akzioak) | (1.431) | (1.393) |
| Erakunde nagusiko jabeei egotz dakiekeen emaitza | 112.849 | 103.473 |
| (Konturako dibidenduak) | (29.113) | (28.644) |
| | 1.619.363 | 1.552.862 |

### Kapitala

Entitate Nagusiaren kapital soziala lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta kooperatiba bazkidetuek egindako ekarpenek osatzen dute. Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera (1. oharra), bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu, pertsona juridikoa denean, eta % 2,5, pertsona fisikoa denean. Bazkideek zor sozialetan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da.

Ekitaldi bakoitzean, Kontseilu Errektoreak ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa baino sei puntu handiagoa. 2017ko eta 2016ko ekitaldietan urteko interesa % 4koa izan da.

Ondoren, Entitate Nagusiaren "Kapitala" epigrafeko saldoan 2017ko eta 2016ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoak | 712.957 | 708.403 |
| Aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketatik sortutako kooperatiba-itzulkinak (4. oharra) | 19.583 | 18.845 |
| Uneko ekitaldiko kapital sozialari egindako ekarpenetatik kapitalizatutako ordainketak | - | - |
| Kapital sozialerako ekarpenak | | |
| - Kooperatiba elkartuenak | 463 | 2.318 |
| - Bazkideenak eta beste batzuenak | 1.749 | 3.490 |
| Ken, bajengatiko ekarpenen likidazioa | | |
| - Kooperatiba elkartuenak | (913) | (5.637) |
| - Bazkideenak eta beste batzuenak | (6.672) | (14.462) |
| Finantza-pasiboaren izaerako kapitalerako intsuldaketak | - | - |
| Ekitaldi-itxierako saldoak | 727.167 | 712.957 |

2017ko abenduaren 31n, Lagun-Aro Borondatezko Gizarte Aurreikuspenerako Erakundea da zuzenean edo zeharka Entitate Nagusiaren kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra; % 15,26koa da partaidetza (2016an % 15,19koa).

2013ko eta 2012ko ekitaldietan, kapital-ekarpeneko bi jaulkipen egin zituen Entitate Nagusiak.

i) Lehenengo jaulkipena lan-bazkideei, bazkide kolaboratzaileei eta kooperatiba elkartuei zuzendu zitzaien, eta 2012ko apiriletik urrira bitarteko harpidetze-aldia izan zuen. 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, lehen jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 36.874 eta 37.480 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Lehen jaulkipen horretan, urtean % 7,5eko ordainketa finkoa lortu zen, 2015eko abenduaren 15era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ekarpen arruntetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

ii) Bigarren jaulkipena 2012ko abenduan abiatu zen, eta Entitatearekin lotura zehatz bat duten bezeroei zuzendu zitzaien. 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, bigarren jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 56.511 eta 57.095 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Bigarren jaulkipen horretarako, urtean % 6ko ordainketa finkoa zehaztu zen, 2014ko abenduaren 30era arte. Hortik aurrera, Entitate Nagusiko Batzar Nagusiak gainerako ekarpen arruntetarako onartu zuen tasaren pareko ordainketa ezarri zen.

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

Ekarpenak (elkarte-zatiak) inter vivos eskualdagarriak dira, baina baldintza batekin: ekarpena jasotzen duena bazkide izatea edo bazkide bihurtzea, Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarritako baldintzen arabera. Bestalde, mortis causa oinordetza bidez ere transmiti daitezke, eskubidedunak bazkideak badira edo bazkide bihurtzen badira sei hileko epean. Bazkideren batek baja hartuz gero, bazkide horrek, edo dagozkion eskubidedunek, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eska dezakete. Kasu horretan, behin betiko baja-egunaren osteko lehen Batzar Nagusiak onartutako balantzearen arabera zehaztuko da ekarpenaren balioa, eta, bazkide izateari utzi izanaren arrazoiaren arabera, gerta daiteke zenbatekoa txikitzea, Kontseilu Errektoreak erabakitako ehunekoa aplikatuz. Halaber, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du ekarpena itzultzeko epea. Kasu guztietan, baja-egunetik bost urte igaro orduko itzuli beharko da, eta, bazkidearen bajaren arrazoia heriotza bada, urtebete baino lehen, heriotza-egunetik zenbatzen hasita.

2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren Seigarren Azken Xedapenak hainbat aldaketa ekarri zituen, kreditu-kooperatiben arautegia onartu zuen 84/1993 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horien bidez, kreditu-kooperatibek aukera dute estatutuetan bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa mugatzeko. Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarri da, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango dela Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta itzultzea egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, erabat itzuli behar den gutxieneko kapital soziala 10.000 mila eurokoa da.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren, ISGA Inmuebles SAren eta Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLUren esku dauden mendeko erakundeen kapital-tresnak, horien balio nominala eta egun horietan egin gabe dauden ordainketak honako hauek dira:

| | 2017 | | | 2016 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Akzio-kop. | Balio nominala (eurotan) | Egin gabe dauden ordainketak | Akzio-kop. | Balio nominala (eurotan) | Egin gabe dauden ordainketak |
| Seguros Lagun Aro Vida SA | 285.000 | 111,88 | 8.565 | 285.000 | 111,88 | 8.565 |
| Seguros Lagun Aro SA | 87.360 | 90,15 | - | 87.360 | 90,15 | - |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | 1.045.000 | 6,01 | - | 1.045.000 | 6,01 | - |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | 250.000 | 10 | - | 250.000 | 10 | - |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | 1.237.500 | 6 | - | 1.237.500 | 6 | - |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | 10.000 | 1 | - | 10.000 | 1 | - |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | 995.889 | 1 | - | 995.889 | 1 | - |
| Credilka SA (***) | - | - | - | 700.000 | 1 | - |
| Piensos del Norte SA (*) | - | - | - | - | - | - |
| ISGA Inmuebles SA (*) | 60.000 | 1 | - | 60.000 | 1 | - |
| Copesa Montecerrao SL (**) | | | | | | |

(*) 2016ko ekitaldian, Piensos del Norte SA sozietatea xurgatu du ISGA Inmuebles SAk.

(**) 2016ko ekitaldian zehar, LABORAL Kutxak Copesa Montecerrao SLn zuen partaidetza eskuratu zuen ISGA Inmuebles SAk. Aldi berean, Copesa Montecerrao SL likidatu egin zen 2016ko ekitaldian.

(***) 2017ko ekitaldian, Credilka SA sozietatea likidatu da.

Bestelako erreserbak

Balantze bateratuetako "Bestelako erreserbak" epigrafeko saldoa, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioetan metatutako erreserbak edo galerak: | 144 | 93 |
| Erakunde elkartuak | 144 | 93 |
| Erakunde taldeaniztunak | - | - |
| Errebalorizazio-erreserbak: | - | - |
| Entitate Nagusia | - | - |
| Beste batzuk: | 809.747 | 766.376 |
| Entitate Nagusiari egotzitako erreserbak (galerak) | 940.963 | 840.292 |
| Mendeko erakundeei egotzitako erreserbak (galerak) | (131.216) | (73.916) |
| | 809.891 | 766.469 |

Hona hemen “Bestelako erreserbak” epigrafearen saldoan 2017ko eta 2016ko ekitaldietan gertatutako mugimenduak:

| | 2017 | 2016 |
|---|---|---|
| Ekitaldi-hasierako saldoa | 766.469 | 722.703 |
| Aurreko ekitaldiko emaitzaren banaketa | 43.496 | 42.895 |
| Bazkideen ekarpen garbiak | 3 | 15 |
| Beste batzuk | (77) | 856 |
| Ekitaldi-itxierako saldoa | 809.891 | 766.469 |

1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak —gero Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 1990eko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak partzialki aldatu zuen— kreditua antolatzeko oinarri berriak ezarri zizkien erakunde horiei. 1993ko ekitaldian, berriz, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen garapenerako arautegia onartu zen, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren bidez. Ekitaldian eskuragarri dagoen soberakina banatzeko irizpideak 4. oharrean jaso ditugu.

Nahitaezko Erreserba Fondoa

"Bestelako erreserbak" epigrafeak Nahitaezko Erreserba Fondoaren 623.074 mila euroak eta 583.906 mila euroak biltzen ditu, hurrenez hurren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n. 13/1989 Legearen arabera, Nahitaezko Erreserba Fondora bideratu behar zen ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 50 gutxienez. Baina, 20/1990 Legeak aldatu egin zuen aurreko araua, eta ezarri zuen ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 20 bideratu behar zela, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondora. Entitate Nagusiaren Estatutuetan ezarrita dagoen banaketa ekitaldian erabilgarri dagoen soberakinaren % 50ekoa da gutxienez, eta 4. oharrean banakatu da.

Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserba

13/1989 Legea indarrean sartu arte, kreditu-kooperatiba kalifikatuek gutxienez ekitaldiko soberakinaren % 15 bideratu behar zuten erreserba horretara. 13/1989 Legeak eta 20/1990 Legeak, ordea, ez dute zehazten ekitaldiko soberakinaren banaketa egitean erreserbei ezer zuzkitu behar zaienik, kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko.

Errebalorizazio-erreserba

Entitate Nagusiak bere egin zuen aktibo materialen errebalorizazioaz Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrak dioena. Horren arabera, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera erakundeek aktibo materialeko edozein elementu arrazoizko balioan baloratu dezakete, baldin eta aktiboak erabilera askekoak badira.

Borondatezko erreserbak

| Mailegu ez-aukeragarriak (b) | 3.011 | 3.087 |
| Aukeragarriak izateko baldintzak betetzen dituzte, salbu eta 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan xedatutako muga | 1.565 | 1.996 |
| Gainerako mailegu ez-aukeragarriak | 1.446 | 1.091 |
| Mailegu aukeragarriak (c) | 7.301 | 7.549 |
| Hipoteka-bonuen jaulkipenak estaltzen dituzten maileguak | - | - |
| Hipoteka-zedulen jaulkipenak estaltzeko gauza diren maileguak | 7.301 | 7.549 |
| Zenbateko ez-konputagarriak (d) | 8 | 9 |
| Zenbateko konputagarriak | 7.293 | 7.540 |

(a) Entitatearen aldeko hipoteka bidez bermatutako maileguetan —hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko egiaztagirien bidez eskuratutakoak ere kontuan hartuta— erabilita eta kobratu gabe dagoen printzipala, balantzetik baja eman arren, eta zenbateko horrek azken tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa —loan to value— edozein izanik ere.

(b) Hipoteka bidez bermatutako maileguak, hirugarrenei transferitu gabeak eta jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak, eta ez dituztenak betetzen hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarritzat jotzeko baldintzak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

(c) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(d) 716/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera, hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulen jaulkipena estaltzeko zenbakarriak ez diren mailegu aukeragarrien zenbatekoa.

## URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2017KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
**(Mila eurokotan adierazita)**

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n hipoteka-mailegu eta -kredituek hainbat zenbatekoko atributuen arabera duten banakapena aurkeztuko dugu:

| | Milioi eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | | 2016 | |
| | Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a) | *Horietatik:* mailegu aukeragarriak (b) | Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a) | *Horietatik:* mailegu aukeragarriak (b) |
| **GUZTIRA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| **1 ERAGIKETEN JATORRIA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 1.1 Entitateak sortuak | 10.235 | 7.244 | 10.547 | 7.486 |
| 1.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 77 | 57 | 89 | 63 |
| 1.3 Gainerakoetan | | | - | - |
| **2 DIBISA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 2.1 Euroa | 10.312 | 7.301 | 10.636 | 7.549 |
| 2.2 Gainerako dibisak | - | - | - | - |
| **3 ORDAINKETAREN EGOERA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 3.1 Normala | 9.667 | 7.097 | 9.880 | 7.486 |
| 3.2 Beste egoera batzuk | 645 | 204 | 756 | 63 |
| **4 BATEZ BESTEKO HONDAR-EPEMUGA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 4.1 10 urtera artekoa | 4.503 | 2.967 | 4.497 | 2.961 |
| 4.2 10 eta 20 urte bitartekoa | 5.803 | 4.330 | 6.119 | 4.577 |
| 4.3 20 eta 30 urte bitartekoa | 6 | 4 | 20 | 11 |
| 4.4 30 urtetik gorakoa | - | - | - | - |
| **5 INTERES-TASAK** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 5.1 Finkoa | 323 | 160 | 176 | 64 |
| 5.2 Aldakorra | - | - | - | - |
| 5.3 Mistoa | 9.989 | 7.141 | 10.460 | 7.485 |
| **6 TITULARRAK** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 6.1 Pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduerak) | 1.141 | 1 | 1.280 | 2 |
| *Horietatik: Eraikuntza eta higiezinen sustapena* | *86* | - | *128* | - |
| 6.2 Gainerako familiak | 9.171 | 7.300 | 9.356 | 7.547 |
| **7 BERME-MOTA** | **10.312** | **7.301** | **10.636** | **7.549** |
| 7.1 Bukatutako aktiboak/eraikinak | 10.213 | 7.290 | 10.501 | 7.536 |
| 7.1.1 Etxebizitzak | 9.622 | 7.270 | 9.867 | 7.514 |
| *Horietatik: Babes ofizialeko etxebizitzak* | *280* | *201* | *310* | *228* |
| 7.1.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | 326 | 16 | 345 | 18 |
| 7.1.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | 265 | 4 | 289 | 4 |
| 7.2 Eraikitze-bidean dauden eraikinak/aktiboak | 8 | - | 6 | - |
| 7.2.1 Etxebizitzak | 8 | - | 6 | - |
| *Horietatik: Babes ofizialeko etxebizitzak* | - | - | - | - |
| 7.2.2 Bulegoak eta lokal komertzialak | - | - | - | - |
| 7.2.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak | - | - | - | - |
| 7.3 Lursailak | 91 | 11 | 129 | 13 |
| 7.3.1 Hiri-lurzoru finkatua | 33 | 6 | 104 | 6 |
| 7.3.2 Gainerako lursailak | 58 | 5 | 25 | 7 |

(a) Hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketari lotuta ez dauden hipoteka-maileguetatik erabilitako eta kobratu gabeko printzipala, azken tasazioaren zenbatekoaren gainean arrisku osoaren ehunekoa –loan to value– edozein dela ere.

(b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

Errege Dekretu hartako 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n hipoteka-tituluen jaulkipena estaltzeko kontuan hartuko den zenbatekoa 7.293 eta 7.540 milioi eurokoa da, hurrenez hurren.

Balio nominalari eta eguneratuari dagokienez —azken hori Errege Dekretu horretako 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz kalkulatu da— Entitate Nagusiak ez du hipoteka-bonuen jaulkipenik, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n. Bestalde, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n zorroan dauden eta hipoteka-partaidetzen bidez edo hipoteka-transmisioko ziurtagirien bidez mugitu direnen balio nominala 608 eta 859 milioi eurokoa da, hurrenez hurren.

Hipoteka-mailegu eta -kreditu ez-aukeragarri guztien balio nominala 3.011 milioi eurokoa da, 2017ko abenduaren 31n (3.087 milioi eurokoa, 2016ko abenduaren 31n). Horien artean, 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan ezarritako mugak betetzen ez dituztelako aukeragarriak ez direnak baina aukeragarrien gainerako baldintzak (arau horretako 4. artikuluan azaltzen direnak) betetzen dituztenak 1.565 eta 1.996 milioi eurokoak dira, hurrenez hurren, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n.

Hona hemen hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hautagarri diren hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominalen banaketa, arriskuak 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n egindako azken tasazio eskuragarriaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera:

2017ko abenduaren 31n

| | Milioi eurokotan | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Eskura dagoen azken tasazioaren —*loan to value*— gainean erabilitako printzipala (b) | | | | |
| | 2017 | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa | % 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa | % 80koa baino handiagoa | GUZTIRA |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak (a)** | **2.328** | **2.677** | **2.296** | **-** | **7.301** |
| - Etxebizitzaren gainekoak | 2.310 | 2.661 | 2.287 | - | 7.258 |
| - Gainerakoak | 18 | 16 | 9 | - | 43 |

2016ko abenduaren 31n

| | Milioi eurokotan | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Eskura dagoen azken tasazioaren —*loan to value*— gainean erabilitako printzipala (b) | | | | |
| | 2016 | | | | |
| | % 40koa edo txikiagoa | % 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa | % 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa | % 80koa baino handiagoa | GUZTIRA |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak (a)** | **2.368** | **2.708** | **2.473** | **-** | **7.549** |
| - Etxebizitzaren gainekoak | 2.350 | 2.689 | 2.463 | - | 7.502 |
| - Gainerakoak | 18 | 19 | 10 | - | 47 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) Loan to value ratioa lortzeko, eragiketa bakoitzean erabilitako printzipala bermearen azken tasazioaren zenbatekoarekin zatitzen da.

Hipoteka-bonu eta hipoteka-zedula aukeragarriak eta ez-aukeragarriak jaulkitzea babesten duten hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominaleko mugimenduak hauek dira, 2017an eta 2016an:

| | Milioi eurokotan | |
|---|---|---|
| | Mailegu aukeragarriak (a) | Mailegu ez-aukeragarriak (b) |
| **1 Saldoa 2016ko ekitaldia irekitzean** | 7.911 | 3.034 |
| **2 Epealdiko bajak** | 1.160 | 734 |
| 2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala | 9 | 28 |
| 2.2 Ezerezte aurreratuak | 105 | 130 |
| 2.3 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | - | - |
| 2.4 Gainerako bajak | 1.046 | 576 |
| **3 Epealdiko altak** | 798 | 787 |
| 3.1 Entitateak sortuak | 446 | 227 |
| 3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | - | - |
| 3.3. Gainerako altak | 352 | 560 |
| 3.4. Negozio-konbinazioen ondoriozko altak | - | - |
| **4 Saldoa 2016a ixtean** | 7.549 | 3.087 |
| **1 Saldoa 2017a irekitzean** | 7.549 | 3.087 |
| **2 Epealdiko bajak** | 574 | 621 |
| 2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala | 15 | 21 |
| 2.2 Ezerezte aurreratuak | 113 | 78 |
| 2.3 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 2 | 1 |
| 2.4 Gainerako bajak | 444 | 521 |
| **3 Epealdiko altak** | 326 | 545 |
| 3.1 Entitateak sortuak | 324 | 542 |
| 3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak | 2 | 3 |
| 3.3. Gainerako altak | - | - |
| 3.4. Negozio-konbinazioen ondoriozko altak | - | - |
| **4 Saldoa 2017 ixtean** | 7.301 | 3.011 |

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, 716/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluak ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) Hipoteka bidez bermatutako maileguak, hirugarrenei transferitu gabeak eta jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak, eta ez dituztenak betetzen hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarritzat jotzeko baldintzak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulen jaulkipena estaltzen duten hipoteka-mailegu eta -kredituen saldo erabilgarriak hauek dira, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n:

| | Milioi eurokotan | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| | Printzipal erabilgarriak (a) | Printzipal erabilgarriak (a) |
| **Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten hipoteka-maileguak** | **33** | **28** |
| - Aukeragarriak izan daitezkeenak (b) | - | - |
| - Ez-aukeragarriak | 33 | 28 |

(a) Hirugarrenei saldu ez zaizkien eta jasotako finantzaketari lotuta ez dauden hipoteka-mailegu guztietan konprometitutako zenbatekoak (muga) ken erabilitako zenbatekoak, azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko arrisku osoaren ehunekoa (loan to value) edozein dela ere. Etxebizitzak saltzen direnean soilik sustatzaileei ordaintzen zaizkien zenbatekoak ere barne hartzen ditu saldo erabilgarriak.

(b) Hipoteka-bonuak eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak izan daitezkeen maileguak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluaren arabera.

2017ko eta 2016ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak ez du hipoteka-zedula biziak jaulkitzeko ordezkapen-aktiborik identifikatuta. Izan ere, egindako jaulkipenen ehunekoa jaulkipenak babesteko aukeratzeko moduko aktiboen gainetik dago data horietan, % 18,83an eta % 27,49an, hurrenez hurren. 1981eko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen, Hipoteka Merkatua Arautzekoaren, 16. artikuluan % 80an du gehienezko kopurua ezarrita.

b) Eragiketa pasiboak

Segidan, 2017ko eta 2016ko abenduaren 31n Entitate Nagusiaren hipoteka-mailegu eta -kredituen zorrotik egindako eta kolaterizatutako jaulkipenak banakatuko ditugu:

| | Milioi eurokotan | | | |
|---|---|---|---|---|
| | 2017 | | 2016 | |
| **Hipoteka-tituluak** | **Balio nominala** | **Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)** | **Balio nominala** | **Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)** |
| **1 Jaulkitako hipoteka-bonuak** | - | | - | |
| **2 Jaulkitako hipoteka-zedulak (a)** | **1.375** | | **2.075** | |
| *Horietatik: pasiboan onartuak* | 1.225 | | 1.225 | |
| 2.1 Zorra adierazten duten baloreak. Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | 150 | | 850 | |
| 2.1.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | 75 | | 700 | |
| 2.1.3 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | 75 | | 75 | |
| 2.1.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | 75 | |
| 2.1.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.1.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2 Zorra adierazten duten baloreak. Gainerako jaulkipenak | - | | - | |
| 2.2.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.3 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.2.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3 Gordailuak | 1.225 | | 1.225 | |
| 2.3.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | 100 | | - | |
| 2.3.3 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga | 500 | | 100 | |
| 2.3.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga | 625 | | 1.125 | |
| 2.3.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga | - | | - | |
| 2.3.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga | - | | - | |
| **3 Jaulkitako hipoteka-partaidetzak (b)** | - | | - | |
| 3.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | | - | |
| 3.2 Gainerako jaulkipenak | - | | - | |
| **4 Jaulkitako hipoteka-transmisioko ziurtagiriak (b)** | 608 | 235 | 859 | 243 |
| 4.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak | - | - | - | - |
| 4.2 Gainerako jaulkipenak | 608 | 235 | 859 | 243 |

(a) Hipoteka-zeduletan, entitateak jaulki eta amortizatu gabe daudenak ere barne hartzen dira, nahiz eta pasiboan erregistratuta ez egon (hirugarrenei saldu ez zaizkielako edo berrerosi egin direlako).

(b) Aktiboan erregistratutako (eta balantzean eutsitako) hipoteka-maileguei eta hipoteka-kredituei soilik dagozkien hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko ziurtagirien zenbatekoa

## 71. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa. Hirugarren xedapen gehigarria. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen "informatzeko beharra"

Jarraian, 2017ko ekitaldian hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdiari buruzko informazioa emango dugu, honako arau hauek aintzat hartuta: batetik, 31/2014 Legea, abenduaren 3koa, gobernu korporatiboa hobetzeari buruzkoa, 15/2010 Legearen, uztailaren 5ekoaren, Hirugarren Xedapen Gehigarria aldatzen duena —azken Lege horrek 2/2004 Legea aldatu zuen, abenduaren 29koa, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen zituena—; eta bestetik, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Bakarra, eskatutako informazio-betebeharra betetzeari buruzkoa.

| | Egunak | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia | 10 | 15 |
| Ordaindutako eragiketen ratioa | 10 | 14 |
| Ordaintzeko eragiketen ratioa | 22 | 17 |

| | Zenbatekoa (mila eurokotan) | |
|---|---|---|
| | 2017 | 2016 |
| Egindako ordainketak guztira | 281.418 | 322.193 |
| Ordaintzekoak guztira | 5.643 | 2.578 |

## 72. Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako negozio-konbinazioak eta partaidetzen eskurapenak

a) Erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitaleko eskurapenei buruzko informazioa

2017ko ekitaldian zehar, ez da Taldearentzat garrantzizkoa den eskurapenik gertatu erakunde mendeko, taldeaniztun edo elkartuetako kapitalean.

b) Negozio-konbinazioak

2017ko ekitaldian zehar, Taldearentzat ez da garrantzizko negozio-konbinaziorik gertatu.

# CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO



## TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN XEHETASUNAK, 2017KO ABENDUAREN 31KOAK
**(Mila eurokotan adierazita)**

| | | | 2017 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzako erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Mendeko erakundeak*** | | | | | | | | | | | |
| Seguros Lagun-Aro Vida SA (a) | Bilbo | Aseguruak | % 76 | % 24 | 25.943 | - | 25.943 | 546.386 | 65.361 | 69.886 | 2.319 |
| Seguros Lagun-Aro SA | Bilbo | Aseguruak | % 49,64 | % 50,36 | 17.649 | - | 17.649 | 220.394 | 59.873 | 92.280 | 6.971 |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Arrasate | Inbertsio-fondoen kudeatzailea | % 100 | - | 6.281 | - | 6.281 | 12.753 | 8.458 | 16.128 | 921 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Arrasate | Pentsio-fondoen kudeatzailea | % 100 | - | 2.500 | - | 2.500 | 3.399 | 2.665 | 2.975 | 66 |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Arrasate | Partaidetza-edukitzailea | % 100 | - | 59.673 | - | 59.673 | 64.645 | 64.637 | 3.485 | 3.469 |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Bilbo | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 | - | 10 | - | 10 | 12.654 | 4.091 | 35.746 | 1.702 |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | Arrasate | Higiezinetako aktiboen kudeatzailea | % 100 | - | 4.968 | (4.000) | 968 | 8.002 | 7.182 | 2.998 | (29) |
| ISGA Inmuebles SA | Arrasate | Higiezinetako aktiboen kudeatzailea | % 100 | - | 108.085 | (61.445) | 46.640 | 225.225 | 190.282 | 50.462 | (21.854) |
| | | | | | 225.109 | (65.445) | 159.664 | | | | |

| | | | 2017 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzako erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Erakunde elkartuak*** | | | | | | | | | | | |
| ICR Institutional Investment Management SGIIC SA | Madril | Inbertsio-fondoen kudeatzailea | % 21,43 | - | 30 | - | 30 | 1.123 | 985 | 1.482 | 217 |
| | | | | | 30 | - | 30 | | | | |

(a) 2017ko abenduaren 31n, Entitateak 8.565 mila euroko zenbatekoa du ordaintzeko, Seguros Lagun-Aro Vida SA sozietatean duen partaidetzagatik.
(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzako sozietateek 2017ko abenduaren 31n zituzten finantzetako egoera-orri homogeneizatuei dagozkie.

Eranskin honek urteko kontu indibidualei buruzko txostenaren 27. oharra osatzen du, eta, beraz, berarekin batera irakurri behar da.

## CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

### TALDEKO ENPRESETAN DITUGUN PARTAIDETZEN ETA BESTE PARTAIDETZA BATZUEN XEHETASUNAK, 2016KO ABENDUAREN 31KOAK
### (Mila eurokotan adierazita)

| | | | 2016 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzako erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Mendeko erakundeak*** | | | | | | | | | | | |
| Seguros Lagun-Aro Vida SA (a) | Bilbo | Aseguruak | % 76 | % 24 | 25.943 | - | 25.943 | 530.242 | 70.410 | 46.291 | 3.520 |
| Seguros Lagun-Aro SA | Bilbo | Aseguruak | % 49,64 | % 50,36 | 17.649 | - | 17.649 | 215.472 | 59.385 | 90.119 | 6.070 |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Arrasate | Inbertsio-fondoen kudeatzailea | % 100 | - | 6.281 | - | 6.281 | 12.078 | 8.410 | 15.039 | 873 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Arrasate | Pentsio-fondoen kudeatzailea | % 100 | - | 2.500 | - | 2.500 | 3.281 | 2.616 | 2.826 | 18 |
| Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Arrasate | Partaidetza-edukitzailea | % 100 | - | 59.673 | - | 59.673 | 61.171 | 61.167 | - | (10) |
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Bilbo | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 | - | 10 | - | 10 | 9.022 | 3.068 | 33.133 | 678 |
| Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU | Arrasate | Higiezinetako aktiboen kudeatzailea | % 100 | - | 4.968 | (4.000) | 968 | 10.275 | 8.849 | 5.806 | (1.014) |
| Credilka SA | Bilbo | Sozietate anonimoa | % 100 | - | 1.620 | - | 1.620 | 2.477 | 2.477 | - | (1) |
| ISGA Inmuebles SA | Arrasate | Higiezinetako aktiboen kudeatzailea | % 100 | - | 51.431 | (33.487) | 17.944 | 243.494 | 202.930 | 61.459 | (58.697) |
| | | | | | 170.075 | (37.487) | 132.588 | | | | |

| | | | 2016 | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Partaidetzaren %-a | | Kontabilitate-balioa | | | Partaidetzako erakundearen datuak (*) | | | |
| Sozietatea | Helbidea | Jarduera | Zuzena | Zeharkakoa | Gordina | Narriadura | Garbia | Aktiboak | Ondare garbia | Zerbitzuen / salmenten sarrerak | Emaitza garbia |
| ***Erakunde elkartuak*** | | | | | | | | | | | |
| ICR Institutional Investment Management SGIIC SA | Madril | Inbertsio-fondoen kudeatzailea | % 21,43 | - | 30 | - | 30 | 963 | 768 | 1.594 | 236 |
| | | | | | 30 | - | 30 | | | | |

(a) 2016ko abenduaren 31n, Entitateak 8.565 mila euroko zenbatekoa du ordaintzeko, Seguros Lagun-Aro Vida SA sozietatean duen partaidetzagatik.
(*) Honekin batera doazen ondareari buruzko datuak partaidetzako sozietateek 2016ko abenduaren 31n zituzten finantzetako egoera-orri homogeneizatuei dagozkie. Aldez aurreko itxierei buruzko zenbait kasutan —3 hiletik beherako aldearekin betiere—, Entitate Nagusiaren ustez ez da alde esanguratsurik egongo 2016ko abenduaren 31n aurreikusitako behin betiko finantzetako egoera-orriekin.

Eranskin honek urteko kontu indibidualei buruzko txostenaren 27. oharra osatzen du, eta, beraz, berarekin batera irakurri behar da.

## II. ERANSKINA

# CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

## AGENTZIA-KONTRATUAK, 2017KO ETA 2016KO ABENDUAREN 31KOAK

| Izena | Helbidea | Identifikazio-kodea | Ahalmenen egilespen-data | Agintearen amaiera-data | Jarduera-eremu geografikoa | Ordezkapenaren norainokoa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU | Diego Lopez de Haro kale nagusia, 2, Bilbo | B 75060988 | 2013-01-01 | Mugagabea | Estatua | - Kontu korronteko, aurrezki-libretako eta epe finkorako ezarpenetako, inbertsio-fondoetako eta pentsio- eta aurreikuspen-planetako eragiketak tramitatzea, eta horretarako behar diren agiriak sinatzea.<br>- Entitateari kredituen eta beste arrisku-eragiketa batzuen izapideak egitea.<br>- Entitaterekin korrespondentzia eta publikoarekin harremana izatea, eta, horretarako, lana egokien deritzon moduan eta ordutegiarekin antolatzea, Entitateak emango dizkion arauekin eta jarraibideekin bat. |

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO III. ERANSKINA

**URTEKO BANKU-TXOSTENA**

**LABORAL Kutxa Taldearen 2017ko abenduaren 31ko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 10/2014 Legea eta 2013/36/EE Zuzentaraua betetzeko emana**

Informazio hau prestatzeko, 2014ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 87. artikuluan eta Hamabigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa bete dugu. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentarauaren, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoaren, 89. artikulua transposatzen du. Zuzentarau horrek, berriz, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen du eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE —CRD IV izenarekin ezaguna— Zuzentarauak indargabetzen.

Araudi horri jarraikiz, kreditu-erakundeek Espainiako Bankuari bidali beharko diote, eta urtero argitaratu, zer herrialdetan ezarrita dauden adierazita, ekitaldi bakoitzeko informazio bateratu hau:

a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

b) Negozio-bolumena

c) Arduraldi osoko langile-kopurua

d) Zerga aurreko emaitza gordina

e) Emaitzaren gaineko zerga

f) Jasotako diru-laguntzak edo laguntza publikoak

Horren harira, zer informazio behar den zehaztuko dugu jarraian:

a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitate Nagusia, LABORAL Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba berria da. Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du Entitateak.

Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Horretarako, gainerako kreditu-erakundeei baimenduriko aktiboko, pasiboko zein zerbitzuko eragiketa guztiak egin ditzake, xede kooperatiboak sustatu nahiz hobeto betetzeko balio dutenak barne, betiere bazkideen finantza-beharrei lehentasuna emanez eta hirugarrenekiko aktiboko eragiketen legezko mugak errespetatuz.

2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko LABORAL Kutxaren kontu bateratu hauen I. eranskinean, jurisdikzio bakoitzean dihardute sozietateak xehatu ditugu, haien izena, kokapena eta jardueraren izaera zehaztuta.

b) Negozio-bolumena, arduraldi osoko langile-kopurua, zerga aurreko emaitza gordina eta emaitzaren gaineko zerga

| | Negozio-bolumena (mila eurokotan) | Arduraldi osoko langile-kopurua | Zerga aurreko emaitza gordina | Emaitzaren gaineko zerga |
|---|---|---|---|---|
| **Espainia** | 455.490 | 2.261 | 125.680 | 12.831 |
| **GUZTIRA** | **455.490** | **2.261** | **125.680** | **12.831** |

Informazio honen eraginetarako, 2017ko abenduko emaitza-kontu bateratuaren marjina gordina hartu dugu negozio-bolumentzat. Arduraldi osoari dagozkion langileen datuak 2017ko ekitaldiaren itxierako sozietate bakoitzaren plantilla eta herrialdea aintzat hartuz lortu dira.

Taldeko aktiboen etekinak, hau da, Entitate Nagusiaren emaitza garbia zati guztira dituen aktiboak, % 0,51koak dira, 2017ko abenduaren 31n.

c) Jasotako diru-laguntzak edo laguntza publikoak

LABORAL Kutxa Taldeak 2017ko ekitaldian zehar jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoen zenbatekoa ez da nabarmena.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO**

**URTEKO KONTU BATERATUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUA, 2017 EKITALDIKOAK**

Nazioarteko Diru Funtsak (NDFk) munduko BPGdaren bilakaerari buruz egindako aurreikuspenen arabera, 2017an % 3,7ko hazkundea espero zen, 2016ko ekitaldia ixtean erregistratutako % 3,2 hura baino 0,5 puntu handiagoa.

2017an petrolioaren prezioak % 23,8 egin du gora, nahiz eta urteko batez besteko prezioak 2013an jasotako batez bestekoa baino % 52 merkeagoa izaten jarraitu Euroaren balioa handitu egin da dolarraren aldean, 2015eko eta 2016ko balio-galeren ondoren.

Estatu Batuetan, eta diru-politikaren harira, interes-tasetan 2017ko hirugarren igoera erabaki zuen FEDek azaroan, eta % 1,25eko eta % 1,5eko tartean kokatu zuen. Pentsatzekoa da Estatu Batuek ere % 2,3ko hazkundearekin amaituko dutela 2017. urtea, finantzaketa-baldintza onen ondorioz eta konfiantza-indize altuen ondorioz (bai enpresetan, bai kontsumitzaileetan).

Euroguneari erreparatuta, NDFk hazkunde egonkorra espero du, baina ez oso homogeneoa Eurogunea osatzen duten herrialdeen artean. 2017aren amaieran BPGdak % 2,4ko hazkundea izatea espero da. Bi elementu daude 2017ko hazkunde horren oinarrian: batetik, nazioarteko merkataritzaren hazkunde orokorraren esparruan esportazioek gora egin izana eta, bestetik, finantza-baldintza egokietan bermatzen den barne-eskariaren etengabeko hazkundea. Nabarmentzekoa da Alemaniako hazkundearen sendotasuna, eta neurrizko inflazioa, nahiz eta gobernu-hitzarmena lortzeko zailtasunek ezegonkortasun politikoa eragiten duten. Alderdi negatiboan, Italiak hazkunde txikia izaten jarraitzen du.

2017ko ekitaldian, EBZk ez ditu interes-tasak aldatu eta ohiz kanpoko diru-politikak ezartzen jarraitu du.

2017ko ekitaldiaren itxieran Espainiako ekonomiak % 3,1eko hazkundea izatea espero da, analistek urte-hasieran aurreikusitakoa baino handiagoa. Hazkundearen oinarrian Europako ekonomiaren eta etxeko eskariaren —kontsumoan nahiz inbertsioan— portaera onak daude, ezegonkortasun politikoaren eragin negatiboa konpentsatzea ahalbidetu dute eta. EAEko ekonomiari erreparatuta, 2017an Estatuko ekonomiaren hazkunde-ildoari eutsi dio, eta % 3ko hazkundea espero da erkidegoan. Nabarmentzekoa da, horren baitan, industriaren sektoreak erakutsi duen gorako joera.

Europako Banku Agintaritzak 2017an argitaratutako gardentasun-probek erakutsi dute Europako erakundeen kapitalizazioa hobetu egin dela eta aktibo ez-produktiboen maila murriztu egin dela. Ekitaldian erakundeek batez besteko errentagarritasunean izan duten hobekuntzan, baina, alde handiak daude herrialdeen artean. Zalantza-tasaren hobekuntzan eta komisioen hazkundean oinarritu da, baina, oraindik, kapital-kostuaren azpitik jarraitzen du kasu askotan.

Espainiako banku-sektorean, 2017ko ekitaldian murrizten jarraitzen du sektore pribaturako kredituak, nahiz eta beherakada zertxobait leundu den, batetik kontsumorako eta ETE-entzako finantzaketaren hazkunde jarraituari esker eta bestetik etxebizitza erosteko hipoteka-eragiketak ugaldu egin direlako. Halere, enpresa handientzako kredituek beherako bidean jarraitzen dute.

Zalantzazko aktiboek ere murrizten jarraitzen dute, eta beste sektore egoiliar batzuentzako kreditu-inbertsioaren zalantza-ratioa % 7,85ekoa da. Kontsumorako finantzaketaren zalantza-tasak gora egin du, ziurrenik kreditu gehiago eman direlako eta segmentu horretan

esperientzia txikia duten erakundeak sartu direlako. Dena dela, azpimarratu beharrekoa da zikloan berandutzeen kopuruak izan duen beherakada.

Gordailuak moteldu egin dira, eta pixkanaka intsuldaketak ari dira gertatzen balantzetik kanpoko posizioetara (2017an % 12tik gorako hazkundeak espero baitira) eta eperako posizioetatik ageriko posizioetara (2017ko itxieran gordailu guztien % 75 izatea espero da), guztiak ere errentagarritasunaren bila.

Banku-negozioaren errentagarritasunari dagokionez, 2017ko itxieran espero den irabazi garbia 2016koa baino % 80 handiagoa da, batez ere narriaduragatiko hornikuntza-premiak txikiagoak direlako eta, ustiapen-gastuak hobetu egin direnez, bi datuok bilduta interes-marjinaren eta finantza-eragiketengatiko emaitzen beherakada orekatzeko aukera egon delako. Horiek horrela, % 5eko ROEa espero da, 2016ko ekitaldiko % 2,8koa baino askoz handiagoa.

Erakundeen kaudimena dela eta, 2017ko ekainean CET1a % 11,57koa zen phased inean eta % 10,59koa fully loadedean.

Gauzak horrela, LABORAL Kutxa Taldeak finantza-jardueraren marjinen jaitsiera konpentsatu ahal izan du, gastuari eusteko politika egokiari eta bere kreditu-zorroaren kalitate handiari esker. Hala, berez handia duen kaudimen-maila sendotu du.

Ondoren, negozioaren zifrarik garrantzitsuenak jaso ditugu.

Aktibo osoa 22.435,9 milioi eurora iritsi da, hau da, % 5,26ko igoera izan du aurreko urtearen itxierakoaren aldean.

Bezeroen gordailuak 18.612,8 milioi eurokoak dira, 2016ko itxieran baino % 4,02 handiagoak, eta batez ere ageriko kontuek izan duten 2.049,9 milioi euroko gorakadak (% 18,10ekoak) eragin ditu. Hein batean, eperako ezarpenen epigrafetik fondoak ateratzeagatik gertatu da, 575,1 milioi txikitu baita saldoa.

Maileguak eta bezeroen aurrerakinak 13.404,3 milioi eurokoak dira 2017ko ekitaldiaren amaieran. Aldi baterako eskurapenen eta beste finantza-aktibo batzuen aldakuntzaren eragina alde batera utzita, kreditu-inbertsio tradizionala % 0,95 txikitu da, nahiz eta formalizazioak nabarmen hazi, hala etxebizitza eskuratzeko finantzaketan nola kontsumorako eta enpresentzako finantzaketan.

Bezeroei emandako kredituaren zalantzazko arriskuen bolumena % 12,96 txikitu da; ondorioz, “Beste sektore egoiliar batzuk” epigrafeko berankortasun-ratioa % 5,09ra jaitsi da 2017aren amaieran. Datu hori sektoreko batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da —gordailu-erakundeetarakoa % 7,85ekoa da—.

Bestalde, Saltzeko prest dauden finantza-aktiboek 5.081,2 milioi euroko kopurua erdietsi dute eta balantzean duten pisuak behera egin du zertxobait, % 22,65ean kokatzeraino. 2017ko abenduaren 31n, zorro horiek 139,9 milioi euroko gainbalio garbiak zituzten “Metatutako bestelako emaitza globala" atalean.

Efizientziari eta likideziari buruzko adierazleek parametro egokietan jarraitzen dute, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan. Efizientzia-indizea, KHSFaren aurreko marjina

gordinaren gaineko administrazio-gastu moduan neurtua, % 55,3an kokatu da 2017an. Egiturazko likideziaren ratioa, emandako kredituen gaineko gordailuetan oinarritua, berriz, % 79,1ekoa izan da.

Kaudimenari dagokienez, Entitatearen baliabide propio konputagarriak, 2017ko abenduaren 31ko oinarri bateratuan kalkulatuak, 1.615,9 milioi eurokoak dira. CET1 (Common Equity Tier 1) ratioa, sektoreko nabarmenenetako bat, % 18,14an kokatu da, eta guztizko kaudimenarena % 18,50ean.

Galdu-irabazien kontuan sarrera eta gastuen atal hauek nabarmentzen dira:

Zerga ondorengo emaitza 112,8 milioi eurokoa da 2017an, gizarte-ekintzako zuzkidura egin aurretik 121,4 milioiko mozkina lortuz, eta, beraz, gainditu egin dira Entitatearen Gestio Planeko aurreikuspenak.

Egungo interes-tasa apalek eragin zuzena dute lehen marjinetan. Halere, interes-marjina 247,3 milioi eurora heldu da.

Dibidenduak, komisio garbiak eta saltzeko prest dauden zorroetatik zein negoziatzeko mantentzen direnetatik lortutako irabaziak batuta, gehi beste ustiapen-emaitza batzuk eta aseguruen negozioaren ondoriozkoak, 164,1 milioi eurora heldu dira 2017an. Horrenbestez, marjina gordina 411,5 milioi eurokoa da.

Kostuen atalean, Entitateak kostuei eutsi eta horiek arrazionalizatzeko politikari atxiki dio. Horrela, administrazio-gastuak % 2,47 jaitsi eta 232,4 milioi eurokoak izan dira.

Narriaduragatiko galerek, hornikuntzetarako zuzkidurek eta saltzeko prest dauden aktibo ez-korronteengatiko emaitzek 40,9 milioi euroko eragina izan dute emaitzetan. Ildo horretatik, ohiko balorazio-politikari eutsi dio Entitateak.

Entitatearen arrisku nagusiei dagokienez, horien xehetasuna 2017ko ekitaldiko urteko kontuetako 15.etik 21.era bitarteko oharretan jaso da.

Aseguruen negozioak 37,5 milioi euroko emaitza globalak ekarri dizkio LABORAL Kutxa Taldeari, primak berritzen izandako portaera onaren eta espero zena baino bilakaera hobea izan duen ezbehar-tasaren eraginez.

Higiezinen alorrari dagokionez, 2017an eutsi egin dio higiezinen sustapenaren eta eraikuntzaren jarduerarekin arrisku-posizioak murrizteko prozesuari; 84,1 milioi euro txikitu ostean, 933,4 milioi euroan kokatu da urte-amaieran. Lotutako estaldurek saldo horien % 65 gainditzen dituzte.

Beste urte batez, 2018an ere interes-tasa apalak eta negozio-bolumenen jaitsiera oztopo izango dira kreditu-erakundeen errentagarritasunerako. Gainera, kontabilitate-irizpide berriak direla eta, eragiketa finantzarioek ekarpen txikiagoa egingo diote emaitzari. Beraz, funtsezkoak izango dira, alde batetik, berankortasunaren jaitsierak ekarri duen hornidura-behar txikiagoa eta, bestetik, aktibo ez-produktiboen gestio egokia.

Datorren ekitaldiari begira ageri den agertoki zail horretan, Entitatearen aurreikuspenen arabera, finantza-kostuen jaitsierak ezin izango du konpentsatu kreditu-inbertsioak marjinari

egiten dion ekarpenaren beherakada. Ondorioz, interes-marjinak behera egingo du. Marjina gordinak ere okerrera egingo du finantza-eragiketek emaitzetara gutxiago ekartzearen ondorioz. Halere, administrazio-gastuak txikitu egingo direla eta hornidura-behar gutxiago egongo direla aurreikusten denez, 2017koaren antzeko zerga ondorengo emaitza lortuko dugu.

Negozio-bolumenari eta baliabide bitartekotuei dagokienez, pasiboaren kostuak jaisten jarraituko du ekitaldian; alabaina, jaisteko marjina gero eta txikiagoa denez, saldoak eperako aurrezkitik ageriko aurrezkira mugitzeko joerak iraun egingo du, 2017an gertatu den bezala, eta balantzetik kanpoko baliabideak gehitu egingo dira.

Bestalde, kontsumorako kredituak eta higiezinen arlokoak ez diren enpresentzako arrisku-zenbatekoak handitu egingo direla aurreikus daiteke. Etxebizitzarako kredituen formalizazioek nabarmen egingo dute gora, baina gorakada hori ez da arlo horretako saldoak igotzeko adinakoa izango. Eta horri higiezinen sektorerako kredituaren saldoaren jaitsiera gehitu behar zaio. Emaitza, aurreko ekitaldietan bezala, kreditu-inbertsioaren zenbatekoaren beherakada txikia izango da.

Zalantzazko arriskuaren bolumenak beheraka jarraituko du, berandutzeak gutxitzearen ondorioz. Edonola ere, espero da zalantzazko ratioaren murrizketa neurritsuagoa izatea aurreko ekitaldietakoa baino.

Interes-tasa nuluak edo negatiboak eta emaitza-kontuari errentagarritasuna ateratzeko zailtasunak nagusi diren merkatu-ingurune batean, emaitza-kontua babestea da, hain zuzen, ekitaldiko lehentasuna, eta, beraz, oinarrizko ikuspegi estrategikoak bikoitza izaten jarraitzen du. Batetik, merkataritzaren alorrean, marjina errepikaria optimizatzen jarraitzea, negozioaren hazkundea ez ezik kostu eta prezioen kontrol zorrotza ere bilatuz. Bestetik, egiturari dagokionez, efizientzia, produktibitatea eta ustiapen-kostuen murrizketa bilatzea; horretarako, plantillak egokitzeko neurriak hartuko ditugu. Aldi berean, merkataritza-eredua eta erakundearen egitura moldatuko dira; izan ere, garai hauetan, negozioak emaitza txikiagoak sortzen ditu eta, digitalizazioa eta omnikanalitatea banku-negozioan izaten ari diren aurrerakuntza biziaren ondorioz, aurrez egokitu beharra eskatzen du.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 10 egunekoa da 2017ko ekitaldian, merkataritza-eragiketen berankortasunaren kontrako neurriak ezarri zituen 2010ko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutako 30 eguneko gehienezkoa baino txikiagoa. Lege hori 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legeak aldatu zuen, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateen Legea aldatu zuenak. Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Gehigarri Bakarra ere hartu da aintzat. Batez besteko ordainketa kalkulatzeko, Lege horretan ezarritakoa hartu da aintzat.

2017ko azaroaren 24ko 18/2017 Errege Lege Dekretuak, informazio ez-finantzarioari eta dibertsitateari buruzkoak, arautzen du bi alderdi horiei buruz eman beharreko informazioa. Caja Laboralak, interes publikoko erakundea izanik, Gestio Txostenari atxikitako agiri gehigarri batean argitaratu du Caja Laboral Taldeari buruzko informazio ez-finantzarioaren egoera-orria, aipaturiko araudiak agindutako betebeharrei erantzuteko.

Bestalde, bai LABORAL Kutxak eta bai Lagun Aro Aseguruak osatzen duten bi aseguru-erakundeek Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Txostenak (EGE txostenak) aurkezten dituzte, urtean behin, nazioarteko estandarrei jarraikiz. Hain zuzen ere, gai horien inguruko informazioak horietan daude xehetasun handiagoz azalduta.

Ondoren, indarrean dagoen legediaren arabera, Caja Laboral Popularren Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena aurkeztuko dugu, kudeaketa-txostenaren eranskin gisa.

# EGOERA-ORRIA, INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOA

*2018ko otsaila*

LABORAL kutxa

Egoera-orri hau Gestio Txosteneko zati bat da, eta 2017ko azaroaren 24ko 18/2017 ELDan informazio ez-finantzarioaren eta dibertsitatearen alorretan araututakoa betetzeko sortu da. Aintzat hartu du, halaber, Europako Batzordearen 2017/C 215/01 Jakinarazpena, Txosten ez-finantzarioak aurkezteari buruzko zuzentarauen ingurukoa.

Talde bateratuarena da, eta, beraz, banku- eta aseguru-jarduerak hartzen ditu barne. Bai LABORAL Kutxak eta bai Lagun Aro Aseguruak osatzen duten bi aseguru-erakundeek Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Txostenak (EGE txostenak) aurkezten dituzte, urtean behin, nazioarteko estandarrei jarraikiz. Hain zuzen ere, hemen bildutako informazioak horietan daude xehetasun handiagoz azalduta. LABORAL Kutxaren EGE txostenean, Caja Laboral Bancaseguros OBSVren informazioa ere txertatzen da. LKren partaidetzako sozietate horrek aseguruen bitartekaritza du eginkizun, eta bertako langileak, gaur egun LABORAL Kutxaren bulegoetan dihardutenak, lehengo Lagun Aro Aseguruak-en bulego-saretik datoz.

Egoera-orri hau motzean egin nahi izan dugu, informaziorik nabarmenena ezagutarazteko helburuarekin.

*«Informazio ez-finantzarioa egoki jendarteratzea funtsezko elementua da jarduera finantzarioaren iraunkortasuna ahalbidetzeko».* LABORAL Kutxak gauzatzen dituen jarduera guztien inguruko arriskuak identifikatu eta ebaluatzeari eta jakinarazteari dagokienez:

- Arriskuak orokorrean hartuta, norabide estrategikoaren urteko prozesuan berrikusten dira merkatu eta negozioetan antzematen diren arriskuak eta aukerak. Urtean behin, *Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa* argitaratzen da. Bertan, xehetasunez deskribatzen dira erabakiak hartzeko eta jardueraren mugak finkatzeko politika, helburuak eta prozedurak, helburutzat harturik emaitza errepikariak sortzea eta, horrela, Entitatearen kaudimena bermatzea. Arriskuen azterketa horrek ikuspegi finantzarioa du, batez ere. Prozedura horietan parte hartzen duten organoen jarduna ere deskribatzen du, baita administrazio-organo gorenaren (Kontseilu Errektorearen) esku-hartzea ere, bera baita arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken erantzulea.
- Taldeak EGEaren alorrean egiten dituen jarduera eta ekimenei dagokienez, EGEaren Batzordea da halako jarduerak proposatu, koordinatu eta gainbegiratzeko Zuzendaritza Kontseiluak eskuordetutako organoa. LABORAL Kutxaren urteko EGE txostenak *Global Reporting Initiative – GRI* estandarraren nazioarteko gidalerroak betetzen ditu, 2004az geroztik, informazio finantzarioa eta ez-finantzarioa jendarteratzeko. Urteko txostena AENORek egiaztatzen du.
- Ingurumen-arriskuak gestionatzen zehazki, LABORAL Kutxak Ingurumena Gestionatzeko Sistema (IGS) erabiltzen du 2001etik, ISO 14001: 2015 arauari jarraikiz. Ikuspegi sistematiko horrek *«informazioa ematen dio goi-zuzendaritzari, epe luzera arrakasta sortzeko eta garapen iraunkorrerako aukerak sortzeko».* Sistema hori ere AENORek ikuskatzen du urtean behin.
- Langileen segurtasunaren, osasunaren eta ongizatearen alorrean ere gestio-sistema bat darabil Entitateak, OHSAS 18001:2007 estandarrarekin bat. Legeak eskatzen dituenak gainditruz, helburu hau du: *«Laneko Segurtasunean eta Osasunean (LSOan) jarduera sendoa lortzea eta erakustea, LSOaren inguruan dituen politika eta helburuen arabera LSOko arriskuak kontrolatzearen bidez».* Ondoanek ikuskatzen du sistema hori.

# 1. TALDEAREN NEGOZIO-EREDUAREN AZALPEN LABURRA

## 1.1. NEGOZIO-EREDUA

LABORAL Kutxa, web korporatiboan bere burua aurkezteko dioen moduan, ***banka kooperatibo eta parte-hartzailearen eredu sendo eta arduratsua*** da.

*«LABORAL Kutxa banka ezberdina da, lankidetza eta gizartearekiko konpromisoa ezaugarri dituena. Bezero guztiak asebetetzea eta inguruan aberastasuna eta enplegua sortzea dira gure helburu nagusiak. Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu, erabakiak parte hartuz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu».*

Kreditu-kooperatiba honetan, MONDRAGON taldeko kooperatiben eta jarduneko eta erretiratutako bazkide langileen (kolaboratzaileen) esku dago kapitalaren zatirik handiena.

***KAPITAL SOZIALA 2017-12-31N***

***727,2 M EURO***

**Banaketa, motaren arabera:**

- **Lan-bazkideak**
- **Bazkide kolaboratzaileak**
- **Gainerako pertsona fisikoak**
- **Elkartutako kooperatibak**




**PRODUKTUAK ETA MERKATUAK**

Erantsitako grafikoan, hausnarketa estrategikoan jaso diren oinarrizko ardatzak azaltzen dira, ekitaldian Entitatearen jardunean lehentasuna izango duten produktu eta merkatuen berri ematen dutenak.

**2017ko GPa. Ardatz estrategikoak**

Ikuspegia: marjina errepikaria optimizatzea + kostuak gestionatzea

| Negozio-eredua | Gestio-eredua |
|---|---|
| 1. Enpresen negozioa | 7. Banaketa-eredua eta sarea egokitzea |
| 2. Partikularren negozioa EHSan eta SBan | 8. Digitalizazioa. Efizientzia operatiboa |
| 3. Kontsumoaren negozioa | 9. Omnikanalitatea |
| 4. Altxortegia eta kapital-merkatuak | 10. Kostuen gestioa, zerbitzuen kobrantza |
| 5. Aseguruen negozioa | 11. Arriskuen gestioa |
| 6. Posizionamendu estrategikoa eta lehiakideengandik bereiztea | |

Gobernu korporatiboa

12. Arau-eskakizunetara egokitzea eta Arriskuarekiko Grinaren Esparrua

13. Antolamendu-kultura eta balioak

LABORAL Kutxak banka-aseguruen estrategiaren barruan txertatzen du aseguruen jarduera. Horrela, Taldeko enpresek (Seguros Lagun Aro SAk, Bizitzakoak EZ diren adarretan, eta Seguros Lagun Aro Vidak), LABORAL Kutxaren bulegoen eta webgunearen bidez merkaturatzen dituzte, batik bat, beren produktuak. Lagun Aro Aseguruak-ek hautatutako bitartekarien sarea baten bidez osatzen ditu banku-kanal horiek.

Hona hemen LABORAL Kutxaren bulegoen kokapena, jarduera gauzatzen duen lurraldearen arabera:

| Eremu geografikoa | Partikularren bulegoen kopurua | |
|---|---|---|
| | 2016. urtea | 2017. urtea |
| Araba | 36 | 33 |
| Aragoi | 19 | 19 |
| Asturias | 10 | 10 |
| Bizkaia | 94 | 92 |
| Kantabria | 4 | 4 |
| Gaztela eta Leon | 38 | 38 |
| Katalunia | 1 | 1 |
| Gipuzkoa | 73 | 69 |
| Errioxa | 8 | 8 |
| Madril | 9 | 9 |
| Nafarroa | 43 | 41 |
| **1. Lurralde Zuzendaritza** | **178** | **172** |
| **2. Lurralde Zuzendaritza** | **157** | **152** |
| **Bulegoak guztira** | **335** | **324** |

Era berean, Enpresan Espezializaturiko Sarea ere badu, bai eta Kooperatiben eta Enpresa Handien bulegoa eta Sektore Publikoaren bulegoa ere. Honela daude banatuta:

| Eremu geografikoa | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Gipuzkoa | 2 | 2 |
| Nafarroa | 1 | 1 |
| Madril | 1 | 1 |
| Gaztela eta Leon | 1 | 1 |
| Bizkaia | 3 | 3 |
| Araba - Errioxa | 1 | 1 |
| **Bulegoak guztira** | **9** | **9** |

**Partikularren bulegoen kopurua eta banaketa geografikoa**



## ERAKUNDEAREN EGITURA

2017-01-01ean, eginkizun batzuk taldekatu eta organigrama berria ezarri zen, efizientzia handitzeko helburuarekin. Egitura berria, funtsean, 5 area funtzional handitan dago banatuta. Horiek, bestalde, departamentuek, sekzioek, zonaldeek eta bulego-sareak osatzen dituzte.




Partikularren bulegoetan LABORAL Kutxako langileak daude, bai eta beraren partaidetzako **Caja Laboral BancaSeguros SLU Operador de banca-seguros vinculado - CLBS** sozietateko pertsonak ere. Lagun Aro Aseguruak sozietatetik etorritako langile guztiak **CLBS**n sartu ziren, hau da, Lagun Aro Aseguruak-en «zuzeneko kanala» osatzen zutenak eta beste laguntzaile batzuk, batez ere marketin-jardueretan aritzeko.

### PARTAIDETZAKO ENPRESAK

Jarraian, LABORAL Kutxa taldea osatzen duten partaidetzako enpresak zerrendatuko ditugu:

| Mendeko erakundeak | Jarduera | Partaidetzaren %-a |
|---|---|---|
| Seguros Lagun Aro Vida SA | Aseguruak | % 100 |
| Seguros Lagun Aro SA | Aseguruak | % 100 |
| Caja Laboral Gestión SGIIC SA | Inbertsio-fondoen gestorea | % 100 |
| Caja Laboral Pensiones GFP SA | Pentsio-fondoen gestorea | % 100 |
| ISGA Inmuebles SA | Higiezinen sustatzailea | % 100 |
| Caja LABORAL Euskadiko Kutxa Cartera SLU | Partaidetza-edukitzailea | % 100 |
| Sociedad Gestión Activos Caja LABORAL SAU | Aktibo higiezinen gestorea | % 100 |
| Caja LABORAL Bancaseguros OBSV SLU | Banka-aseguruetako operadorea | % 100 |
| **Erakunde elkartuak** | | |
| ICR Institutional Investment Management SGIIC SA | Inbertsio-fondoen gestorea | % 21,43 |

## 1.2. ENTITATEAREN ESTRATEGIA ETA ARRISKUAREN GESTIOA

### LEHENTASUNEZKO HELBURUAK: OINARRIZKO ARDATZAK ETA JARDUNBIDEAK, ARRISKUAK ETA AUKERAK

LABORAL Kutxaren hausnarketa estrategikoa urtero egiten da, *norabideak finkatzeko* prozesuan. Merkatuen *lehiakortasunaren behaketa* sistematizatzea du helburu, eta negozio-ereduak eta ondoren Gestio Plan bakoitzean garatzen diren apustu estrategikoak berrikustea.

2017an, oinarrizko ikuspegi estrategikoak bi xede izan ditu: merkataritzan, marjina errepikaria optimizatzea, eta, egiturazkoan, efizientzia bilatzea eta kostuak kontrolatzea.

Azken arlo horretan, ahalegin berezia egin dugu egiturak behar berrietara egokitzen. Hauek dira 2017-01-01ean bertan ezartzen hasi zen berrantolaketa horretan aurreikusitako jarduketarik garrantzitsuenak:

- 58 Dinamizazio Plana aktibatzea; plantillak optimizatzeko helburuarekin, erretiratzeko aukera emango zaie 1958an jaiotakoei.
- Enpresen eta Partikularren Areetako egiturak bateratzea, hala esparru komertzialean nola negozio-garapenarenean.
- Arriskuak gestionatzeko prozesuak integratzea.

Xedea da erakundearen eraginkortasuna nabarmen hobetzea, organigrama sinplifikatzearen bidez.

2017an egin zen hausnarketa estrategikoaren berrikuspenean, ekonomikoak dira, oraindik ere, merkatuaren ingurunean antzemandako arriskurik handienak: interes-tasa nulu eta negatiboak eta emaitza-kontuari errentagarritasuna ateratzeko zailtasunak. Aukerarik handienak, berriz, banku-negozioaren eraldaketa digitalera egokitzeko abiaduran daude.

Zehazki, emaitza-kontua babesteak jarraitzen du 2018ko ekitaldirako lehentasuna izaten. Horrenbestez, oinarrizko **ikuspegi** estrategikoa bikoitza da:

- Merkataritzaren alorrean, **marjina errepikaria optimizatzea**, negozioaren hazkundea ez ezik kostu eta prezioen kontrol zorrotza ere bilatuz.
- Egiturari dagokionez, **efizientzia, produktibitatea eta ustiapen-kostuen murrizketa** bilatzea; horretarako, plantillak egokitzeko neurriak hartuko ditugu. Aldi berean, merkataritza-eredua eta **erakundearen egitura** moldatzea; izan ere, garai hauetan, negozioak emaitza txikiagoak sortzen ditu eta, **digitalizazioa** eta **omnikanalitatea** banku-negozioan izaten ari diren aurrerakuntza biziaren ondorioz, aurrez egokitu beharra eskatzen du.

Estrategia horiek arrakasta izatekotan, azkar egokitu behar dugu bezeroen portaera eta banku-negozioaren eredua aldatzen ari den haustura digitalera, eta, beraz, eraldaketa digitala izango da funtsezko lehentasunetako bat. Eta eraldaketa digital hori bezeroekiko harremanetan ez ezik, barruko prozesuetan ere gauzatu beharko da. Ildo horretan, funtsezko erronka izango da

gure bazkideek konpetentzia digitalak hartzea, bezeroekiko harreman omnikanalean bikaintasuna lortzeko bidean.




Arriskuaren gestioan, urteko *Zuhurtziazko Garrantziko Informazioa*n kontsulta daiteke oinarrizko arriskuen azalpen zehatza. Bertan xehatzen dira arriskurik garrantzitsuenen —kredituarena, merkatuarena, eragiketarena eta interes-tasarena— bilakaera eta horiek jardueran duten eragina, bai eta aplikatutako arrisku-profila eta gestio-mekanismoak ere.

Jarduera komertzialeko aukerak sarrerak sortzen dituzten negozioetan aurkitu ditugu, zehazki hauetan: merkataritza-negozioaren segmentu guztietan (enpresa txiki eta ertainenean, mikroenpresenean, negozioenean eta autonomoenean), aseguruetan eta, pasiboaren arloan, aholkularitzan eta dibertsifikazioan, inbertsio-fondoak eta balantzetik kanpoko figurak merkaturatzea helburutzat harturik.

- Merkataritza-negozioan eta aseguruenean jarduera komertziala bultzatzekotan, gure bulegoen kapilaritatea indartu behar dugu, bai eta gure gestoreak espezializatu ere. Gainera, **Onenak 4.0** proiektuan zehaztu diren ildoak garatu behar dira: bezeroarekiko harremanean multikanalitatearen aldeko apustua, merkataritza-prozesuetan bikaintasuna eta gestorearen ahalduntzea.
- Bezeroen aurrezkiak gestionatzeari dagokionez, negozio-ereduaren eraldaketa bizkortzea da gure asmoa. Dena aldatu nahi dugu: gestoreak bulegoan produktu xumeak eta berezitu gabeak (epe finkorako ezarpenak, adibidez) saltzeko prozesutik hasi eta dibertsifikazio konplexuaren gestiora bitartean (inbertsio-fondoetan eta epe luzerako beste aurrezki- eta inbertsio-produktu batzuetan oinarrituta). Horretarako, protokolo zorrotzetan oinarrituko gara, bezeroaren ezagutza eta eskaintzaren egokitasuna bermatzeko.

**Aholkularitzaren eta harremanen sistematika**ri dagokionez, bereziki garrantzitsuak izango dira prozesuak eta sistematikak MiFID 2 araudira egokitzea, laguntza-sistemak hobetzea, urruneko

harremanen eredua bultzatzea eta plangintza-tresnaren ordez agenda berria ezartzea. Edonola ere, zuhurtziaz jokatuko dugu ereduzko zorroak osatzeko zereginean.

**Antolamendua**ren alorrean, 2017ko uztailean berrikusitako hausnarketa estrategikoan aukerak aurkitu ditugu, hala egitura komertziala nola Zerbitzu Zentraletako departamentuen egitura optimizatzeko. Bestalde, produktibitatea hobetzeko ildo berean, merkataritza-eredua doitu egingo dugu dagoeneko aipatu dugun **Onenak 4.0** proiektuaren arabera, eta urratsak emango ditugu aseguruen gestioa gero eta integratuagoa izan dadin. Horretarako, aseguruetako gestore balioaniztunen kopuru nahiko handia gehituko dugu, berritasun moduan.

**Teknologia**ren ikuspegitik ere erabaki nabarmenak hartu dira 2017an. *Zabaltek* proiektuari esker, banku-eragiketen oinarrian dagoen *banku-jardueraren azpiegitura* aldatuko dugu: sistema irekiak hasiko gara erabiltzen, banka digitalaren hazkunde esponentzialaren ondoriozko erronka berriei bermeez aurre egiteko.

Erakundearen **efizientzia** eta **produktibitatea** nabarmen hobetzea da, berriro ere, antolamendu-helburua. Horretarako, organigrama sinplifikatzeaz gain, prozesuak eta bezeroekiko harremanak digitalizatzeari esker efizientzian lor daitezkeen hobekuntzak baliatuko dira.

Partekatutako norabide estrategikoan oinarrituz, gestioko *aginte-taula*ren adierazle kuantitatiboen balantzea eginez berrikusten du Lagun Aro Aseguruak-ek bere urteko Gestio Plana. Aldi berean, ondorio kualitatiboak ere ateratzen ditu, hurrengo planaren helburuak egokitu ahal izateko.

Gaur egun aseguruen merkatuan antzemandako arriskuek honako hauekin dute zerikusia: ekoizpen berriak gehiago saltzeko beharrarekin, autoen baremoaren eraginarekin (zirkulazio-istripuen biktimei dagozkien kalte-ordainak kalkulatzeari begira), klima-aldaketen ondoriozko etxeko ezbehar-tasarekin, gastuei eustearekin eta interes-tasa txikien testuinguruan sarrera finantzarioek duten bilakaerarekin.

Erronka nagusiak bezeroaren esperientzia eta eraldaketa digitala dira, eta 2018an ere izango dira.

- Bezeroaren esperientziaren alorrean, aldaketak egingo dira bezeroari zerbitzu ematean komunikatzeko moduan.
- Haustura digitalaren harira, banku-jardueran bezalaxe, eraldaketa digitala da aseguru-sektorearen etorkizunaren giltzarria. Ildo horretatik, helburu hauek finkatu dira Lagun Aro Aseguruak sozietatean:

- Erakundearen **barne-kultura** eraldatzea, erronka berriei aurre egin ahal izateko.
- Antolamendua **arintzea**.
- Egungo **prozesuak digitalizatzea**; horretarako, efizientzia handitu beharko diegu aurrena.
- Beste **erakunde** (*insurtech*, *startup*, unibertsitate…) **batzuekin lankidetzan** hastea.
- **Kanal digitalak** garatzea, batez ere mugikorretarako garapenei begira.
- Egunez egun sortzen ari diren **tresna berritzaileak** ezartzen hastea, hala nola *big data edo datu handiak, adimen artifiziala, IOT edo gauzen Internet, chatbots edo elkarrizketa-programak, wearableak….*).

- 2018an segur aski ez baina berandu baino lehen eragin nabarmena izango duten **teknologia berrien** (auto autonomoen, blockhain edo bloke-kateen…) bilakaerari gertutik jarraitzea.

Eraldaketa digitala geraezina da, eta lehenetsi beharreko kontu bat, erakunde efiziente, eraginkor eta arinagoa izatekotan. Bezeroaren esperientzia biziberritu egingo dugu, horrek produktu eta zerbitzuak ez ezik pertsonalizazioa, esperientzia, arintasuna, gardentasuna eta abar ere eskatzen dituen merkatu honetan.

## ZEHARKAKO ARDATZ ETA JARDUNBIDEAK

Taldearen estrategiaren baitan, ahalegin aipagarria egiten dugu, antolamenduaren areez zeharkako proiektuetan ere. ***Garapen Jasangarrirako Helburu***ekin (GJHekin) eta Agenda 2030ekin lerrokatzen dira proiektuok. 2017an zehar, LABORAL Kutxak aztertu egin ditu helburuok, eta zehaztu du zer ekintza egiten diren GJHekin bat eta lehentasunezko zer jardunbide berri jarri behar diren abian. Azterketaren emaitza plantilla osoari jakinarazi zaio.

Enpresaren Gizarte Erantzukizuneko Txostenean, gure balio bereizgarriak zer portaeretan islatzen diren azaldu dugu. Taula honetan laburtu ditugu.

### ZERK BEREIZTEN GAITU BESTE BANKU ETA KUTXA BATZUETATIK?

| | |
|---|---|
| KREDITU-KOOPERATIBA BAT GARA | LABORAL Kutxan zerbitzua ematen dugunak entitateko bazkideak gara; proiektuarekin bat egin eta hartan sinesten dugu. Horregatik, pertsona bakoitzari zerbitzurik onena ematen ahalegintzen gara. Gure bezeroak pozik izatea da gure enpresa-proiektuaren bermerik onena. |
| GIZARTEARI ITZULTZEA. BANKA ERABILGARRIA, GURE GIZARTEAREKIN KONPROMETITUA | Gure dibidendua gizarterako itzulkina da. Gure emaitzen % 25 ekonomiaren eta gizartearen aldetik interesgarriak diren proiektuak finantzatzera bideratzen ditugu, eta prestakuntzan eta enplegua sortzen laguntzera. Gainerakoa entitatean inbertitzen dugu, berorren kaudimena eta etorkizuneko garapena sendotzeko. |
| LANGILE, BAZKIDE ETA PROTAGONISTAK GARA | -LABORAL Kutxak ez du burtsan kotizatzen eta ez dago finantza-merkatuen espekulazio-presioaren eraginpean. Bazkide guztiok hartzen dugu parte entitatearen kapitalean eta erabakietan, erantzukizunez eta gure gestioaren ondorioak geure gain hartuz.<br>-Erabakirik funtsezkoenak Batzar Nagusian onesten ditugu. Bazkide guzti-guztiek hartzen dute parte bertan, mozkinak lortzen eta horiek gure gizartean inbertitzen lagunduko digun gestio eraginkorra eta arduratsua bermatzearren. |

2017ko Gestio Planean (2018koan ere jarraipena izango du), jasangarritasunarekin eta gizarte-erantzukizunarekin lotutako ekimen hauei ematen diegun garrantzi estrategikoa nabarmendu genuen:

- 2017an, gure azpiegiturak egokitzen jarraitu dugu: 14 bulegotan klimatizazioa aldatu da eta beste 6tan eraberritze integralak egin ditugu. Bi jarduera-motak hobekuntza nabarmenak izango dira gure instalazioen ezaugarri termikoetan.
- Azpimarragarria da, halaber, gorabidean dauden ekimenen, hala nola inbertsio sozialki arduratsuaren, alorrean egiten dugun ahalegina. Gure kasuan, finantzatzen ditugun proiektuen eragin sozial eta ingurumenekoei eta inbertitzen dugun enpresen jarduketei jarraipena egitera bideratzen dugu.

- Pertsonen gestioaren baitan, ikuspegi handiguratsua dugu hainbat alorretan:
  - Laneko osasunean eta segurtasunean.
  - Euskara laneko hizkuntza moduan erabiltzeari dagokionean.
  - Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzen.

- Ingurumenaren gestioaren baitan, etengabeko hobekuntza dugu helburu, eta nabarmengarriak dira gure eraikinen ingurumen-efizientzia hobetzeko egindako inbertsioak.

  Zehazki, 2018aren hasieran amaituko dugu Arrasateko Zerbitzu Zentraletako eraikin nagusia (LK1) berritzen. Energia-iturri moduan, ingurumena errespetatzen duten teknologiak instalatu dira: geotermia eta biomasa, alegia. Bereziki esanguratsua da CO2rik isurtzen ez duten energia-iturri berriztagarrien erabilera. Inbertsio handia egin behar izan da, beste eraikin bat egitea eskatu baitu.

  Era berean, azken belaunaldiko isolamenduak eta argiak ere ipini dira. Ondorioz, efizientzia energetikoaren alorreko kalifikazio gorena lortu dugu eraikin nagusian, LK1ean.

Bide batez, **Lagun Aro Aseguruak**-en 2017ko eta 2018ko Gestio Planetan jasangarritasunarekin eta gizarte-erantzukizunarekin lotutako zenbait ekimenen garrantzi estrategikoa nabarmendu dugu:

- Entitateko pertsonen harira, LABORAL Kutxarentzat aipatu dugun bezalaxe, hauek lehenesten ditu gure gestioak:
  - Osasunaren sustapena.
  - Euskara laneko hizkuntza moduan erabiltzea.
  - Emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzea.
- Bezeroarekiko harremanaren ikuspuntutik:
  - Produktu eta zerbitzu berriak proposatzea eta bezeroak produktu eta zerbitzu horiekin pozik izatea.
  - Idatzizko komunikazioak murriztea (ingurumeneko inpaktua ere murriztuz).

Lehenago ere esan dugunez, EGEaren Batzordea dugu, Kutxako hainbat areatako eta aseguru-erakundeetako kideez osatua. Jarduera horiek guztiak gobernatzea du xede, eta administrazio-organo gorena, Kontseilu Errektorea, informatzen du, horrek ingurumen- eta gizarte-politikak gainbegira ditzan.

**ASEGURU-JARDUERAREN BEREIZGARRIAK**

Taldeko aseguru-erakundeek (Lagun Aro Aseguruak eta Lagun Aro Bizitza Aseguruak sozietateek) kooperatiben balio eta jardunbide gehienak partekatzen dituzte, nahiz eta araudiari jarraiki sozietate kooperatiboaren egitura barik akziokako sozietatearen egitura juridikoa izan.

Lagun Aro Aseguruak *Gizarte-ekonomiako aseguratzaileen elkarte europarreko (EURESAko)* partaide da, eta elkarte horrek bultzatzen dituen elkarrekikotasunaren eta lankidetzaren balioak partekatzen ditu. Ondorioz, konpromiso hauek ditu hartuta:

- Gizarte-ekonomiaren printzipio zuzentzaileak jarduera guztietan erabiltzea.
- Kontsumitzaileen benetako beharrizanak aseko dituzten produktu eta zerbitzuak diseinatzea.

- Aseguratuek eta akziodunek zuzenean nahiz ordezkarien bidez enpresaren bizitzan aktiboki parte hartzen dutela bermatzea.
- Balantze ekonomikoa eta jokabide etikoa uztartzea.
- Bermatzea pertsonengan ardaztuta dagoen eta garapen jasangarria eta gizartearekiko arduratsua bilatuko duen ekonomiaren baitan gauzatuko duela jarduna.

## 1.3. JASANGARRITASUNARI BURUZKO INFORMAZIOAREN MATERIALTASUNA

Entitatea 2005etik ari da Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Txostena (EGE txostena) egiten, Global Reporting Initiative – GRI estandarrak finkatutako gidalerroei jarraikiz. Hasiera-hasieratik, AENORek egiaztatu izan du urtero.

2014az geroztik, *materialtasunaren azterketa* ere txertatua du txostenak, arlo horietako gairik garrantzitsuenak zehazteko helburuarekin. Horrela, informazioak ez die nazioarteko eskakizunei soilik erantzuten, Entitateak solaskide dituen *interes-talde*entzat garrantzitsuenak diren arriskuak eta aukerak ere bildu eta aztertzen ditu.

Bere jardunaren inpaktuei buruzko materialtasun-azterketa egin ahal izateko, Kutxak aztertu egiten ditu banku-sektoreko beste lehiakide batzuek plazaratutako azterketen emaitzak ere.

Hauek dira azterketa horrek 2017rako eman dituen ondorioak, 2016ko EGE txostenean bilduak:

- **Faktore ekonomiko**ek berebiziko garrantzia dute eta, zehazki, kanpoko eta barneko interes-taldeek garrantzi berezia aitortzen diete **bikaintasunera bideratutako gestio zuhurrari** eta bezeroarekiko **harremanari lotutako erantzukizunari**. Hain zuzen ere, kaudimena eta likidezia indartzeari emandako garrantzia nabarmentzen da, bai eta zerbitzuaren kalitatearen edo bezeroarekiko kanal anitzeko harremaneko gardentasunaren eta erantzukizunaren alorreko zenbait elementu ere. Lehentasun nagusien artean dago, halaber, LABORAL Kutxa kokatuta dagoen lurraldeetako enpresa-sarearen garapen ekonomikoari eta finantzarioari laguntzeko eskaera.
- **Gizarte-faktore**ek materialtasun txikixeagoa dute. Nolanahi ere, *pertsonen esparruan* nabarmentzekoa da zenbait elementuren garrantzia, adibidez: genero-berdintasunarena, lan-bizitza eta familia bateragarri egitearena eta soldata-aldeak mugatzearena. *Gizarte-eskaeren alorrean*, gizartearekin arduratsuak diren produktu eta zerbitzuen eskaintza da elementurik garrantzitsuena. Horrela, indartu egiten da banku-negozioaren muinean (txikizkako merkatuetan finantzen eta aseguruen alorreko produktu eta zerbitzuak merkaturatzean) gizarte-erantzukizuneko irizpideak erabiltzeko eskaera.
- Azkenik, **ingurumen-alderdi**ei lotuta, gizartean horien garrantzia gero eta handiagoa bada ere, erantzunetan materialtasun ertainekotzat ageri da. *«Agerikoa denez, banku baten jarduerak ez dio kalte handirik egiten ingurumenari, baina jakinez eta onartuz pertsona eta enpresa guztiok dugula gure planeta zaintzeko betebeharra, ezin dugu inolaz ere alor horretan jarritako indarra gutxitu. Hala, arriskuen eta aukeren azterketa egin dugu horren inguruan».*

Ildo beretik, badira bi elementu, gure misioaren muinean jasota daudenak eta, beraz, lehentasunezko arreta-esparrutzat jotzen ditugunak, barnean nahiz kanpoan garrantzi txikikotzat sailkatu arren. *MONDRAGON Korporazioa* lagunduz jorratzen dugun gizarte- eta enpresa-sustapena da bata, eta euskara garatzeko laguntza bestea. Gure iritzian, bi elementuon inguruan ageri den eskaera txikiaren arrazoia hauxe da: gai horiei buruzko aurreikuspenak aise estalita daudela eta, beraz, ez dela bestelako ekimen osagarriren baten premiarik antzematen, dagoeneko abian daudenez harago.

Interes-taldeen eskaerak eta horien lehentasunak aztertu ostean, LABORAL Kutxak *Bide-orri* bat sortzen du, urtero, garatu nahi dituen jarduera garrantzitsuenekin. 2017ari buruzkoa erantsi dugu. Aipatu dugun EGEaren txostenean dago jasota zehatzago.

# 2017ko EGEaren bide-orria

## Interes-taldeekin kontsulta egin eta sektorearekin alderatu ondoren

| Jarduera-arloen lehenespena | | Interes-taldea / Esparrua | Jarduketa-irizpideak |
|---|---|---|---|
| 1 | Kaudimena eta likidezia indartzea | Ekonomia | (B) Estrategiaren ikuspegia: marjina errepikaria optimizatzea + kostuak gestionatzea eta emaitzak berriz inbertitzea<br>Recovery Plana. (B) Resolution Plana |
| 2 | Enpresa-ehunaren garapen ekonomikoan eta finantzarioan laguntzea: finantzaketa-hitzarmenak enpresekin, ekintzaileei eta unibertsitateari laguntzea… | Gizartea | Emaitzen helburua: HSF, KFS<br>Finantzaketa-hitzarmenak eta -konpromisoak<br>Gaztenpresa programa |
| 3 | Bezeroak gestionatzea (harremanen alderdia): gardentasuna, adeitasuna… | Bezeroak | Kalitate Integralaren gestio-prozesua |
| 4 | Bezeroarekiko gestio arduratsua: aurrezki-produktu konplexuak azaldu eta saltzea | Bezeroak | (B) Inbertsio-fondoak eskaintzeko proiektua<br>(B) MiFID II eta gestoreen prestakuntza-proiektua<br>(B) MiFIR proiektua |
| 5 | Kanal berrien (banka elektronikoaren, telefono-bidezko bankaren, banka mugikorraren) bidezko sarbidea garatzea | Bezeroak | (B) Online Banka eraldatzea |
| 6 | Pertsonen gestioa, genero-berdintasuna, lan-bizitza eta familia bateragarri egitea, soldata-mailak eta -tarteak eta abar | Pertsonak | III. Berdintasun Plana<br>Pertsonak garatzeko eredua<br>Ordainsari-eredua |
| 7 | Barne-kontrolerako bideak berrikusi eta hobetzea (administratzaileen erabakiak, ustelkeria, kapitalak zuritzea, kode etikoa, ustelkeria, gastuen kontrola) | Gobernu korporatiboa | (B) Merkatu-abusuaren proiektua<br>(B) Hornitzaileei erosteko prozedurak<br>Arriskuarekiko Grinaren Esparrua<br>Etika Batzordea |
| 8 | Bikaintasuna zerbitzuaren kalitatean, hutsak murriztea eta eragiketak hobetzea | Bezeroak | Kalitate Integralaren gestio-prozesua |

| | | | |
|---|---|---|---|
| 9 | Bezeroarekiko gestio arduratsua: bezeroen gehiegizko zorpetzea saihestea | Bezeroak | Harrera-ereduak berrikustea<br>Arriskuen Eskuliburua eta Politika eguneratzea |
| 10 | EGEari lotutako neurriak: kapitalak zuritzearen aurka; armagintzara, jokora, pornografiara doan finantzaketa kontrolatzea | Gobernu korporatiboa | Araudia Betearazteko Departamentua<br>Gizarte Erantzukizuneko Inbertsiorako Taldea |
| 11 | Gizartearekin arduratsuak diren produktu eta zerbitzuak | Bezeroak | Inbertsio-fondo etikoa eta solidarioa |

**(B) 2017ko proiektu berria, edota proiektuaren ikuspegian funtsezko aldaketa izan duena.**

Bestalde, **Lagun Aro Aseguruak** 2014tik ari da Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren Txostena (EGE txostena) egiten, Global Reporting Initiative – GRI estandarrak finkatutako gidalerroei jarraikiz. Txosten hori egin ahala, arlo hauetako gairik garrantzitsuenak zehazten dira, gestionatutako alderdiek eta plazaratutako informazioak beren interes-taldeentzat nabarmenenak diren arriskuak eta aukerak bil ditzaten.

EGEaren arloko helburu estrategikoak lehentasunezko interes-talde bakoitzarekiko konpromisoetan zehazten dira. Testuinguru horretan, hauexek dira **aseguru**-jardueran interes-taldeentzat garrantzitsuak diren eta kritikotzat jo diren gaiak:

| ***BALIOA SORTZEA*** |
|---|
| ✓ Talentuaren gestioa<br>✓ Hornitzaile eta bitartekarien gestio arduratsua<br>✓ Zerbitzuaren kalitatea eta gardentasuna<br>✓ Finantza-sendotasuna |
| ***GIZARTE-ERANTZUKIZUNA*** |
| ✓ Gobernamendu ona<br>✓ Etika eta ustelkeriari aurre egitea<br>✓ Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa<br>✓ Aukera-berdintasuna eta dibertsitatea<br>✓ Laneko osasuna eta segurtasuna<br>✓ Lan-jarduerak eta giza eskubideak<br>✓ Komunitatearekiko konpromisoa<br>✓ Elkarrizketa interes-talde guztiekin |
| ***INGURUMEN-JASANGARRITASUNA*** |
| ✓ Arrisku eta krisien gestioa<br>✓ Inpaktuen kudeaketa eta konponketa |

# 2. INGURUMEN-GAIAK

## ENPRESAREN JARDUERAK INGURUMENEAN EGUN DITUEN ERAGINAK ETA AURREIKUSTEN ZAIZKIONAK

2001az geroztik, **Ingurumena Kudeatzeko Sistema (IKS)** du **LABORAL Kutxa**k, ISO 14001 Arauarekin bat, Arrasateko Egoitza Nagusiko hiru eraikinetako jarduera guztietan. LABORAL Kutxak zerbitzu zentraletan erabiltzen dituen ingurumenaren alorreko jarduketarik gehienak gainerako lantokietara zabaltzen ditu, ziurtagiridun sistemaren barnean egon ez arren.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema hori Ingurumen Batzordeak kudeatzen du, eta Aholkularitza Juridikoko, Barne Ikuskaritzako, Arriskuetako, Higiezinetako, Segurtasuneko eta Zerbitzu Orokorretako, eta Kalitateko kideek osatzen dute; azken horrek egiten ditu koordinatzaile-lanak. Rioko Adierazpenaren zuhurtziazko printzipioa ezarriz, jarduerak izan litzakeen inpaktuak hartzen dira aintzat, ingurumenari kalterik ez egiteko.

LABORAL Kutxak ingurumena zaintzeko konpromiso sendoa du, eta esparru horretako ekimen ugaritan hartzen du parte. LABORAL Kutxa Stop CO2 Euskadi elkarteko erakunde sortzaileetako bat da, IZAITEko (iraunkortasunaren aldeko euskal enpresetako) kidea da eta Munduko Hitzarmena sinatu du.

IGSak gidari duen ISO arauak berak jasota duenez, ingurumena gestionatzeko sistemaren arrakasta goi-zuzendaritza lider dutela erakundeko funtzio eta maila guztiek hartzen duten konpromisoaren mende dago. Horren harira:

- Goi-zuzendaritzak onartutako ingurumen-politika du LABORAL Kutxak. Bazkide eta bezero guztiek dute eskura, bere webgune korporatiboan argitaratuta dago eta.
- Urtean behin, plangintza egiten du, ingurumenaren alorreko arrisku eta aukerak zehazteko.
- Horietan oinarrituz, helburuak finkatzen ditu, eta jarraipena egiten die. Gainera, ezagutarazi ere egiten ditu, bai kanpoan eta bai barruan.
- Ingurumen-helburu horiek lortzeko ekintzak ere zehazten ditu, adieraziz zer egin, zer baliabide erabiliz, nor izango den arduraduna eta zer adierazle erabiliko den burutzapena eta epeak betetzen diren ebaluatzeko.

IGSa AENORek ikuskatzen du urtean behin. Azken auditoretzako txostenean, 2017-09-25ekoan, 3 desadostasun aurkitu zituen sisteman. Bata izan zen, erabiltzeari utzi zaion hozte-dorre baten bajaren jakinarazpena ez delako bideratu. Txosten horretan, hauek ageri dira, besteak beste, LABORAL Kutxak IGSan dituen alde indartsu moduan: Gestio Sistema erreferentziako arauaren azken bertsiora egokitu izana, geotermiako eta biomasako instalazio termikoak sortutako energia erabiltzea, eta LK1 eraikinari A energia-sailkapena eman izana (2017-05-02ko energia-ziurtagirian).

**Lagun Aro Aseguruak**-ek partekatu egiten ditu LABORAL Kutxaren ingurumenaren alorreko gestio-politikak, baina ez da bere Ingurumena Gestionatzeko Sisteman sartu.

Bere jardueraren izaera dela eta, aseguru-erakundeak eragin txikia du ingurumenean. Halere, **papeararen kontsumoa**n ardazten du bere gestioa.

Ildo horretatik, paperaren erabilera murrizteko ahalegina egin da erakundean, bai barruan (inprimatze-eredu berriaren bidez), bai kanpoan (bezeroen agirien gestioa optimizatuz).

2016aren amaieran, inprimagailu eta fotokopiagailu guztiak berritu genituen. Horri esker, kostuen efizientzia handiago lortzeaz gain, egindako inprimaketei buruzko informazio zehatza ere eskuratu genuen.

Gainera, beste ekimen batzuk ere abiarazi dira barruan, adibidez: gastu-oharren eta erantsitako tiketen sistema aldatzea, zerrendak automatizatzea, pantaila bikoitza, aldebiko inprimatzea, inprimatze-datuak hilean behin taldeei bidaltzea eta paperaren erabilera ezabatzeko lehiaketa bat abian jartzea.

Era berean, proiektu bat sortu da, polizak formatu digitalean emateko eta bitartekariei eta bezeroei aplikazioetara sartzeko hainbat aukera eskaintzeko. Horrela, aseguru-bitartekariek eta Lagun Aroko bezeroek formatu digitalean helaraz diezagukete dokumentazioa, bai harpidetzeko prozesuan eta bai zerbitzua ematerakoan.

Proiektu horrek inpaktu argia du ingurumenean, inprimaketak asko gutxitzen direlako, askoz paper gutxiago lekualdatu behar delako eta artxibatzeko leku gutxiago behar delako.

Urtean behin, ingurumen-alderdiak identifikatu, erregistratu eta ebaluatu egiten dira ingurumen-programan, hain zuzen ere lotutako ingurumen-inpaktuak zehazteko eta bizi-zikloaren ikuspegitik duen garrantzia zehazteko. Xede horrekin, magnitudea eta arriskutsutasuna finkatzen dira, eta garrantzia zenbaterainokoa den zehaztu. Ondoren, LABORAL Kutxaren eta Lagun Aroren Ingurumena Gestionatzeko Programaren adierazle nagusiak aurkeztuko ditugu, ebaluazio horren emaitza aintzat hartuta.

| Paperaren kontsumoa kg-tan | LABORAL Kutxa | | LA Aseguruak |
|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2017 |
| Publizitateko papera | 97.089 | 96.457 | 80.058 |
| Bulegoko papera | 283.303 | 235.538 | 6.833 |
| **Paperaren kontsumoa guztira** | **356.552** | **331.995** | **86.891** |
| Publizitateko papera bezeroko | 0,083 | 0,082 | 0,23 |
| Bulegoko papera bezeroko | 0,241 | 0,201 | 0,02 |
| **Kontsumo osoa bezeroko** | **0,324** | **0,25** | **0,25** |
| Paperaren kontsumo osoa pertsonako | 162,7 | 150,2 | 520,3 |

Bezeroei zuzendutako komunikazioetako papera murrizte aldera, azken urteetan bultzada handia ari zaio ematen teknologia berriak eta posta elektroniko bidezko komunikazioak (Postamail) erabiltzeari:

| Postamailen erabiltzaileak | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Erabiltzaile-kopurua | 456.229 | 497.166 |
| Erabiltzaileen %-a bezero guztiekiko | % 38,83 | % 42,49 |
| **Interneten erabiltzaileak** | **2016** | **2017** |

| | | |
|---|---|---|
| CLNet kontratuen kopurua | 581.507 | 615.487 |
| CLNeten aktiboak diren bezeroak | 338.954 | 365.137 |
| Bezero aktiboen %-a kontratuetan | % 58,29 | % 59,32 |
| Banka mugikorra (mugikorraren bidez sartu diren erabiltzaileak) | 197.137 | 271.211 |
| Alertak (kontratu aktiboak) | 308.370 | 346.935 |

Lagun Arok, gainera, kanpaina bat du martxan, langileek inprimatutako orrien kopurua kontrolatu eta, horrela, inprimatzeak eta, beraz, erabilitako paper-kopurua murrizteko.

**Toner**-kartutxoei dagokienez, ahalik eta gutxien kontsumitzeko ahalegina egiten du. 2017an, baina, ez da halakorik sumatu. Eten bat dago toner-kontsumoaren datuetan; izan ere, LABORAL Kutxak ordezkatu egin ditu bere inprimagailu, eskaner eta fotokopiagailu guztiak, eta modelo berriek, gutxiago kontsumitzen badute ere, kartutxo-kopuru handiagoa erabiltzen dute, txikiagoak direlako.

| Toner-kontsumoa aletan | LABORAL Kutxa | | LA Aseguruak |
|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2017 |
| Toner-kartutxoen kontsumoa guztira | 1.877 | 2.644 | 44 |
| Kartutxo-kontsumoa pertsonako | 0,80 | 1,20 | 0,38 |

LABORAL Kutxaren jardueraren inpaktuak mugatuak dira. **Kontsumo elektrikoa**rena da nabarmenenetako bat. Arrasateko zerbitzu zentraletakoak ISO 14001 ingurumen-ziurtagiria betetzen dute, eta aktiboki gestionatzen da:

| Urteko kontsumoa | LABORAL Kutxa | | LA Aseguruak |
|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2017 |
| Urteko kontsumo elektrikoa kWh-tan ZZetan | 3.421.514 | 3.476.909 | 247.917 |
| Urteko kontsumo elektrikoa kWh-tan LK osoan | 14.647.375 | 13.891.322 | |

Uraren kontsumoak garrantzi handirik ez badu ere finantza-erakundeetan, gure ingurumen-sisteman kontrolatu egiten dugu zerbitzu zentraletako kontsumoa. Eraikinetan egiten ari garen berrikuntzetan, hoditeria berritzen ari gara, hausturak gutxitu eta ura galtzea saihesteko.

| Egoitza Nagusiko ur-kontsumoa (m3-tan) | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Ur-kontsumoa | 11.239 | 5.786* |
| Pertsonako kontsumoa urtean | 26,02 | d/e |

*Hiru hilabete; 2016ko hiruhileko berean, 9.836 m3-koa izan zen kontsumoa.

Gure jardueraren **karbono-aztarna**ren kalkulua da garrantzi berezia duen beste gai bat. Azken urteotan, ahalegin handiak egin ditugu hori txikitzeko. Nabarmentzekoak dira:

- Zerbitzu Zentraletako eraikinak klimatizatzeko **geotermia**-instalazio bat jarri izana.
- Kaloria-beharrak osatzeko **biomasa**-instalazio bat eraiki izana. Bi instalaziooi esker, guztiz kendu ahal izan da erregai fosilen bidezko klimatizazioa (1. Irismena).
- Klimatizazioaren eta argiztapenaren efizientzia handitzeko berrikuntzak egin ditugu isolamenduetan (isurtze txikiko beiren bidez) eta instalazioetan (LED argien bidez).

| Isurtzeen xehakapena, jatorriaren arabera. Karbono-aztarna | LABORAL Kutxa | | LA Aseguruak |
|---|---|---|---|
| | 2016 | 2017 | 2017 |
| 1. irismena: zuzeneko isurtzeak | 144 | 57 | 0 |
| 2. irismena: zeharkako isurtzeak | 4.997 | 4.739 | 85 |
| 3. irismena: zeharkako beste isurtze batzuk | 794 | 818 | 229 |
| **Isuritako CO2 tonak guztira** | **5.935** | **5.613** | **313** |

Horiek lortzeko, hauek hartzen dira aintzat:

- **1. irismenerako**, gasolio- eta propano-kontsumoak.
- **2. irismenean**, elektrizitate-kontsumo osoa hartu da aintzat (Zerbitzu Zentraletakoa, bulego-sarekoa eta Lurralde Zuzendaritzetako eraikinetakoa).
- **3. irismenerako**, **lanorduetako lekualdatzeetan egindako isurtzeak** hartu dira kontuan, bai eta taxian egindako kilometroak, kontsumitutako paperaren ondoriozko isurtzea eta bezeroek gure webgunea erabiltzean kontsumitutako elektrizitatea ere.

**Ingurumen-segurtasuna**ri dagokionez, Zerbitzu Zentraletako eraikin eta instalazioek larrialdi-planak dituzte. Horietan, gorabeheraren bat gertatuz gero ingurumenak jasan ditzakeen ondorioak aztertu dira, bai eta ondorio horiek ahalik eta gehien txikitzeko jarduteko modua ere.

Gainerako languneek ere badituzte larrialdi-planak; dena den, bulego-sarean askoz txikiagoak dira larrialdien ondorioz ingurumenari egin lekizkiokeen kalteak.

**Hondakinak** egoki gestionatzen dira, ingurumen-ziurtagiriari jarraikiz. Era berean, hondakin nabarmenenak (papera eta tonerra) modu zentralizatuan gestionatzen dira langune guztietarako. Segidan, gure jardueran garrantzirik handiena dutenak azalduko ditugu:

| Adierazlea | Unitatea | LABORAL Kutxa | | LA Aseguruak | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2016 | 2017 | 2016 | 2017 |
| Kartoi- eta paper-hondakinak | Kiloak | 176.760 | 131.135 | 6.874 | 12.437 |
| Birziklatutako toner-kartutxoak | Kop. | 1.338 | 2.694 | | |
| Erabilitako landare-olioa | Kiloak | 1.350 | 1.200 | | |

LABORAL Kutxaren gizarte-erantzukizunaren politikak badu bereizgarri bat: **inbertsio sozialki arduratsuaren (ISAren)** kontzeptu hedakorra erabiltzen du. Horren bidez, ingurumenaren, gizartearen eta gobernamendu onaren alorreko irizpideak erabiltzen ditu, korporazioaren eta bezeroen (inbertsio- eta pentsio-fondoen bidezko) fondoak zer sozietatetan inbertitu erabakitzeko. Berdin jokatzen da kreditu-inbertsioetan ere.

Lehen arloan, *EIRIS – Vigeo* sozietate espezializatuak sortutako *sustainability ratings* direlakoen bidez aztertzen dira merkatuetako inbertsioak. Rating horiek ingurumenaren esparruko eskakizunak zenbatesten dituzte. Gure bezero enpresei zuzendutako finantzaketari dagokionez, irizpide baztertzaileak ez ezik, barneratzaileak ere erabiltzen ditugu. Horren adibide dugu % 100 elektrikoak (0 isurtzedunak) diren BMW 3i 14 ibilgailu finantzatu izana, hiriko erabilera intentsiborako gidaridun ibilgailu moduan erabiltzeko.

# 3. GIZARTE-GAIAK ETA LANGILEEN GAINEKOAK

## 3.1 LANGILEAK

LABORAL Kutxa kreditu-kooperatiban, langileak erabateko eskubideak eta betebeharrak dituzten bazkide jabeak dira, bai euren lanbide-eginkizunak betetzeari, bai enpresaren gestioan —dagozkien organoen bitartez— zein emaitzetan parte hartzeko eskubideari dagokienez.

Beraz, pertsonek ohiko hiru alorretan hartzen dute parte enpresan: jabetzan, gestioan eta emaitzetan. **Hezkuntza Kooperatibo**ko prestakuntza-programek, bazkideen nortasun kooperatiboa indartzeaz gain, integratzen eta Entitatean eta langile-taldean inplikatzen laguntzen diete bazkide berriei.

2018ko Gestio Plana osatzeko egindako hausnarketa estrategikoan, teknologia eta banka digitala indarrez sartzeak negozio-ereduan eta pertsonengan duten eraginaren ingurukoak dira antzemandako arrisku eta aukera nagusiak.

2019ra bitarteko erronka nagusia da egoera berrira nola egokitu erabakitzea. Horretarako, portaerak aldatu behar ditugu, gure balioak (nortasunaren ezaugarriak) galdu gabe erronka estrategikoei erantzuteko.

Portaerak egokitzea mugimendu kultural bat da, eta batik bat digitalizazioan eta omnikanalitatean oinarritutako estrategia bat ezartzeko, zer kultura nahi dugun erabaki behar dugu, ondoren egungo kultura-profilarekin alderatzeko. Xede horrekin, 2017an kulturaren alorreko inkesta bat egin diegu Entitateko pertsona guztiei. Hurrengo urratsa izango da kultura garatzeko ekintza-planak zehaztea.

Gestio Planean pertsonen alorreko jardueran lehenetsitako bigarren arloa Barneko Gizarte Erantzukizuna kontzeptuaren baitan sartu da. Lehentasun hauek ditu:

- Hizkuntza-normalizazioa: euskaraz kalitatezko zerbitzua bermatzea eta euskara gure lanerako hizkuntza izateko pausoak ematea.
- III. Berdintasun Plana (2016-2018 eperakoa) martxan jartzea.
- Laneko Segurtasun eta Osasun Sisteman aurrera egitea, OHSAS 18001 arauak haren gestio-sistemarako eskatutako estandarrei jarraikiz.

Hirugarren lekuan, 2017an prestakuntza-ahalegin oso handia egin da aurrezki- eta inbertsio-produktu konplexu eta ez-konplexuen aholkularitzan eta salmentan, kontsumitzailea babesteko arauetara egokitu ahal izateko. Zehazki, MiFID II zuzentarauaren eskakizunei erantzuteko, araudi horretan ezarritakoaren arabera homologatu dugu bezeroekin harremanetan dauden gestore guztien jarduna.

Lagun Aro Aseguruak

Lagun Aro Aseguruak sozietate anonimoa da, % 100 LABORAL Kutxaren partaidetzakoa. Beraz, bertako langileak enpresaren jabeak ez badira ere, parte hartzen dute gestioan eta enpresaren irabazietan. Honela egiten dute:

- Ordainketa aldakor indibidualaren bidez (unibertsala da).
- Ordainketa aldakor kolektiboaren bidez. Kontratu mugagabea duten langileei aplikatzen zaie (plantilla osoari, esateko), langileek enpresaren emaitzetan parte hartzeko aukera ematen duen sozietate bati baitaude beren borondatez atxikita.

2018ko Gestio Plana osatzeko egindako hausnarketa estrategikoan, aseguruen merkatuan sartu diren joera berriek negozio-ereduan eta pertsonengan duten eraginaren ingurukoak dira antzemandako arrisku eta aukera nagusiak. Beraz, agertoki digital berrian pertsonen jarrerak, portaerak, ezagutzak eta gaitasunak berritzea da erronka nagusia.

Lehentasunen bigarren maila batean, jarduera hauek daude:

- Erakundean lidergoa garatzea.
- Hizkuntza-normalizazioa: euskara gero eta gehiago erabil dadin gure lanerako hizkuntza moduan.
- II. Berdintasun Plana (2018-2020 eperakoa) martxan jartzea.
- Laneko Segurtasun eta Osasun Sisteman aurrera egitea, beraren gestio-sistemarako eskatzen diren estandarrei jarraikiz.
- Era berean, Enpresa Osasungarria proiektua garatzea. «Lagun Aro Aseguruak-en gurea zaintzen dugu» lelopean, osasuna sustatzeko hainbat jardunbide lantzen dira: elikadura, ariketa fisikoa, ergonomia eta eragile psikosozialak. 2017an abiatu zen proiektua eta jarraipena izango du 2018an eta 2019an, sozietateko pertsona guztien osasuna zaintzeko ekintza-planen eta jardueren bidez.

Hauxe da plantillen osaera:

| LKrekiko kontratu-harremana (12/31n) | 2016 | | | 2017 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizon. | Emakum. | Guztira | Gizon. | Emakum. |
| *Jarduneko bazkideak* | *1.925* | *1.020* | *905* | *1.839* | *943* | *896* |
| Eszedentziak | 44 | 9 | 35 | 28 | 6 | 22 |
| Zerbitzu-eginkizunak | 16 | 6 | 10 | 15 | 6 | 9 |
| Aurre-erretirodunak | 104 | 67 | 37 | 134 | 93 | 41 |
| **Sozietate-kontratuak** | **2.089** | **1.020** | **905** | **2.016** | **1.048** | **968** |
| Behin-behinekoak lanaldi osoan | 148 | 43 | 105 | 146 | 47 | 99 |
| Behin-behinekoak lanaldi partzialean | 18 | 1 | 17 | 7 | 0 | 7 |
| **Aldi baterako kontratuak** | **166** | **122** | **44** | **153** | **47** | **106** |
| **Kontratu mugagabeak** | **8** | **8** | **0** | **7** | **7** | **0** |
| **Plantilla osoa 12-31n** | **2.263** | **1.154** | **1.109** | **2.176** | **1.102** | **1.074** |

**BancaSeguros**eko langile guztiek kontratu mugagabea dute, eta LABORAL Kutxaren Egoitza Nagusian eta sare komertzialetan banatuta daude.

| Lan-bazkideen bajak eta urteko errotazioa LABORAL Kutxan | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Urteko bajak | **91** | **144** |
| Borondatezko eszedentzia eta kargu publikoa betetzeagatikoa | 10 | 0 |
| Seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia | 41 | 41 |
| Erretiroa | 21 | 16 |
| Heriotza eta baliaezintasuna | 0 | 3 |
| Borondatezko baja | 5 | 4 |
| Zerbitzu-eginkizunak | 3 | 0 |
| Aurre-erretirodunak | 11 | 80 |
| Emakumeen urteko bajak | 57 | 65 |
| Gizonen urteko bajak | 34 | 79 |
| **Irteera-tasa guztira** | **% 4,7** | **% 7,5** |
| Emakumeen irteera-tasa | % 6,2 | % 7,3 |
| Gizonen irteera-tasa | % 3,3 | % 8,4 |

**Lagun Aro Aseguruak**-en lantaldean, emakumeak dira gehienak.

| LASekiko kontratu-harremana (12/31n) | 2016 | | | 2017 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Gizon. | Emakum. | Guztira | Gizon. | Emakum. |
| **Plantilla osoa 12-31n** | **172** | **63** | **109** | **167** | **59** | **108** |

## 3.2. ANIZTASUNA ETA AUKERA-BERDINTASUNA

LABORAL Kutxaren 2016-2018 Berdintasun Planaren barruan, hauxe izan da ekitaldiko gertaera oso nabarmen bat: kooperatibaren administrazio-organo gorenean oreka lortu dugula generoaren helburu kuantitatiboan. 2017ko Batzarrean karguak berritu ostean, **Kontseilu Errektorea osatzen duten 12 kideetatik 6 emakumeak dira eta 6 gizonak.**

| LK-ko bazkideen plantilla sexuaren eta kategoria profesionalaren arabera | 2016 | | | | 2017 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizon. | | Emakum. | | Gizon. | | Emakum. | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Zuzendariak | 32 | 1,7 | 3 | 0,2 | 25 | % 1,4 | 5 | % 0,3 |
| Buruak | 282 | 14,7 | 118 | 6,1 | 263 | % 14,3 | 122 | % 6,6 |
| Teknikariak | 363 | 18,9 | 392 | 20,4 | 331 | % 18,0 | 382 | % 20,8 |
| Administrariak | 166 | 8,6 | 298 | 15,5 | 155 | % 8,4 | 292 | % 15,9 |
| Beste batzuk | 177 | 9,2 | 94 | 4,9 | 169 | % 9,2 | 95 | % 5,2 |
| **Guztira** | **1.020** | **53** | **905** | **47** | **943** | **% 51** | **896** | **% 49** |
| **Jarduneko bazkideak** | **1.925** | | | | **1.839** | | | |






| LABORAL KUTXAKO EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA | | |
|---|---|---|
| **LAN-ILDOA** | **HELBURUAK** | **NEURRIAK** |
| Komunikazioa eta sentsibilizazioa | 1. HELBURUA: berdintasunarekiko konpromisoa adieraztea eta horretarako neurriak hartzea | 10 |
| Entitatearen kultura | 2. HELBURUA: berdintasunaren kultura sendotzen jarraitzea | 6 |
| Lan-bizitza eta familia bateragarri egitea eta erantzunkidetasuna | 3. HELBURUA: LABORAL Kutxako langileen lan-bizitza, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiten laguntzea | 4 |
| Sustapena eta ahalduntzea | 4. HELBURUA: emakumeek ardura-postuetan duten presentzia handitzea | 4 |
| Gizarte-erantzukizuna | 5. HELBURUA: gizartean berdintasuna sustatzea eta entitateak berdintasunarekin duen konpromisoaren berri ematea gizarteari | 8 |

2017an zehar, ekimen berritzaileak jarri dira martxan, hala bazkideak nola bezeroak eta gizarte osoa sentsibilizatzeko. Hona hemen adibide batzuk:

- Erakundeko pertsonen partaidetzari esker, iragarki batzuk sortu ditugu, eguneroko lanean bizi ditugun hainbat desberdintasun-egoera erakusteko. «Berdintasuna xehetasun txikietan dago» izeneko proiektu hori finalista izan da *Euskalit*ek antolatu duen *Kudeaketa aurreratuari buruzko film laburren I. jaialdian.*
- Lau bulego (Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean) *grafitiz* jantzi ditugu, *Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean.* Jarduera horrek oihartzun handia izan du hedabideetan.
- Nabarmentzekoak dira, halaber, hizkuntza eta irudi sexistarik ez erabiltzeko egindako jarduketak.

**BancaSeguros**eko datuak

| Plantilla sexuaren, kategoria profesionalaren eta negozio-arearen arabera | 2016 | | | | 2017 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizon. | | Emakum. | | Gizon. | | Emakum. | |
| | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % | Kop. | % |
| Zuzendariak | 2 | 100 | 0 | 0 | 1 | 100 | 0 | 0 |
| Buruak | 8 | 80 | 2 | 20 | 8 | 80 | 2 | 20 |
| Teknikariak | 1 | 14 | 6 | 86 | 1 | 14 | 6 | 86 |
| Gestore komertzialak | 39 | 20 | 149 | 80 | 34 | 19 | 143 | 81 |
| **Langileak guztira** | **50** | **24** | **157** | **76** | **44** | **22** | **151** | **78** |
| Zerbitzu Zentralak | 4 | 36 | 7 | 64 | 4 | 36 | 7 | 64 |
| Sare Komertziala | 46 | 23 | 150 | 77 | 40 | 22 | 144 | 78 |
| **Langileak guztira** | **50** | **24** | **157** | **76** | **44** | **22** | **151** | **78** |

2017an, diagnostikoa eta II. Berdintasun Plana egin dira **Lagun Aro**n. Prozesua bi fasetan gauzatu da, Elhuyar Aholkularitzaren laguntzarekin. Entitatean emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren egoera diagnostikatzeko fasean, inkesta egin dugu, eta enpresaren dokumentazioa eta datuak aztertu ditugu. Bigarren fasean, diagnostikoaren emaitza eta ondorioak aintzat hartuta, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana diseinatu dugu, datozen urtetan gauzatzeko.

Plana egiteko, Berdintasunaren Batzordea eratu genuen, eta jardunean jarraituko du planaren ezarpenaldian (2018tik 2020ra bitartean). Era berean, Berdintasun Planaren koordinatzailea izendatu dugu, aipatutako kontsultoretza-enpresaren aholkuei jarraikiz plana susta dezan.

Hauek dira planean jaso diren helburu nagusiak:

1. Berdintasun Plana ezartzea.
2. Plana garatzen entitateko pertsona guztien partaidetza bultzatzea.
3. Zuzendaritza-organo guztietan parekotasun handiagoa lortzea.
4. Langileen % 90ek hautapen- eta sustapen-prozesuak berdintasun-irizpideetan oinarritzen direla suma dezaten lortzea.
5. Lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko beharrak erakundearen errealitatera egokitzea.
6. Ordainketetan eta onura sozialetan desorekarik dagoen jakitea eta, baldin badago, gainditzea.
7. Ordainketaren alorreko benetako egoera ezagutu dezatela pertsonek.
8. Erakundean sexu-jazarpenik edo jazarpen sexistarik ez dadila egon lortzea.
9. Bereizketak egiten dituen hizkuntzaren erabilera desagerraraztea.
10. Hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa bermatzea.
11. Berdintasun-kontuetan jendearen aintzatespena lortzea.
12. Hainbat interes-talde berdintasunaren alorrean sentsibilizatzea.

## 3.3 LANEKO SEGURTASUNA, OSASUNA ETA ONGIZATEA

Laneko osasunaren, segurtasunaren eta ongizatearen harira, urtero ONDOANek egiaztatzen duen OHSAS ziurtapena du LABORAL Kutxak. Ziurtapen horrek erakusten du kooperatibak konpromisoa duela hartua lantaldean prebentzio- eta ongizate-estandarrik handienak lortzearekin.

Jarraian, joan den ekitaldian arlo horretan landutako jarduera eta adierazlerik nabarmenenak jasoko ditugu:

| Gestio-programa: 2017rako proposatutako ekintzak |
|---|
| 1. Segurtasuna eta osasuna Entitateko prozesuetan integratzen jarraitzea, bereziki obrei, postuen egokitzapenari eta altzariei lotutako gaietan. |
| 2. 2017an hainbat pertsona ordeztea aurreikusita dagoenez, doazenen irteera koordinatzea eta pertsona berriak trebatzea. |
| 3. Lantaldearen % 95ek harrerako prestakuntza egitea. |
| 4. Sistemaren barne-ikuskaritzak egitea. |
| 5. Enpresa-jardueren koordinazioan aurrera egitea. |

| Absentismo-orduak eta -tasa LABORAL Kutxan | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Gaixotasuna eta istripua | 98.500 | 95.744 |
| Amatasuna | 34.686 | 28.704 |
| Aitatasuna | 3.119 | 3.689 |
| Gainerakoak* | 0 | 4.971 |

| | | |
|---|---|---|
| Absentismo-orduak guztira | 136.305 | 133.107 |
| Absentismo-tasa | 2,78 | 3,00 |
| Lagun Aroren absentismo-tasa | 4,36 | 2,44 |
| BancaSegurosen absentismo-tasa | 4,27 | 4,54 |

*Adin txikiko gaixoak zaintzeko.

Aurretik esan dugunez, **Lagun Aro Aseguruak**-ek enpresa osasungarriaren bidea egitea erabaki du, *«Lagun Aro Aseguruak-en gurea zaintzen dugu»* Osasuna Sustatzeko Proiektua garatuz. Hauek izan dira 2017an abian jarri ditugun ekintzak:

• Planean parte hartu nahi duten kideen osasunaren balorazioa:
  - Dietari buruzko inkesta
  - Jarduera fisikoari buruzko inkesta
  - Gorputz-balorazioa (InBody)
  - Zehaztapen analitikoaren balorazioa

• Joan-etorri aktiboak sustatzea.
• Tartera: tarterarekin ere dieta mediterraneoaren arabera elikatzeari buruzko prestakuntza eta gomendioak.
• Haur-elikadurari buruzko prestakuntza.
• «Plastiko gutxiago» kanpaina (ura, edalontziak…)
• Intraneten osasunaren txokoa
• Hamabostean behin jakinarazpenak Intranetean, proiektu horri lotutako alderdiak azaltzeko.

## 3.4 PERTSONEI BURUZKO ADIERAZLEAK

Prestakuntzari eta ordainketa-mailei buruzkoak dira adierazlerik nabarmenenetako batzuk.

Taula honetan, prestakuntzari buruzko informaziorik garrantzitsuena aurkeztuko dizuegu:

| Prestakuntza LABORAL Kutxan | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Ikastaro-kopurua | 568 | 413 |
| Prestakuntza-orduak | 128.017 | 227.835 |
| Prestakuntza-orduak pertsonako | 63,6 | 99,15 |
| ▪ Bazkideak | 53,02 | 108,05 |
| ▪ Behin-behinekoak | 230,4 | 59,2 |
| Zuzendariak | 240,35 | 91,13 |
| Bulegoetako buruak eta zuzendariak | 58,57 | 124,4 |
| Teknikariak | 67,64 | 95,92 |
| Administrariak | 49,83 | 89,41 |
| Ikastaro-kopurua Lagun Aron | 89 | 95 |
| Prestakuntza-orduak Lagun Aron | 4.814 | 2.464,5 |
| Prestakuntza-orduak pertsonako Lagun Aron | 26,74 | 14,00 |

Ordainketa-mailei dagokienean, ordainsarien aldea nabarmen txikiagoa da banku-sektoreko gainerako sozietateetan ohikoa dena baino.

| Hasierako soldata | 2016 | 2017 |
|---|---|---|

| | | |
|---|---|---|
| Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lan egindako orduak<br>Bazkideen hasierako soldata minimoa eurotan / lanbide arteko gutxieneko soldata | 14,60<br>2,66 | 14,83<br>2,50 |

Ez dago sexuaren araberako desberdintasunik hasierako soldata estandarraren eta tokiko gutxieneko soldataren arteko erlazioan, horregatik ez dugu sexuaren arabera banakatutako daturik eman.

| Soldaten arteko aldea | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Ondoen ordaindutako langilearen ordainketa osoa / batez besteko ordainketa osoa<br>Ondoen ordaindutako pertsonaren urteko ordainsariaren hazkundea / urteko batez besteko ordainsariaren hazkundea* | 3,60<br>Ez dago | 3,58<br>0,67 |
| Ondoen ordaindutako pertsonaren ordainketa osoa / batez besteko ordainketa osoa **Lagun Aro**n | 2,44 | 2,46 |

*LABORAL Kutxan, ordainsaria lanbide-kategoriaren arabera jasotzen da: lanpostu berak soldata bera du, gizona edo emakumea izan. Lansarien hazkundea berdina da langile guztientzat. 2017an, ondoen ordaindutako pertsonaren soldata gutxiago hazi da batez besteko ordainsaria baino.

## 3.5 ELKARRIZKETA SOZIALA

Kreditu Kooperatiben Hitzarmen Kolektiboa da erreferentzia orokorra. Dena den, LABORAL Kutxak Enpresaren Negoziazio Kolektiborako araua finkatu zuen 1996an, negoziazio kolektiborako eredu jakin bat ezartzeko.

Negoziazio kolektiboaren bidez, LABORAL Kutxako pertsona guztien (lan-bazkideen eta inoren konturako langileen) enplegu- eta lan-baldintzak ezartzen dira, bai eta horiek aplikatuko direla bermatzen duten berme sozialak ere. Prozesu horren emaitza dira LABORAL Kutxako pertsona guztien enplegu- eta lan-baldintza orokorrei buruzko arauak eta prozedurak, aldeek (Zuzendaritza Kontseiluak eta Kontseilu Sozialak) eta pertsona guztiek bete beharrekoak.

Urtero negoziatzen diren gastu-konpentsazioei, egutegiei eta abarrei lotutako ohikoez gain, gai hauen inguruko erabakiak ere hartu dira 2017an:

- MiFID II arauaren ondoriozko prestakuntza-programa garatzeko baldintzak.
- Plantilla egokitzeko borondatezko neurriak (lanaldi murriztu hobaridunak, eszedentzia negoziatuak, irteera pizgarridunak…).

Urtero bezala, urteko negoziazio-prozesua amaitu ondoren, 2018an negoziatu beharreko gaien zerrenda trukatu dugu bi alderdiok.

Caja Laboral **BancaSeguros** SLU sozietateari dagokionez —LABORAL Kutxaren partaidetzakoa da % 100ean—, bertako langile guzti-guztiak inoren kontura daude kontratatuta, eta 2016an eguneratu den lan-hitzarmenak eta lan-araudi orokorrak zehazten dituzte lan-baldintzak. Langileei zuzenean eragiten dieten lan- eta -lanbide-gaiak arautzen ditu hitzarmen horrek, eta lotura handia du LABORAL Kutxako lan-araudi eta -prozedurekin.

**Lagun Aro Aseguruak**-ek harreman arina du langileen legezko ordezkaritzarekin, eta berarekin negoziatzen du, hain zuzen, Enpresaren Estatutu Hitzarmena (BOEn argitaratzen da). 2015ean aurreko lan-hitzarmena amaitu ondoren, bi urteko luzapena hitzartu zen. 2017. urtea izan da, bi urte horietako bigarrena.

Hitzarmen horren esparruan, aplikatzekoa zen hitzarmen kolektiboaren baldintzetan hobekuntza bat erabaki zen, salbuespen gisa, 2016. eta 2017. urteetan txertatzeko. Hala, enpresak BGAEra edo pentsio-planetara aparteko ekarpenak egiteko konpromisoa hartu zuen. Zehazki, 2016an eta 2017an 300 €-ko aparteko ekarpenak egin dira pertsona bakoitzeko. Ekarpen horietarako eskubidea izateko, langileak plan bateko harpideduna izan behar zuen aurreko urteko abenduaren 31n eta, gainera, 300 €-ko edo hortik gorako aparteko ekarpena egin behar zuen.

Luzapen horri esker, giro sozial ona izan dugu ekitaldian zehar. 2017aren amaieran, behin luzapena amaitutakoan, hurrengo ekitaldietarako hitzarmen bat negoziatzeari ekin diogu.

# 4. GIZARTE-GAIAK

## 4.1. BERTAKO KOMUNITATEAK: ELKARRIZKETA, BABESA ETA GARAPENA

**LABORAL Kutxa** Euskal Herrian sortu zen, gizartea zerbitzatzeko konpromiso sendoa duen enpresa-talde baten baitan. Taldearen misioa partaidetzazko elkarlan kooperatiboa sortzea da, sozietateko zuzeneko partaideentzat nahiz bertako gizartearentzat aberastasuna eta ongizatea lortzeko.
Gizarte-laguntzak emateko irizpide eta mekanismoek berezitasun batzuk dituzte:

- LABORAL Kutxak, bere izaera juridikoagatik eta bokazio kooperatiboagatik, kooperatiben mundua sustatzera bideratzen du ekarpen solidarioen zati handi bat.
- Kooperatibaren organo instituzionalen ardura dira Heziketako eta Sustapeneko Fondoaren ataletako baten (Banaketa Orokorraren) kargura banatzen diren diru-laguntzak. Alabaina, Kontseilu Sozialak (hau da, Entitateko langileak ordezkatzen dituen organoak) ere hartzen du parte.
- Gizarte-lanen atal zehatz bat tokiko beharretarako (LABORAL Kutxaren 324 bulegoen bitartez tokian-tokian banatzeko) gordetzen du. Bulego horiek inguruko jardueretara (auzo-elkarteetara, ikastetxeetara, gizarte-ekintzako eliza-taldeetara, etorkinei laguntzeko zentroetara…) bideratzen dituzte laguntzak.

Heziketako eta Sustapeneko Fondoak (HSFak) helburu hauek ditu:

- Plantilla kooperatibismoaren printzipio eta balioetan trebatu eta heztea.
- Kooperatibismoa hedatzea eta kooperatiben arteko harremanak sustatzea.
- Gizartean kultura, lana eta laguntzak bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzea eta gizarte-garapena eta ingurumena babesteko ekintzak sustatzea.

| Kontzeptua (mila eurokotan) | Aplikazio-urteak | |
|---|---|---|
| | 2016 | 2017 |
| Enpresa kooperatiboak abian jartzeko eta finkatzeko elkartasunezko ekarpena (MONDRAGONen bidez) | 11.306 | 11.750 |
| **Kooperatiba arteko Fondo Soziala - KFS (emaitzen % 15)** | **11.306** | **11.750** |
| Kooperatiba-sustapena MONDRAGONen bidez (HSFaren % 68) eta beste helburu batzuk (Kreditu Kooperatiben Nazio Batasuna…) | 5.280 | 5.327 |
| Berregituratze eta Enplegu Sozietariorako Fondoa (BESF) | 831 | 818 |
| Ekintzailetza eta Enpresa- eta lan-prestakuntza (*Gaztenpresa Fundazioa*) | 235 | 261 |
| Kultura-jarduerak, oro har, eta bestelakoak | 339 | 397 |
| Euskararen eta euskal kulturaren sustapena | 338 | 428 |
| Laguntza-erakundeak eta hirugarren mundukoak | 398 | 269 |
| Nekazaritzako elikagaien sektorea | 117 | 57 |
| **Heziketako eta Sustapeneko Fondoa – HSF (emaitzen % 10)** | **7.538** | **7.557** |
| **KFS + HSF** | **18.844** | **19.307** |

Ikuspegi kuantitatibotik, LABORAL Kutxako estatutuek gizarteari «itzultzeko» finkatutako kopuruak askoz handiagoak dira araudiek kreditu-kooperatibentzat ezarritakoak baino. Zehazki, LABORAL Kutxak urteko **emaitza banagarrien % 25** bideratzen ditu inguruko gizarteko

gizarte- eta enpresa-jarduerak sustatzera, eta legeak % 10eko ekarpena eskatzen du. Gainera, gainerako emaitzak Kutxan bertan inbertitzen dira, kaudimena eta iraunkortasuna handitzeko, eta ez da dibidenduen banaketarik egiten.

**Lagun Aro Aseguruak**-en kasuan, 2017an eutsi egin dio Istripuak Stop elkartearekiko, Gaztenpresarekiko eta ZEHARO FUNDAZIOArekiko lankidetzari.

## GAZTENPRESA FUNDAZIOA

Ekintza nabarmengarrietako bat Gaztenpresaren bidez ekintzailetzari laguntzea da. 1994an abiatu zen ekimen hori liderra da Hego Euskal Herrian, enpresa-ibilbideari ekiten dioten autonomo eta negozio txikiei laguntzen.

Gaztenpresa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, LABORAL Kutxaren gizarte-jardunean sartua. Enplegua sortu eta mantentzeko ekimenei laguntzea eta ekintzak gauzatzea du helburu eta, horretarako, enpresa- eta lanbide-garapenean erabiltzaileei, aliatuei eta gizarte osoari balioa ekarriko dieten programak eta zerbitzuak erabiltzen ditu. Fundazioak helburu hauek ditu:

- Ekintzaileak, batez ere gazteak
- Gizarteratzeko eta laneratzeko arazoak dituzten kolektiboak
- Garatzeko proiektuak dituzten mikroenpresa gazteak
- Ikasleen artean ekintzaile-sena sustatu nahi duten prestakuntza-erakundeak

LABORAL Kutxak eta Mondragon korporazioak, batetik, eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak (Lanbideren bidez) eta Europako Gizarte Funtsak, bestetik, finantzatzen dute **Gaztenpresa Fundazioa**, eta, esan beharra dago enpresak sortzeko ahalegin handia egin duela 2017an. Lagundutako proiektuek, bideragarritasun-fasea gainditutakoan, **402 enpresa eta 703 lanpostu sorrarazi** dituzte.

| Gaztenpresaren proiektuak | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Bideragarriak izaki negozioa abiarazi dutenak | 386 | 402 |
| Bideragarriak izan ala ez negozioa ireki ez dutenak | 235 | 266 |
| Finkatzea | 84 | 19 |
| Deribatuak | 87 | 160 |
| Kontsultak | 218 | 201 |
| **Guztira** | **1.010** | **1.048** |

## 4.2. ZERGAK ETA TRIBUTUAK

LABORAL Kutxak jarduera burutzen duen lurraldeetan betetzen ditu zerga-obligazioak. Horrela, zerbitzu publikoei eusten eta gizartea garatzen laguntzen du. Honako hauek dira 2017ko kopuruak:

| Zergak eta tributuak (mila €-kotan) - LABORAL Kutxa | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Sozietateen gaineko zerga | 9.779 | 8.682 |
| Tributuak (OHZ, EJZ…) | 7.085 | 7.306 |
| BEZ | 1.790 | 2.247 |
| **Guztira** | **18.654** | **18.235** |

| Zergak eta tributuak (mila €-kotan) - Lagun Aro Aseguruak | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Sozietateen gaineko zerga | 4.416 | 3.135 |
| Tributuak (OHZ, EJZ…) | 93 | 101 |
| Aseguru-primen gaineko zergak | 7.150 | 7.165 |
| **Guztira** | **11.660** | **10.403** |

## 4.3. KONTSUMITZAILEEKIKO HARREMANA, GOGOBETETASUNA ETA IRISGARRITASUNA

Bezeroekin elkarrizketak izateko bitartekoen helburua da bankuetako eta aseguruetako bezeroen itxaropenak eta eskaerak ezagutzea. Bide horiek, gainera, *kalitate integraleko prozesuan* txertatzen dira. Izan ere, gure etengabeko helburua da bezeroek harremanetarako erabiltzea erabakitzen duten kanal guztietan lehiakideekiko abantailari eustea, bezeroarekiko arretaren eta zerbitzuaren kalitatean. Grafiko honetan, elkarrizketarako ezarri ditugun mekanismo ugariak daude azalduta.

Bankuetako eta aseguruetako bezeroari entzutea. Abian diren mekanismoak




Beste banku eta aseguru-entitate batzuekiko konparaziozko emaitzak aldekoak dira. Beheko taulotan txertatu ditugu esanguratsuenetako batzuk.

| Bankuko bezeroen gogobetetasuna (1etik 10era bitartean) | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Lehentasunezko bezeroen gogobetetasuna | 7,82 | 7,67 |
| Gomendio-maila | 7,55 | 7,48 |

Iturria: LABORAL Kutxaren irudiari eta markari buruzko jarraipen-azterketa. EAE eta Nafarroa. Ikerfel

| Banku-bezeroen gogobetetasuna (balorazio nabarmena egiten dioten bezeroen %-a) | EAE | | | Nafarroa | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | LK | Lehiakide nagusia | Δ | LK | Lehiakide nagusia | Δ |
| Gehien aintzatetsitako irudi-ezaugarriak | | | | | | |
| Euskara eta euskal kultura laguntzea | % 75 | % 70 | **% 5** | % 81 | % 2 | **% 79** |
| Zerbitzu ona eta hurbila | % 60 | % 44 | **% 16** | % 53 | % 35 | **% 18** |
| Gizartearekin eta bertako garapenarekin konprometitua | % 58 | % 63 | **–% 5** | % 44 | % 38 | **% 6** |
| Gestio zintzoa eta arduratsua, fidatzeko modukoa | % 51 | % 34 | **% 17** | % 44 | % 33 | **% 11** |
| Aholkularitza profesional eta espezializatua | % 48 | % 37 | **% 11** | % 41 | % 37 | **% 4** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Aseguruetan espezializatua | % 45 | % 24 | **% 31** | % 33 | % 19 | **% 14** |
| **Gutxien aintzatetsitako irudi-ezaugarriak** | | | | | | |
| Komisio handiak | % 7 | % 28 | **% 21** | % 10 | % 33 | **% 23** |
| Produktu berezituak profesional eta negozioentzat | % 11 | % 9 | **% 2** | % 16 | % 16 | **% 0** |
| Autoa erosteko mailegu onuragarriagoak | % 22 | % 20 | **% 2** | % 16 | % 11 | **% 5** |
| Enpresetan espezializatutako entitatea | % 23 | % 15 | **% 8** | % 17 | % 27 | **–% 10** |
| Hipoteka-mailegu onuragarriagoak | % 27 | % 26 | **% 1** | % 37 | % 24 | **% 13** |
| Irtenbide bereziak aurrezkia gestionatzeko | % 28 | % 21 | **% 7** | % 19 | % 11 | **% 8** |

Iturria: LABORAL Kutxaren irudiari eta markari buruzko jarraipen-azterketa. Ikerfel

| Aseguruetako bezeroen gogobetetasuna (1etik 10era bitartean) | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Zerbitzuarekiko gogobetetasun orokorra | 8,44 | 8,45 |
| Auto-aseguruarekiko gogobetetasuna Etxeko | 8,79 | 8,86 |
| aseguruarekiko gogobetetasuna Merkataritza- | 8,24 | 8,28 |
| aseguruarekiko gogobetetasuna Lantegi | 8,22 | 8,1 |
| itunduekiko gogobetetasuna | 8,84 | 8,92 |
| Etxeko eta Merkataritzako konpontzaileekiko gogobetetasuna | 8,41 | 8,4 |

Iturria: Aseguruetako bezeroaren gogobetetasunari buruzko azterketa etengabea. Lagun Aro Aseguruak

| Banku-sektorearekiko konparaziozko benchmarkinga. Bezero potentzialak (1etik 10era bitartean) | 2016 | 2017 | Sektorearekiko 2017ko diferentziala |
|---|---|---|---|
| Sektoreko Kalitate Objektiboaren Azterketa (EQUOS-Stiga) | 7,57 | 7,52 | +0,49 |
| Banku-bezeroen gogobetetasuna (BMKS FIN-Stiga) | 7,69 | 7,72 | +0,33 |

| Benchmarkinga aseguruen sektorean Aseguruetako bitartekarien gogobetetasuna (1etik 10era bitartean) | Lagun Aro Aseguruak | Aseguruen merkatua |
|---|---|---|
| Erakundearekiko gogobetetasun orokorra | 8 | 7 |

Iturria: Artekarien gogobetetasunari buruzko azterketa etengabea. Lagun Aro Aseguruak eta ICEA

Oro har, bezeroek aintzatetsi egiten dute LABORAL Kutxaren eta Lagun Aro Aseguruak-en jarduera, arlo garrantzitsu hauetan:

- Gizartearekiko eta bertako garapenarekiko konpromisoan eta, bereziki, euskarari eta euskal kulturari laguntzeko lanean.
- Zerbitzuaren kalitatearekiko eta bezeroen gestio zintzo eta arduratsuarekiko konpromisoan.
- Banku-produktuen eta aseguruen alorrean aholkatzeko profesionaltasunean eta espezializazioan.
- Zentzuzko komisioak aplikatzen, beste lehiakide batzuen aldean txikiagoak dira eta.

Aitzitik, badira hobetu beharreko arloak ere. Adibidez, gehiago bereizi beharra eta balio-proposamena hobetu beharra ikusi da zenbait produktu masibotan —autoa erosteko maileguak edo etxebizitza erosteko hipotekak, esaterako— eta profesional, negozio eta enpresentzako berariazko produktuetan.

Irisgarritasunaren alorrean, txostenean aipatu dira gure bezeroekiko harremana (Internetez eta mugikorraren bidez) handitzeko kanal berriak hobetzearren egindako ahaleginak.

**Arkitektura-oztopoak**

Gure ahalmenen eta eraikinen ezaugarrien arabera, bulegoetan egin den edozein esku-hartze aprobetxatu dugu oztopoak kendu eta egoitzaren irisgarritasuna hobetzeko, Irisgarritasun Araua betetzeko moduan. Urte asko daramatzagunez esku-hartzeok egiten, gaur egun oso lantoki gutxi geratzen dira irisgarritasun-arazoekin. 2017an zehar, 3 bulegotan egin dira halako jarduketak.

# 5. GIZA ESKUBIDEAK

LABORAL Kutxak bere langileekin gauzatzen duen jarduerari dagokionez, *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*ren oinarrian dauden printzipioen garapen handiguratsua da kooperatibaren egitura juridikoa, zehazki ideia honi dagokionez: pertsona guztiok berdinak gara duintasunean eta eskubideetan. Hauxe aitortzen da aldarrikapenean: *giza familiako kide guztien berezko duintasuna eta eskubide berdin eta ukaezinak.*

Hain zuzen ere, kooperatibaren egiturak berekin dakar bertan lan egiten duten pertsonak bazkide izatea (eskubide eta betebehar berberekin), zer ezagutza duten edo hierarkian zein lekutan dauden aintzat hartu gabe. Esan bezala, pertsona guztiek eskubide eta betebehar berberak dituzte; izan ere, guzti-guztiek hartzen dute parte enpresa-jardueraren arriskuetan eta irabazietan.

Eta lankidetzaren kontzeptua hedatu egiten da gure gizartearekiko konpromisora ere. *Gurea banka kooperatiboa da, eta, gidari dituen balioei eta filosofiari jarraituz, guztion interesa lehenesten dugu, erabakiak parte hartuz eta arduraz hartzen ditugu eta gure mozkinak gizartean inbertitzen ditugu.*

Gure jarduera-eremuan, ez dugu arrisku handirik antzeman giza eskubideak ez betetzearen inguruan. Salbuespen bakarrak dira ustelkeria-arriskua eta hornitzen gaituzten enpresek beren betebeharrak betetzen dituztela bermatzeko egin behar ditugun esku-hartzeak. Bi alderdi horien inguruko jarduketak hurrengo ataletan garatu ditugu.
Giza eskubideen alorreko bigarren arrisku-mota laneko jazarpenarena da. Kopuruetan eragin txiki samarra badu ere arazo horrek, inpaktu nabarmena izan dezake halako egoera batean egon litezkeen pertsonengan.

Prozedurei dagokienez, *Laneko jazarpen-egoeretan esku hartzeko protokoloa* dago, 2015-01-31n eguneratua. Antolamenduari begira, berriz, *Ikerketa Batzordea* sortu da, eta, horren barruan, berariazko *Salaketen Kanala*. Protokolo horretan sartzen dira *jazarpen morala* (*mobbing* izenez ezaguna), *jazarpen sexuala eta jazarpen sexista* gertatzen direneko egoerak.

2016an eta 2017an, ez da salaketarik eta kontsultarik jaso salaketen kanal horretan.

**Lagun Aro**k, bere aldetik, *Laneko gatazkak, jazarpena eta indarkeria kudeatzeko prozedura* du. Ez da salaketarik aurkeztu prozedura horri jarraikiz. II. Berdintasun Planaren esparruan, Jazarpen sexual eta sexisten aurkako protokoloa zehaztuko da sozietatean (sortu, ezagutarazi eta prestatu). Helburua da egungo *Laneko gatazkak, jazarpena eta indarkeria gestionatzeko prozedura*n sartzea protokolo hori.

# 6. USTELKERIA ETA EROSKERIA

**LABORAL Kutxa**ren gestio-politiken arabera, ustelkeriaren eta eroskeriaren esparruan eta *kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen aurkako borrokan* daude arriskurik handienak. Zentzu horretan, indarreko araudiaren eta nazioarteko estandarren arabera beharrezko organo eta prozedurak sortzeko konpromisoa hartu du. Helburu horrekin:

- Entitatearen egituraren barruan, *Kapitalak Zuritzeari eta Terrorismoaren Finantzaketari Aurrea hartzeko Batzordea* eta *Unitatea* sortu dira, prebentzio-gaietan jarduteko.
- Gainera, arau eta prozedura zehatzak finkatu dira eta «*Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko eskuliburua» izeneko txostenean jaso (2017-01-24an onartu zen azken bertsioa).*

LABORAL Kutxaren talde osoari eragiten dio politika horrek, baita sozietate filialei ere.

Hauek dira nahitaez bete beharreko arau eta prozedura horien xedeak:

- Une bakoitzean indarrean dagoen araudia eta nazioko nahiz nazioarteko erakunde eta agintariek emandako gomendioak zorroztasun osoz betetzea.
- Jokabide-arau eta kontrol- eta komunikazio-sistema egokiak ezartzea, delituzko jatorria duten fondoak LABORAL Kutxa Taldearen bitartez bidera ez daitezen eta zenbait pertsonari sarbidea eragozteko.
- Bezeroak onartzeari buruzko politikak finkatzea.
- Laneko bazkideek eta gainerako langileek *bezeroa ezagutzearen* politikaren alorreko prozedurak betetzen dituztela bermatzea.

Prebentzioa da, batez ere, politika eta prozedura horien burubidea. Gainera, barne-kontrolerako prozedurak ebaluatu egiten ditu, urtean behin, *kanpoko aditu* batek, bermatu ahal izateko kapitala zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen alorreko arrisku horiekiko esposizioa murriztuz joatea etengabe.

Bestalde, *Zigor Kodea Betetzeari buruzko Politika* ere badu LABORAL Kutxak, bai eta hainbat jokabide-kode eta -erregelamendu ere, besteak beste:

- Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodea
- Jardunbide Egokien eta Sekretu Profesionalaren Gidaliburua
- Balore-merkatuko Jokabideen Barne Araudia

Antolamenduari begira, *Etika Batzordea* eta *Araudia Betearazteko Departamentua* ere sortu dira, irregulartasunak saihestu eta arau eta prozedurok betetzen diren jagoteko.

Ondoren, ustelkeriaren inguruko arriskuen harira aztertu diren LABORAL Kutxako negozio-unitateak aurkeztuko ditugu:

| Aztertutako bulegoak | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Aztertutako bulego guztiak | 74 | 90 |
| Aztertutako bulegoen ehunekoa | % 22 | % 28 |

Esan beharra dago ezarritako urrutiko ikuskaritza-kontrolek Entitatearen bulegoen eta antolamendu-unitate zentralen % 100ean dutela eragina.

**Lagun Aro Aseguruak**-en, *barne-ikuskaritzak* egiten dira, urtero, bulego guztietan. Aseguruen formalizazioak berezkoak dituen arriskuak (administrazio-araudiak eta -prozedurak betetzea, dokumentazioa gordetzea eta abar) gainbegiratzen dira, bai BancaSegurosen kanalean eta bai Bitartekaritzarenean. Urteko nahiz eguneko ikuskaritzok egiteko, ezarrita dauden alertak eta arrisku-populazioak hartzen dira aintzat.

«*Salaketen Kanala*» ere badago, *Kode Etikoarekin* eta *Zigor-kodea betetzeari buruzko politika*rekin zerikusia duten eta garrantzitsuak izan daitezkeen irregulartasunak jakinarazteko, salaketagilea babestea bermatuz. Bestalde, «*Etika Batzordea*» da arau horiei jarraipena egiteko organoa, Gestio Sozialeko zuzendaritzaren gidaritzapean; sail hauek hartzen dute parte bertan: Araudia Betearazteko Departamentuak, Aholkularitza Juridikoak, Finantzen Areak eta Barne Ikuskaritzak. Organo horrek, jarraipena egiteaz gain, baimenak edo salbuespenak aitortu eta Salaketen Kanalean jasotako salaketak ebazten ditu, dagokien bezala bideratzeko. 2017an 4 kontsulta egon dira (3, 2016an): 2 argitu egin dira eta beste 2ak espedienterik ireki gabe konpondu.

Segidan, 2017an ustelkeriaren aurreko borrokan egindako ekintzetako batzuk azalduko ditugu.

| **2017an burututako ekintzak** |
| --- |
| • Kapital-zuritzeari aurrea hartzeko eta terrorismoaren finantzaketa kontrolatzeko eskuliburua aldatu egin da, hainbat arlotako hobekuntzak eginez. |
| • Seihilekoko txostenak, Azterketa Bereziko Eragiketen Laburpena eta entitateak kapitalak zuritzearen alorrean duen arriskuaren autoebaluazioaren txostena sortu dira. |
| • Kontu ez-aktiboei buruzko alerta hobetu egin da. |
| • Erremediatze Plana sortu da, bezeroen identifikazio formaleko urritasunak lantzeko. |
| • Bezeroen egoitza fiskala identifikatzeko jarduketa-plana landu da, Espainiak izenpetutako *Agintari eskudunen arteko akordio aldeaniztunaren, finantza-kontuei buruzko informazio-truke automatikorakoaren,* ondoriozko arau-errekerimenduei jarraikiz. |
| • Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuaren eta Zigor kodea betetzeari buruzko politikaren inguruko ikastaroa eman zaio plantilla osoari. |

# 7. HORNIDURA-KATEAK ETA AZPIKONTRATAZIOA

Materialtasunari buruzko azterketa prestatzeko egin diren inkestetan, interes-taldeei galdetu diegu ia LABORAL Kutxarekin duten harremanean zer garrantzi-maila aitortzen dioten hornitzaileen gestioari. Guztietan ere, materialtasun txikikotzat jo dute alderdi hori. Halere, 2017an materialtasunari buruz egindako azterlanean, materialtasun ertainekotzat jo dira hornitzaileen gestioari buruzko bi gaiak:

- ✓ Gure hornitzaileen jarduera erantzukizunez kontrolatzea: lan-baldintzak, laneko arriskuak, Ogasunarekiko ordainketak…
- ✓ Hornitzaileen gestioa. Erosketa-irizpide arduratsuak: tokian erostea eta, prezioaz gain, gizartearen eta ingurumenaren alorreko irizpideak aintzat hartzea.

Bezeroari egindako kontsultan, garrantzi handixeagoa eman diote hornitzaileen jarduketa arduratsua dela kontrolatzeari. Langileek antzera balioetsi dituzte bi gaiak; EGEaren Batzordeko kideen iritzian, berriz, garrantzi handiagoa dute erosketa arduratsuaren irizpideek.

Izan ere, gure finantza-jardueraren ezaugarriak kontuan hartuta eta oso lurralde-eremu zehatzean dugunez presentzia, enpresa horiekiko gestioan ez dugu arrisku nabarmenik.

Halere, LABORAL Kutxak jakin badaki hornidura-katearen gestioa kontu garrantzitsua dela jasangarritasunaren alorrean, eta, horregatik, 2017an bi ekintza-lerro garatu ditu hornitzaileei begira:

1) Alde batetik, **laneko arriskuen prebentzioari** lotuta, enpresa-jardueren koordinazioa bultzatu du. LABORAL Kutxak 350 lantoki baino gehiago ditu, eta beste enpresa batzuetako pertsona ugari joaten dira bertara lanera: azpikontratatutakoak, obretakoak, mantentzekoak…
   2018rako, helburu hauek ezarri ditu: 2017an, arriskurik handieneko jarduerak lehenetsi dira. Horiei begira, beharrezko kontrolak eta informazio- eta dokumentazio-trukeak ezarri dira, gure instalazioetara jarduera horiek egitera datozen pertsonek baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.
   - ✓ Tresna informatiko bat aukeratu eta ezartzea, enpresa-jarduerak modu integralean koordinatu ahal izateko.
   - ✓ Gure lantokietara etortzen diren kontratupeko guztiei aplikatzea enpresa-jarduerak koordinatzeko prozedura.

2) Era berean, 2017an **enpresa hornitzaileak gestionatzeko proiektua** ezarri da, departamentuen erosketen gestioa antolatzeko asmoz. Horrela jokatuz, kontratuetan gutxieneko iraunkortasun-alderdi batzuk ziurtatu eta benetan betetzen direla kontrolatzeko iragazkiak ezarri nahi dira.

   **a)** Proiektuaren burubideak:

   1. Etika Batzordearen ikuspuntutik LABORAL Kutxak hornitzaileen gestioan onar ditzakeen arriskuak mugatzea, politika eguneratzea, hornitzaileek sinatu beharreko konpromisoak ezartzea…

2. Hornitzaileekiko harremana antolatu eta arrazionalizatzea, kontratazio-prozedurak harmonizatuz efizientzia handiagoa lortzeko.
3. Hornitzaileekin jasangarritasunaren ikuspegitik dugun harremana hobetzea.

**b)** 2017an burututako ekintzak:

1. Hornitzaileen kontzeptua definitu da.
2. Erosketen eskuliburua idatzi da; erosketetarako prozedurak eta aldeen erantzukizunak ezarri dira bertan.
3. Arriskuak murriztu ahal izateko hornitzaileak kontrolatzeko irizpideak finkatu dira.
4. *Kontratazio-mahaia* eta *homologazio-prozesua* zehaztu dira.

Hornitzaileak gestionatzeko proiektu hori bat dator, halaber, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJHen) alorrean LABORAL Kutxak hartu duen konpromisoarekin.

Erosketen jatorriari dagokionez, gehienak bere jarduera-eremuan egiten ditu LABORAL Kutxak.

| | 2016 | 2017 |
|---|---|---|
| Erosketa-bolumena (mila eurokotan) | 198.797 | 173.690 (1) |
| Tokiko enpresetan erositako ondasunen eta zerbitzuen %-a | % 94,9 | % 96,3 |
| Tokiko enpresa hornitzaileen %-a hornitzaile guztiekiko | % 94,5 | % 95,0 |
| Barruko, inportatu gabeko, erosketen ehunekoa (1) | % 99 | % 100 |

(1) 2017az geroztik, hornitzaile pertsona fisikoak soilik hartu dira kontuan.



## II. ERANSKINA

# GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA, MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATUTAKO BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN AURREZKI-KUTXEZ BESTELAKO ERAKUNDEENA

## JAULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | |
|---|---|
| **ERREFERENTZIAKO EKITALDIAREN AMAIERAKO DATA** | 2017-12-31 |

| | |
|---|---|
| **IFK** | F75076935 |

| |
|---|
| **SOZIETATEAREN IZENA** |
| CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CREDITO |

| |
|---|
| **EGOITZA SOZIALA** |
| JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA PASEALEKUA, ZK.G., ARRASATE, GIPUZKOA |

# GOBERNU KORPORATIBOAREN URTEKO TXOSTENA, MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATUTAKO BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN AURREZKI-KUTXEZ BESTELAKO ERAKUNDEENA

## A JABETZAREN EGITURA

A.1 Esan nor diren entitateko akziodun edo partaiderik garrantzitsuenak, ekitaldiaren itxiera-datan:

| Akziodunaren edo partaidearen izen soziala | Kapital sozialaren %-a |
|---|---|
| LAGUNARO EPSV | % 15,26 |

A.2 Adieraz itzazu, dagokionean, akziodun edo partaiderik garrantzitsuenen artean egon litezkeen familiako, merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak (entitateak ezagutzen baditu), garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

A.3 Adieraz itzazu, dagokionean, akziodun edo partaiderik garrantzitsuenen eta entitatearen artean egon litezkeen merkataritzako, kontratuko edo sozietateko harremanak, garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko arruntak sortutakoak salbu utzita:

A.4 Adierazi, dagokionean, boto-eskubidea erabiltzeko dauden mugak, bai eta kapitalean partaidetzak erosteko edo eskualdatzeko dauden mugak ere:

Bai X Ez

| Mugen azalpena |
|---|

Kooperatiben legerian agindutakoaren arabera, bazkide pertsona juridikoak ezin du kapitalaren % 20tik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan. Orobat, bazkide pertsona fisikoak ezin du kapitalaren % 2,5etik gorako partaidetzarik edo boto-eskubiderik izan.

## B BATZAR OROKORRA EDO PAREKO ORGANOA

B.1 Aipa itzazu Batzar Orokorra edo pareko organoa eratzeko zer quorum dauden, estatutuetan ezarritakoaren arabera. Esan ezazu zertan ez duen antzik Kapital Sozietateen Legean (KSLan) aurreikusitako minimoen erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legerian ezarritakoari jarraikiz, hartu beharreko erabakia edozein delarik ere, Batzar Nagusia lehen deialdian baliozki eratutzat joko da, bazkideen erdia baino gehiago bertaratu edo ordezkatzen denean, eta, bigarren deialdian, bazkideen % 5 gutxienez edo 100 bazkide bertaratzen direnean.

## B.2 Azal ezazu zein den sozietate-erabakiak hartzeko erregimena. Esan ezazu zer alde duen KSLan aurreikusitako erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

Kooperatiben legeria aplikatuz, baliozki emandako botoen erdia baino gehiago behar izango da erabakiak hartzeko. Bat-egiteak, banantzeak, obligazioen eta beste balore batzuen jaulkipenak edota estatutuen aldaketak egiteko, bertaratuta edo ordezkatuta dauden bazkideen botoen bi herenak behar izango dira gutxienez.

## B.3 Labur itzazu txosten honek aipagai duen ekitaldian batzar orokorrek edo pareko organoek hartutako erabakiak eta erabaki horien alde emandako botoen ehunekoak.

Ekitaldian, 2017ko apirilaren 1eko Batzar Nagusiak erabaki hauek hartu zituen, eta hauek izan ziren aldeko botoen ehunekoak:

- Hiru bazkide izendatzea, zegokion batzarraren akta onesteko (aho batez).
- Entitateari eta haren talde bateratuari buruzko urteko kontuak eta gestio-txostena onestea (aho batez).
- Kapital sozialerako interesak ordaintzea (aho batez).
- Ekitaldiko soberakin erabilgarriak banatzea: % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora, % 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialera, % 25 kooperatiba-itzulkinetara eta % 50 Nahitaezko Erreserba Fondora (aho batez).
- Heziketako eta Sustapeneko Fondotik % 10,11 bertan banatzea, % 11,45 banaketa orokorrerako uztea eta % 78,44 Mondragonen kooperatiba-erakundeak finantzatzeko eta Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Fondorako ekarpenetarako erabiltzea (aho batez).
- Bazkide berriek kapital sozialari egin beharreko ekarpenak eta sarrera-kuotak onestea (aho batez).
- 2017an kapital sozialari egin beharreko ekarpenen interesa 2018ko Batzar Nagusiak zehaztuko duela finkatzea. Dena den, zenbatekoak kontuan ordaintzeko eskumena izango du Kontseilu Errektoreak (aho batez).
- 2017ko ekitaldiko urteko kontuak ikuskatzeko Pricewaterhousecoopers izendatzea berriro (aho batez).
- Kontseilu Errektorearen zati bat berritzea (aho batez).
- Kontu-hartzaileak berritzea (aho batez).
- Errekurtso Batzordea izendatzea (aho batez).

## B.4 Adieraz ezazu entitatearen webgunearen helbidea, eta gobernu korporatiboari buruzko informaziora nola iristen den.

Gobernu Korporatiboaren edukira iristeko, entitatearen webgune orokorrean —www.laboralkutxa.eus— edo webgune korporatiboan —http://korporatiboa.laboralkutxa.com— sartu behar da eta «Gobernu korporatiboa eta ordainsari-politika» atalean klik egin.

## B.5 Adieraz ezazu entitateak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikatuek, horrelakorik badago, bilerarik egin duten, txosten honek aipagai duen ekitaldian egindako bilerek zer xede izan duten eta zer erabaki nagusi hartu dituzten.

Ez da eratu entitateak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikaturik.

# C ENTITATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

## C.1 Administrazio-kontseilua edo -organoa

C.1.1 Esan ezazu zein diren administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehienezko eta gutxieneko kopuruak, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera:

| | |
|---|---|
| **Organoko kontseilarien/kideen gehieneko kopurua** | 13 |
| **Organoko kontseilarien/kideen gutxieneko kopurua** | 12 |

C.1.2 Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau:

**ADMINISTRAZIO-ORGANOKO KONTSEILARIAK/KIDEAK**

| Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala | Ordezkaria | Azken izendapenaren eguna |
|---|---|---|
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | | 2015-07-29 |
| MARÍA CARMEN IÑURRIA LANDERAS | | 2015-07-29 |
| ELENA ZARRAGA BILBAO | | 2015-07-29 |
| JAVIER OLEAGA MENDIARACH | | 2015-07-29 |
| AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ | | 2015-07-29 |
| ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE | | 2015-07-29 |
| LUIS MARIA UGARTE AZPIRI | | 2017-07-27 |
| PABLO LUIS BRINGAS VELEZ | | 2017-07-27 |
| FRANCISCO JOSE DEAN PUEYO | | 2017-07-27 |
| ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO | | 2017-07-27 |
| MARIA ESTHER KORTA ERRAZKIN | | 2017-07-27 |
| NAGORE LARRABEITI LIBANO | | 2017-07-27 |

C.1.3 Aipa itzazu, dagokionean, entitatearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaile- edo zuzendari-karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak:

| Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala | Taldeko erakundearen izen soziala | Kargua |
|---|---|---|
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | SEGUROS LAGUN ARO SA | LEHENDAKARIA |
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | SEGUROS LAGUN ARO VIDA SA | LEHENDAKARIA |

C.1.4 Bete ezazu taula hau administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta azken lau ekitaldietan izan duen bilakaerari buruzkoarekin ere.

| | Kontseilari-kopurua | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2017ko ekitaldia | | 2016ko ekitaldia | | 2015eko ekitaldia | | 2014ko ekitaldia | |
| | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % | Kopurua | % |
| ADMINISTRAZIO-KONTSEILUA | 6 | % 50,00 | 3 | % 21,00 | 3 | % 21,00 | 3 | % 21,00 |
| IKUSKARITZA-BATZORDEA | 2 | % 67,00 | 2 | % 67,00 | 2 | % 67,00 | 2 | % 67,00 |
| IZENDAPENEN BATZORDEA | 2 | % 40,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 |
| ORDAINSARIEN BATZORDEA | 2 | % 40,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 | 0 | % 0,00 |
| ARRISKU-BATZORDEA | 3 | % 60,00 | 2 | % 40,00 | 2 | % 40,00 | 1 | % 20,00 |

C.1.5 Bete ezazu ekitaldian zehar sortutako administrazio-organoko kontseilari edo kideen ordainsari agregatuari buruzko taula hau:

| Ordainketaren kontzeptua | Mila eurokotan | |
|---|---|---|
| | Indibiduala | Taldekoa |
| **Ordainsari finkoa** | 135 | 0 |
| **Ordainsari aldakorra** | 26 | 0 |
| **Dietak** | 0 | 0 |
| **Beste ordainsari batzuk** | 0 | 0 |
| **Guztira** | 161 | 0 |

C.1.6 Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide exekutiboak ez diren goi-zuzendaritzako kideak, eta adieraz itzazu ekitaldian zehar horien alde sortutako ordainsari guztiak:

| Izena edo izen soziala | Kargua |
|---|---|
| JULIO GALLASTEGUI ZUBIZARRETA | Zuzendari nagusia |
| CARLOS OSES IRULEGUI | Zuzendariondoko orokorra eta Area Komertzialeko zuzendaria |
| OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA | Arriskuen Areako zuzendaria |
| JOSU ARRAIZA MARTÍNEZ DE LAGRAN | Baliabideen Areako zuzendaria |
| XABIER EGUIBAR GAINZA | Negozio Garapenaren Areako zuzendaria |
| JOSÉ ANTONIO UNANUE ETXEBERRIA | Finantzen Areako zuzendaria |
| NURIA AGUIRRE UNZUETA | Gestio Sozialeko zuzendaria |

| | |
|---|---|
| **Goi-zuzendaritzako kideen ordainsari guztiak (mila eurokotan)** | **1.013** |

C.1.7 Esan ezazu ia kontseiluaren estatutuetan edo araudian administrazio-organoko kontseilari edo kideen agintaldi-mugarik dagoen ezarrita:

Bai ☐ Ez ☒

C.1.8 Adieraz ezazu administrazio-kontseiluari edo -organoari onesteko aurkezten zaizkion urteko kontu indibidual eta bateratuak aurrez ziurtatuta dauden ala ez.

Bai ☐ Ez ☒

Dagokionean, identifika itzazu entitatearen urteko kontu indibidual eta bateratuak ziurtatu dituzten pertsonak, administrazio-kontseiluak edo -organoak onets ditzan:

C.1.9 Azal itzazu administrazio-kontseiluak edo -organoak ezarrita dituen mekanismoak, halakorik badago, prestatutako kontu indibidual eta bateratuak Batzar Nagusian edo horren pareko organoan auditoretza-txostenean salbuespenak dituztela aurkeztea eragozteko.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzorde bat arautzen du, eta berari esleitzen dio informazio finantzario arautua prestatu eta aurkezteko prozesua ikuskatzeko eginkizuna. Ildo beretik, haren eginkizuna da barne-kontrolerako sistemen eraginkortasuna ikustatzea.

C.1.10 Administrazio-kontseiluko edo -organoko idazkariak kontseilari-izaera du?

Bai [X] Ez

C.1.11 Adieraz itzazu, horrelakorik balego, ikuskatzailearen, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia babesteko ezarritako mekanismoak.

Kontseilu Errektorearen araudiak Ikuskaritza Batzordea xedatzen du, eta berari esleitzen zaio kontu-auditoretzarekin edo auditoretza-sozietateekin harremanak lotu eta euren independentzia arriskuan jar lezaketen gaien inguruko informazioa jasotzeko eginkizuna. Hala, independente direla idatziz berresteko eskatzen zaie, urtean behin.

## C.2 Administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak

C.2.1 Zerrenda itzazu administrazio-kontseiluko edo -organoko batzordeak:

| Batzordearen izena | Kide-kopurua |
|---|---|
| IKUSKARITZA-BATZORDEA | 3 |
| IZENDAPENEN BATZORDEA | 5 |
| ORDAINSARIEN BATZORDEA | 5 |
| ARRISKU-BATZORDEA | 5 |

C.2.2 Esan ezazu zein diren administrazio-kontseilu edo -organoko batzorde guztiak, kide guztiak eta kontseilari exekutibo, dominikal, independente eta kanpokoen proportzioa (kapital-sozietateen egitura juridikoa ez duten erakundeek ez dute kontseilariaren kategoria beteko, eta testuaren atalean kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, dagokion araubide juridikoaren arabera, bai eta Ikuskaritza Batzordearen eta Izendapenen eta Ordainsarien Batzordearen eraketako baldintzak nola betetzen dituzten ere):

### Ikuskaritza Batzordea

| Izena | Kargua | Kategoria |
|---|---|---|
| MARÍA CARMEN IÑURRIA LANDERAS | Lehendakaria | |
| ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE | Kidea | |
| ELENA ZARRAGA BILBAO | Kidea | |

| | |
|---|---|
| **Kontseilari dominikalen %-a** | |
| **Kontseilari independenteen %-a** | |
| **Kanpokoen %-a** | |
| **Bilera-kopurua** | 10 |

Azal ezazu batzorde horrek zer eginkizun dituen esleituta, deskribatu antolatzeko eta funtzionatzeko erabiltzen dituen prozedurak eta arauak, eta laburtu ekitaldian zehar egin dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

Ikuskaritza Batzordearen eginkizun bereziak estatutuetan (36. bederatzi artikuluan) jasotakoak dira, alegia:

A) Batzar Nagusian argibideak ematea, bazkideek beren eskumeneko gaietan proposatzen dituzten arloei buruz.

B) Kanpoko kontu-auditoreen izendapena, luzapena edo kargu-uztea proposatzea Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiak onespena eman diezaien.

C) Barne-auditoretzako zerbitzuak gainbegiratzea.

D) Sozietatearen barne-kontrolerako sistemen eta finantza-informazioaren prozesua ezagutzea.

E) Kanpoko auditoreekin harremanak izatea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien inguruan, kontu-auditoretzaren garapen-prozesuari loturiko beste edozein gairen inguruan, eta kontu-auditoretzaren legerian eta auditoretza-arau teknikoetan aurreikusitako gainerako jakinarazpenen inguruan informazioa jasotzeko.

F) Urtean behin, kontu-auditoretzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-auditoreen edo auditoretza-sozietateen independentziari buruzko irizpena jasoko duen txostena argitaratzea. Edozein kasutan, aurreko atalean aipatu dugun zerbitzu osagarriak emateari buruzko iritzia eman beharko du txosten horretan.

Era berean, Kontseilu Errektorearen arautegiaren 10.3 artikuluari jarraikiz, finantza-informazio arautua osatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea eta jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboaren arauak betetzen direla jagotea ere baditu esleituta.

Estatutu sozialen arabera, Ikuskaritza Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deialdia egiten badu, batzordeak berak edo beste edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira; lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Maria Carmen Iñurria (batzordeko lehendakaria) eta Elena Zarraga kontseilari independenteak dira (kopuru osoaren % 67) eta Adolfo Plaza kontseilari lan-bazkidea da (kopuru osoaren % 33). Batzordean ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik.

Kontseilari lan-bazkideak lan-bazkide moduan egiten du lan entitatean eta ez du goi-zuzendaritzako eginkizunik betetzen.

Ikuskaritza Batzordeak 2017an egindako jarduketarik garrantzitsuenen artean, hauek dira nabarmengarrienak:

• Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa osatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratu du, Barne Ikuskaritzako departamentuaren deskarguen bidez, eta egiaztapen hauek nabarmendu dira:

- Entitateak egindako urteko kontu indibidual eta bateratuak berrikusi ditu, bai eta dagozkien gestio-txostenak ere.

- Espainiako Bankuari igorri zaizkion hiru hilean behingo finantzetako egoera-orri publiko bateratuak berrikusi ditu.

- Entitateak sei hilean behin argitaratutako gardentasun-informazioa berrikusi du.

- Espainiako Bankuari igorritako baliabide-aitorpena berrikusi du sei hilean behin.

- Entitateak argitaratutako zuhurtziazko garrantziko informazioa berrikusi du.

• Finantza Informazioaren Barne Kontrolerako Sistema (FIBKS) gainbegiratu du, Barne Ikuskaritzako departamentuak ezarrita duen berrikuspen-prozedura erabiliz.

• Entitateak gauzatu duen kapitalaren autoebaluazio-prozesua gainbegiratu du.

• Barne-auditoretzaren eginkizunak gainbegiratu ditu, independentea eta eraginkorra izan dadin, eta, horretarako, Barne Ikuskaritzako departamentuak egindako jarduerei buruzko informazioa jaso du, aldian behin.

• Erabaki du kanpo-auditoretzako kontratua luza dezala proposatzea Kontseilu Errektoreari, Batzar Nagusiaren esanetara jar dezan.

• Kanpo-auditoretzaren emaitzari jarraipena egin dio, kanpo-auditorearekin bilerak eginez eta garrantzi berezikotzat jotako alderdiak aztertuz eta berrikusiz.

• Kanpoko auditoreen independentzia berresten duen iritzia eman du, kontu-auditoretzaren txostena argitaratu aurretik.

• Entitateak kanpo-auditorearekin kontratatzea proposatu zituen auditoretzaz gaindiko zerbitzuak ebaluatu eta, dagokionean, onetsi egin ditu.

Adieraz ezazu Ikuskaritza Batzordeko zer kontseilari izendatu den, kontabilitatearen, auditoretza-lanaren edo bien alorrean dituen ezagutzak eta esperientzia aintzat hartuta. Esan ezazu, halaber, batzordeko lehendakariak zenbat urte daramatzan karguan.

| | |
|---|---|
| **Eskarmentudun kontseilariaren izena** | ELENA ZARRAGA BILBAO |
| **Lehendakariak karguan daramatzan urteak** | 2 |

## Izendapenen Batzordea

| Izena | Kargua | Kategoria |
|---|---|---|
| ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO | Lehendakaria | |
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | Kidea | |
| MARIA ESTHER KORTA ERRAZKIN | Kidea | |
| PABLO LUIS BRINGAS VELEZ | Kidea | |
| FRANCISCO JOSE DEAN PUEYO | Kidea | |

| | |
|---|---|
| **Kontseilari dominikalen %-a** | |
| **Kontseilari independenteen %-a** | |
| **Kanpokoen %-a** | |
| **Bilera-kopurua** | 4 |

Azal ezazu batzorde horrek zer eginkizun dituen esleituta, deskribatu antolatzeko eta funtzionatzeko erabiltzen dituen prozedurak eta arauak, eta laburtu ekitaldian zehar egin dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea bereiztea, Kontseilu Errektorearen araudiko 11. artikulua aldatu ondoren.

Kontseilu Errektorearen araudian (11.b art.) jasota daude Izendapenen Batzordearen zeregin bereziak. Hauek dira:

- Kontseilu Errektoreko postu hutsak betetzeko hautagaiak bilatzea eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
- Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren arteko oreka ebaluatzea, izendapen zehatz baterako eginkizunak eta behar diren trebetasunak zehaztea eta postua betetzeko aurreikusita dagoen arduraldia balioztatzea.
- Aldian-aldian, eta gutxienez urtean behin, Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, osaera eta jardunbidea ebaluatzea, eta egin litezkeen aldaketen inguruko gomendioak ematea berari.
- Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektoreko kideen eta Kontseiluaren beraren egokitasuna ebaluatzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
- Aldian-aldian, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika aztertzea eta horren inguruko gomendioak ematea.
- Kontseilariak eta Funtsezko Langileak Hautatzeko eta horien Egokitasuna Ebaluatzeko Prozedurari buruzko Eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.

- Kontseilu Errektorean ordezkari gutxien dituen sexuaren ordezkaritza-helburua finkatzea eta ordezkaritzarik txikiena duen sexuaren presentzia handitzeko orientabideak ematea, finkatutako helburua lortze aldera.

Araudiaren arabera, Izendapenen Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deialdia egiten badu, batzordeak berak edo beste edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira; lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Roberto Ruiz de Infante (batzordeko lehendakaria) eta Jose Javier Saénz de Buruaga kontseilari independenteak dira (kopuru osoaren % 40), Jose Luis García eta Iñaki Josu Goñi kontseilari lan-bazkideak dira (kopuru osoaren % 40) eta Txomin García kanpoko beste kontseilari bat da (kopuru osoaren % 20). Batzordean ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik.

Kontseilari lan-bazkideak lan-bazkide moduan egiten du lan entitatean eta ez du goi-zuzendaritzako eginkizunik betetzen.

Kanpoko kontseilari esaten zaio kontseilarien gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

Izendapenen Batzordeak 2017an egindako jarduketarik garrantzitsuenen artean, hauek dira nabarmengarrienak:

• Kontseilu Errektorea osatuko duten hautagaiak ebaluatu eta aztertzeko, gomendioen txostena aurkeztea Kontseilu Errektoreari.

• Kontseilu Errektoreko, Zuzendaritza Nagusiko eta funtsezko langileriako kideen egokitasuna etengabe ebaluatzea, eta Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta eskarmentuaren oreka ebaluatzea.

• Kontseilu Errektorearen egiturari, tamainari, eraketari eta jarduketaren ebaluazioari buruzko txostena aurkeztea.

• Goi-zuzendaritzako kideak hautatu, izendatu eta ordezkatzeari buruz Kontseilu Errektoreak egindako politika-proposamena berrikustea.

• Caja Laboraleko kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozedurari buruzko eskuliburua aldatzeko proposamenak egitea.

## Ordainsarien Batzordea

| Izena | Kargua | Kategoria |
|---|---|---|
| ITZIAR ELGARRESTA IBARRONDO | Lehendakaria | |
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | Kidea | |
| MARIA ESTHER KORTA ERRAZKIN | Kidea | |
| PABLO LUIS BRINGAS VELEZ | Kidea | |
| FRANCISCO JOSE DEAN PUEYO | Kidea | |

| | |
|---|---|
| **Kontseilari dominikalen %-a** | |
| **Kontseilari independenteen %-a** | |
| **Kanpokoen %-a** | |
| **Bilera-kopurua** | 4 |

Azal ezazu batzorde horrek zer eginkizun dituen esleituta, deskribatu antolatzeko eta funtzionatzeko erabiltzen dituen prozedurak eta arauak, eta laburtu ekitaldian zehar egin dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

2016ko apirilaren 29ko Kontseilu Errektoreak erabaki zuen Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea bereiztea, Kontseilu Errektorearen araudiko 11. artikulua aldatu ondoren.

Ordainsarien Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu ErREKtorearen araudian (11.c artikuluan) daude jasota. Hauek dira:

- Kontseilu Erreektoreari entitateko ordainsari-politika orokorra proposatzea eta ordainsarien alorrean Kontseilu Erreektoreak hartu beharreko erabakiak (entitatearen arriskuan eta arriskuen kudeaketan eragina dutenak barne) prestatzea.

- Kontseilu Erreektorea informatuta izatea identifikaturiko kolektiboan sartutako zuzendarien ordainsari-politikari buruz eta kontseilarien (izaera horregatik ordainketarik jasotzen dutenean) eta zuzendari nagusiaren eta parekoen ordainsari-politika orokorrari buruz, bai eta eginkizun exekutiboak betetzen dituzten Kontseilu Erreektoreko kideen banakako ordainsariei eta kontratu-baldintzei buruz.

- Urtean behin ordainsari-politikaren aplikazioaren inguruko ebaluazio independente bat —barnekoa edo kanpokoa— egiten dela bermatzea.

- Entitatean ezarritako ordainsari-politika egoki betetzen dela zaintzea, eta, aldian-aldian, identifikaturiko kolektiboko zuzendarien, kontseilari izateagatik ordainsaria jasotzen dutenen, zuzendari nagusiaren eta horien parekoen ordainsari-politika aztertzea.

- Indarrean dagoen legeriak eta estatutu sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Erreektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

Arautegiaren arabera, Ordainsarien Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deialdia egiten badu, batzordeak berak edo beste edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira; lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Itziar Elgarresta (batzordeko lehendakaria) eta Esther Korta kontseilari independenteak dira (kopuru osoaren % 40), Pablo Luis Bringas eta Francisco Jose Dean kontseilari lan-bazkideak dira (kopuru osoaren % 40) eta Txomin García kanpoko beste kontseilari bat da (kopuru osoaren % 20). Batzordean ez dago ez kontseilari dominikalik ez exekutiborik.

Kontseilari lan-bazkideak lan-bazkide moduan egiten du lan entitatean eta ez du goi-zuzendaritzako eginkizunik betetzen.

Kanpoko kontseilari esaten zaio kontseilarien gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

Ordainsarien Batzordeak 2017an egindako jarduketarik garrantzitsuenen artean, hauek dira nabarmengarrienak:

• Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren ordainsari-politika eguneratzea, identifikaturiko kolektiborako aldaketak proposatuz.

• Kontseilu Erreektorearen ordainsari politika proposatzea, Batzar Nagusirako.

• Identifikaturiko taldeko kideei helburuak ezartzeko eta ordainketa aldakor indibiduala aplikatzeko proposatzea.

• Caja Laboralaren ordainsari-politikari buruzko barne-ebaluazioaren txostena aurkeztea.

## Arrisku Batzordea

| Izena | Kargua | Kategoria |
|---|---|---|
| ELENA ZARRAGA BILBAO | Lehendakaria | |
| TXOMIN GARCIA HERNANDEZ | Kidea | |
| LUIS MARIA UGARTE AZPIRI | Kidea | |
| AINHOA GALLASTEGUI MARTÍNEZ | Kidea | |
| NAGORE LARRABEITI LIBANO | Kidea | |

| | |
|---|---|
| **Kontseilari dominikalen %-a** | |
| **Kontseilari independenteen %-a** | |
| **Kanpokoen %-a** | |
| **Bilera-kopurua** | 9 |

Azal ezazu batzorde horrek zer eginkizun dituen esleituta, deskribatu antolatzeko eta funtzionatzeko erabiltzen dituen prozedurak eta arauak, eta laburtu ekitaldian zehar egin dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

Arrisku Batzordearen zeregin bereziak Kontseilu Errektorearen araudian (11 bis artikuluan) daude jasota. Hauek dira:

- Kontseilu Errektoreari aholku ematea, entitatearen arriskurako joera orokorraren (egungoaren eta etorkizunekoaren) eta arlo horretako estrategiaren inguruan, eta laguntzea estrategia hori eta arriskuak gestionatu, gainbegiratu eta murrizteko politika zehatzak ezartzen diren jagoten.

- Bezeroei eskainitako aktibo eta pasiboen prezio-politikak enpresa-eredua eta entitatearen arrisku-estrategia kontuan hartzen dituela zaintzea. Horrela izan ezean, hori konpontzeko plana aurkeztea Kontseilu Errektoreari.

- Kontseilu Errektorea aholkatzea, entitateko arrisku esanguratsu guztiak kudeatu eta gainbegiratzen.

- Arriskuak direla eta, estres-testari eta kapital-plangintzari lotutako aholkularitza ematea Kontseilu Errektoreari.

- Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolakuntza eraginkorra izateko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.

- Kontseilu Errektoretik erakundera eta alderantziz arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela zaintzea eta batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak jaso behar duten arriskuei buruzko informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea Kontseilu Errektorearekin batera.

- Aktiboen balorazioa, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera eta arriskuei buruzko barne-ereduak ikuskatzea.

- Zentzuzko ordainsari-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Ordainsari-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak arriskua, kapitala, likidezia eta etekinen aukera eta egokitasuna kontuan hartzen ote dituen aztertzea.

Araudiaren arabera, Arrisku Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deialdia egiten badu, batzordeak berak edo beste edozein kidek eskatuta. Kide bakoitzak boto bat izango du, eta erabakiak gehiengo soilez hartuko dira; lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

Batzordea osatzen duten kontseilarien kategoriari dagokionez, Elena Zarraga (batzordeko lehendakaria) eta Nagore Larrabeiti kontseilari independenteak dira (kopuru osoaren % 40), Ainhoa Gallastegui kontseilari lan-bazkidea da (kopuru osoaren % 20), Txomin García kanpoko beste kontseilari bat da (kopuru osoaren % 20) eta Luis Mª Ugarte kontseilari dominikala da (kopuru osoaren % 20). Batzordean ez dago kontseilari exekutiborik.

Kontseilari lan-bazkideak lan-bazkide moduan egiten du lan entitatean eta ez du goi-zuzendaritzako eginkizunik betetzen.

Kanpoko kontseilari esaten zaio kontseilarien gainerako kategorietan sartzeko baldintzak betetzen ez dituen kontseilariari.

2017ko jarduerari dagokionez, bere eginkizunen artean hauek egin ditu Arrisku Batzordeak:

• Arrisku guztiei jarraipena eta kontrola egitea, APBren hiru hilean behingo deskarguen bidez.

• Arriskuen gaineko eskuliburu eta politiken aldaketak aztertu eta baliozkotzea.

• Arrisku-mota bakoitzerako mugen eta eskumenen eguneratze-prozesua aztertu eta baliozkotzea.

• 2016ko Kapitalaren Autoebaluazio Txostena (KAT) aztertu eta baliozkotza.

• Recovery Plana aztertu eta baliozkotzea.

• Arriskuarekiko grinaren esparrua (RAF) eta grinaren urteko aitorpena (RAS), jarraipena eginez, eta estres-testaren metodologia eta agertokia aztertu eta baliozkotzea.

• Formalizatutako eragiketen prezioak eragiketa-kostua gainditzen duela aztertu eta baliozkotzea, IX. eranskinari jarraikiz.

• Ordainsari-politikaren proposamena aztertu eta baliozkotzea.

• Errenta finko eta aldakorreko zorroen sailkapena aztertu eta baliozkotzea IFRS9arekin.

## D ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta akziodunen, partaide kooperatibisten, jabetza-eskubideen titularren edo entitatean pareko izaera duten beste edozeinen artean egindako eragiketak.

D.2. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta administratzaileen, administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.

D3 Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.

D.4. Esan zer mekanismo ezarri diren entitatearen edo haren taldearen eta administrazio-organoko kontseilarien, kideen edo zuzendarien artean egon litezkeen interes-gatazkak atzeman, zehaztu eta ebazteko.

Legeak aukera ematen du Kontseilu Errektorearen eta Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egiteko, bazkide edo hirugarren baten edo batzuen mesederako eta Caja Laboralaren interesen kalterako badira. Horrez gain, behean aipatu ditugun arau bereziak aplikatuko dira, sor litezkeen interes gatazketan:

A) Arrisku-politikari buruzko eskuliburuaren 7. artikuluaren arabera, eta irizpide orokor gisa, Kontseilu Errektoreko kideek, zuzendari nagusiak, haien bigarren mailarainoko senideek eta lotutako sozietateek planteatutako arrisku-eragiketa guztiek berrespen zentralizatua eta Kontseilu Errektorearen onespena beharko dituzte. Horrez gain, Espainiako Bankuaren 2/2006 Zirkularrak, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzkoak, ezarritako mugak eta baldintzak gainditzen badituzte, baimena eskatu beharko zaio Espainiako Bankuari eragiketa horiek gauzatzeko, eta, gainditzen ez badituzte, horien berri eman beharko zaio.

B) Kontseilu Errektoreak aurreko a) letran adierazi ditugun arrisku-eragiketei buruz erabaki behar duenean, beheragо aipatuko ditugun baldintzak bete beharko dira. Hona hemen baldintzak:

- Akordioa isilpeko bozketaz hartuko da, gaia behar bezain argi gai-zerrendan sartu ondoren.

- Kontseilari guztien bi herenek ados egon behar dute erabakia hartzeko. Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo lehen adierazi den ahaideren bat bada, interes-gatazka dagoela ulertuko da eta ezin izango du bozketan parte hartu.

- Ezkutuko botazioa egin eta emaitza ezagutzera eman ondoren, aktan agerrarazi ahal izango dira hartutako erabaki horri buruzko desadostasunak edo erreparoak.

Baldintza horiek berak bete behar dira Caja Laboralak beste erakunde batzuekiko dituen obligazioak nahiz eskubideak eratu, indargabetu, aldatu, berritu edo azkentzeko asmoa dagoenean, baldin eta kargu haiek edo haien senitartekoak buruak, aholkulariak, administratzaileak, goi-mailako zuzendariak, aholkulariak edo kapitalean % 5etik gorako partaidetza duten kideak badira, kasuan kasuko erakundean.

Kontseilariak izendatzeko, egokitasunari buruzko eskuliburua errespetatu behar da. Haren arabera, egokitasun hori egiaztatzeko ezinbesteko baldintza da kontseilariak agiri bat sinatzea, esanez ez duela inolako gatazka jarraiturik edo egiturazko gatazkarik Caja Laboralaren interesekin. Egoera hori urtean behin egiaztatzen da. Halere, kontseilariaren ardurapean dago Caja Laborala berehala jakinaren gainean jartzea, bere egokitasunean eragin lezakeen edozein egoera sortuz gero, eta bera izango da erantzulea, berandu jakinarazteagatik edo ez jakinarazteagatik, entitateari inolako kalterik sortzen bazaio.

# E ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO SISTEMAK

## E.1 Azaldu ezazu zer irismen duen entitatearen Arriskuen Gestio Sistemak.

Arriskuak gestionatzeko sistemak era integralean funtzionatzen du. Arriskuen Arean zentralizatzen da ohiko kreditu-arriskua onartu, jarraipena egin eta berreskuratzeko ardura, bai eta interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtu eta kontrolatzeko zeregina ere. Hilean behin, arrisku guztien jarraipenaren berri ematen zaio Aktiboen eta Pasiboen Batzordeari (eragiketa-arriskuarena izan ezik), eta, hiru hilean behin, eragiketa-arriskuaren jarraipenaren berri Eragiketa Arriskuaren Batzordeari.

Arrisku guztien jarraipena era zentralizatuan egiten da. Aktiboen eta Pasiboen Batzordea da horren arduraduna, eta, eragiketa-arriskuaren kasuan, Eragiketa Arriskuaren Batzordea. Altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak hortik kanpo gelditzen dira, berariaz uzten baitira Altxortegiaren departamentuaren ardurapean. Era berean, kreditu-arriskua ere kanpoan gelditzen da, bulegoei edo Arriskuen Areari dagokien eskumenetan.

## E.2. Adieraz ezazu zein diren Arriskuen Gestio Sistema prestatzeaz eta burutzeaz arduratzen diren entitateko organoak.

Kontseilu Errektorea. Administrazio-organo gorena da. Entitateak hartzen dituen arriskuak zaindu eta gainbegiratzearen azken arduraduna da. Bere eginkizunak aurrera eramateko, Arrisku Batzordearen laguntza jasotzen du —Kontseilu Errektoreko kideek osatzen dute—, eta APBn eta Arriskuen Batzorde Nagusian hartzen du parte zuzenean. Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuaren zuzendariari arriskuak zorrozki kontrolatzeko eta arriskuen deskargu sistematikoa egiteko eskatzen dio.

Arriskuen Batzorde Nagusia da arriskuaren alorreko zenbateko eta figura guztietan eskuduntzarik handienak dituena. Edozein eragiketa-mota baimendu dezake, salbu eta hauteskunde-kanpainak finantzatzekoak, gai hori Kontseilu Errektorearen ardura da eta.

Zuzendaritza Nagusia. Kontseilu Errektoreak bere gain utzi duelako, arrisku-politikak ezartzeaz arduratzen da. Arriskuen funtzioa antolatzeko, bereizi egin ditu gestio komertzialaren eta arriskuen onarpenaren funtzioak.

Arriskuen Areak, Eragiketa Arriskuaren Batzordeak (EABk) bereziki, arrisku guztiei buruzko jarraipen-eta kontrol-txostena bidaltzen die, hiru hilean behin, Arriskuen Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari, arreta berezia eskainiz ezarrita dauden mugak eta prozedurak zenbateraino bete diren.

Aktiboen eta Pasiboen Batzordea. Organo hori arduratzen da interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, merkatu-arriskua eta kreditu-arriskua gestionatzeaz eta kontrolatzeaz. EABk arriskuen jarraipenari buruzko informazioa helarazten dio hilean behin, eta batzorde horretan hartzen dira likideziaren, interes-tasaren eta merkatuaren arriskuen gestioari lotutako erabakirik garrantzitsuenak.

Eragiketa Arriskuaren Batzordea. Eragiketa-arriskua kontrolatzen du. EABk arriskuen jarraipenari buruzko informazioa sortzen du hiru hilean behin.

Arriskuen Area. Partikularren eta enpresen kreditu-arriskua onartu, jarraipena egin eta berreskuratzeko ardura zentralizatzen du. Era berean, kreditu-arriskuaren barne-ereduak sortu eta mantentzeaz eta likideziaren, interes-tasaren, merkatuaren eta eragiketaren alorreko arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz ere arduratzen da.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua. Hierarkiari begira, Arriskuen Arearen mende dago; funtzionamenduan, berriz, Arrisku Batzordearen mende. Arrisku guztien ikuspegi orokorra ematen du, guzti-guztiak neurtu eta kontrolatzen ditu eta. Departamentu horrek prestatzen ditu kreditu-arriskua onartu eta jarraitzeko barne-ereduak, eta, ildo beretik, bera arduratzen da interes-tasaren, likideziaren, merkatuaren eta eragiketaren arriskuak neurtu eta kontrolatzeaz. APBri, Arrisku Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari bidaltzen dizkie txostenak.

Arriskuen Gestioaren Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Etxeko eta merkataritzako bezeroekin kreditu-arriskua gestionatzeaz arduratzen da, hala onarpenari dagokionez, nola adiskidantzako eta auzi-aurreko faseetan egoera irregularrei jarraipena egiteari eta berreskurapenei dagokienez. Kobraezinak zehatzen parte hartzen du, eta kopuru jakin batera bitarteko aginpidea du.

Aholkularitza Juridikoko Departamentua. Arriskuen Arearen mende dago. Arrisku-eragiketetan dokumentu juridikoen bidezko babesa eskaintzeaz gain, enpresa-sarean auzia gestionatzen ere laguntzen du.

Altxortegiaren Departamentua. Finantzen Arearen mende dago eta finantza-erakundeen eta errenta finko pribatuaren kreditu-arriskua, merkatu-arriskuak, epe laburreko likidezia-arriskua eta APBn hartutako erabakien ondoriozko posizioak gestionatzeaz arduratzen da.

Araudia Betearazteko Departamentua. Araudia betearazteari lotutako alderdiak kontrolatzeaz eta jarraitzeaz arduratzen da. Entitateko hainbat area eta departamentu koordinatzen ditu.

Bulego-sarea. Partikularrekin nahiz enpresekin kreditu-arriskua onartzeko prozesuaren lehen fasea da. Esparru horretan, hainbat ahalmen dituzte eskuordetuta, betiere entitatearen arrisku-politikak zehaztutako scoring/rating-mailen, alerten eta eskumenen esparruan. Arriskuaren onarpenak txikizkako sarearen ahalmenak gaindituz gero, erabakia Arriskuen Arearen esku uzten da.

Barne Ikuskaritza. Aseguratzearen eta kontsulten alorreko eginkizun independente eta objektiboa betetzen du. Ikuspegi sistematiko eta diziplinatua emanez, arriskuak gestionatu, kontrolatu eta gobernatzeko prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzen du.

## E.3 Azal itzazu negozio-helburuak lortzeko arrisku nagusiak.

Partikularrekiko eta enpresekiko negozio tradizionaleko kreditu-arriskua (kontzentrazio-arriskua barne), egiturazko interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, altxortegiaren eta kapital-merkatuaren arriskuak (kontrako alderdiaren, herrialdearen, kontzentrazioaren eta merkatuaren arriskuak), eragiketa-arriskua, ospe-arriskua eta negozio-arriskua.

## E.4 Esan ezazu erakundeak arriskuarekiko tolerantzia-mailarik duen.

Kontseilu Errektoreak Arriskuarekiko Grinaren Esparrua (RAF) erabiltzen du, batik bat, helburu estrategikoak lortzeko bere gain har dezakeen arriskuaren mota eta maila ezarri, gestionatu eta kontrolatzeko. RAFari esker, entitatearen estrategia finkatzen duten pertsonek kontzientzia osoz onartzen dituzten estrategia horri dagozkion arriskuak.

Gobernantzari dagokionez, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua arduratzen da RAFaren inguruko guztiak gestionatzeaz, beharrak aurkitzeaz, tartean diren area guztiak koordinatzeaz eta APBri/Arrisku Batzordeari/Kontseilu Errektoreari proposamenak aurkezteaz. APBk eta Arrisku Batzordeak eginkizun garrantzitsua dute proposamenak aztertu eta gainbegiratzen, Kontseilu Errektoreari bideratu aurretik, egoki iruditu gero onar ditzan.

Arriskuarekiko Grina ezartzeko, arriskuak bereganatzeko gaitasuna hartzen du kontuan entitateak, eta alderdi hauek begiratzen ditu batez ere:

- Entitateak arriskuak bereganatzeko duen gaitasun finantzarioa (kapitala eta likidezia).
- Negozioaren testuingurua: egoera makroekonomikoa, arau-arriskuak…
- Entitatearen arrisku-kultura.
- Arrisku bakoitzak berezkoa duen arriskua.
- Arrisku bakoitza bereganatzeko prestakuntza-maila eta trebetasuna: arrisku-prozesuen onurak, arrisku bakoitzean parte hartzen duten pertsonen ezagutzak eta prestakuntza, arrisku-mota bakoitza gestionatzeko eta kontrolatzeko azpiegitura teknologikoak duen gaitasuna...

RAFek adierazle- eta metrika-egitura bat ezartzen du, errentagarritasunaren, kaudimenaren, likideziaren eta entitateak gestionatzen dituen arrisku-moten inguruan. Bi maila daude: lehena, funtsezko adierazleena eta, bigarrena, lehen mailakoak garatu edo osatzen dituztenena. Lehentasunezko dimentsioen artean sartzen dira errentagarritasuna, kaudimena eta likidezia, dimentsio horien inguruko CORE adierazleen lehen mailan, alegia. Metrika horiei guztiei helburuak esleitzen zaizkie, bai eta behaketa- eta tolerantzia-atalaseak ere. Horiei esker, entitateak bere gain har dezakeen arriskua zehazten da, hau da, arriskuarekiko abertsio-maila.

Helburu estrategikoak lortzeko, arrisku-profil ertain-baxua izan nahi du entitateak; Arriskuarekiko Grinaren Aitorpenean (RASean) zehazten da. RAS horren behaketa- eta tolerantzia-atalaseak arrisku-politika zuhurrari jarraikiz ezarri dira, eta entitateari estres-egoeretan ere kapitalizazio- eta likidezia-maila lasaietan eustea dute helburu. Entitateak jarraipena egiten die adierazle horiei, eta jarduketa-prozedura bat du ezarrita atalaseak gainditzen direnerako.

## E.5 Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

Interes-tasaren arriskuari dagokionez, inoiz ez da gainditu Kontseilu Errektoreak ezarrita duen eta APBk kontrolatzen duen muga.

Merkatu-arriskuetan, soberakoak gertatzezkoak dira, hau da, mugak murrizteak eragindakoak eta ez posizioa handitzearen ondoriozkoak. Kasu horietan, kontrol-sistemek egoki funtzionatu dute. ABPk soberako horien berri izan du, eta posizioari eutsi ala ez erabaki du.

Likidezia-arriskuaren alorrean ez da tentsio-egoerarik sortu. Entitatearen likideziaren jarraipen sistematikoari, aurreikuspenekiko desbideratzeen azterketari eta altxortegiaren hileko finantzaketa-planei esker, aurrerapen nahikoz aurreikus daitezke epe ertainera egon litezkeen kontrako inpaktuak, eta aukera dago behar diren neurri zuzentzaileak garaiz egiteko.

Kreditu-arriskuari eta partikularren eta enpresen segmentuetako eragiketei gagozkiola, kreditatu batekiko arriskuak estamentu bateko eskudantziak gainditzen dituenean, goragoko eskudantziak dituen hurrengo estamentura bideratzen da irizpena. Finantza-erakundeekiko eta korporazio handiekiko eragiketetan, entitatearen arriskuen gestioaren esparru barruan gauzatu da jarduera. Esan beharra dago entitateak muga nabarmen txikiagoak ezarri dituela araudiak arrisku handietarako finkatuta dituenen aldean.

Eragiketa-arriskuan, berriz, entitatearen jardueraren ondorioz nahitaez sortzen diren eragiketa-galerak txikitu egin dira, atal kualitatiboan ezarrita dauden kontrolei esker. Entitateak hornidurak egin ditu, etorkizuneko beharrak estaltzeko.

Ospe-arriskuari dagokionez, bezeroekiko negozioan egoera batzuek eragindako publizitate negatiboa gestionatzen jarraitzen dugu.

## E.6 Azaldu zer plan dauden entitatearen arrisku nagusiei erantzuteko eta horiek ikuskatzeko.

Barne-ikuskaritzak zehazten du entitatearen arriskuak barruan nola gainbegiratu. Izan ere, arriskuen gestio- eta kontrol-prozesuen eraginkortasuna ebaluatu eta hobetzea da haren zeregina.

# F ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO BARNE-SISTEMAK, FINANTZA-INFORMAZIOA EMATEKO PROZESUARI (FIBKS-ARI) DAGOKIONEZ

Azal itzazu arriskuak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemak osatzen dituzten mekanismoak, finantza-informazioa emateko prozesuari (FIBKSari) dagokionez.

## F.1 Entitatearen kontrolaren arloa

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

### F.1.1 Zer organo edo funtzio arduratzen dira FIBKS sistema (i) egokia eta eraginkorra izateaz, (ii) ezartzeaz eta (iii) gainbegiratzeaz?

Merkatuetan entitateari nahiz taldeari buruz argitaratutako finantza-informazioa fidagarria eta egokia izango dela ziurtatzeko, barne-kontroleko mekanismoak ditu ezarrita Caja Laboralak. Prozesu hori indartu egin zen, 2014ko ekitaldian Finantza Informazioari Buruzko Barne Kontroleko Sistema (aurrerantzean FIBKS) berriaren bidez.

Caja Laboralaren Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodearen 3.6 «Informazioaren fidagarritasuna» atalean, gobernu-organoak eta horiek FIBKSaren alorrean dituzten zereginak daude jasota:

«Caja Laboraleko Kontseilu Errektorea arduratzen da FIBKS egokia eta eraginkorra ezarri, mantendu eta ziurtatzeaz, eta merkatuan entitateari nahiz taldeari buruz argitaratzen den finantza-informazioa osoa, fidagarria eta egokia izango dela kontrolatu eta bermatzeaz».

«Zuzendaritza Kontseiluaren eta Barne Ikuskaritzako Departamenduaren ardura da merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna uneoro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea. Horretarako, beharrezko giza baliabideez eta baliabide materialez hornituko du entitatea, eta finantza-informazioa prestatzen duten pertsonei eginkizun hori betetzeko trebakuntza nahikoa eskainiko die».

Ikuskaritza Batzordearen eginkizuna da FIBKSak ondo funtzionatzen duela gainbegiratzea, finantza-informazio arautua prestatu eta aurkezteko prozesuan zehar. Bereziki, legezko errekerimenduak eta oro har onartutako kontabilitate-printzipioak zuzen erabiltzen direla ikuskatzen du. Zeregin horretan, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren laguntza du. Arriskuak kudeatu eta kontrolatzeko sistemak (horien artean FIBKSa) zuzen diseinatu eta ezarrita daudela gainbegiratzen laguntzen dio Ikuskaritza Batzordeari, eta behar bezala eta efizientziaz funtzionatzen dutela egiaztatzen du.

Azkenik, Finantzen Areako zuzendaritzaren mendeko Planifikazioko eta Gestio Kontroleko Departamentuak arriskuak gestionatu eta kontrolatzeko sistemak diseinatzen eta ezartzen laguntzen du, batez ere merkatuetara igortzen den finantza-informazioa prestatu, aurkeztu eta osatzeko prozesuari dagokionez.

### F.1.2 Badaude elementu hauek, batez ere finantza-informazioa sortzeko prozesuari dagokionez?

• Honako hauez arduratzen diren departamentu edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz, (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) Entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.

Antolamendu-egitura diseinatu eta aztertzea Antolamendu Departamentuari dagokio, baina baita lan horretarako area bakoitzak dituen baliabide-premiak aztertzea eta berrikustea ere. Azterketa hori antolamendu-egitura egokitzeko premia dagoenean egiten da, zerbitzu zentraletako area eta departamentuetan, eta, zenbat langile behar diren erabakitzeko ez ezik, unitate bakoitzaren antolamendu-egitura balidatzeko ere egiten da.

Era berean, bulegoen sare komertzialean, bulego bakoitzaren lan-zama neurtzen da, hilean behin, berariaz diseinatutako aplikazio informatiko bat erabiliz. Informazio hori Zuzendaritza Nagusira, Gestio Sozialeko (giza baliabideetako) zuzendaritzara eta Sare Komertzialeko Zuzendaritzara helarazten da, baliabideetan beharrezko doikuntzak egiteko.

Bestalde, Antolamendu Departamentua arduratzen da jarduketa-arlo bakoitzeko erantzukizun- eta aginte-ildoak zehazteaz. Jarduketa-arlo bakoitzean egingo diren zeregin eta lanak ere departamentu horrek zehazten ditu, eta area bakoitzaren gordailuan argitaratu.

2015ean, Antolamenduaren eskuliburua onetsi genuen, erakundeko eginkizunetarako gordailu bakarra, eta, 2016an, langile guztien eskura dagoen intranet korporatiboan argitaratu genuen, entitatearen organigrama orokorrarekin batera.

• Jokabide-kodea, onespen-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (adieraziz eragiketa-erregistroari eta finantza-informazioaren prestakuntzari buruzko berariazko aipamenik dagoen), ez-betetzeak aztertzeko organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzekoa.

Entitateak Etika eta jokabide profesionalaren kodea du. Horren azken eguneratzea 2015eko ekainean onartu zuen Kontseilu Errektoreak.

Etika eta jokabide profesionalaren kodeak finantza-informazioaren fidagarritasunari buruz kontuan hartzeko alderdiak jasotzen ditu, 3.6 atalean. Horien artean nabarmentzekoak dira:

«Caja Laboralak bere finantzetako egoera-orriei eta horietan inpaktu nabarmena izan lezaketen gertakizunei buruzko finantza-informazio fidagarria, zorrotza, osoa eta egokia eman behar du.

Finantza-informazioa indarreko balorazio-printzipio eta -arauetan oinarrituz egiten dela bermatzeko, prozedura jakin batzuk daude ezarrita taldean. Lan-bazkide eta enplegatu guztiek arretaz bete behar dituzte horiek, bai eta informazioa erregistratu eta tratatzeko eginkizunak ere; izan ere, taldearen finantza-informazio publikoa osatzeko prozesuaren oinarri dira.

Erantzukizun horren ezarpena bereziki garrantzitsua da, taldearen finantzetako egoera-orriak egiteko behar diren datu eta txostenei dagokienez. Izan ere, beharrezkoa da horiek egoki erregistratu eta

interpretatzea, kontabilitateko saldo, transakzio edo kontingentzia bakoitzari dagozkion balorazio-irizpideak egoki ezartzen direla bermatzeko.

2015eko ekainean, Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua onartu zen, bai eta Zigor-kodea betetzeari buruzko politika ere. Horrela, berretsi egin da Caja Laboralak arauak eta estandar etikoak errespetatzeko duen borondatea. Horretarako, gainera, zigor-kontuak betetzeko printzipioak ere ezarri ditu. Eskuliburu horri jarraikiz, Etika Batzordeak bere gain hartzen du Etika eta jokabide profesionalaren kodeko printzipioak betetzen direla bermatzeko eta ikuspegi penaletik legez kontrakoak izan daitezkeen jokabideak zaintzeko zeregina.

Bestalde, balore-merkaturako Jokabideen Barne Araudia ere badu Caja Laboralak, eta hauei aplikatzen zaie: bertako Kontseilu Errektoreko kideei, taldeko sozietateen administrazio-kontseiluetako partaideei eta entitatearen balore-merkatuaren alorreko jarduera eta zerbitzuekin zerikusi zuzena duten edo kutxari buruzko informazio garrantzitsurako sarbidea izan ohi duten pertsonei —zuzendariak izan ala ez—.

• Salaketen kanala, Ikuskaritza Batzordea finantzen eta kontabilitatearen alorreko irregulartasunen, jokabide-kodean gertatzen diren ez-betetzeen eta erakundeko jarduera irregularren jakinaren gainean jartzeko, eta konfidentziala den ala ez adierazteko.

Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburua onetsi zela eta, salaketen kanala Etika Batzordeak gestionatzen du. Barne Ikuskaritzako zuzendaria partaide da batzorde horretan.

Salaketen kanal hori taldea osatzen duten sozietateetako bazkide, langile eta administratzaileen eskura dago. Haren funtzionamenduaren araubidea entitateko Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan dago jasota.

Etika eta jokabide profesionalaren kodea urratuz gero, Etika Batzordeari kanal horren bidez jakinarazten zaio indarrean dagoen legeriaren edota barne-araudiaren aurkako eragiketak edo jardunbideak antzeman direla. Ildo beretik, garrantzi handia izan lezaketen irregulartasunen berri ematen zaio, batez ere finantzei eta kontabilitateari lotuta.

Entitatearen Delituei aurrea hartzeko eta erantzuteko eskuliburuan, kanalaren hedadura, edukia eta erabilera daude jasota, eta salaketaren konfidentzialtasuna bermatzen du.

Horrez gain, Ikuskaritza Batzordeak informazioa jasotzen du, aldian behin, Barne Ikuskaritzako Departamentuak egindako lanei eta entitateko jarduera irregularrekin zerikusia duten lanei buruz.

• Prestatzeko eta eguneratzeko aldian behingo programak, finantza-informazioa prestatzeko eta berrikusteko eta FIBKSa ebaluatzeko zereginak dituzten langileentzat; kontabilitate-arauak, auditoretza, barne-kontrola eta arriskuen gestioa behinik behin sartu behar dira.

Entitateak prestakuntza-plan bat du, finantza-informazioa sortzen, prestatzen eta berrikusten zuzenean diharduten langileek behar adinako trebakuntza eta gaitasun profesionala dutela bermatzeko. Horrela, bada, langile horiek indarreko arau-betekizunen berri jasotzen dute, etengabe.

Entitateko prestakuntza-sailak prestakuntzako jarduera eta programak gestionatzen ditu, eta egindako ikastaro guztien eta haien ezaugarrien erregistro eguneratua eramaten du. Ondoren, 2017ko ekitaldian FIBKSaren esparruan emandako ikastaro batzuk zerrendatuko ditugu: arriskuen analisia eta gestioa, araudia betearaztea, finantzetako egoera-orri bateratuen analisia, IFRS 9aren ezarpena…

Prestakuntza-saioak zuzenekoak eta lineakoak izan dira, eta barruko nahiz kanpoko prestatzaileek eman dituzte.

## F.2 Finantza-informazioaren arriskuak ebaluatzea

Azal itzazu hauek behinik behin:

### F.2.1 Zein dira arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak, hutsegitearena eta iruzurrarena barne, alderdi hauetan:

• Prozesua dagoen eta dokumentatuta dagoen.

Entitatearen zuzendaritzak «Committee of sponsoring organizations of the treadway commission» (aurrerantzean COSO) entitateak ezarritako nazioarteko estandarren arabera garatu du FIBKSa. Estandar horietan bost osagai finkatzen dira, barne-kontroleko sistemen eraginkortasuna eta efizientzia oinarritzeko:

• Jarduera horien guztien jarraipena egiteko kontrol-giro egokia sortzea.

• Entitateak bere finantza-informazioa prestatzean izan litzakeen arrisku guztiak ebaluatzea.

• Arriskurik larrienak arintzeko beharrezko kontrolak diseinatzea.

• Informazio-zirkuitu egokiak finkatzea, sistemaren ahultasunak edo eraginkortasunik ezak antzeman eta jakinarazteko.

• Kontrolok monitorizatzea, egoki funtzionatzen dutela eta denboran eraginkorrak direla bermatzeko.

Horrela, finantzetako egoera-orrietan eragin nabarmena duten arriskuak antzemateko prozesuak arreta berezia jartzen du finantza-informazioaren sorrerari eta arrisku horiek gauzatzen diren finantzetako egoera-orrietako area edo epigrafeei lotutako gestio-prozesu kritikoetan. Prozesuak eta areak aztertzeko prozesuan, faktore kuantitatiboak (saldoa eta granularitatea) hartzen dira kontuan, bai eta kualitatiboak ere (prozesuen automatizazio-maila, eragiketen estandarizazioa, kontabilitate-konplexutasunaren maila, aurreko ekitaldiarekiko aldaketak, antzemandako kontrol ahultasunak eta abar).

Finantza-informazioaren barne-kontroleko arriskuak antzeman eta ebaluatzeko prozesua dinamikoa da, etengabeko eboluzioa du denboran zehar eta unean-unean islatzen ditu taldearen negozioaren egoera, horri eragiten dioten arriskuak eta horiek arintzeko kontrolak. FIBKSaren kontrolen eraginkortasuna ebaluatzeko, arriskuak identifikatzeko prozesu hori hartzen da oinarri, antolamenduko eta taldeko negozioetako aldakuntzak aintzat hartuta eta materialtasun-mailari, gertagarritasunari edo kontrol horiek estaltzen dituzten arriskuen balizko eragin ekonomikoari erreparatuta.

• Prozesuak finantza-informazioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioztapena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.

Prozesua diseinatzeko, kontuan hartu dira kotizatutako erakundeen finantza-informazioari buruzko barne-kontrolaren dokumentua izeneko CNMVren gidan agertzen diren finantza-informazioaren helburu guztiak (existentzia eta gertaera, osotasuna, balorazioa, aurkezpena, xehakapena eta alderagarritasuna, eta eskubideak nahiz betebeharrak).

Aurreko atalean adierazi denez, kuantitatiboak eta kualitatiboak dira FIBKSaren diseinuan sartutako arrisku-mota guztiak antzemateko erabili beharreko irizpideak. Gainera, argitaratutako finantza-informazioaren errore- eta iruzur-arriskuak ere hartzen dira aintzat.

Area materialak eta prozesu nabarmenak antzemateko prozesua gutxienez urtean behin egiten da, finantza-informaziorik berriena erabiliz. Gainera, aurrez identifikatu ez diren zirkunstantziak sortzen direnean ere egingo da ebaluazio hori, finantza-informazioan akatsak daudela azaleratzen badute, edo eragiketetan aldaketa handiak gertatzen badira eta, ondorioz, beste arrisku batzuk identifikatzen badira; egoera horietan sar daitezke taldearen egituran aldaketak ekar lezaketen egoerak ere, hala nola aldakuntzak bateratze-perimetroan edo negozio-lineetan, edo gertatutako beste egintza garrantzitsu batzuk.

• Bateratze-perimetroa identifikatzeko prozesurik dagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik edo asmo bereziko erakunderik dagoen.

Entitateak prozedura bat du bateratze-perimetroa identifikatu eta eguneratzeko, eta Esku-hartze Departamentua da erantzulea. Hiru hilean behin, departamentu horrek partaidetzako sozietateen inbentarioa gainbegiratzen du, aldaketarik dagoen ikusteko, eta, hala bada, finantza-informazio bateratua lortzeko sistemetan sartzeko.

• Prozesuak bestelako arrisku batzuen —eragiketen gainekoak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospeari buruzkoak, ingurumenekoak…— eraginak aintzat hartzen baditu, finantzetako egoera-orriei eragiten dieten heinean.

Aurreko puntu batzuetan aipatu denez, ezarritako kontrol-estandarrak eta metodologia direla eta, bestelako arrisku batzuen —merkatuarena, kredituarena, eragiketena, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospeari buruzkoak, beste mota batzuetakoak…— eraginak hartzen dira aintzat, finantza-informazioan eragiten duten heinean.

Eragiketa-arriskuari dagokionez, Caja Laboralak eredu bat du eragiketa-arriskua gestionatzeko. Horren barruan, arriskuak (barruko eta kanpoko iruzur-arriskua, arrisku teknologikoa, eragiketa-arriskua, negozio-jarduerako arriskua eta ezbehar-arriskua) eta horiek arintzeko kontrolak identifikatzen dira, eta horien balorazio kuantitatiboa egiten da. Eredu hori Eragiketa Arriskuaren Batzordeak gainbegiratzen du zuzenean, eta informatika-aplikazio batean eta politiken, prozeduren eta erabiltzaileen hainbat eskuliburutan dago euskarrituta. Barne-auditoretzari dagokio eragiketa-arriskuen balioztapena eta horiei esleitutako kontrolak gainbegiratzea.

• Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.

Arriskua eta kontrolak identifikatzeko prozedura gauzatzearen arduraduna Planifikazioko eta Gestio Kontroleko Departamentua da, Finantzen Arearen mendekoa. Prozedura gainbegiratzeko ardura, berriz, Ikuskaritza Batzordeak du, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren bidez.

## F.3 Kontrol-jarduerak

Esazu halakorik behinik behin baduzun, eta adierazi ezaugarri nagusiak:

F.3.1 Balore-merkatuetan argitaratu beharreko finantza-informazioa eta FIBKSaren deskribapena ikuskatzeko eta onesteko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzetako egoera-orrietan ondorio materialak sor ditzaketen transakzio-mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuei buruzkoa barne). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitate-itxierako prozedura eta iritzi, estimazio, balioztapen eta proiekzio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

Merkatuan argitaratzen den taldearen finantza-informazioa berrikusi eta baimentzeko prozedurak abiatzeko, aurrena berrikusi egiten ditu Finantzen Areako zuzendariak. Barne Ikuskaritzako Departamentuak urteko kontu indibidual eta bateratuak berrikusten ditu, Kontseilu Errektoreak formulatu aurretik. Ikuskaritza Batzordeak informazioa irakurri eta Finantzen Areako eta Barne Ikuskaritzako arduradunekin eta kanpo-auditoreekin eztabaidatzen du, Kontseilu Errektoreari bidali aurretik.

Entitateak bere area eta departamentuetako prozedura-eskuliburuak ditu, baita finantza-informazioari buruzko kontrol-areetakoak ere, finantzetako egoera-orrietan eragin materialak izan ditzaketen transakzioekin zuzeneko lotura duten jarduera eta kontrolak gauzatzeko. Eskuliburu horiek areek euren egin eta Kontseilu Errektoreak onesten ditu.

Prozeduretan, organigrama, prozesuan parte hartzen duten eginkizunak eta sistemak, eta prozesuaren ezaugarriak daude jasota. Orobat, arriskuaren eta kontrolen matrizeetan atal hauek ageri dira, besteak beste:

- Arriskuaren deskribapena
- Kontrol-jarduera
- Kontrolaren sailkapena: funtsezkoa/estandarra
- Kontrolaren kategoria: prebentziozkoa/detektatzekoa
- Metodoa: eskuzkoa/mistoa/automatikoa
- Kontrola euskarritzen duen sistema
- Kontrolaren eragilea eta arduraduna
- Kontrolaren maiztasuna
- Kontrolaren ebidentzia

Ondoren, entitatearen finantza-areei lotutako prozesu nabarmenak zehaztu dira (zeharkako prozesuak eta negozio-prozesuak bereiziz); horietarako aurretik aipatutako dokumentazioa dago:

Zeharkako prozesuak:

• Kontabilitate-itxiera
• Finkatzea
• Gestio fiskala eta legala
• Kontrol informatiko orokorrak
• Iritzi eta estimazioak

Negozio-prozesuak:

• Kreditu-inbertsioa
  - Ematea
  - Jarraipena eta berreskurapena
• Finantza-tresnak
• Zorra ordaintzeko jasotako aktibo higiezinak

Lehen aipatutako dokumentazio deskribatzaileak hauek hartzen ditu barne:

• Identifikatutako prozesuetako bakoitzean parte hartzen duten areen eta departamentuen xehetasuna.
• Hasiera-hasieratik prozesuarekin zerikusia duten jardueren prozedurei, kontrolei eta egiaztapenei buruzko finantza-informazioa nola sortu adierazten duen deskribapena.
• Prozesu bakoitzean parte hartzen duten sistema informatikoen identifikazioa.
• Entitatearen finantzetako egoera-orrietan eragin materiala duten arrisku nabarmenen identifikazioa.
• Kontrolen identifikazioa eta deskribapena, eta aurretik antzemandako arriskuekin lotzea.

Caja Laboralean, kontabilitate-itxierako prozesua mekanizatua dago: kontabilitatea automatikoki egiten da entitatearen aplikazioen bidez. Lehen prozesua egindakoan, Esku-hartze Departamentuak informazioa berrikusi eta aurreko hileko datuekin zein aurreikusitako zifrekin alderatzen du, hileko balantze-itxiera eta emaitza-kontua balidatzeko.

Filialen kontabilitate-itxiera dagokien entitateak egiten du, eta, higiezinen sustapeneko sozietate batzuen kasuan, kontrataturiko hirugarren batek. Filialen informazioa jasotakoan, Caja Laboraleko Esku-hartze Departamentuak berrikusi egiten du, baterakuntza-prozesua egiteko.

Urteko kontuetan agertzen denez, behar izan denean estimazioak erabili dira, zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko. Estimaziook entitate nagusiko eta partaidetzako erakundeetako goi-zuzendaritzako kideek egin dituzte eta administratzaileek berretsi. Entitateak iritziak edo estimazioak egiteko aukera ematen duten arlo nagusien nondik norakoak islatzen ditu urteko kontuotan, bai eta horien guztien inguruan taldeak aurreikusitako funtsezko hipotesiak ere. Estimaziorik garrantzitsuenek hauek dituzte oinarri:

• Zenbait aktibo narriatzeagatiko galerak
• Aktibo materialeko eta aktibo ukiezineko elementuei aplikatutako balio-bizitza
• Finkatzeko merkataritza-fondoaren balioztapena
• Kotizatu gabeko zenbait aktiboren arrazoizko balioa
• Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera
• Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak
• Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko konpromisoak eta pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak
• Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren bilakaera

Horrez gain, Caja Laboralak iritzi eta estimazioak egiteko politika orokor bat du ezarrita FIBKSaren barruan. Aintzat hartu beharreko alderdi guztiak eta horiek prestatu eta berrikusteko erantzukizunak zehazten ditu politika horrek.

F.3.2 Finantza-informazioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasuna, aldaketen kontrola eta jarduketak, jarraikortasun operatiboa eta funtzio-bereizketa).

2017ko ekitaldian zehar, Segurtasun Integralerako Plan Zuzentzailea garatzen jarraitu dugu. Plan hori segurtasun-diagnostikoaren ondorioz egin zen; diagnostikoa, berriz, segurtasun integrala aztertzeko eta gobernuaren, zaintzaren, babesaren eta erresilientziaren alorretan hobekuntzak antzemateko.

Gobernuaren alorrean, aurretik segurtasun-politika integrala onetsita bazegoen ere, Segurtasunaren Arau Multzo berria onartu da. Segurtasuneko derrigorrezko eskakizun korporatiboak jasotzen dituen dokumentu-multzoa da. Area bakoitzaren helburua eta

segurtasun-arlo bakoitzean ezarri beharreko berariazko kontrolak zehazten dituzten estandar korporatiboak xehakatzen dituzte horietan finkatu diren politikek. Segurtasuneko Arau Multzoa entitate osoan ezarriko da, eta dagoeneko finkatu dira bertako atazak aurrera eramateko arduradunak eta horien eginkizunak. Une honetan, ezagutarazteko fasean dago.

Babesari dagokionez, identitateen gestioaren ekimena jarri da abian. Erabiltzaileen altak, bajak eta aldaketak gestionatzeko politikak eta prozedurak dagoeneko baditugun arren, ekimen honen helburua da hornikuntzaren gestioa, alten eta bajen prozesuak, rolen gestioa eta horien blokeo eta monitorizazioak are gehiago hobetzea, arreta berezia ezarriz erabiltzaile pribilegiatuen gestioan.

Erresilientziaren alorrean, negozioaren jarraitutasuna gestionatzeko sistema garatzen jarraitzen dugu, eta dagoeneko amaitzen ari gara berreskurapen-estrategia berriak, krisiak gestionatzeko planak eta berreskurapen-planak.

Entitateak datuak prozesatzeko bi zentro ditu, elkarrengandik urruti, zein berre sarreren kontrolarekin, zaintzarekin eta segurtasuneko gainerako neurriekin (arrisku potentzialak aztertu ostean ezarri dira).

F.3.3 Hirugarrenei azpikontratatutako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontroleko politikak eta prozedurak. Kanpo-adituen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioespenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

Entitateak hirugarrenek gauzatutako jarduerak berrikusten ditu aldizka, ikusteko zein diren garrantzitsuak finantza-informazioa osatzeko prozesuan eta zeinek eragin dezakeen zeharka bere fidagarritasunean. Gaur arte, entitateak ez du kanporatu finantza-informazioan eragin garrantzitsua duen prozesurik. Halere, entitateak aditu independenteen txostenetara jotzen du, finantzetako egoera-orrietan eragin materiala izan dezaketen jardunbideen balioespenak ezagutzeko.

2017ko ekitaldian, hauek izan dira aditu independenteen balorazio eta kalkuluei lotuta hirugarrenei agindutako jarduerak: esleitutako higiezinen tasazioen ingurukoak eta Caja Laboraleko kreditu-zorroko eragiketen bermetzat erabiltzen diren higiezinen ingurukoak.

Entitateak kontrolak ditu ezarrita, tasazio-sozietateen jarduerari lotutako arriskuak arintzeko. Eragiketez arduratzen diren departamentuek gauzatzen dituzte kontrol-eginkizunok, eta baloratzaileen independentzia eta balorazioen kalitatea bermatzea dute helburu. Era berean, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren laguntza ere jasotzen du ezarritako prozeduren eraginkortasuna egiaztatzeko.

## F.4 Informazioa eta komunikazioa

Esazu halakorik behinik behin baduzun, eta adierazi ezaugarri nagusiak:

F.4.1 Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), antolakundeko eragiketa-arduradunekiko etengabeko harremanen bidez gauzatu beharrekoa. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, entitateari atxikitako unitate guztiek eskuragarri izango dutena.

Esku-hartze Departamentuak entitateko eta sozietate filialetako kontabilitate-politikak identifikatzen, finkatzen eta jakinarazten ditu, eta sozietate filialek eta entitatearen negozio-unitateek kontabilitate-gaiez egiten dizkioten galderei erantzuten die.

Entitateak kontabilitate-eskuliburu bat du finantza-informazioa prestatzeko moduei buruzko arauak zehaztu eta argitzeko. Halaber, arau horiek entitateko eragiketetan nola erabili ere argitzen du; adibidez, sozietateko filialentzako baterakuntza-paketeak. Dokumentu horietan, transakzio-mota bakoitzerako arauak zehatz-mehatz aipatzeaz gain, horien interpretazio zuzenak eman eta azaldu egiten dira, egoki bete daitezen.

Hizpide ditugun dokumentuak aldian-aldian eguneratzen dira, eta aldaketa edo eguneratze garrantzitsu guztiak dagozkien sozietateei jakinarazten zaizkie.

Baterakuntza-paketeak taldeko sozietate filial bakoitzak egin behar ditu, eta Esku-hartze Departamentua arduratzen da partaidetzako sozietate horiek taldeak ezarritako kontabilitate-politikak betetzen dituzten gainbegiratzeaz. Departamentuak, filialen informazioa aztertu eta berrikusi ondoren, egoki deritzen zuzenketak egiten ditu.

Finantza-informazioaren inguruko arauetan finantzetako egoera-orrietan eragin dezakeen edozein aldaketa egiten denean, Esku-hartze Departamentuaren ardura da kontabilitate-arauak berrikustea, aztertzea eta eguneratzea. Era berean, departamentu horrek du aldaketa edo eguneratzeok entitateko negozio-unitateei eta filialei jakinarazteko ardura.

Entitateak eta bere taldeak aplikatzen duten kontabilitateko finantza-informazioaren esparruak hauek hartzen ditu barne: (I) Europar Batasunak onartutako finantza-informaziorako nazioarteko arauak eta (ii) Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra —4/2017 Zirkularrak indargabetu zuen, 2018ko urtarrilaren 1ean—.

### F.4.2 Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta FIBKSari buruzko finantza-informazioa formatu homogeneoen bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, entitateko edo taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

Finantza-informazioa egiaztatzeko datuak osoak, zehatzak eta egokiak direla eta horiek dagokien unean eta moduan jakinarazten direla bermatzeko kontrol-neurriak daude. Finantza-informazioa bateratu eta prestatzeko prozesua zentralizatuta du entitateak.

Prozesuan zehar, sozietate filialek jakinarazitako finantzetako egoera-orriei buruzko baterakuntza-paketeak *input* gisa erabiltzen dira, ezarritako jarraibideen eta formatuen arabera, eta eskatutako gainerako finantza-informazioarekin beste horrenbeste egiten da, bai kontabilitateko harmonizazio-prozesuan, bai ezarrita dauden informazio-beharrak estaltzeko. Sozietate filialek emandako finantza-informazioa Esku-hartze Departamentuak berrikusten du.

Entitateak zenbait kontrol ditu ezarrita, sozietate filialek eta negozio-unitateek helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna eta erabilera zuzena bermatzeko. Horrela, besteak beste, baterakuntza-idazpenen zuzentasuna eta emaitzen eta aurrekontuen arteko aldeak gainbegiratu eta Espainiako Bankuak finkatutako egoera-orrien kontrolak egiten ditu, balantzeko partidak eta emaitza-kontuak konparatzeko.

## F.5 Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzea

Azal itzazu, ezaugarri nagusiak aipatuz, hauek gutxienez:

### F.5.1 Ikuskaritza Batzordeak FIBKSa gainbegiratzeko gauzatu dituen jardueren berri emateaz gain, entitateak barne-auditoretzako funtziorik egiten duen adieraziko da. Horietako funtzioetako bat barne-kontroleko sistema (FIBKSa barne) gainbegiratzen ari den batzordeari laguntzea izango litzateke.

Halaber, ekitaldiko FIBKSaren ebaluazioaren berri emango da, bai eta ebaluazioaren arduradunak emaitzak jakinarazteko erabilitako prozeduraren berri ere. Azkenik, entitateak kasuan kasuko neurri zuzentzaileei buruzko ekintza-planik ba al duen eta finantza-informazioan izango duen eragina kontuan hartu duen zehaztuko da.

Barne-auditoretzako zerbitzua gainbegiratzeaz gain, Ikuskaritza Batzordearen zereginetako bat da finantza-informazioa landu eta aurkezteko prozesua eta sozietatearen barne-kontroleko sistemak gainbegiratzea. Jarduera horiek Barne Ikuskaritzako Departamentuan eskuordetzen ditu.

Barne Ikuskaritzako Departamentuak lau atal ditu, funtzioak egoki betetzeko: Finantza Unitateen Ikuskaritza, Bezeroak Kudeatzeko Unitateen Ikuskaritza, Urruneko Ikuskaritza eta Informatika Ikuskaritza. Finantza-informazioaren fidagarritasuna bermatzeko, prozedura- eta kudeaketa-jarduketen eraginkortasuna ziurtatzeko, barne- eta kanpo-arau aplikagarriak betetzeko eta Entitatearen ondarea babesteko beharrezkoak diren barne-kontroleko neurriak ezartzea da area horren zeregin nagusia.

Bestalde, entitatearen Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodearen arabera, merkatura helarazitako finantza-informazioaren fidagarritasuna une oro bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-prozedura eraginkorrak diseinatzea eta ezartzea ere Zuzendaritza Batzordearen eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ardura da.

Bere helburua lortzeko, Barne Ikuskaritzak ikuskapen programatuak gauzatu ohi ditu, arriskuak kontrolatzeko ezarritako sistemak berrikusteko, barne-jarduketen prozedurak aztertzeko eta unean uneko kanpo- eta barne-arau aplikagarriak zenbateraino bete diren ikusteko.

Garrantzi berezikotzat jotako prozesuen berrikuspena bere urteko jarduketa-planean sartzen du Barne Ikuskaritzako Departamentuak, guztiak hiru urteko epean berrikusita izateko helburuarekin. Garrantzi berezikotzat jotako zenbait arlo edo prozesu kanpo uzten ditu, besteak beste kontabilitate-itxieraren prozedura, iritzi eta estimazioak berrikustea eta informazio-sistemen gaineko kontrol orokorrak; izan ere, horiek urtean behin ebaluatzen dira.

2017ko ekitaldian FIBKSari egindako gainbegiratze eta ebaluazioak berrikuspen hauek hartu ditu barne:

• Kontabilitate-itxierako eta baterakuntzako zeharkako prozesuen berrikuspena. Horrez gain, Caja Laboralak argitaratutako finantza-informazioa landu eta aurkezteko prozesua gainbegiratu da.

• Zuzkidura eta pasibo kontingente garrantzitsuak kalkulatzeko erabilitako iritzi eta estimazioen berrikuspena.

• Kontrol orokor informatikoen zeharkako prozesuaren berrikuspena.

• Legearen eta zergen alorreko gestioaren zeharkako prozesuaren berrikuspena.

2017an egin den FIBKSaren berrikuspenaren eta ebaluazioaren emaitza Ikuskaritza Batzordeari aurkeztu dio, aldian behin, Barne Ikuskaritzako Departamentuko zuzendariak.

F.5.2 Eztabaida-prozedurarik dagoen. Prozedura horren bidez, kontu-auditoreak (auditoretzako arau teknikoetan xedatutakoari jarraikiz), barne-auditoretzako funtzioen arduradunak eta gainerako adituek urteko kontuak berrikusteko prozesuetan edo unean uneko bestelako jardunbideetan zehar lortutako informazioa goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei helaraziko dio. Era berean, behatutako ahultasunak zuzentzeko edo indartzeko ekintza-planik dagoen jakinaraziko da.

Ikuskaritza Batzordea ekitaldi bakoitzean birritan biltzen da kanpo-ikuskariarekin.

• Behin, urteko auditoretzarako behin-behineko bisitaren ondoriozko atariko lana bukatzen denean. Kanpo-auditoreak ondorioen berri ematen du bertan.

• Beste behin, urteko kontuen formulazioari ekin baino lehen. Kanpo-auditoreak bere lanaren behin betiko ondorioak ezagutarazten ditu bertan.

Kontu-auditoreak goi-zuzendaritzarekin eta Barne Ikuskaritzako zuzendaritzarekin zuzeneko harremanak izan eta bilerak egiten ditu aldizka, bere lanerako behar duen informazioa lortzeko eta aurkitutako ahultasunez mintzatzeko.

Kanpo-ikuskariak barne-kontrolaz egindako iradokizun eta gomendioen memoranduma Ikuskaritza Batzordeari aurkezten zaio lehenbizi, eta, gero, entitatearen Kontseilu Errektoreari, onar dezan. Dokumentu horretan, Zuzendaritza Nagusiak gomendio bakoitzari buruz egindako iruzkinak eta, dagokionean, ahultasunak zuzentzeko ekintza-planak edo neurriak jasotzen dira.

Azkenik, kanpo-auditoreak emandako gomendioen garrantziaren arabera, barne-auditoretzako urteko planak ezarritako neurrien jarraipena egitea ere aurreikusten du.

Barne Ikuskaritzak egindako lanen emaitzari dagokionez, departamentuko zuzendariak ikuskatutako zentroko arduradunei eta, garrantziaren arabera, Zuzendaritza Kontseiluari eta Ikuskaritza Batzordeari aurkezten dizkie txostenak. Gainera, txostenetan proposatutako gomendioen ezarpen-mailaren jarraipena egiten du.

Bestalde, Barne Ikuskaritzako Departamentuaren zuzendaritzak eskatuta, Ikuskaritza Batzordea gutxienez hiru hilik behin biltzen da, bere erantzukizunetako bat betetzeko, alegia: Zuzendaritzaren lan nagusiei buruzko xehetasunak jasotzeko.

## F.6 Bestelako informazio garrantzitsua

## F.7 Kanpo-ikuskariaren txostena

Jakinaraz ezazu honako hau:

F.7.1 Merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa kanpo-ikuskariak gainbegiratzen duen. Hala bada, entitateak haren txostena Eranskin gisa aurkeztuko du. Bestela, arrazoien berri eman beharko du.

Entitateak ez du beharrezkotzat jo merkatuetara helarazitako FIBKSaren informazioa aztertzeko eskatzea kanpo-auditoreari.

# G BESTE ARGIBIDE INTERESGARRI BATZUK

Entitatean edo taldeko sozietateetan gobernu korporatiboaren alorrean alderdi garrantzitsuren bat txosten honen gainerako ataletan jaso gabe geratu bada eta sartu beharrekoa bada entitatearen edo taldearen gobernuaren egiturari eta jardunbideei buruzko informazio osatu eta arrazoituagoa emateko, azal ezazu labur-labur.

Atal honen barruan, txostenaren aurreko atalen inguruko beste edozein informazio, azalpen edo xehetasun jaso ahal izango da, baldin eta garrantzitsua bada eta ez bada errepikatzen.

Hain zuzen ere, adieraziko da gobernu korporatiboaren alorrean entitatea Espainiakoa ez den beste legeria baten mende dagoen. Hala baldin bada, eman ezazu txosten honetan eskatutakoaz gain entitateak eman beharrekoa den informazioa.

Entitateak aukera du, halaber, bere borondatez nazioarteko, sektoreko edo bestelako printzipio etikoen edo jardunbide egokien kode batzuetara atxiki den adierazteko. Hala bada, kode horren eta atxikitze-dataren berri emango du entitateak.

1.- Informazio honek A. Jabetzaren egitura atala osatzen du:

Caja Laboraleko bazkide diren kooperatiba eta horien merkataritza sozietate gehienak Mondragonen parte ere badira. Caja Laborala ere partaide duen korporazio hori askatasunez elkartutako kooperatiben elkartea da. Kooperatibok lankidetza-balioak partekatzen dituzte, eta elkarrekin jardunez lehiarako abantailak lortzea dute helburu.

Caja Laboralak aurreko ekitaldiko soberakinen % 15eko diru-laguntza (zergak eta kapitalerako interesak ordaindu ondoren) ematen die urtero MONDRAGON Inversiones S. Coop. sozietateari eta MONDRAGON Fundazioari (biak ere korporazioko partaide diren edo bertan elkartutako kooperatibek osatuta daude). Zenbateko hori Kooperatiba arteko Fondo Sozialetik (KFStik) kentzen da.

2.- Informazio honek C.1.5 Kontseilarien ordainsariak atala osatzen du:

Kontseilari lan-bazkideek ez dute ordainsaririk jasotzen Kontseilu Errektoreko kide izateagatik, langile moduan entitatean egiten duten lanagatik eskuratzen dutenaz gain. Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute inolako ordainsaririk jasotzen kontseilari izateagatik.

Caja Laboralak ordaindu egiten du lehendakariaren lana. Horretarako, zehaztutako prozeduren bitartez, kreditu-erakundeetarako araudiaren alorrean Caja Laboralak finkatutako ordainsariei buruzko irizpideak aplikatzen ditu.

Gobernu korporatiboaren urteko txosten hau entitateko administrazio-batzorde edo -organoak onetsi du, 2018-02-28an egindako bilkuran.

Adieraz ezazu administrazio-organoko zein kide edo kontseilarik eman duen txosten hau onestearen aurkako botoa eta zein abstenitu den.

Txosten hau aho batez onetsi da.

**CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO**

**URTEKO KONTU BATERATUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUA, 2017 EKITALDIKOAK**

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko kideek esan dutenez, urteko kontu bateratu hauek kontabilitate-printzipio aplikagarrien arabera egin dira, eta Entitate Nagusiaren eta haren mendeko sozietateen ondare bateratuaren, finantza-egoera bateratuaren eta emaitza bateratuen berri ematen dute. Bestalde, honekin batera doan kudeaketa-txostenean Taldearen 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko bilakaeraren eta emaitzen azterketa zorrotza egin dela ere esan dute.

Ondorioz, Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko (Entitate Nagusiko) Kontseilu Errektoreko kideek 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion kudeaketa-txostena eta urteko kontu bateratuak formulatu dituzte 2018ko otsailaren 28an. Urteko kontu bateratuetan honako hauek sartzen dira: 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko txosten bateratua, balantze bateratua, galdu-irabazien kontu bateratua, onartutako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratua, ondare garbian gertatutako aldaketen egoera-orri bateratua eta eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua. Ados daudela erakusteko, guztiek orri hau sinatu dute. Bestalde, Kontseilu Errektoreko idazkariak dokumentu horietako orri guztietan sinatu du, horiek identifikatu ahal izateko.

| | | |
|---|---|---|
| Txomin García Hernández jauna<br>(Lehendakaria) | Luis Mª Ugarte Azpiri jauna<br>(Lehendakariordea) | Adolfo Plaza Izaguirre jauna<br>(Idazkaria) |
| Elena Zarraga Bilbao andrea<br>(Kidea) | Ainhoa Gallastegui Martínez andrea<br>(Kidea) | Javier Oleaga Mendiarach jauna<br>(Kidea) |
| Francisco Jose Dean Pueyo jauna<br>(Kidea) | Maria Carmen Iñurria Landeras andrea<br>(Kidea) (*) | Nagore Larrabeiti Libano andrea<br>(Kidea) |
| Maria Esther Korta Errazkin andrea<br>(Kidea) | Pablo Luis Bringas Velez jauna<br>(Kidea) | Itziar Elgarresta Ibarrondo andrea<br>(Kidea) |

(*) Maria Carmen Iñurria Landeras andreak ez ditu 2017ko ekitaldiko urteko kontuak sinatu, Kontseilu Errektorea egin zen egunean laneko bidaia batean zegoelako.